

IRAIZOZKO P.A.K



YESU-KRISTO
GURE YAUNAREN BIZIA

R. 2211

YESU-KRISTO GURE

YAUNAREN BIZIA



ABBA
PATER

JOE
SANDROVICH ©.16

N. 29,52
R. 16831
ATU 12820

YESU-KRISTO GURE

YAUNAREN BIZIA



lau Ebangelioetatik itzez-itz

atera ta

IRAIZOZ'KO POLIKARPO A.

Kaputxinoak euskeraz yaria.



Neketako Ama-Birjiñaren Irarkolan
Iruña'ko Kaputxinoetan.—1934.

NIHIL OBSTAT

Fr. Seraphinus a Tolosa O. M. C.

Censor Ordinis.



IMPRIMATUR

FR. LADISLAUS A YABAR

Min. Prov.

NIHIL OBSTAT

Xaverius Gorosterratzu, C. SS. R.

Censor.



PAMPILONE, 29 DECEMBRIS 1932

IMPRIMATUR

† THOMAS, Episcopus Pampilonensis.

SARERA

Yesu-Kristo gure Yaunak esan digu bere Ebangelioan: «Auxe da betiko bizia: Zu, egiazko Yainko bakar ori ta zuk bidalitako Yesu-Kristo ezagutzea.» Ortara ezkerro, betiko bizia iritxi nai badugu, orixe izan bear litzake mundu onetako gure eginkizunik nausiena: gure al guziaz Yesu-Kristo ongi ezagutzen saiatzea.

Euskaldun kristauei eginkizun ortan laguntzeko asmotan argitaratzen dugu liburu au, *Yesu-Kristoren bizi au*. Orain dirala zortzi urte asi genuen lan au, ta geroztik ileroko oñitxo batean puskeka argitaratuz etoñi gera. Orain orde a guzia liburu batean bildurik agertarazten dugu.

Ementxe arkituko dituzu bada, euskaldun irakurlea, Yesu-Kristo gure Yaunak lur onetan egon zan bitartean esan

ta egin zituenak. Baña liburu onetan
eztut nik nere burutik ezer ere asmatu,
guzia lau Ebangelioetatik artua dago.
Nik lau Ebangelio oietako beñi guziak
batera bildu ta euskeraz yañi besterik
eztut egin.

Lau Ebangelioak.

Yesu-Kristo, mundu onetako bere la-
na bururatu ondoan, zerura igo zan.
Baña auñetik berexi zituen amabi gizon
(amabi Apostoluak), berak asitako la-
na auñera eramán zezaten. Amabi Apos-
toluak Yesusekin ibiliak ziran, aren
esan-egiñak ikusi ta entzun zituzten.
Zerura baño lentxeago, Yesusek esan
zien bere ikasle oiei, mundu guzian
barna zabaltzeko ta bere Ebangelioa,
berak zerutik ekañitako *Beñi-ona* yen-
de guziai irakasteko. Alaxe egin zuten
Apostoluak: Yesus zerura igo ta laster,
asi ziran ikusi ta aditu izan zuten guzia
predikatzen ta irakasten, lenbizi Yeru-
salem-en, gero Yudu-eñian ta gero lu-
bil (lurbira) osoan.

Baña gizona atzenkoña da, eñaz atzentzen edo aztutzen zaio bein aditu ta ikasi duena. Oñegatik, Apostoluak ere beldur ziran, beren irakatsiak noiz-pait aztu ta galduko ote ziran. Eta olakorik gerta etzedin, beren irakatsi oiek beti kristauen gogoetan iraun zezaten, Yesu-Kristoren esan-egiñak idaztea, liburutan yartzea gogoratu zitzaien. Oñela sortu ziran Ebangelioak deritzaien liburuak. Elizaren lenbiziko urte aietan olako liburu asko ta asko agertu ziran; baña Eliza Ama Sanduak aietako lau bakañik artu ditu ontzat, Mateo, Marko, Luka ta Yoan Sanduak egindako Ebangelioak; auek bakañik dauzka siñesgañitzat eta Yainkoak gogoraemandakotzat; beste gañerako guziai ezte siñesterik ematen; gizonen asma-karitzat dauzka.

Nor ziran lau Ebangelariak?

Or aipatu ditugun lau gizon oietako bi, Mateo ta Yoan, Apostoluak ziran,

Yesusen lagunak, Yesusekin ibili ziran au predikatzen ibili zan arte guzian, aren esan-egin guziak beren belariz aditu ta beren begiz ikusi zituzten. Gerroztik berak ikusi ta entzundakoa kontatzen digute beren liburuetan.

Beste biak, Marko ta Luka, etziran Apostolu izan, bai ordea Apostoluen lagun. Apostoluai aditu ta ikasitakoa kontatzen digute beraz. Oietako bakoi-tzaz bi itz esan bear ditugu.

1) *Mateo Sandua*. Lenbizi zerga-biltzalea izan zan; olakoai oso begi txarrez begiratzen zieten Yuduak, yende galdutzat zeuzkaten. Bein batez, bere zerga-biltegian eseria zegola, Yesusek beregana deitu ta bere Apostolu egin zuen. Ordu-ezkero beti Yesusekin ibili zan. Gure Yauna zerura igo ezkerro, predikatu zuen auena Yudueñian ta gero, uste danez, Etiopian. 50'gañen urte inguruan, Yesus zeruratu ta 17'ren bat urteren buruan ondu zuen bere Ebangelio-liburua. Eta kristau-eginda-ko Yudentzat egin baitzuen, aiek or-

duan ibiltzen zuten izkuntzaz, arame-
eraz idatzi zuen.

2) *Marko Sandua*. Barnaba Apos-
toluaren aide urbiġa zan; zenbait den-
boraz Paulo ta Barnabarekin ibili zan
predikatzen. Geroago Eróman ageri da
Pedro ta Paulo Apostoluekin. Erómako
kristaudentzat idatzi zuen grekeraz be-
re Ebangelioa, 55'gañen urte inguruan.
Pedro Sanduari entzundakoa kontatzen
digu bere liburu ortan.

3) *Luka Sandua*. Siria-ko Antio-
kian yaoia zan, uste danez; sendatza-
lea zan ta zenbaitzuk diotenez, mar-
gazkaria ere bai. Eztakigu noiz egin
zan kristau. Paulo Apostoluarekin ibili
zan predikatzen. Onekin ta Yesusen
beste lagun batzuekin ikasia kontatzen
digu bere Ebangelioan. Alaxe aitortzen
du berak: ardura aundiz ibili zala Yesu-
si buruzko beñi alik geienak biltzen ta
beñi oiek leño leño idaztera saiatu zala.
61'gañen urte inguruan ondu zuen bere
liburu ori grekeraz, Eróman zegola.

4) *Yoan Sandua*. Zebedeo-ren se-

mea ta Yakobo Aundiaren anaia zan. Bere aita ta anaia bezela, aiantzalea izan zan, Yesusek bere ondora deitu arte. Yesusek auxe izan zuen maitena Apostoluen artean, eta iltzerakoan onen kontura utzi zuen bere Ama maitea. Añena Yudu-erian, gero Efeso-n ta beste zenbait lekutan predikatu zuen. Adin aundian, 100'en bat urte zituela il zan. Asia-Txikiko kristaumentzat idatzi zuen bere Ebangelioa, 90'gañen urte inguruan; onek ere grekeraz egin zuen. Yesu-Kristo etzala Yainko, gizon uts bat besterik etzala esaten asiak ziran orduko zenbait yende; eta oiei erantzuteko ta Yesu-Kristo egiaz Yainko zala erakusteko idatzi zuen bere liburua. Ofegatik Yesusen Yainkotasuna adiara-zi lezaketen esan ta egiñak aipatzen ditu batez ere bere Ebangelio ortan.

Guk egin duguna.

Yesu-Kristo gure Yaunari buruz dakizkigun beñi guziak lau gizon oiei zor dizkiegu bada, oiek kontatu-ta dakizki-

gu. Baña lau Ebangelari oiek ez dizki-
gute beti berdin kontatzen Yesusen
esan-egiñak; batzutan bai lauak ber-
din, beste batzutan beñiz batek alde ba-
tera, besteak bestera; batek geiago,
besteak gutxiago; batek gertakari bat
jakiñarazten digute, besteak beñiz ez.

Guk auxe egin dugu bada: lau gizon
oiek beren liburuetan dakarzkiten beñi
guziak beren itzekin, guk geren itzik
sartu gabe, batera bildu ta gero ori eus-
keraz yañi euskaldunentzat. Gure lan
au egiteko, beste izkuntzetan eginkako
liburu asko begien aúfean iduki ta aie-
taz baliatu gerala aitorzen dugu.

Euskaldun kristauak maiz ta gogoz
irakuñi dezatela liburu au; ta mundu
onetan dugun eginbeañik aundiena be-
tetzen, Yesu-Kristo gure Yauna gero ta
obeki ezagutzen ta maitatzen lagundu-
ko diela uste dugu.

Orixe nai luke biotz-biotzez

EGILEAK

Lekaroz-ko Aztetxean, 1932-ko Gabon-iñean.

LENBIZIKO ZATIA

Yesu-Kristoren Yaiotza ta Aurtzaroa

1-Itzaurea

(Luc. 1, 1-4)

Lagun asko saiatu izan dira gure artean gertatu diran gauzen berria ematen. Lenbizitik gertakari oien ikusle ta itzaren mirabe (irakasle) izan diranen esanez baliatu dira ortarako. (1)

Neri ere on iduritu zait, gertakari guzi oiek beren asieratik zearo ezagutzen saiatu ondoan, zuretzat Teofilo guziz bikaña, leño leño idaztea. Oñela ezagutuko duzu irakatsi zaizkitzun beñi oien zeaztasuna.

2-Joan Bataiatzalearen sortzea

(Luc. 1, 5-25)

Yudeako eñege Heroderen egunetan izan zan Zakaria izeneko apaiz bat,

(1) Itzaren mirabe (serbitzari) edo irakasle oiek Apostoluak dira; auek autatu ta berexi zituen Yesu Kristok bere itza, bere irakatsjak mundu guzian barna zabaltzeko.

Abia-ren sailekoa (1); aren emaztea Aaron-en alabetakoa zan ta Elisabet zuen izena. (2) Yaunaren aurrean zuzentzuak ziran biok, eta Yainkoaren lege ta aginduetan ibiltzen ziran utsik egin gabe. Aurrerik etzuten ordea, Elisabet agorria zalako, ta biak urtetan aufferatuak.

Bein Yaunaren aurrean apaiz-eginkizunak betetzen ari zan, bere sailaren txanda zalako (3). Apaizen oitura zanez, zotz-egin zuten, (4) ta yauretxera sartu ta intzentsua eferetzeko zotza atera zitzaion. Eferiko gizatalde guzia atarian zegoen otoitz egiñez intzentsu-orduan. Beingoan Yaunaren Aingeru bat agertu zitzaion intzentsu-aldarearen eskuinaldean. Ura ikustean Zakaria izutu zan

(1) *Abia-ren sailekoa*. Ogei ta lau sailetan berexiak zeuden Israelgo apaiz guziak; Abia-ren sail ori zortzigarrena zan. (I Par. XXIV, 10)

(2) Yakiña da ta esan beaurik ere eztago, Testamentu Zarako apaizak zilegi zutela ezkontzea.

(3) Apaiz-sail bakoitzak aste osoan bete bear zituen Yaunaren etxeko eginkizunak, txandaka.

(4) Goiz ta aratsero sartzen zan apaiz bat yauretxera (Yaunaren etxera) Yaunari intzentsua eskañi ta eferetzeko; eta zein apaiz yoango zan yakiteko, zotz egiten zan.

ta belduñak artu zuen. Aingeruak ordea esan zion:

«Ez beldur izan, Zakaria, zure otoi-tza aditu izan da; zure emazte Elisabet-ek sortuko dizu seme bat eta Yoan izena emango diozu. Pozgañi da atse-gingañi izango da ori zuretzat, eta oñen yaiotzeaz poztuko dira lagun asko, Yaunaren begietan aundia izango da ta. Ardo naiz beste mozkorgañirik eztu edango, ta bere amaren sabelean bertan Ats (espiritu) Sanduaz beteko da. Israeldar asko beren Yainko Yaunagana itzularaziko ditu, ta Yaun beraren auñean yoango da Elia-ren atsaz ta indañaz, aiten biotzak auñenganatzeko, siñeskaitzak zuzentsuen zuurtziara ekartzeko ta oñela Yaunari gogo oneko eñi bat apaintzeko.»

Zakariak esan zion Aingeruari: «Zertaz ezagutuko dut nik ori? Ni zaña naiz ta nere emaztea urtetan auñeratua (1).»

(1) Zalantzan dago Zakaria ta aingeruak agintzen diona gertatuko danik eztu siñesten; oñegatik merezi izan zuen Yaunaren zigoñada.

Aingeruak erantzun zion onela: «Gabriel, Yainkoaren aurrean nagoena nauzu ni, orain zuri itzegitera ta beñi on au ematera bidalia. Eta bere aldian beteko diran nere itz auek siñetsi ez dituzulako, muturik egongo zera ta ezin itzegingo duzu, gauza auek gertatuko diran egunera arte.»

Bitartean eñi guzia Zakaria-ren zain zegoen ta yauretxean luzatzen zuelako añitzen zan. Atera zanean, ezin itzegin zezaieken ta yauretxean ikuskarien bat ikusi zuela ezagutu zuten. Bera keñuka ari zitzaien ta muturik gelditu zan.

Bere mirabetzako egunak bete ondoan, bere etxeratu zan. Egun aien buruan, aren emazte Elisabet-ek sortu zuen aur bat eta bost ilabetez izkutuan egon zan, ziola: «Auxe egin dit Yau-nak, gizonen arteko nere lotsabidea kentzea on iduritu zaionean.» (1)

(1) Eguzki-aldeko eñietan, ta batez ere Yuduen artean, lotsagañia zan aurik ez izatea; oregatik orain Elisabet-ek Yainkoari eskeñak ematen dizkio, lotsabide ori aienatu ta kendu diolako, aur bat eman ez.

3—Kristoren sortzea

(Luc. I. 26-38)

Andik seigañen ilabetean, Yainkoak bidali zuen Gabriel Aingerua Galileako iri Nazaret zeritzan batera, Maria izeneko birjiña batengana. Au David-en etxeko gizon Jose zeritzan batekin ezkontzeko itzemanik zegoen.

Sartu zan bada Aingerua arengana ta esan zion: «Agur, eskeréz betea, Yauna zurekin dago, bedeinkatua zera emakumen artean.» (1)

Au entzunez izutu zan ura, ta agur oñek zer esan nai ote zuen gogoan zerabilen. Aingeruak ordea esan zion: «Ez beldur izan, Maria, Yainkoak atsegin zaitu (2); ona emen, seme bat sor-

(1) *Bedeinkatua zera emakumen artean*, emakume guzietan bedeinkatuena, Yainkoaren gogokoena, Yainkoak beste guziak baño maiteago zaituena.

(2) *Yaunak atsegin zaitu*, itzez itz: *Yaunarengan eskeña, onginaia arkitu duzu*. Hebreotañen esakera da au ta esan nai du: *Yaunak maite, atsegin, lastan zaitu, Yauna zere alde daukazu, Yaunak ez-tu zurekin asañerik*.



tuko duzu zere sabelean ta yaioko duzu ta Yesus izena emango diozu. Aundia izango da ta Guziz-Gorenaren seme deituko da (1). Bere aita Daviden yauralkia emango dio Yainko Yaunak eta Yakob-en etxean efege izango da beti-betiko ta aren yaurgoak eztu azkenik izango.»

Mariak beriz esan zion Aingeruari: «Nola gerta diteke ori, gizonik ezagutzen ez dudan ezker?» (2)

Aingeruak erantzun zion: «Ats Sandua yetxiko da zure baitara ta Guziz Gorenaren indařak itzal egingo dizu. Ofegatik, zugandik yaioko dan izaki sandu ori Yainkoaren seme deituko da. Begira, Elisabet zure aideak ere sortu

(1) *Deitu* bakarik ez, *izan* ere bai; baña hebreotarak, norbait zer dan adierazteko, *deitzen da* edo *deituko da* esaten dute. Emen ere ori esan nai du, Mariak egingo duen aur ori Yainkoaren semea izango dala.

(2) Beti biryiña izateko itza eman zion Mariak Yainkoari, ta argatik aritzen da orain, aur bat izango duela entzunez, ta ori nola diteken galdegiten dio Aingeruari. Aingeruak ematen dio argitasuna ta erakusten dio Yainkoaren lana izango dala ta gizonen laguntza gabe egingo dala aur-sortze ori.

du aur bat, eta guziak agortzat zeukaten ura seigáren ilabetean dago orain. Yainkoarentzat ez da ezinkizunik.»

Orduan esan zuen Mariak: «Ona emen Yaunaren mirabea; zure esanaren araura gerta bekit.» Ta Aingeruak aldegin zuen arengandik.

4—Mariaren ikustamena.

(*Luc. I, 39-56*)

Egun aietan yaiki zan Maria, ta mendi aldera Yudako iri batera yoan zan arin arin. Zakariaren etxera sartu ta Elisabet-i agur egin zion. Elisabet-ek Mariaren agurá entzun bezain laster, umea sabelean pozez yauzi (saltatu) zitzaion. Elisabet Ats Sanduaz bete zan ta oiu aundi bat egin zuen, esanez:

«Bedeinkatua zera zu emakumen artean ta bedeinkatua da zure sabelaren arnaria (frutua). Nola merezi izan dut nik nere Yaunaren Ama nigana etortzea? Oía, zure agur-mintzura nere be-

lañietara dan bezain laster, umea pozez yauzi zait nere sabelean. Zorionekoa zu, Yaunak zuri esandako itzak beteko dirala siñetsi duzulako.»

Orduan Mariak esan zuen (1):

«Nere gogoak Yauna gorai patzen du, ta nere biotza pozez yauzi da Yainko nere Salbatzaleaz.

Bere mirabe onen apaltasunari begiratu baitio;

ona emen, gaurgero zorionekoa deituko naute gizaldi guziak.

Gauza aundiak egin ditu nigan Altsuak,

ta Aren izena sandua da.

Aren erukia gizaldiz-gizaldi luzatzen da

bere beldurdunen aldera.

Bere besoaren indarra erakutsi du, beren biotzean aro diranak ondatu ditu.

Agintedunak erausten ditu beren yauralkitik

(1) *Magnificat* edo *Mariaren eresia* du izena ondoko eresi (kanta) eder orrek; apaizak egunero otoiztu bear dute bezperetan.



ta apalak goratzen.

Gose diranak ongiz asetzen ditu
ta aberatsak utsik bidaltzen.

Bere gain artu du Israel bere mira-
bea,

ta gogoan du beti-betiko
(gure asabei itzeman zienez)

Abraham-en ta bere ondokoen alde-
rako bere erukia.

Maria iru ilabete bezelatsu egon zan
arekin ta gero bere etxera itzuli zan.

5—Yoan Sanduaren yaiotza

(Luc. I, 57-80)

Elisabet-i etoñi zitzaion garaia, ta se-
me bat yaio zuen. Bere auzo ta aideak
entzun zuten, Yainkoak eruki aundi ori
erakutsi ziola ta poztu ziran arekin ba-
tean.

Zortzigarren egunean etoñi ziran auña
bilebaitzera (1), ta aren aita Zakaria-

(1) Israeldar mutilki guziaz yaio ta zortzigarren egunean egiten zitzaien zeremonia mingarri bat zan

ren izena eman nai zioten. Baña aren amak erantzun zuen: «Ez orixe, Yoan izango da oñen izena.»

Esan zioten: «Ezta ordea zure aidentan izen ori duenik.» Ta añaaren aitari keñuz galdegiten zioten, zein izen nai zuen añaari ematea. Arek oltxo bat eskaturik (1), idatzi zuen: «Yoan da oñen izena.» Guziak añitu ziran.

Orduantxe zabaldu zan aitaren agoa ta aren mingaña askatu zan; ta mintzatu zan, Yainkoa gorai patuz. Belduñak artu zituen auzo guziak ta Yudea-komendialde guzian zabaldu ziran beñi auek. Eta au entzun zuten guziak beren gogoan zerabilten, ziotela: «Zer izango ote da aur au?» Yaunaren eskua arekin zegoen ta.

Orduan aren aita Zakaria Ats San-

bilebaitze ori (latinez *circumcisio*). Lañu-puxka bat mozten zitzaien ta orduan yartzen zioten añaari izena.

(1) *Oltxo bat eskaturik*. Antziñakoak etzuten paperean idazten (eskribatzen); oltxo batzuek argizariz estali ta aietan idazten zuten ezten batez.

duaz bete zan ta profetatu zuen (1)
esanez:

Eskeñak dituela Israelgo Yainko Yau-
nak!

Bere eñi au ikustatu ta beñ-erosi du,
ta Salbatzale azkar bat (2) yaikiarazi du
bere mirabe David-en etxean
(bere profeta sanduen agoz aspaldi
itzeman zuenez);

Salbatzale bat, gu gure etsaien men-
detik

ta iguin gaituztenen eskutik askatzeko:
gure aiten aldera bere eñukia erakus-
teko

ta bein egindako ongundeaz oroitzeko;
gogoratzeko gure aita Abraham-i e-
gin zion ziña,

(1) *Profetatu zuen*, Yainkoak argiturik eta era-
giñik mintzatu zan, itzegin zuen. Ondoko eresi (kan-
ta) oñetan (*Benedictus* du izena) Zakariak lenbizi
Yainkoari eskeñak ematen dizkio, Mesia agindua,
Salbatzalea mundura bidali duelako; gero bere seme
Yoan-en eginkizun aundiaz artzen duen poza era-
kusten du.

(2) *Salbatzale azkar bat*; itzez itz: *salbaziozko
adar bat* edo *adar salbagari bat*. Indar ta al aundia
adierazteko, *adaña* esaten zuten hebreotañak.

agindu baitzion emango zigula,
belduñik gabe gure etsaien eskueta-
tik askaturik
berari mirabe-egitea
bere aurrean sandutasun ta zuzenbi-
dean
gure egun guzietan.
Eta zu, aurrá, guziz-Gorenaren pro-
feta deituko zera,
ta Yaunaren aurrean yoango zera ari bi-
dea apaintzeko,
aren erriari bere gaizkatzearen beñi
emateko
bere pekatuen barkamenduaz,
gure Yainko biotz-beraren erukia da-
la bide;
eruki ori dala-ta agertu zaigu goitiko
Eguzki-sortzea (1),
ilunbetan ta eriotze-itzalpean dau-
tzanei argi egiteko,

(1) *Goitiko Eguzki-sortze ori* Yesu Kristo gure Yauna da; Yainkoa gizon egiñez, atsezko eguzki bat agertu zaigu gizonoi. Testamentu zauran ere Mesia etortzekoari izen ori ematen zaio (Is. IX, 1-2) ta Yesu Kristok berak *munduaren argia* deitzen du bere burua.

gure oñak pake-bidean zuzentzeko.

Auñá aziz eta gogoan azkartuz zoan; ta Israel-en agertu bear zuen egunera arte basa-bazteíean bizi zan.

6—Yesu Kristoren etorkia

(Mat. I, 1-17)

David-en seme Yesu-Kristoren etorki-liburua; David Abraham-en semeizan zan. (1) Abrahamek sortu zuen Isaak, Isaakek sortu zuen Yakob, Yakobek, sortu zituen Yuda ta here anaiak; Yudak sortu zituen Pare eta Zara, Tamargandik; Parek sortu zuen Esron; Esronek sortu zuen Aram; Aramek sortu zuen Aminadab; Aminadabek sortu zuen Naason; Naasonek sortu zuen Salmon;

(1) Liburu Sanduetan maiz esaten da, Mesia Abraham ta Daviden semea edo ondokoa izango zala. Orain bada Mateo Ebangelari sanduak erakutsi nai du Yesus dala aspaldi agindutako Mesia ori, ta ortarako Yesusen arbaso edo auñekoak belaunez-belaun aipatzen ditu. Oñela ageri da Yesus egiaz Abraham eta Daviden ondorekoa dala.

SPECIOSVS
FORMA PATRIS
FILIIS HOMINVM.



(1) In dem Besonderen tritt es hervor, dass die
 Abkömmlinge des David in der That die Verwirklichung
 der Götterwelt sind. Sie sind die Träger der göttlichen
 Kraft, die in der Welt wirkt. Sie sind die Mittler
 zwischen der Welt und dem Gott. Sie sind die
 Vermittler zwischen dem Menschen und dem Gott. Sie
 sind die Träger der göttlichen Kraft, die in der
 Welt wirkt. Sie sind die Mittler zwischen der
 Welt und dem Gott. Sie sind die Vermittler
 zwischen dem Menschen und dem Gott.

Salmonek sortu zuen Booz; Boozek sortu zuen Obed, Rutgandik; Obedek sortu zuen Yese; Yeseke sortu zuen David elegea; David elegeak sortu zuen Salomon, Uriaren emazte izanagandik; Salomonek sortu zuen Roboam; Roboamek sortu zuen Abia; Abiak sortu zuen Asa; Asak sortu zuen Yosafat; Yosafatek sortu zuen Yoram; Yoramek sortu zuen Ozia, Oziak sortu zuen Yoatam; Yoatamek sortu zuen Akaz; Akazek sortu zuen Ezekia; Ezekiak sortu zuen Manase; Manasek sortu zuen Amon; Amonek sortu zuen Yosia; Yosiak sortu zituen Yekonia ta bere anaiak Babilongo ezeñi-aldian. Eta Babilongo ezeñi ondoan, Yekoniak sortu zuen Abiud; Abiud-ek sortu zuen Eliakim; Eliakimek sortu zuen Azor; Azorek sortu zuen Sadok; Sadokek sortu zuen Akim; Akimek sortu zuen Eliud; Eliud-ek sortu zuen Eleazar; Eleazarek sortu zuen Matan; Matanek sortu zuen Yakob; Yakobek sortu zuen Yose, Maria-^{ren} senaia; Mariagandik yaio zan Ye-

sus, Kristo deritzana. (1) Geroztik, Abraham-engandik David-enganaño amalau belaunaldi dira, David-engandik Babilongo ezeñi-aldiraño amalau belaunaldi, eta Babilongo ez-eñitik Kristoganaño amalau belaunaldi.

7—Yose-ren kezka ta zalantzak

(*Mat. I, 18-25*)

Yesu Kristoren yaiotzea onela gertatu zan.

Aren Ama Maria Yose-rekin ezkontzeko itz-emanik zegoela, biok elkar-ganatu baño lenago, aurdun arkitu zan Ats Sanduaren bidez. Yose aren senar-ía zuzentsua zan ordea ta etzion ari izen ona kendu nai, ta oñengatik ura ixilkian uztea erabaki zuen (2).

(1) *Kristo* grekerazko itza da ta *gantzutua* esan nai du. Ori bera esan nai du hebreerazko itz *Mesia-k*.

(2) Yose, bere emaztegaia aurdun ikusirik, arek ezkon-itza autsi ote zion kezketan zegoen, baño ala

Ori gogoan zerabilela, Aingeru bat agertu zitzaion ametsetan ta esan zion: «Yose, David-en semea, ez beldur izan zure emazte Maria zuregana artzeko, beragan sortu dana Ats Sanduak egiña da ta. Seme bat yaioko dizu; oñeri Yesus izena emango diozu, berak askatuko baitu bere eña beren pekatuetatik.» (1)

Guzi au gertatu zan arako Yaunak profetaren bidez esandako ura bete zedin:

«Oña, Biryiñak seme bat sortu ta yaioko du,

ta deituko dute Emanuel» (esan nai du: Yainkoa gurekin).

Yose yaiki zan lotatik ta Yaunaren Aingeruak agindutakoa egin zuen; be-

ere etzuen ura salatu ta belztu nai, aren sandutasuna begien aurrean zeukalako. Mariak bazekien, nolako esturan zegoen Yose, baña etzion beragan gertatu zan mirariaren beñi eman nai, bear zuen argitasuna Yainkoak emango ziola etsirik.

(1) *Yesus* izenak (hebreeraz *Yeoschua*) esan nai du: *Yauna da Salbatzale*; izen ori ederki dagokio gure Yaunari, berak askatu ta salbatu baitu gizadia bere pekatu guzietatik.

re emaztea artu zuen beregana, baña etzuen ura ezagutu (1), arek bere seme len-sortua yaio zuen arte; ta Yesus izena eman zion.

8—Yesu Kristoren yaiotzea

(*Luc. II, 1-21*)

Egun aietan agertu zan Kaisar Augustoren erabaki bat, mundu guzia zenbatzeko (kontatzeko) aginduz (2). Kirinio Sirian agintari zalarik egin zan lenbiziko zenbatze ori. Guziak yoaten ziran zein bere sortefira, beren izena ematera.

Yose ere, David-en etxe ta etorkikoa zalako, igo zan Galilea-ko Nazaret

(1) Etzuen ezagutu, etzuen arekin aragizko artu-emanik izan iñoiz ere, ez auña egin baño lenago ta ez auña egin ondoan ere; Maria beti biryiña izan zan.

(2) Noizik-beinka egiñarazten zuten Eromako Agintariak yende-zenbatze ori, zenbat mendeko zituzten yakiteko, zenbateko zergak yafi bear zituzten asmatzeko ta ala. Oretarako bakoitzak bere sortefira yoan bear zuen ta an bere izena eman.

iritik Yudea-ra, David-en iri Betlehem deritzanera, an bere emazte Maria aurdun zegoenarekin izena ematera.

Aiek an zeudela, aur-egiteko garaia iritxi zitzaion Mariari; yaio zuen bere Seme leen-sortua, aur-oialetan bildu ta aska batean eratzan zuen, arotz-etxean aientzat lekurik etzalako.

Bazter beraietan baziran zenbait artzai, gauaz basoan beren artalden zai zeudenak. Bat-batean, Yaunaren Aingeru bat agertu zan aien ondoan ta Yainkoaren aunditasunak argiz inguratu zituen ta izu aundiz izutu ziran.

Aingeruak ordea esan zien: «Ez beldur izan; ona emen, eñi guziari poz aundia ekañiko dion beñi on bat ematen dizuet: gaur yaio zaitzue David-en irian Salbatzalea, Kristo Yauna. Ona emen ezaupideak: Arkituko duzue aur bat aur-oialetan bildurik eta aska batean eratzanik.»

Bereala zerutar-samalda aundi bat batu zitzaion Aingeruari, Yainkoa go-raipatzen zutela esanez:



«Ospea Yainkoari goietan,
ta luñean pakea Aren gogarako gi-
zonei.»

Aingeruak aiengandik zeru aldera al-
degin zutenean, artzaiak esan zioten el-
kañi: «Goazen bada Betlehem-era, eta
ikusagun an gertatu dan ta Yainkoak
yakin-arazi digun gauza ori.» Yoan zi-
ran bada arin arin ta arkitu zituzten Ma-
ria, Yose ta Auña, askan eratzanik.

Ori ikusirik, aur ortaz esan zitzaie-
naren beña zabaldu zuten, ta entzun
zuten guziak añitu ziran artzaiak esan-
dako beñi oietaz. Mariak ordea gorde-
tzen zituen itz guzi ok, bere biotzean
erabiltzen zituela. Artzaiak itzuli ziran
Yainkoa ospatuz ta goraiapatuz, esan
zitzaienez entzun ta ikusi zituzten ger-
taera guzi oiengatik.

Zortzigañen egunean bilebaitu zuten
Auña, ta bere Amaren sabelean sortu
baño lenago Aingeruak emandako Ye-
sus izena yañi zioten. (1)

(1) Naiz bearturik ez egon, Kristok artu zuen

9—Eguzki-aldeko Magoak

(Mat. II, 1-12)

Jesus Yuda-ko Betlehem-en Herode eřegeren egunetan yaio zanean, Mago batzuek (1) etoři ziran Yerusalem-era Eguzki-aldetik ta galdegin zuten: «Non da Yuduen eřege yaio-beřia? Aren izařa ikusi dugu Eguzki-aldean ta gur-egitera gatozkio.»

Au entzunik, Herode eřegea asaldatu zan (2) ta arekin batean Yerusalem osoa ere bai. Bildu arazi zituen Apaiznausiak ta eřiko lege-irakasleak, eta Mesiak (Kristok) non yaio bear zuen galdegiten zien. Aiek erantzun zioten: «Yuda-ko Betlehem-en; olaxe baitauka

beragan zeremonia mingaři ori, guri legeak zintzo betetzen erakusteko.

(1) *Magoak* gizon zuur, asko-yakiņak ziran, batez ere izar-gauzetan oso yakintsuak. Uste danez, eřegeak ere baziran. Ilbeltzaren 6'an egiten da oien yaia (*Eřege-eguna*).

(2) Herode ori zuzen-kontrako eřegea zan, yaurgoa indařez atxitua zuen ta beti belduřek zegoen zuzeneko eřegeen bat agertuko ote zan; ořegatik asaldatzen da orain eřege beři bat yaio dala entzunik.

Profetak (Mich. V, 2) idatzia:

«Zu Betlehem, Yudako luñaldea, etzera Yudako iri nausietan txikiena; zugandik irtengo da Buruzagia, nere eñi Israel-en Artzaia.»

Orduan Herodek Magoak etoñi-arazita galdegin zien, ea noiz agertu zitzaien izaña. Gero bidali zituen Betlehem-era esanez: «Zoazte, arduraz bila zazue Aur ori, ta arkitu duzuenean oñen beñi emadazue, neronek ere yoan ta gurgegin dezaiodan.» (1)

Eregearen itz ok entzunik, Magoak yoan ziran. Eta ara, Eguzki-aldean ikusi izan zuten izaña aũean zoakien, ta Aũa zegon tokira iritxi zanean gelditu zan. Poz oso aundiaz poztu ziran izaña ikusirik; sartu ziran etxera, Aũa bere Ama Mariarekin arkitu zuten ta aozpez yauretsi (adoratu) zuten. Gero zabaldu zituzten beren gordairuak ta eskañi zizkioten eskueraakutsiak (emai-

(1) Zer esanik eztago, Herodek etzuela Yesus Aũa yauresteako asmorik; yaioberia non zegon yakin nai zuen, ara yoan ta ilarazteko.

tzak): uréa, intzentsua ta mifa.

Ametsetan agindu zitzaien ez itzul-
tzeko Herodengana, ta argatik beste
bide batetik yoan ziran beren luáaldera.

10—Garbikundea—Simeon eta Ana

(*Luc. II, 22-39*)

Aien Garbitze-egunak bete ziranean,
Moiseren legearen araura, Maria ta
Yosek eraman zuten Auía Yerusalem-
era, Yaunari aurkezteko. Yaunaren le-
gean onela baitago idatzia: «Leenik
amaren sabeletik irtengo dan mutilkia
Yaunari eskañiko zaio.» Gañera, Yau-
naren legean idatzirik dagonez, opari
bat eman nai zuten: bi uso-tortolo naiz
bi usakume (1).

(1) Bi lege bete zituen Mariak aldi onetan:

a) *bere buruaren garbitzapena*. Israeldar ema-
kume guziak, aur egin ondoan, ez-garbitzat idukiak
ziran, berogei egunez mutilkia egin bazuten, ta iru-
rogei ta sei egunez neskakia egin bazuten. Egun
oien ondoan, yauretxera yoaten ziran beren buruak
garbiestera (purificare), emanez ortarako bildots bat

Yerusalem-en bizi zan Simeon ize-
neko gizon bat; gizon zuzentsua ta Yau-
naren beldurduna zan; Israel eñiaren
pozaldia igurikitzen zuen ta Ats San-
dua arengan zegoen. Ats Sanduak ya-
kin-arazi izan zion, etzuela eriotza iku-
siko, Yaunaren Gantzutua (Kristo) iku-
si arte.

Atsak eragiñik, yauretxera yoan zan;
ta gurasoak Yesus aratu zutenean, le-
gearen aginduak arengan betetzeko,
arek artu zuen Auñá bere besoetan, ta
Yainkoa gorai patu zuen, esanez:

«Oraintxe uzten duzu, Yauna, zure
mirabe au

pakean yoatera, zure itzaren araura;
Nere begiak ikusi baitute zure Sal-
batzalea,

zuk eñi guzien auñean yañi duzuna;

eta usakume bat, aberatsak baziran, ta bi usakume,
beartsuak baziran.

b) *Yesus Auñaren eskaintzea*. Legearen arau-
ra, mutilki len-yaio guziak Yaunarenak ziran, Yau-
naren mirabetzarako berexiak. Baña gurasoak beñe-
rosten (atzera erosten) zituzten bost *sikloz* (bi pe-
zeta gora bera).



aírotz-eíriak argitzeko zuzia
ta Israel zure eíri onen ospea.»

Auíaren aita-amak aíturik zeuden artaz esaten ziran itz oiengatik. Simeonek bedeinkatu zituen ta aren Ama Mariari esan zion: «Begira, Israeldar asko erori ta yaiki-arazteko ezaíria dago au, (1) ta aurka-egingo zaion ezaupidetzat; zeroíen anima ere ezpata batek igaroko dizu alde-alde, biotz askoren gogoetak agertu ditezen.»

An bizi zan alaber Ana izeneko andre profeta bat, Fanuelen alaba ta Aseren yatoírikoa. Urtetan auíeratua zan; bere neskazaroaren ondoan zazpi urtez bizi izan zan senaíarekin; orduan uíen larogei urteko alarguna zan. Iñoiz ere etzuen yauretxetik (Yainkoaren etxetik) aldegiten, eta baruez ta ototzez Yainkoari mirabe egiten zion.

(1) Gizon guziak yaiki-arazi ta gaizkatzeko eto-ri da Kristo zerutik; alaz ere, Israeldar geienentzat erorbide ta beaztopagaíi izan da (Is. VIII, 14), Aren-gan siñetsi nai izan ez dutelako ta aren irakatsiak artu ez dituztelako; oíregatik ondamendira doaz, Paulo Sanduak dionez (Rom. IX, 32; I Cor. I, 13).

Onak ere bada, ordu artantxe eto-
firik, Yauna gorai patzen zuen ta Israel-
en beferospena igurikitzen zuten gu-
ziai asi zitzaien Aur artaz mintzatzan.

Yaunaren legearen araura egiteko
guziak bete zituztenean, Galilea-ra be-
ren iri Nazaret-era itzuli ziran.

11—Egiptoraka yoan-etoria—Aur txikien ilkaia.

(Mat. II, 13-23)

Magoak yoan ziranean, Yaunaren
Aingerua agertu zitzaion Yose-ri ame-
tsetan ta esan zion: «Yaiki, artu Auia
ta bere Ama, Egipto-ra iges egizu ta
nik esan arte an egon zaite; Herodek
Auia bilatuko baitu, berari bizia ken-
tzeko.» Yaiki zan Yose, artu zituen Au-
ia ta bere Ama gauaz ta Egipto aldera
yo zuen. Ta Heroderen eriotzeraño an
egon zan. Onela bete zan Yaunak Pro-
fetaren bidez esandako ura: «Egipto-
tik deitu nuen nere semea.» (Os. XI, I)

Orduan Herode, Magoak iruzur egin ziotela ikusirik, asafetu zan biziki, eta Betlehem-en ta aren inguruetan il-ara-zi zituen bi urtez berako mutilki guziak, Magoengandik zeatz ikasi zuen aldiaren araura. Orduan bete zan arako Yermia profetak esandako ura (Ier. XXXI, 15):

«Oiu bat entzun da Raman-n,
negar ta aiots aundia;
Rakel negahez ari da bere aufengatik
ta eztu pozaldirik artu nai,
aiek gaurgero ez diralako.»

Heroderen eriotza ondoan, Yaunaren Aingerua ametsetan agertu zitzaion Yose-ri Egipto'n ta esan zion: «Yaiki, artu Auña ta bere Ama, eta zoaz Israel eñira, Auña galdu naiez zebiltzenak il dira ta.»

Yaiki zan bada Yose, artu zituen Ama-Semeak ta Israel-eñialdera etoñi zan. Baña Yudea-n Arkelao bere aita Heroderen ordeez eñege zala entzunik, ara yoateko beldur izan zan. Ametsetan gaztigu bat izanik, Galilea-ko baz-



tefretara etoñi ta Nazaret deritzan irian egon zan egotez. Onela bete zan Profetaren esana: «Nazaretaña deituko da.»

12—Jesus Auña galdu ta beñiz arkitua.

(*Luc. II, 40-52*)

Jesus Auña aziz zioan ta azkartzen zan; zuurtziaz betea zan ta Yainkoaren onginaia aren gañean zegoen.

Aren gurasoak yoaten ziran urtero Yerusalem-era Pazko-yaierako. Yesusek amabi urte bete zituenean (1), igo ziran Yerusalem-era yai ortako oitura zanez. Yai-egunak azkendu ziranean, etxerako bidea artu zuten; Jesus Auña ordea Yerusalem-en gelditu zan, gurasoak oartu gabe.

Aiek, bide-lagunen artean (2) zetoñe-

(1) Israeldar guziak, amabi urte bete ezkeru, yoan bear zuten urtean iru aldiz Yerusalem-era, iru yai-buruetarako (Pazkoa, Pentekoste ta Etxola-yaia.)

(2) *Bide-lagunen artean.* Israeldafak multzo edo sail aunditan bildurik egiten zuten Yerusalem-erako yoan-etoña. Yesusen gurasoak etzuten Auña beren

lako ustean, egun osoko bidea egin zuten, ta beren aide ta ezagunen artean bilatu zuten. Baña etzuten arkitu ta Yerusalem-era itzuli ziran aren bila. Iru egunen buruan yauretxean arkitu zuten; an zegoen irakaslen erdian eseria, entzuten ta galdegiten ziela. Entzuten zuten guziak afitzen ziran aren zuuria ta erantzunez.

Bere aita-amak ere, ura ikusirik afitu ziran. Amak esan zion: «Aua, zergatik egin diguzu ori? Zure aita eta ni atsekabeturik gabiltza zure bila.» Arek esan zien:» Zergatik bilatu nauzue? Nere Aitaren gauzetan yardun bear dudala ez al zenekiten bada?(1) Baña aiek etzuten erdetsi itz oietaz adierazi nai ziena.

Ta yetxi zan aiekin Nazaret-era ta

ondoan ikusten, baña uste zuten nonbait bere lagun edo adiskidekin beste sail batean zetofela. Ostatuan igaro bear zuten gaua, ta afitsean ostatura iristean, nabaitu zuten Maria ta Yosek Yesus Aua etzetofela, inon ere etzan ageri ta.

(3) Itz oietaz adierazi nai du Yesusek, bere Aita zerukoaren naia egiteagatik gelditu dala yauretxean.

aien mendean egon zan. Aren Amak
gordetzen zituen gauza guzia auek be-
re biotzean. Yesus ordea aziz zioan
zuurtzian, adiñean ta onginaian Yain-
koaren ta gizonen aúfean.





BIGAREN ZATIA

Ageriko Bizia

13—Yoan-ek basa-bazterean bataiatzen

(*Mat. III. 1-6; Marc. I, 1-6; Lc. III, 1-6*)

Tiberio Kaisar-en agintealdiaren amaboskañen urtea zan; Ponzio Pilato zan Yudea-ko yaurleri; Herode, Galilea-ko buruzagi; oñen anai Filipino, Iturea ta Trakoniti-luñaldeko buruzagi; Lisania, Abilene-ko buruzagi; Ana ta Kaifa ziran Apaiz-nausi.

Egun aietan bada Yaunak entzunarazi zion bere deia Zakaria-ren seme Yoan-i basa-bazterean. Etoñi zan Yoan, eta Yordan inguruko bazteretan zebilen, damutasunezko bataioa pekatuen barkapenerako (1) iragañiz, ziola: «Damu ar zazue, zeruko yaurgoa (eñeinua) urbil dago ta.» (2)

(1) Yoan-en bataio oñek etzuen pekatu rik barkatzen, Kristorenak bezela; baña bataio ura artzen zutenak beren pekatuetaz uñikitu rik zeudela ta beren barnea garbitu nai zutela erakusten zuten, ta oñela atontzen, prestatzen ziran pekatuen barkapena iristeko.

(2) Zeruko yaurgoa, Yainkoaren yaurgoa, Kristoren yaurgoa bat dira ta esan nai dute Yesu-Kristoren Eliza.

Au da arako Isaia profetak aipatzen duena diolarik:

«Ona emen, nik bidaltzen dut nere mandataria zure aurrean,

zure bidea zure aurrean apaindu dezan.

Mintzura bat oiuz ari da mortuan:

apaindu Yaunaren bidea,

zelaitu aren zidoñak;

ibañak beteko dira

mendi ta muñoak apalduko;

bide makuñak zuzenduko dira

ta bide malkañak legunduko.

Ta gizon guziak ikusiko dute Yainkoaren gaizkagaña.»

Yoan-ek kamelu-ilezko soñekoa zuen ta geñian lañuzko geñikoa; lañapotak eta basa-eztia ziran aren yanaria.

Yudea-erri guzia ta Yerusalendar guziak ta Yordan inguruko guziak arenganatzen ziran, ta arek bataiatzen zituen Yordan ibaian, beren pekatuak aitortzen zituztela.

14—Yoan-en itzaldia gizaldeai

(Mt. III, 7-10; Lc. III, 7-9)

Bataio eske yoaten zitzaizkion gizaldeai, bai ta Farisau ta Sadukearai ere esaten zien: «Lañasuge-kumeak, etortzeko zorian dagon asarari iges egiten nork erakutsi dizue? Egizkitzue damuari dagozkion arnariak (frutuak), ta ez esan zuen baitan: Abraham dugu aita (1). Nik diotsuek: Yainkoak onako ari auetatik ere sortu ditzaioke umeak Abraham-i. Aizkora zuaitzaren efoan ezaia dago; arnari onik ekartzen ez-tuen zuaitza moztu ta sutara egotziko da.»

(1) Yuduak eta batez ere Farisauak aro zeuden, Abraham-en seme edo ondorengoak ziralako, ta besterik gabe zerua iritxi uste zuten. Yoan-ek esaten die ezetz, ez dala aski Abraham-en semeak izatea zeruratzeke, berak ere onak izan bear dutela, arnari edo egite onak egin bear dituztela; bestela, arnaririk egiten ez duen zuaitza bezela sutara yoango dirala.

15—Yoan-en irakatsiak

(Lc. III, 10-14)

Gizaldeen galdegiten zioten: «Zer egin bear dugu bada?» Erantzun zien: «Bi soinpeko dituenak eman bezaio bat ez duenari, ta yanariak dituenak orobat egin beza.»

Zergariak (1) ere etoñi zitzaizkion bataio eske ta esan zioten: «Maisua, zer egin bear dugu?» Arek esan zien: «Agindurik daukazuena baño geiago ez eskatu.»

Gudamutilak (soldaduak) ere galdegin zioten: «Eta guk zer egin bear dugu?» Esan zien: «Ez ññori gaitzik ez bidegaberik egin, eta zuen guda-sariaz pozik egon.»

(1) *Zergariak* edo *zerga-biltzaleak* maiz aipatzen dira Ebangelioetan. Erómáak Yuduén artean yañitako zergak edo petxak (kontribuzioak) biltzen zituztenak ziran. Yuduak ezin-ikusi aundia zieten, yende madarikatutzat zeuzkaten, pekatari aundiak balira bezela etzuten aiekin ikustekorik bat ere izaten.

16—Yoan-en aitorera Yesu-Kristoz

(Mt. III, 11-12; Mc. I, 6-8; Lc. III, 15-18)

Eri guzia zai zegolarik, eta Yoan ori Mesia (Kristo) ote zan gogoan zerabil-tela (1), Yoan-ek esan zien guziaz: «Nik ur utsaz bataiatzen zaituztet, damu ar-tu dezazuen; nere ondotik datořena ni baño azkařago da; aren oñetakoak yazteko, ez aren oñetako-edeak aska-tzeko ere diña ez naiz ni.

Arek bataiatuko zaituzte Ats Sanduaz eta suaz. Sardea eskuan artu ta bere lařaña garbituko du; garia sabaira bilduko du ta agotza ezin itzalizko suan eřeko.» (2)

(1) Yuduak bazekiten, beren Liburu sanduetan ikasi-ta, Mesia etortzekoak bataio bat yařiko zuela. Orain Yoan bataiatzen ari dala ikusirik, susmatzen dute ori ote dan etortzekoa zan Mesia. Yoan-ek era-kusten die, berak ematen duen bataio ori ur utsaz-koa, indar gutxikoa dala, ezin ditzakela pekatuak barkatu; geroxeago Kristok emango duena beřiz Ats Sandu ta suzkoa izango dala, arek biotzak garbitu, sutu ta sandutuko dituela.

(2) Or aipatzen dan *lařain* ori Yudu-eřia da ta bai mundu osoa ere; munduan onak ta gaiztoak na.

Beste burubide asko ere ematen zizkion yendeari ta Beñi-ona iragartzen zuen.

17—Kristo-ren bataioa

(Mt. III, 13-17; Mc. I, 9-11; Lc. III, 21-22)

Egun aietan, eñi guzia bataiatzen ari zalarik, Yesus ere etoñi zan Gali-lea-ko Nazaret-etik Yordan aldera Yo-an-engana bataio eske. Yoan-ek ordea eragotzi nai zion esanez: «Zuk bear ninduzuke ni bataiatu, ta nigana zatoz zu?»

Yesusek erantzun zion: «Utzazu orain, oñela dagokigu guri; zuzenbidezkoa dan guzia bete bear dugu.» Orduan etsi zuen Yoan-ek eta bataiatu zuen Yesus Yordan ibaian.

Yesus, bataiatu ondoan, irten zan bereala uretik eta otoitz egiten ari zala,

sirik daude, lañañean alea ta lastoa dauden bezelaxe; baña Kristok noizpait (azken epai-egunean) berexiko ditu onak ta gaiztoak; batzuek sabairako (zerurako), besteak sutarako (su-lezerako).

zeruak zabaldu zitzaizkion, Ats Sandua gorputz-itxuran uso-idurian yetxi ta aren gañean gelditu zan ta mintzura batek oiu egin zuen zerutik: «Zu zera nere Seme maitea, zugan dut nik atsegiña.»

Yesus-ek bere ageñ-aldian ogei ta amar urte zituen gutxi-gora-bera, ta Yose-ren semetzat zeukaten.

Yose Heli-ren seme izan zan, Heli Matat-ena, au Levi-rena, au Melkirena, au Yane-rena, au Yose-rena, au Matatia-rena, au Amos-ena, au Nahum-ena, au Hesli-rena, au Nage-rena, au Mahat-ena, au Matatiarena, au Semei-rena, au Yose-rena, au Yuda-rena, au Yoana-rena, au Resa-rena, au Zorobabel-ena, au Salatiel-ena, au Neri-rena, au Melki-rena, au Adi-rena, au Kosan-ena, au Elmadan-ena, au Her-ena, au Yesus-ena, au Eliezer-ena, au Yorim-ena, au Matat-ena, au Levi-rena, au Simeon-ena, au Yuda-rena, au Yose-rena, au Yona-rena, au Eliakim-ena, au Melea-rena, au Mena-rena, au Matata-rena,

au Natan-ena, au David-ena, au Jese-
rena, au Obed-ena, au Booz-ena, au
Salmon-ena, au Naason-ena, au Pare-
rena, au Juda-rena, au Jakob-ena, au
Isaak-ena, au Abraham-ena, au Tare-
rena, au Nakor-ena, au Sarug-ena, au
Ragau-rena, au Paleg-ena, au Heber-
ena, au Sale-rena, au Kainan-ena, au
Arpaksad-ena, au Sem-ena, au Noe-
rena, au Lamek-ena, au Matusale-
na, au Enok-ena, au Yared-ena, au Ma-
laleel-ena, au Kainan-ena, au Enos-
ena, au Set-ena, au Adam-ena, au Jain-
koarena.

18—Jesus basa-bazterean—Zirikaldiak

(Mt. IV, 1-11; Mc. I, 12-13; Lc. IV, 1-13)

Jesus, Ats Sanduaz beterik, itzuli
zan Yordan aldetik ta Atsak basa-baz-
teñera yoan-arazi zuen, an deabruak
zirika zezan. Berogeï egun ta berogeï
gauetz basa-lekuan egon zan baseizie-
kin. Aldi guzi ortan etzuen ezer yan,



ta egun aien ondoan gose izan zan.

Orduan urbildu zitzaion zirikatzailea (deabrua) ta esan zion: «Yainkoaren semea bazera, ari auek ogitu itzatzu.» Yesusek erantzun zion: «Idatzia zegok: Gizona ezta ogi utsez bizi, Yainkoaren agotikako itzez ere bai.»

Orduan eraman zuen deabruak iri sandura (Yerusalem-era), yauretxearen galduñean ezari zuen ta esan zion: «Yainkoaren semea bazera, egotzazu zere burua or bera; idatzia baitago:

Zu zaintzeko agindua eman die bere Aingeruai,

beren eskuetan yasoko zaituzte, zure oñak arien bat yo ez dezan.»

Yesusek erantzun zion: «Idatzia zegok alaber: Zere Yainko Yauna ez dezazula zirikatu.»

Orduan artu zuen beñiz deabruak, eta mendi gora batera eraman zuen; andik erakutsi zizkion begikaldi batean munduko yaurgo guziak beren ospearekin ta esan zion: «Eskubide ta ospe guzi ori zuri emango dizut; nere eskuan

baitaude guziak, eta nik ematen dizkiot nai dudanari. Beraz, zuk aozpeztu ta gur-egiten badidazu, zuretzat izango dira guziok.»

Yesusek erantzun zion: «Alde emendik, Satan; idatzia zegok: Zure Yainko Yaunari gur-egiozu ta ari bakañik mirabe-egiozu.» Orduan zirikada guziak azkendu ziranean, deabruak aldegin zuen arengandik beste aldi on bat arte.

Aingeruak etoñi zitzaizkion orduan Yesusi eta mirabe-egin zioten.

19—Kristoren sortze betidanikoa—Yoanen aitofera

(10. 1, 1-34)

Lenbizian zan Itza (1) ta Itza Yainkoagan zegoen ta Itza Yainko zan. Au Yainkoagan zegoen lenbizian; Arek egin ditu gauza guziak, eta egin dan

(1) Or aipatzen dan *Itz* ori Irutasuneko bigaeren persona da, Yainko-Semea, Yainko-Aitagandik sortua ta Aitarekin bat dana.

gauzarik ezta Ura gabe egin izan. (1) Arengan zegoan bizia, ta bizia zan gizonen argia, ta argiak ilunbetan argitzen du, ta ilunbeak eztute ura artu.

Izan zan gizon bat, Yainkoak bidalia, Yoan zuen izena. Aitor-egitera (2) etoñi zan au, argiari aitor-egitera, aren bidez guziak siñetsi zezaten. Etzan ori argia, argiari aitor-egin bear ziona baizik. Gizon guziak argitzen dituen argi egiazkoa mundura zan; munduan zegon, mundua Berak egiña da, ta munduak etzuen ura ezagutu. (3)

Beretañen artera etoñi zan, eta beretañak etzuten artu. Bera artu zuten guziaz Yainkoaren ume biurtzeko eskubi-dea eman zien, bere izenean siñesten

(1) *Itzaren* bidez egin ditu Yainkoak gauza guziak, Itza izan da guzien eredu ta erakusmen.

(2) *Aitor-egin*, nor zer dan esan, aitortu; Yoanek Yesu-Kristoz aitor egin zuen, Yuduei erakutsi baitzien nor zan ura, Mesia ta Yainkoaren semea zala.

(3) Egiazko argia zein zan adieraztera etoñia zan Yoan Bataiazalea. Munduak edo mundutañak etzuten zerutik yetxitako argi egiazko ura artu nai izan, naiago zuten beren ilunbetan bizi.

dutenai, ez odoletik, ez aragiaren, ez gizonen naietik, Yainkoagandik baizik, yaio diranei. Ta Itza aragi (gizon) egin da (1), ta gure artean bizi izan da, graziaz eta egiaz beterik; ta guk ikusi dugu Aren ospea, Aitaren Seme-bakari zegokion bezelako ospea.

Yoan-ek aitortzen du artaz ta oiuegiten du: «Onetaz esan nizuen lenago esan nizuen ura: Nere ondotik datořena ni bařo goragokoa da, ni bařo lenagokoa da ta. Aren betetasunetik artu dugu guziok (2) grazia graziaren ondotik. Legea Moisek emana da, grazia ta egia Yesu-Kristok egiřak dira. Yainkoa eztu iřork ikusi; Aitaren Seme-bakar, Aitaren magalean dagonak, ořetxek eman digu aren (Yainkoaren) beři.»

Yuduak bidali zizkioten Yoan-i Yerusalem-etik zenbait apaiz ta levitar,

(1) *Itza* gizon egin zan, gizon-aragiaz yantzi zan, gizon-izaera artu zuen.

(2) Yesu-Kristo graziaz ta egiaz betea dago, ta Yainkoak gizonei ematen dizkigun grazia guzien ituřia da.

galdegitera: «Nor zera zu?» eta ona zer aitofera egin zuen orduan Yoan-ek; aitortu zuen bada goraki ta etzuen ukatu, ta esan zuen: «Ni ez naiz Kristo.»

Galdegin zioten: «Zer bada, Elia al zera?—«Ez» erantzun zien.—«Profeta al zera? (1)—«Ez» erantzun zien. Ta galdegin zioten beriz ere: «Nor zera bada? Bidali gaituztenei erantzuna eraman bear diegu ta; zer diozu zere buruaz?»

Esan zien: «Ni naiz basa-baztefean oiuz ari danaren mintzura, diola: Apain zazue Yaunaren bidea, Isaia Profetak esan zuenez.» Mandatari aiek Farisauak ziran.

Galdegin zioten aufera ere: «Zergatik ari zera bataiatzen, ez pazera Kristo, ez Elia, ez Profeta?» Yoan-ek erantzun zien: «Nik urez bataiatzen zaituztet; baña zuen artean dago zuek ezagutzen ez duzuen bat; ori da nere ondotik da-

(1) Ez edozein profeta; Moise-k agindu zigun a guziok igurikitzen dugun Profeta aundi ura, Mesia edo Kristo.

tořena, ni bařno lenago izan zana; ořen ořetako-eდეak askatzeko ere gai ez naiz ni.»

Auek Betania'n, Yordan-araindian, Yoan bataiatzen ari zan tokian gertatu ziran. Biaramonean Yoan-ek ikusi zuen Jesus beregana etortzen ta esan zuen: «Ora or Yainkoaren Bildots, munduko pekatua kentzen duena. Onetaz nion arako itz ura: Nere ondotik dator ni bařno antziřagoko gizon bat, ni bařno lenagokoa da bera. Nik ez nuen ori ezagutzen, bařna urez bataiatzera etoři naiz, ori Israel-i ezaguerazteko.»

Beste aitořera bat ere egin zuen Yoan-ek ziola: «Atsa zerutik uso-idurian yexten ikusi nuen ta ořen gařnean yaři zan. Nik ez nuen ezagutzen ori, bařna urez bataiatzera bidali nauenak esan zidan: Atsa gizon baten gařnera yetxi ta an yartzen ikusten duzunean, gizon ori da Ats Sanduaz bataiatzen duena. Eta nik alaxe ikusi dut eta goraki aitortzen dut: Au da Yainkoaren Semea.»

20—Lenbiziko ikasleak

(Io. I, 35-51)

Biaramonean, Yoan an zegoen beñiz bi ikaslekin. Ta Yesus an zebilela ikusirik, esan zuen: «Ora or Yainkoaren Bildotsa.» Bi ikasleak entzun zituzten itz oiek ta Yesusi yañaiki zitzaizkion.

Yesus itzuli zan, ta aiek atzetik zetozkiola ikusirik esan zien: «Zeren bila zabilzate?» Aiek esan zioten: «Rabbi, (esan naida, Maisua)(1), non bizi zera?» Erantzun zien: «Atozte ta ikusi.» Yoan ziran arekin, ikusi zuten non bizi zan ta egun artan arekin egon ziran. Amar orduak inguru ziran (2).

Yoan-en itza aditu ta Yesusekin yoan ziran aietako bat Andrea, Simon Pedroren anaia zan. Oñek arkitu zuen bere anai Simon ta esan zion: «Arkitu

(1) *Rabbi* hebreerazko itza da ta Maisua edo Nausia esan nai du.

(2) *Amar orduak*, afatsaldeko lauak gutxi gora-bera.

diagu Mesia (edo Kristo).» Ta Yesu-sengana eramán zuen.

Yesusek begiratu ta esan zion: «Zu zera Simon, Yoan-en semea; Kefa (esan nai du: Arkaitza) deituko zera zu.» (1)

Biaramonean Galileara yoan nai izan zuen Yesusek; arkitu zuen Filipo ta esan zion: «Yafáiki zakizkit.» Filipo Betsaidakoa zan, Andrea ta Simonen eñi berekoa.

Filipo-k arkitu zuen Natanael (2) ta esan zion: «Moise-k legean ta profetak iragañi ziguten ura arkitu diagu; Yesus, Yose-ren semea, Nazaretekoa.» Natanael-ek galdegin zion: «Nazaret-etik ezer onik etoñi ote diteke?»—«Ator ta ikusak» esan zion Filipo-k.

Yesusek Natanael etortzen ikusi zuenean, esan zuen artaz: «Oñá or egiazko Israeldar, maltzurkeririk ez duen bat.» Natanael-ek esan zion: «Nondik

(1) *Kefa* sirierazko itza da ta *arkaitza*, edo *aria* esan nai du (latinez *petrus*, *petra*.)

(2) *Natanael*; geienak uste dute, Natanael ori beste izenez Bartolomeo deritzan Apostolua bera dala.

ezagutzen nauzu?» Yesusek erantzun zion: «Filipo-k zu deitu orduko, pikondo azpian zeundenean ikusi zaitut.» Natanael-ek esan zuen: «Rabbi (Maisua), zu zera Yainkoaren Semea, zu zera Israel-go elegea.»

Yesusek ordea erantzun zion: «Pikondo azpian ikusi zaitudala esan dizudalako siñesten duzu? Ori baño aundia-
gorik ikusi beara zera.» Gero gañeratu zuen: «Egiaz, egiaz nik diotsuet; zerrua zabaldu ta Yainkoaren Aingeruak Giza-Semearen gañera yexten ta igotzen ikusiko dituzue.»

21—Kanakan ezteiak—Jesus Kaparnaumen—Pazkoa

(Io. II, 1-25)

Andik irugañen egunean, ezteiak izan ziran Galilea-ko Kana eñian. Jesus-en Ama an zan, eta Jesus ta bere ikasleak ere deitu zituzten ezteietara.



JOS. SPREYBROUCK 20.

Ardoa akitu zanean, Yesusen Amak esan zion Berari: «Ardorik eztute.» Yesusek erantzun zion: «Andrea, zer ikusteko dut nik zurekin? Nere ordua ezta oraño etoñi.» (1)

Aren Amak esan zien mirabeai:» Egi-zue esango dizuen guzia. «Baziran bertan sei kupel añizko, Yuduak egin oi dituzten garbiketetarako (2); bizpairuna neuñi kokatzen zituzten (3).

Yesusek esan zien: «Bete kupelok urez.» Ta bete zituzten goraño. Gero esan zien: «Orain atera ortik ta maibu-

(1) *Zer ikusteko dut nik zurekin?*—Yesus'ek bere Amari esaten dizkion itz oiek gogor samarñak iduri dute azaletik begiratu ezker; baña oien mamia ongi aditzen badugu, eztegu bat ere gogortasunik arkituko. Itz oiekin auxe bakañik esaten dio: «Andrea, zertako zatozkit mirari eske, mirariak egiteko garaia oraindik etzait etoñi ta? Nere Aita Zerukoak izendaturik dauka ni mirariak egiten asteko ordua, ta ordu ori ezta oraindik eldu; ofegatik eziñezko gauza da zuk eskatzen didazuna egitea.»

(2) *Yuduen garbiketak*; Yuduak maiz garbitzen zituzten beren eskuak ta yateko tresna guziak, batez ere bazkalauñean. Garbiketa oiek egiteko zeuden, ba, añizko kupel aiek.

(3) Eguzkialdeko *neuñi* batek gutxi gorabera 40 litro artzen zituen. Beraz oso aundiak ziran kupel aiek.

ruari eramán.» Ta eramán zioten. Maiburuak murtxatu zuen ur ardo-eginda-koa. Berak etzekien, ardo ori nonjika-koa zan; ardoa atera zuten mirabeak ordea bazekiten.

Otsegin zion bada maiburuak senar-beñari ta esan zion: «Edozeñek ardo onena maieratzen du lenbizi; gero, naikoa edan dutenean, txañena; zuk ordea orain arte gorde duzu ardo ona.»

Oñela egin zuen Yesusek bere lenbiziko miraria Galilea-ko Kana eñian. Bere ospea erakutsi zuen ta bere ikasleak Arengan siñetsi zuten.

Gero bere Ama ta anai (1) ta ikaslekin Kafarnaum-era yetxi ta zenbait egunez an egon zan.

Yuduen Pazkoa urbil zegoen ordea ta Yerusalem-era igo zan Jesus. Yauretxean arkitu zituen idi, ardi ta usosaltzaleak, ta diru-trukatzaleak eseri-

(1) Or aipatzen diran Jesus'en *anai* oiek etziran egiazko anaiak, *aideak*, *lengusuak*, baizik.

rik (1). Eta soka batzuez azoñi (azote) bat egiñik, yauretxetik aurtiki zituen beren ardi ta idiekin, trukatzalen dirua bañeatu ta maiak irauli zituen. Uso-saltzaleai esan zien: «Kendu auek emendik, eta ez egin nere Aitaren etxea salerosteko etxea.»

Orduan oroitu ziran ikasleak idatzirik dagon itz artaz: «Zure etxearenganako kañak eñetzen nau.»

Yuduak ordea galdegin zioten: «Zein ezaupidez erakutsiko diguzu, ori egitea zilegi (lege) zaitzula?» (2) Yesusek erantzun zien: «Luñera zazue yauretxe

(1) *Saltzaleak*. Yaunari yauretxean (temploan) eskeintzeko bear ziran *ardi, idi ta usoak* saltzen zituztenak.

Diru-trukatzaleak. Mundu guzitik biltzen ziran yuduak Yerusalem'en Pazko-Yaietarako; yentil-erietatik zetozenak ordea etzuten Yudu-eriko dirurik ekartzen; ta Yaunaren etxean diru ori besterik eskeñi etzitezkelako, Yerusalem'en dirua trukatu bear izaten zuten. Ortako zeuden *diru trukatzale* aiek.

(2) Yuduen Agintariak ontzat ematen zuten yauretxean egiten zan sal-erosketa ori; Yesus'ek orain txartzat ematen duela ikusirik, yuduak galdetzen diote, ea nork eman dion ori egiteko, eriko Agintarien aurka (kontra) yartzeko eskubidea.

au, ta nik iru egunez goratuko dut be-
riz.» Yuduak esan zioten: «Berogei ta
sei urtez lan egin zan yauretxe au go-
ratzeko, ta zuk iru egunez goratuko
zenuke?»

Jesus ordea bere gorputzaren yau-
retxeaz mintzo zan (1). Geroago, ilen
artetik piztu zanean, bere ikasleak oroi-
tu ziran esaera ortaz eta siñetsi zuten
Idazkia (2) eta Yesusek esandako itza.

Pazko-yaiak bitartean Yerusalem-en
zegolarik, askok siñetsi zuten aren ize-
nean, egiten zituen mirariak ikusi ta.
Yesusek ordea etzuen uste aundirik
aiengan, guziak ezagutzen zituelako.
Etzuen iñoren aitoñera (esana) bear,
nor zer zan yakiteko, berak bazekie-
lako, gizona baitan zer zan. (3)

(1) Yesusek añizko yauretxeaz itzegiten zuela
uste zuten Yuduak; baña ez, Jesus bere gorputzaz
ari zan. Ori zan Yuduak ondatu ta uratu bear zuten
yauretxea, baña irugañen egunean beriz piztu ta go-
ratu bear zuena.

(2) *Siñetsi zuten Idazkia.* Idazkian edo Liburu
Sanduetan leku askotan esaten baita, Yesu-Kristo
ilen artetik piztu beaña zala.

(3) Guk gizonen bat lenbiziko aldiz ikusten du-

22—Kristo ta Nikodemo

(Io. III, 1-21)

Farisuen artean bazan Nikodemo ize-neko gizon bat, yudutar Batzañe-gizona. Au etoñi zitzaion Yesusi gauez ta esan zion: «Maisua, badakigu Yainkoagandik etoñi zerala irakasle bezela, iñork ez baititzake egin zuk egiten dituzun mirariak, Yainkoa berarekin ezpadago.»

Yesusek erantzun zion: «Egiaz, egiaz, nik esaten dizut: Norbait beñiz yaiotzen ezpada, ezin dezake Yainkoaren yaurgoa ikusi.»

Nikodemok esan zion: «Nola yaio diteke gizona, zaña dalarik? Bere ama-

gunean, eztugu bereala ezagutzen zer nolakoa dan gizon ura, ona dan ala gaiztoa dan, asmo onak ala makufak dituen; guk ori yakingo badugu, beste norbaitek esan bear digu. Yesusek ez ordea, arek etzuen oñen beañik, berak ezagutzen zituen añas ongi gizon guziak, ikusten zituen biotz ta bañunbeak, bazekizkien aien asmoak, aien gogoetak, etzion iñork esan bear nor zer zan.

ren sabelera beñiz sartu ta bigařen al-
diz yaio ote diteke?»

Yesusek erantzun zion: «Egiaz, egi-
az, nik diotsut: Norbait uretik eta Ats
Sandutik beñiz yaiotzen ezpada (1),
ezin diteke Yainkoaren yaurgora sartu.
Aragitik sortzen dana aragi da, ta atse-
tik sortzen dana atsa da. Beñiz yaio
bear duzue! esan dizudalako ez gero
aritu .Aizeak nai duen lekuan fu-ema-
ten du; aren otsa entzuten duzu, baña
nondik datořen ta nora dioan ez daki-
zu. Atsetik yaio dan edozeñekin ere
orixe gertatzen da. (2)»

Nikodemo-k galdegin zion: «Nola
gerta ditezke gauza oiek?»

(1) *Uretik ta Ats Sandutik beñiz yaiotze ori* ba-
taioan agitzen da. Gizona yaiotzean, bere anima
graziarik gabe dago, beraz ila dago; bataio sanduak
pekatua kentzen du, Ats Sandua animara ekartzen
du ta ofela ematen dio gizonari bizi beña, animaren
bizia.

(2) Aizea eztugu ikusten, aren otsa ta buñunba
entzun bai. Orobat, eztugu ikusten, Ats Sandua gu-
re animara etoři ta bizi beñi ori ematen digunean,
baña ezagutzen dugu gurekin dala gure barnean so-
matzen ditugun ondoreengatik, gizon beñiak egiñik
gelditzen geralako ta.

Yesusek erantzun zion: «Zu maisu zera Israel-en, eta au ez dakizu? Egiaz, egiaz, nik diotsut: Guk dakigunaz itzegiten dugu ta ikusi duguna aitortzen dugu. Luñeko gauzetaz itze gin badizuet ta siñesten ez baduzue, nola siñetsiko duzue, zeruko gauzak esaten badizkitzuet? Iñor ezta zerura igo, zerutik yetxi dan Yainkoaren Seme, zeruan dagona baizik. Moise-k basabazteñean sugea goratu zuen bezela, Giza-Semea ere olaxe goratu bear dute, Arengan siñesten duenik bat ere galdu ez dedin ta guziak betiko bizia izan dezaten.

«Yainkoak ain maite izan du mundua, ta bere Seme bakaña eman du, Arengan siñesten duenik bat ere galdu ez dedin, ta guziak betiko bizia izan dezaten.

«Yainkoak eztu bere Semea mundura bidali, mundua gaitzestera, mundua aren bidez gaizka dedin baizik. Arengan siñesten duena ezta gaitzetsiko; siñesten eztuena beriz gaitzetsia dago onezkero, Yainkoaren Seme bakañaren

izenean siñesten eztuelako.

«Epaiketa (juizioa) auxe da: Argia etofí da mundura, baña gizonak argia baño maiteago izan dute ilunbea, beren egiteak txarák ziralako. Gaizki egiten duten guziak iguin dute argia ta ez dira argitara etortzen, beren egintzak agertu ez ditezen. Egiaren araura dabilena beñiz argitara etortzen da, bere egintzak Yainkoarekin egiñak dirala agertu ditezen.»

23—Kristo Yudean—Yoan-en aitorera

(Io. III, 22-IV, 3)

Gero Yesus Yudea-efira yoan zan bere ikaslekin; an egon zan aiekin ta bataiatzen ari zan. Yoan-ek ere bataiatzen zuen Enon-en, Salim ondoan, bertan ur aundia zegolako; ta yendeak etortzen zitzaizkion ta bataiatzen zituén. Oraño etzuten Yoan baitegira (kartzelara) sartu.

Orduan eztabaida sortu zan Yoan-en

ikasle ta Yuduen artean, garbiketa (bataioa) zala ta. (1) Urbildu zitzaizkion Yoan-i bere ikasleak eta esan zioten; «Maisua, Yordan-araindian zurekin egon zan ta zuk aitor-egin zenion gizon ura bataiatzen ari da, ta guziak yoaten zaizkio.» (2)

Yoan-ek erantzun zien: «Gizon bateg ezin dezake ezer artu, zerutik ematen ezpazaio. Zerok yakile zerate nik esan dudala: Ni ez naiz Kristo, aren aurrean bidalia besterik ez naiz. Emaztea duena, ura da senaia; senar-beñiaren adiskidea an dago ta entzun dio ta

(1) Eztabaidan ari ziran, ea zein bataio ote zan ohea ta animak garbitzeko egokiagoa, Yesus-ena ala Yoan-ena.

(2) Yoan Bataiazalearen ikasleak etzuten begionez ikusten yende guzia Yesusen ondotik yoatea, berak nai zuketen guziak beren Maisuarekin ibiltzea. Yoan-ek erakusten die, bera oso pozik dagola ortaz, lendik esan duenez bera Kristoren aurrean etofia dala, Ari bidea apaintzeko, ura nor dan erakusteko ta yendea arengana erakartzeko; bera dala senar-beñiaren (Kristoren) adiskidea, ez dala bera Kristo; Yesusek bear duela aunditu munduaren aurrean; bera beñiz, bere egitekoa, Yesusi bidea apaintzea bete ondoan itzaliko dala. Oñela kentzen die Yoan-ek bere ikasleai Yesusenganako beren bekaizkeria.

agitz pozten da senar-beñiaren mintzoaz. Poz auxe izan dut nik bete betea.

«Arek bear du aunditu, nik beñiz txikitu.»

Goitik datořena guzien gain dago; luřetik datořena lurtařa da ta lurtar-aintzu mintzatzan da. Zerutik datořena guzien gain dago. Ořek ikusi ta entzun duena, orixe aitortzen du ta ořen aitořera ezta iñork onartzen. Ořen aitořera onartzen duenak beñiz, Yainkoa egitia dala adierazten du. (1)

Yainkoaren Bidaliak Yainkoaren itzak esaten ditu, neuřirik gabe ematen baitu Yainkoak bere atsa. Aitak maite du Semea ta ořen eskuan yaři du guzia. Semeagan siñesten duenak badu betiko bizia; Semeari siñesten eztionak beñiz ezta bizia ikusiko, ta Yainkoaren aseřearen mendean dago.

Farisauak entzun zuten, Yoan-ek

(1) *Goitik, zerutik datořen* ori Yesu Kristo da; ořek erakutsi digu gizonoi berak ikusi ta entzun duena, Yainkoaren beřia; baña gizonak ez dituzte ořen esanak artzen, siñesten.

baño ikasle geiago biltzen zituela Yesusek eta geiago bataiatzen zuela. (Yesus berak etzuen ala ere bataiatzen, bere ikasleak baizik). Yesusek beñi ori yakin zuenean ta Yoan baitegian sartu zutela ikasi zuenean, Galilea-ra baztertu zan, Atsak eragiñik.

24—Yesus Samaria-n

(Io. IV, 4-42)

Samaria-n zear igaro bear zuen. Iritxi zan bada Samaria-ko iri Sikar zeritzanera, Yakob-ek bere seme Yose-ri eman zion zelaiaren ondora. An zegoen Yakob-en putzua. Yesus, bideaz nekaturik, putzu aldean eseri zan. Seigañen ordua edo zan.

Samaria-ko emakume bat etofi zan urketara. Yesusek esan zion: «Edatera emadazu.» (Aren ikasleak irira yoanak ziran, bizigafiak erostera).

Emakume Samariañak erantzun zion: «Zuk, Yudua zeralarik, nola eskatzen

didazu edatera, Samariaña naizen oni?»
Yuduak Samariañekin artu-emanik bat
ere ez dute ta. (1)

Yesusek erantzun zion: «Baldin Yainkoaren emaitza ezagutzen bazenu, eta bazeneki zuri edatera eskatzen dizun au nor dan, zeroñek eskatuko zenioke, ur bizia eman dezaizun.»

Emakumeak diotsa: «Yauna, ur-ateratzeko ontzirik ere eztuzu ta putzua barna da; nondik duzu ur bizia? Gure aita Yakob baño aundiago al zera? Arek eman zigun putzu au ta ortatik edan zuen berak, bere semeak ta bere abereak.»

Yesusek erantzun zion: «Ur onetatik edaten duena egañituko da beñiz; nik emango diodan uretik edaten duena beñiz ezta egun-ta-beti egañi izango; aitzitik, nik emango diodan ur ori egingo zaio betiko bizira zifistatzen dan iturria.»

(1) *Artu-emanik eztute*. Elkarren etsai ziran Yuduak eta Samariañak, ezin zezaketen elkar ikusi; oñegatik añitu zan emakume ura, Yesusek, yudua zalarik, berari Samariar bati ura eskatu ziolako.

Orduan esan zion emakumeak: «Yau-
na, indazu ur ori, egañitu ez nadin, ta
onera ur-eske etoñi beañik izan ez de-
zadan.»

Yesusek esan zion: «Zoaz, dei zazu
zure senaña ta atoz onera.»

Emakumeak erantzun zion: «Eztut
senañik.»

Yesusek beñiz: «Egia diozu: Eztut
senañik. Bost senar izan dituzu, ta orain
duzuna ezta zure senaña; egia esan
duzu.»

Emakumeak diotsa: «Yauna, bada-
kust Profeta zerala. Gure asabak (au-
rekoak) mendi onetan yauretsi (adora-
tu) zuten Yainkoa, ta zuek beñiz diozue,
Yerusalem-en dagola Yainkoa yaures-
teko tokia.» (1)

(1) Aspaldiko eztabaida bat bazan Yuduen ta Samariañen artean. Samariañak Garizim-mendian egi-ña zuten yauretxe (templo) bat; Yuduak beriz zio-ten, etzala zilegi yauretxe ura, Yerusalem-eko yauretxean bakañik egin bear zerala erlijio-eginkizunak. Samaria-ko emakume oñek bada, Jesus profeta dala ezagutu duen bezain laster, galdegiten dio, ea zer iduri zaion eztabaida ortaz, ea nor dagon izpidean, Samariañak ala Yuduak.

Yesusek diotsa: «Emakumea, siñetsi zaidazu; Yainkoa ez mendi onetan ta ez Yerusalem-en yauretsiko ez duzuen garaia badator ta bertan da. Zuek ezagutzen ez duzuen a yauresten duzue, guk ezagutzen duguna yauresten dugu, gaizkatzea Yuduengandik dator ta. Bana egiazko yauresleak Aita egiaz ta atsez yauretsiko duten ordua badator ta bertan da; olako yauresleak bilatzen ditu Aitak. Yainkoa Atsa da, ta Bera yauresten dutenak atsez ta egiaz bear dute yauretsi.»

Emakumeak diotsa: «Mesia (esan naidu, Kristo) badatoréla badakit, Arek, etoñi dedinean, yakin-araziko digu guzia.»

Yesusek esan zion: «Ni, zurekin mintzo naizen au nauzu *Mesia ori*.»

Orduantxe etoñi ziran aren ikasleak, eta emakume batekin izketan ari zalako aritu ziran. Ala ere etzion iñork galdegin: Zer nai duzu, edo; Zer ari zera oñekin izketan? (1)

(1) Yesus emakumearekin izketan ari zan bitartean, ikasleak etoñi ziran eñetik, bizigariak erosi ta.

Emakumea, bere txantxila an utzi ta irira yoan zan ta ango yendeai esan zien: «Egin ditudan gauza guziak esan (asmatu) dizkidan gizon bat ikustera atozte. Ori ote dugu Kristo?»

Atera ziran bada iritik ta arengana ziran. Bizkitartean bere ikasleak eskatzen zioten esanez: «Maisua, yan zazu.» Arek beñiz esan zien: «Zuek ez dakizuen yanari bat badut nik yateko.» Orduan ikasleak esan zioten elkañi: «Norbaitek yatekoa ekañi ote dio?»

Yesusek dioste: «Ni bidali nauenaren naia egitea ta aren lana bururatzea, orixe da nere yanaria. Ez al diozue zuek: Oraindik lau ilabete ta uzta badator? Begira, nik diotsuet: Gora itzatzue zuen begiok ta ikusi aloñak (soroak), zuriturik daude igitarako. (1)

Yatekoa eskañi zioten, baña Yesusek erantzun zien, berak bazuela beste yanari bat. Eta ikasleak uste baitzuten norbaitek yateko zerbait ekañi ziola, erakutsi zien Yesusek zein zan bere yanaria, Yainkoaren naia egitea, Yainkoaren agindua betetzea.

(1) *Gora itzatzue...* Jesus da ereilea, Yainkoitzaren azia munduan zabaltzera etofia; berak Samaria-n erein duen azi ofek uzta ugaria ekañiko du

Onezkero igitariak artzen du bere saria ta betiko bizirako biltzen du arnaria (frutua), berdin ereilea ta igitaria poztu ditezen.

«Ongi dator emen arako esaera ura: Batek ereiten du, besteak uztatzen. Nik bidali zaituztet landu ez du zuena uztazera; beste batzuek egin dute lana, ta zuek aien lanetara sartu zerate.» (1)

Iri artako Samariar askok siñetsi zuten Arengan, emakumeak esan zielako: Egin ditudan guziak esan dizkit. Yoan zitzaizkion bada Samariañak, ta aiekin egoteko eskatu zioten. Ta an egon zan bi egunez.

Orduan askoz ere lagun geiagok siñetsi zuten Arengan, bere esanak entzunik. Emakumeari esaten zioten:

berealak, Samariañak gogo onez aditzen dute Yesusen itza ta aren siñestea artzen dute. Auengatik dio Yesusek gal-soroak zurituri, ondurik daudela igitarako. Igitariak, garia biltzen dutenak Apostoluak dira.

(1) Lenagoko profetak ta Yoan Bataiazaleak landu zuten luña (Yudu-erria), ta egin zuten aziera; orain eldu dira Apostoluak, aiek landu ta ereindako lur artan uzta egitera, garia biltzera.

«Orain siñesten dugu ez zure esanagatik bakarik; orain gerok entzun dugu ta badakigu: Auxe da ziñez munduaren Salbatzalea.» (1)

25—Yesus Galilean

(*Io. IV, 43-45; Lc. IV, 14*)

Bi egunen buruan andik atera ta Galilea-ra yoan zan. Yesusek aitortu zuen, profeta batek bere sortetian eztuela omenik.

Galilea-ra iristean, Galilearrek atera ona egin zioten, yai-egunean Yerusalem-en egin zituen guziak ikusi zituztelako, aiek ere yai-egunerako Yerusalem-era yoan izan ziran ta. Erialde guzi artan zabaldu zan aren aomena.

(1) Emakumearen beña entzun-ta Samariako yendeak Yesusengana ziran ta bi egunez berekin geldiarazi zuten. Yesusen egotaldi orek on aundia egin zien, bi egun aien buruko ezagutu zuten Yesus zala munduaren Salbatzalea, ta Arengan siñetsi zuten.

**26—Yesusek érege-gizonaren semea
sendatzen du.**

(Io. IV, 46-54)

Etoñi zan bada beñiz Galilea-ko Kana-ra, ura ardotu izan zuen eñi artara. Érege-gizon baten semea (1) eri zegoen Kaparnaum-en. Yesus Yudeatik etoñi zala entzun orduko, yoan zan gizon ura Yesusengana, ta eskatu zion yexteko ta bere seme ilzorian zegona sendatzeko.

Yesusek esan zion: «Ezaupideak (gauza añañiak) eta mirariak ikusi ezik, eztuzue siñesten.» (2)

(1) *Érege-gizona*. Herode éregearen yauregiko gizon bat edo zan noski. Latiñezko *Vulgata-k* «éregexo» dakar, guk yañi dugun érege-gizon oñen orde.

(2) *Eztuzue siñesten*. Iduri luke gizon arek siñesten zuela, ta Yesusek or ematen dion lotsaldi ori etzuela merezi; baña ongi begiratzen badugu, ikusiko dugu gizon aren siñestea etzala bear-bezelakoa. Alde batetik siñesten zuen bai, Yesusek bere semea senda zezakela, baña bestetik etzuen us-te, Yesusek ori uñutira ere egin zezakenik edo bere semea il ondoan ere piztu zezakenik. Ori ematen dute aditzera Yesusi esaten dizkion itzak.

Erege-gizonak esan zion: «Yauna, atoz, nere semea il baño lenago.» Yesusek esan zion: «Zoaz, zure semea bizi da.» Gizonak siñetsi zuen Yesusek esandako itza ta yoan zan.

Etxerakoan, bere moñoiak bidera atera zitzaizkion, ta bere semea bizi zalako beñia eman zioten. Galdegin zien, ea zein ordutan eman zuen onera. Aiek esan zioten: «Atzo zazpigarren orduan aldegin zion sukañak.» Ezagutu zuen aitak, ordu artantxe esan ziola Yesusek: Zure semea bizi da. Ta bereala siñetsi zuen bere etxeko guziekin.

Au da Yesusek egindako bigarren miraria, Yudeatik Galilea-ra etorri ondoan.

27—Jesus Galilean barna ibilki.

(Mt. IV, 13-17; Mc. I, 14-15; Lc. IV, 15)

Gero Nazaret iritik aldegin ta itsaso ondoko Kaparnaum-en egon zan egoitez, Zabulon ta Neptali arteko mugal-dean. Ola bete bear zan Isaia Profetak

esandako itz ura (Is. VIII, 23; IX, 1):

«Zabulon eña ta Neptali eña;
itsasaldean yafiak,
Yordan-araindian
aíotz-eñitañen Galilea;
ilunbetan eseri-ta zegon eñiak
argi aundia ikusi du;
eriotzezko itzal-eñian zeudenai
argia agertu zaie.»

Gero asi zan Yesus Yainkoaren yaurgoaren beñi-ona zabaltzen, ziola: «Al dia bete da, ta Yainkoaren yaurgoa urbil da; damu zaitezte ta Ebangelioari siñetsi.» Aien sinagogetan (1) irakasten zuen ta guziak gorai patzen zuten.

(1) *Sinagogak* yuduen artean gure arteko elizak bezela ziran: otoitz-etxeak. Ara biltzen ziran beren yai-egunetan otoitz-egitera, Legea irakuri ta ikastera ta abar.

28—Jesus Nazaret-ko sinagogan.

(Lc. IV, 16-30)

Yoan zan Nazaret-era, bera azi zan eñira. Oitura zuenez, larunbatean (1) sinagogara zan ta irakurtzeko zutitu zan. Isaia Profetaren liburua eman zioten. Zabaldu zuen liburua ta topatu zuen arako itz aiek idatzirik dauden lekua (Is. LXI, 1 sq.):

«Yaunaren atsa nere gain;
Berak gantzutu nau
onbearai beñi-ona emateko;
biotz-ufatuak sendatzera bidali nau,
lotuai askapena ta itsuai ikusbidea
ematera;

zapaldurik daudenak lokabe (libre)
egitera,

Yaunaren eñuki-urtea ta asperkunde
-eguna yakin-araztera.»

Bildu zuen liburua, mirabeari eman
zion ta eseri zan. Sinagogako lagun

(1) Larunbata zan yuduen yai-eguna, gure artean igandea bezela.



guzien begiak arengan yosirik zeuden. Ta asi zitzaien esaten:

«Orain entzun duzuen idazki ori gaur bete da.» Guziak aitor-egiten zioten (1) ta Aren agotik ateratzen ziran itz eskertsuez ańiturik esaten zuten: «Ez al da bada au Yose-ren semea?»

Yesusek erantzun zien: «Zuek esango didazue noski arako esaera ura: Sendatzalea, zere burua senda zazu. Entzun dugunez, gauza aundiak egin dituzu Kaparnaum-en, ta egizkitzu emen zure sorteri onetan ere.» (2)

(1) *Aitor-egiten zioten*, aitortzen zuten aren zurtzia, yakintasuna, aren biziera itzalik gabea, aren sandutasuna.

(2) Nazaretańak nai zuketen ikusi Yesusek beste erietan egiten zituen mirari aietakoen bat; bańa Yesusek bazekien bere eritańen sińesgogortasuna, ta etzuen an miraririk egin nai. Ta esaten die, profeta bati ere etzaiola ańera onik egiten bere sorterian. Israel-en gosete aundi bat agitu zanean, Elia eritik kanpo, ańotz-eri batera yoan beańean arkitu zan bizitzera, bere erian ińork yatera eman nai etziolako edo. Bereolaxe, Eliseo profeta bizi zanean, baziran legendun asko Israel-en; bańa Eliseo k etzuen aietako bat ere sendatu, kanpotar bat beńiz bai sendatu zuen. Yesusekin ere berorixe gertatzen da orain: beste eri askotan egin ditu gauza ikusgańiak,

Gero gañeratu zuen: «Egiaz, nik diotsuet: Profeta batek ere eztu añera onik bere sorteñian. Egiaz nik diotsuet: Andre alargun asko ziran Israel-en Elia-ren egunetan, zerua iru urte ta sei ilabetez itxirik egon ta luñalde guzian gosete aundia izan zanean. Baña aietako batengana ere etzan bidali Elia, bai ordea Sarepta-n Sidon aldean bizi zan alargun batengana.

«Orobat legendun asko ziran Israel-en Eliseo profetaren aldian; ta aietako bat ere etzan sendatu, bai ordea Naaman Siriaña.»

Sinagogako guziak asañez sumindu ziran, itz auek entzunik. Yaiki ziran, iritik egotzi zuten; beren iria mendi baten gañean goratua zegoen ta mendiaren tontoñera eraman zuten, andik bera amiltzeko. Yesus ordea igaro zan aien artetik eta yoan zan andik. (1)

baña Nazaret-en eztu olakorik egingo, angoak merezi ez dutelako.

(1) Mendi baten gañean dago Nazaret eña, ta andik bera malkortu nai zuten Yesus bere eñitafak.

29—Pedro ta Andrea, Yakobo ta Yoan

(Mt. IV, 18-22; Mc. I, 16-20)

Yesus Galilea-ko itsaso ondoan zebilela, ikusi zituen bi anai, izengoitiz Pedro deritzan Simon ta Andrea bere anaia, sareak itsasora egozten ari zizala, aiantzaleak ziran ta. Yesusek esan zien: «Yaiaiki zakizkirate (atozte nerekin), gizon-aiantzale egingo zaituztet nik.» Utzi zituzten bereala beren sareak eta yaiaiki zitzaizkion.

Eta andik auferaxeago yoanik, ikusi zituen beste bi anai, Zebedeoren seme Yakobo ta onen anai Yoan, ontzian beren aita Zebedeo-rekin sareak konpontzen ari zizala. Aiei ere otsegin zien; ta aiek beren ontzia ta beren aita moioiekin utzi ta Yesusekin yoan ziran.

30—Kaparnaum-en—Deabrudun bat sendatzen

(Mc. I, 21-28; Lc. IV, 31-37)

Yoan zan aiekin Kaparnaum-era. Larunbatean sartu zan sinagogara ta irakasten ari zitzaien. Guziak aítu ziran Aren irakatsiaz, eskubidea duen batek bezela irakasten baitzuen, ta ez beren lege-irakasleak bezela.

Ango sinagogan, deabruak artua zegon gizon bat bazan. Oírek oiu egin zuen: «Utzazu, zer ikusteko dugu guk zurekin, Jesus Nazaretaía? Gu ondartzera etoíri al zera? Ezagutzen zaitut: Zu zera Yainkoaren Sandua.»

Yesusek ordea zematu zuen ta akar egin zion esanez: «Ixil adi, ta gizon oírengandik atera adi.»

Ats loiak (deabruak) biurkatu zuen gizona, erdira egotzi zuen ta kaíaxi aundi bat egiñik irten zan arengandik, kalterik bat ere egingabe. Ikarak artu zituen guziak, eta aíturik galdegiten

zioten elkañi: «Zer da au? zer irakaspen beñi dugu au? Ats loiai ere agintzen die, ta men-egiten diote ta aldegiten dute.»

Aren aomena zabaldu zan Galilea-ko bazter guzietan.

31—Simon-en amagiañeba sendatzen

(Mt. VIII, 14-17; Mc. I, 29-34; Lc. IV, 38-41)

Bereala sinagogatik atera ta, Simon ta Andrea-ren etxera zan (1) Yakobo ta Yoan-ekin. Simon-en amagiañeba oatzean (ocean) zetzan, sukar gaitzak arturik. Bereala eman zioten Yesusi oñen beñi ta aren alde otoitz egin zioten.

Jesus urbildu zitzaion, aren gañera kurtu zan ta sukañari agindu zion; gero eskutik eldu ta yaikiarazi zuen, ta sukañak aldegin zuen bertan. Bereala yai-

(1) Kaparnaum eñan agitu zan sendatze ori. Ortik nabari da, Pedro Apostoluak, naiz bera Betsaida koa izan, bazuela etxe bat Kaparnaum-en, edo bestela bere amagiañebarena zan etxe ura.

ki zan ta mirabe-egiten zien.

Aratsean, eguzkia sartu ondoan, eskañi zizkioten deabrudun asko; ta mota askotako gaitzez eri zeuden guziak ekartzen zizkioten. Iri guzia bere etxe-ko ate ondoan bildua zegon. Yesusek bere itzaz erauzten (aterazten) zituen ats loiak ta edozein eritasunez zapal-
durik zeuden guziaz eskua gañean yañi ta sendatu zituen.

Oñela bete zan arako Isaia profeta-
ren itz ura (Is. LIII, 4):

«Bere gain artu ditu gure gaitzak ta gure eritasunak yaso ditu.» (1)

Lagun askorengandik ateratzen ziran deabruak eta deadar egiten zuten esanez: «Zu zera Yainkoaren Semea.» Yesusek ordea zematzen zituen ta etzien

(1) Itz oiekin adierazten du Profetak, Yesusek bere gain artu bear zituela, guk merezi ditugun ta yasan bear genituzken miñak eta zigoradak. Itz oiek alaber erakusten digute, zergatik sendatzen zituen Yesusek eritasun guziak; gure gaitz ta eritasun guziak pekatutik datoz, pekaturik izan ezpalitz, ez genuen guk gaitzik izango; eta Jesus pekatua ondartzera etoñi baita, sendatu ditzake pekatu oñen ondoreak, gure gaitz guziak ere.

itzegitera uzten, Bera Mesia zala bazekitelako. (1)

32—Kristo-ren arat-onatak

(Mt. IV, 23-25; Mc. I, 35-39; Lc. IV, 42-44)

Goizean goiz yaiki zan Yesus, bakar-leku batera yoan ta otoitzean ari izan zan (2). Simon ta bere lagunak ere atzetik yoan zitzaizkion. Arkitu zutenean, esan zioten: «Guziak zure bila dabilta.»

Yesusek esan zien: «Goazen ondo-ko erixka ta iri oietara, or ere predikatzerara, ortarako etoña naiz ta.»

(1) *Zu zera Yainkoaren Semea.* Yesus Yainkoaren Semea dala aitortzen dute, bortxaz bada ere, deabruak; baña Yesusek eztu aien aitoñera ontzat artzen, eztu aien agotik goraipamenik artu nai.

(2) Bere mirariaz zoraturik dauzkan gizonengandik iges egiten du Yesusek ta bakartegira yoaten da otoitz egitera. Yesusek, gauza aundiren bat egin bear duen guzietan, lenbizi bere Aitari otoitz egiten dio. Ofela erakusten digu, zer egin bear dugun guk ere; gure estualdi, bear-ordu ta egiteko guzietan Yainkoagana yo bear dugu bereala, bere laguntza ta argia eskatzera.

Gizaldeak ere etoři ziran aren bila ta geldiarazi nai zuten, aiengandik aldegin etzezan. Arek ordea esan zien: «Beste iriai ere yakin-arazi bear diet Yainkoaren yaurgoa, ortarako bidalia naiz ta.»

Ořela inguratzen zuen Galilea osoa, ta aien sinagogetan irakasten zuen ta deabruak erauzten zituen; gaitz eta eritasun guziak sendatzen zituen eřitařen artean. Siria guzian zabaldu zan aren aomena. Mindun guziak, era askotako argaltasun ta gaitzez artuak, deabrudunak, ilargi-eriak ta elbařiak ekaři zizkioten, ta Berak sendatu zituen.

Gizalde aundiak yařaiki zitzaizkion Galilea-tik, Dekapoli-tik, Yerusalem-etik, Yudea-tik ta Yordan-arainditik.

33—Mirarizko arantza

(Lc. V, 1-11)

Egun batez, Genesaret-itsaso ondoan zegola, gizaldeak estutzen zuten,

Yainkoaren itza entzuteko. Itsas-bazte-
rean zeuden bi ontzi ikusi zituen; ańan-
tzaleak yetxiak ziran ta sareak garbi-
tzen ziarduten. Ontzi aietako bat Si-
mon-ena zan, ta Yesus artara igorik, lu-
řetik piska bat aldentzeko eskatu zion.
Gero eseri zan ta gizaldeai irakasten
zien ontzitik. (1)

Itzegitetik gelditu zanean, esan zion
Simon-i: «Sar zaite itsas-zabalera, ta
edatu zuen sareak ańantzarako.» Si-
mon-ek erantzun zion: «Maisua, gau
osoan lanean ari izan gera, ta eztugu
ezer atxitu; ala ere zure itzaren gańean
egotziko ditut sareak.»

Olaxe egin zuten ta ańainketa aun-

(1) Ańigafia da, yendeak Yainkoarea itza entzu-
teko duen leia ta sua. Gizalde aundiak beti Yesusen
ondotik dabilta, aren irakatsiak aditu ta ikasteko.
Orain ere or daude bere aldean, bultzaka ari zaiz-
kio, estutzen dute, ta ofela ontzi batean sartzera
beartzen dute Yesus, lasaiago egon ta eřazago min-
tzatzeko. Pedro-ren ontzian sartzen da Yesus, Pe-
dro-ren ontzitik irakasten du; Pedro-ren ontzi ori
Elizaren irudia zan, ta bide ortaz adiarazi nai digu
Yesusek, bera beti Elizan arkituko dala, Elizaren bi-
dez irakatsiko dituela zerurako bear diran egia gu-
ziak.

dia bildu zuten, sareak uratzeko ainbatekoa. Oregatik beste ontzian ziran ki-deai keñuz esan zieten, laguntzera etortzeko. Etoñi ziran ta bi ontziak bete zituzten, uren ondatzeko zorian.

Simon Pedro, ori ikusirik, Yesusen aurrean aozpeztu ta esan zion: «Yauna, aldegizu nigandik, pekataria naiz ta.» Ikarak arturik baitzeuden bera ta bere lagunak, atxitu zuten afinketa arengatik. Bai alaber Yakobo ta Yoan, Zebedeo-ren seme ta Pedro-ren lagunak.

Yesusek esan zion Pedro-ri: «Ez beldur izan; gaurdanik gizon-afantzale izango zera.» (1) Orduan legoñera zituzten beren ontziak, guzia utzi ta Yesusekin yoan ziran.

(1) *Gizon-afantzalea.* Orduan Pedro-k egin zuen afantza mirarizko ura gero animekin egin bear zuenaren iduri bat zan. Garai artan bere saretan alako afinketa aundia bildu zuen bezela, bereolaxe geroago zabalduko du munduan bere sarea animak afapatu ta zeruratzeko; ta aietako asko bilduko ditu zerurako.

34—Yesus-ek elbaría sendatzen du

(Mt. IX, 1-8; Mc. II, 1-12; Lc. V, 17-26)

Zenbait egunen buruan, Yesus sartu zan beñiz bere irira, Kaparnaum-era. Laster zabaldu zan etxe batean zego-lako beña ta lagun asko bildu zitzaiz-kion, atarian ere sartu ezin zirala. Be-ra eseri zan ta irakasten ari zitzaien. Antxe yañi ziran alaber Galileako eñix-ka guzietatik, Yudea-tik eta Yerusa-lem-etik etoñitako zenbait Farisau ta lege-irakasle. Ta Yesusek itzegiten zi-en, ta Yaunaren aala agertzen zan eri-ak sendatuz.

Beingoan ara non etoñi ziran lau gi-zon, elbarñi gaxo bat oatzean zekarte-la; ura etxera sartu ta Yesus-en auñean yañi nai zuten; ezin zezaketen ordea, yendea ain estu zegon ta. Orduan Ye-sus zegon etxeko gaindegira igo ziran, egaztegi (telatu) puska bat kendu zu-ten, eta eria bere oearekin zulotik be-

ra eratxi ta Yesus-en aúfean ezañi zuten. (1)

Yesus-ek aien siñestea ikusirik, esan zion elbañiari: «Seme, uste on izan! zure pekatuak barkatu zaizkitzu.»

Lege-irakasle ta Farisauak asi ziran beren baitan gogoeta egiten esanez: «Zer dio onek? Biraoa esan du onek (2). Birao-esale au nor da? Yainkoaz besterik nork barka ditzake pekatuak?»

Yesusek ezagutu zuen bere barnean (3), zer gogoetak zerabiltzaten eta esan zien: «Zergatik darabiltzazue gogapen oiek zuen barnean? Zer da eñazago, esatea elbañiari: Zure pekatuak

(1) Goizeñi-aldean etxeak oso apalak izaten dira geientsuetan eta zurubi (eskalera) batekin eñaz da aien gañera igotzea. Etxe-gaindegia ere eztira telazkoak; lur eta zurezkoak ta gañera zapalak izaten dira. Lau gizon aiek ofela igo ziran etxe gañera, an zulo bat egin zuten ta gero sokakin oea lotuta eratxi zuten Yesusen aúfera.

(2) *Biraoa esan du*, bere burua Yainko egin baitu, pekatuak barkatuz, ori Yainkoak bakarik egin dezaken gauza da ta.

(3) *Yesus-ek ezagutu zuen*, asmatu zituen bere etsaien gogorapenak, ta ofela erakutsi zuen beriz ere, bera Yainko zala, besteen gogorapen gordeak ikustea Yainkoaren gauza dalako.

barkatu zaizkitzu, ala esatea: Yaiki, ar zazu zure oatzea ta zabilitza? (1) Yaki-zue, Giza-Semeak (Yesusek berak) luñean pekatuak barkatzeko eskubidea baduela.» Gero esan zion elbarñari: «Yaiki zaite, ar zazu zure oea ta zoaz etxera.»

Gizona yaiki zan bereala aien aurrean, artu zuen bera zetzan oea ta bere etxera yoan zan, Yainkoa gorai patuz gizaldeak afitzeko ainbat. Baiki, guziak afiturik gelditu ziran ta Yainkoa gorai patu zuten, gizonei alako eskubidea eman zielako; esaten zuten: «Eztugu egundano olakorik ikusi; afitgañiak ikusiditugu gaur.»

(1) *Zer da erazago...* Biak gauza zalak dira, gizonek ez dezakete bata ez bestea egin; Yainkoak ordea bai egin ditzake biak. Geroztik, esaten die Yesusek, nik gizon elbarñi au sendatu ta ibilarazten badut, ezagun izango da ni Yainko naizela, ta geroztik pekatuak barkatzeko ere eskubidea badudala.

35—Mateo edo Levi-ren deitzea

(Mt. IX, 9-13; Mc. II, 13-17; Lc. V, 27-32)

Oñen ondoan, Jesus andik atera ta beñiz itsas-aldera zan ta gizalde guzia yañaike zitzaión ta berak irakasten zien. Bidez zioala, ikusi zuen Alfeo-ren seme Levi (beste izenez Mateo zeritzan) zergaria; zerga-etxean eseria zegon. Yesusek esan zion: «Atoz nerekin.» Eta gauza guziak utzirik, yaiki ta yañaike zitzaión.

Levi-k oturuntza aundia apaindu zion bere etxean. Eta ara, Jesus aren etxean maiera eseririk zegola, zergari ta pekatari asko ere etoñi ziran, eta Jesus ta bere ikaslekin batean maiera yañi ziran; oietako asko berarekin ibiltzen ziran ta.

Farisauak ta lege-irakasleak, Jesus zergari ta pekatariekin yaten ari zala ikusirik, marmarka asi ziran ta esan zieten aren ikasleai: «Zergatik yaten ta

edaten duzue, zuek eta zuen Maisuak, zergari ta pekatariekin?»

Yesusek, ori entzunik, erantzun zien: «Eri daudenak dute sendatzalearen beaña, ez ordea sendo diranak. Zoazte ta ikas zazue, zer esan nai duen arako esaera arek: Eñukia nai dut, eta ez oparia. Ez naiz etoñi zuzentsuak deitzera, pekatariak damutasunera deitzera baik. »

36—Yesusen ikasleak zergatik ez barutzen?

(Mt. IX, 14-17; Mc. II, 18-22; Lc. V, 33-39)

Baña aiek esan zioten: «Yoan-en ikasleak maiz barutzen dira ta otoitzak egiten dituzte; Farisauen ikasleak berdin; ta zure ikasleak beñiz zergatik ari dira yaten ta edaten?» (Galde berorixe egin zioten Yoan-en ikasleak ere).

Yesusek erantzun zien: «Senar-beñiaren adiskideak negar ta baru egin ote dezakete, senar-beña aiekin dagon

bitartean? Ez, senar-beña berekin duten bitartean, ezin dezakete baru egin. Senar-beña kenduko zaien egunak etorriko dira; ta orduan bai, egun aietan baru egingo dute.»

Berdintza au ere esan zien: «Soñeko zar bat konpontzeko, eztio iñork oial beñi puska bat yosten; bestela oial beñiak zati bat kentzen dio zañari ta uradura aundiago egiten da.

Orobat, iñork eztu ardo beña zagi zañetan sartzen. Bestela ardoak lertzen ditu zagiak eta ardoa isurtzen da ta zagiak ondatzen dira. Ardo beña zagi beñietan sartzen da, ta ofela biak irauten dute. Eta zañetik edan ondoan, eztu iñork bereala beña nai, esaten baitu: Zaña obea da.»

37—Yairo—Andre odolyarioa

(Mt. IX, 18-22; Mc. V, 21-34; Lc. VIII, 41-48)

Jesus itsasaldean zegoen. Itz oiek esaten ari zitzaiela, ara non etorri zan

Yairo izeneko gizon bat; sinagoga-burua zan ori (1). Urbildu zan, Jesus ikustean aozpeztu ta agur egin zion, ta gero eskatu zion afen! yoateko aren etxera, amabi urte inguruko alaba bakar bat bazuela ta il-zorian zegola.

Esaten zion: «Yauna, nere alaba azkenekotan dago; baña atoz, zure eskua gañean yar zaiozu (2), ta sendaturik biziko da.» Yaiki zan bada Jesus ta bere ikaslekin aren etxerako bidea artu zuen. Gizalde aundia yoan zitzaion atzetik eta bidean estutzen zuten.

Eta ara, amabi urte aietan odol-yario gaitza zuen emakume bat bazan bertan. Sendatzale askorekin gogoñak ikusia zan (3), bere ondasun guziak aiekin

(1) *Sinagoga-burua*. Izen ori ematen zitzaien *sinagogan* (yuduen elizan) *buru* egiten zutenai, ototzak egin, Liburu sanduak irakurri ta beste olako eginkizunak beren kontura zeuzkatenai. Oietako bat zan Yairo ori.

(2) *Zure eskua gañean yar zaiozu*. Bide ortaz sendatzen zituen Yesusek eri asko, ta oregatik egiten dio Yairo-k eske ori.

(3) *Gogoñak ikusia zan*. Orduko sendatzaleak sendagai asko ta garestiak aferazten zizkieten ema-

txautuak zituen; baña batek ere ezin izan zuen gaitz ura sendatu, gero ta gaizkiagotu egin zan.

Onesk bada, Yesusen beñi yakin orduko, urbildu zan atzetik yende artean, (1) ta Yesusen yantziko litsa ukitu zuen bere baitan esanez: «Baldin aren soñekoa besterik ezpada ere ukitu badezat, sendatuko naiz.» Ta izan ere, bereala agortu zan aren odol-ituña, ta gaitz artatik sendatu zala somatu zuen bere gorputzean.

Yesusek laster ezagutu zuen bere barnean, beragandik indar bat atera zala (2). Itzuli zan bada yende aldera ta galdegin zuen: «Nork ukitu nau? Nork ukitu ditu nere soñekoak?» Guziak ezetz zioten.

Orduan Pedrok eta arekin zeuden

kume ofek bezelako gaitza zuten eriai; ofegatik ere txautu izan zituen bere ondasun guziak.

(1) *Urbildu zan atzetik.* Etzan ausartzen Yesusen aurpegira agertzera, legeak debekatzen baitzuen odol-yariodunak yenden artean agertzea. Argatik zebilen andre ura atzetik, ixkutuka.

(2) *Indar bat,* mirariak egiteko indaia; mirari bat agitu zala auteman zuen Yesusek.

beste ikasleak esan zioten: «Maisua, gizaldeak zapatzen ta estutzen zaituzte, ta ala ere: Nork ukitu nau, galdegiten duzu?»

Yesusek ordea esan zuen: «Bai, norbaitek ukitu nau, neregandik indar bat atera dala ezagutu dut.» Ta inguru begiratzen zuen, ori egin zuen emakumea ikusi naiez. Ezagutu zuen bada, ezin gorde zitekela; ta beraren baitan agitu zana ikusirik, belduñez ta ikaraz (1) etofi ta Yesusen oñetara aozpeztu zan; argi ta garbi egia esan zion ta yende guziaren aúrean aitortu zuen, zergatik ukitu zuen ta nola sendatu zan bereala.

Yesusek, ori ikusirik, esan zion: «Alaba, biotz on izan! zure siñesteak sendatu zaitu; zoaz pakean, ta senda bekizu gaitz ori.» Orduezkero sendatu zan emakume ura.

(1) *Belduñez ta ikaraz*. Yesusek akar (erixta, mokoka) egingo ote zion beldur zan; argatik belau-nikatu zitzaion, barkamena eskatzeko bezela.

38—Yairo-ren alaba

(Mt. IX, 23-26; Mc. V, 35-43; Lc. VIII, 49-56)

Jesus orañõ mintzo zala, Yairo sinagoga-buruari bere etxeakoak etofí zitzazkion ta esan zioten: «Il da zure alaba; zertako nekarazten duzu gaurgero Maisua?» (1).

Yesusek entzun zuen beñi ori ta esan zion sinagoga-buruari, neskatxaren aitari: «Ez beldur izan, uste ona izan zazu.» Pedro, Yakobo ta Yoan bai, besterik etzuen berarekin yoatera utzi.

Oñela iritxi ziran sinagoga-buruaren etxera, ta ikusi zituen Yesusek txistulariak ta yendea zalapartaka, ta guziak negañez ta aioska (2). Jesus etxe-

(1) *Zertako nekarazten duzu Maisua*, alpeñik da orain ori zure etxera yoatea, bein zure alaba il dan ezkerõ. Ola esan zioten Yairo-ri bere etxeakoak; siñeste gutxiko yendeak ziran aiek, ezpaitzuten uste Yesusek neskatxa ila beñiz piztu zezakenik.

(2) *Txistulariak, zalaparta, negar-aiotsak*. Yuden artean (ta beste alde askotan ere bai), nor edo nor iltzen zanean, txistulariak yoaten ziran ilari ile-ta-yotzera, eta erostariak edo adiazaleak, ilaren aurrean negar ta aiots egitera.

ra sartu zan ta esan zien: «Zer ari zerate zalapartaka, ta negaitez? Ez negar egin, zoazte; neskatxa ezta il, lo dago.» Aiek iseka (iri) egin zioten, neskatxa ilik zegola baitzekiten.

Berak ordea guziak aterazi zituen, eta bere iru ikasleak ta neskatxaren aita-amak berarekin arturik, neskatxa zetzan tokira sartu zan. Orduan neskatxari eskutik eldu ta esan zion: «*Talitha, kumi*; esan nai du: Neskatxa (iri mintzo natzain), yaiki adi.»

Aren anima beñiz itzuli zan, yaiki zan neskatxa ta bazebilen. Aren gurasoak añitu ziran añimen guziz aundiz; Yesusek ordea zoñozki agindu zien, gertatua iñori ez esateko. Bazter guzi aietan zabaldu zan gertaera onen beñia.



**39—Yesusek bi itsu ta deabrudun bat
sendatzen**

(Mt. IX, 27-38)

Yesus andik yoatean, bi itsu yañai-ki zitzaizkion, oiuka ziotela: «David-en semea, gutaz efukitu.» Etxera sartu zaneko, urbildu zitzaizkion itsuak. Yesusek galdegin zien: «Ori egin dezakedala siñesten al duzue?»

«Bai, Yauna» erantzun zioten. Orduan aien begiak ukitu ta esan zien: «Zuen siñestearen ariora gerta beki-zue.» Aien begiak idiki ziran; Yesusek beñiz agindu zořotz au eman zien: «Ez dezala gero iñork ořen beñi yakin.» Ala ere yoan ziran ta bazter guzi aietan zabaldu zuten aren beñia.

Aiek aldegin ondoan, gizon mutu, deabruak artua zegoen bat ekañi zioten. Yesusek erauzi zuen deabrua, ta mutua mintzatu zan (1). Gizaldeak ari-

(1) Gizon ori *muturik* zegoen deabruak artua zeukalako, ez bere mingain edo agoan utsen bat zuelaka.

turik oiu egin zuten: «Egundaño ezta Israel-en olakorik ikusi.»

Farisauak ordea esaten zuten: «Deabru-nausiarekin itz-arturik dago, ta oñela erauzten ditu deabruak.» (1)

Iri ta eñi guzietan barna zebilen Yesus, sinagogetan irakasten zuen, eta argaltasun ta gaitz guziak sendatzen zituen. Baña gizaldea ikustean, uñikaldu zitzaion, nekatuak ta zapalduak zeudelako, artzairik gabeko ardien antzera (2). Orduan esan zien bere ikasleai: «Uzta (zitua, laborea) ugaria, langileak beñiz gutxi; uztaren yabeari eska zaiozue bada, bidaltzeko langileak bere uztara.» (3)

(1) Eñia, yende xea afitzen da Yesusek egiten dituen mirarietaz; Farisau afoak ordea, oña zer aitzaki ateratzen duten, Yesusi ez siñesteko; onek egiten dituen mirariak deabru-nausiaren bidez, arekin itz-arturik egiten dituela, ez dala oietan Yainkoaren eskurik ageri. Ori itsukeria!

(2) Israel-eñia da *artalde* ori, Farisauak eta lege-irakasleak dira *artzaiak*; baña artzai txarak, beren artaldeaz axola gutxi duten artzaiak; ardiak bide txarëtatik atera ta bide zuzenera, lafe onetara eramateko ardurarik ez duten artzaiak.

(3) Eñia, yendea da zerurako bildu bear dan *uz-*

**40—Yesusek Yerusalem-en elbari bat
sendatzen du. Ondoko mintzaldia**

(Io. V, 1-47)

Oien ondoan, Yuduen yai-egun bat zan ta Yesus igo zan Yerusalem-era (1). Yerusalem-en, Ardi-atearen ondoan, bada putzu bat; hebreeraz Bet-hesda deritza ta inguruan bost legorpe ditu (2). Legorpe auetan egoten zan eri, itsu, urgun, elbari sail aundi bat, ura noiz igituko zan begira. Noizean bein etortzen baitzan Yaunaren Aingeru bat putzura, ta ango ura nasten zuen, ta ur-naste oren ondoan lenbizi putzu-

ta edo *zitu* ori; baña oietako asko galdu egiten dira, ez dira zeruratzen, bear ainbat *langile*, uzta-biltzale, apostolu, predikazale ez dalako.

(1) *Yuduen yai-eguna*. Ez dakigu zein yai zan or aipatzen dan ori. Batzuek diote *Pazkoa* zala, beste batzuek *Etxola-yaia*, beste batzuek *Pentekoste*.

(2) *Bethesda*. Zenbait liburutan beste izen batzuek ematen zaizkio putzu ori; or yari dugun ori da ongien dagokiona, orek esan nai du: *Eruki-etxea*.

ra sartzen zana zein-nai eritasunetik sendatzen zan (1).

Ogei ta emezortzi urte aietan eri zegoen gizon bat bazan antxe. Yesusek, ori etzana ikusi ta aspaldi eri zegola ikasi zuenean, galdegin zion: «Sendatu nai al duzu?» Eriak erantzun zion: «Yauna, ura nasi ondoan putzura nork sartu nazan ez tut; ni etoñi orduko, beste bat sartu da ni baño lenago.»

Orduan Yesusek esan zion: «Yaiki zaitte, ar zazu zere oea ta zoaz.» Ta bereala sendatu zan gizon ura, artu zuen bere oea ta bazebilen.

Larunbata zan egun ura. Argatik esan zioten Yuduak sendatuari: «Larunbata duk, etzaik zilegi ire oea yasotzea» (2). Arek ordea esan zien: «Sendatu nauenak esan dit: Ar zazu zere oea ta zoaz.» Orduan galdegin

(1) Inork ikusi gabe yexten zan Aingerua; ura nasi ta igitzen zanean, orduan ezagutzen zuten Aingerua etoñi zala, ta guziak leiatzen ziran zein lenago putzura sartzeko.

(2) Yakiña da, Yudentzat larunbata zala yai-eguna, gurentzat igandea bezela. Ta egun artan edozein esku-lan debekatua zegoen.

zioten: «Zure oea artu ta zoaz, esan di-
kan gizon ura nor duk?»

Gizon sendatuak ordea etzekien
nor zan, Jesus toki artan zegon gizal-
detik lekutu zan ta. Geroago topatu
zuen Yesusek gizona yauretxean ta
esan zion: «Ora, sendaturik zaude; ez
gaurgero pekaturik egin, makuragorik
gerta ez dakizun» (1). Orduan yoan zan
gizon ura, eta Yuduei yakin-arazi zien,
Jesus zala bera sendatu zuen gizona.

Oregatik Yuduak yazartzzen zitzaiz-
kion Yesusi, gauza oiek larunbatez egi-
ten zituelako (2). Yesusek ordea eran-
tzun zien: «Nere Aita lanean ari da
orain arte, ta ni ere ari naiz» (3). Or-
duan Yuduak are geiago zebiltzen Ye-

(1) Eritasun ura pekatuen zigofada zala iduri
luke; argatik. ez geiago pekaturik egiteko esaten
dio Yesusek, bestela gorputzarekin batean anima
ere galdu lezakela ta.

(2) Yesusek eriak yai-egunean sendatzen ditue-
lako, asafetzen dira Yuduak, ori lan-egitea ta beraz
yai-egunean debekatua dalako aitzakiaz.

(3) Estuegi artzen zuten Farisauak larunbatean
lanik ez egiteko legea; Yainkoak eztu lege ori ain
estu yafi, badira yaiegunean ere egin ditezken lan
asko.

sus il naiez, yai-eguna austeaz gañe-
ra, Yainkoa bere Aita deitzen zuelako,
bere burua Yainkoarekin berdin egiñez.

Yesusek esan zien bada beriz:
«Egiaz, egiaz, nik diotsuet: Semeak ez
dezake berez ezer egin; Aitak zer egi-
ten duen ikusi ta ori bera egiten du Se-
meak ere. Aitak egiten dituen gauza
guziak, Semeak ere berdin egiten di-
tu» (1).

«Aitak maite du Semea, ta oni era-
kusten dio berak egiten duen guzia;
eta auek baño egintza aundiagoak era-
kutsiko dizkio, zuek afitzeko ainbate-
koak (2). Aitak ilak beriz-piztu ta bizia-
razten dituen bezela, Semeak ere ala-
ber nai dituenak bizi-arazten ditu (3).

(1) Yainko-Semeak Yainko-Aitarekin izate bera
duelako, ezin dezake berez ta Aita gabe ezer egin;
Aitak egiten duena, uraxe bera egiten du Semeak
ere.

(2) Gauza aundiak egin ditu orain arte Yesusek,
baña aundiagoak egingo dituela dio. Zer gauza dira
oiek? Ilak beriz-piztu, ilai ta biziai epaia eman ta
abar, geroxeago dionez.

(3) Emen aipatzen diran *il* oiek pekatariak dira,
anima pekatuz ilik daukatenak. Oiek piztu nai ditu

Orobat, Aitak eztu iñor epaitzen (juzgatzen); epaiketa osoa Semeari utzi dio, Semea guziak goretsi dezaten, Aita goresten duten bezela. Semea goresten ez duenak, ura bidali duen Aita ere eztu goresten.

«Egiaz, egiaz, nik diotsuet: Nere itza entzuten duenak ta bidali nauenari siñesten dionak badu betiko bizia, ta ezta epaiketara etofiko; eriotzetik bizira igaro egingo da.

«Egiaz, egiaz, nik diotsuet: Ilak Yainko-Semearen oiua entzungo duten ordua badator ta bertan da; oiuru ori entzuten dutenak biziko dira. Aitak bere baitan bizia duen bezela, Semeari ere eman dio bere baitan bizia izatea; epai-egiteko eskubidea ere eman dio, gizonaren semea dalako.

«Ez aritu onetaz: Il-obietan dauden guziak Yainko-Semearen oiua entzungo duten ordua badator; ta irtengo di-

Yesusek, oiei otsegiten die, pekatuak utzi ta bide onera itzuli ditezen, ta oiuru ori entzuten dutenak biziko dira beriz, anima graziaz apaindurik.

ra ongi egin zutenak beñiz-piztu ta bizitzeko, gaizki egin zutenak beñiz piztu ta ondamendira yoateko (1). Nere baitatik ezin dezaket ezer egin; entzundudan bezela epaitzen dut; nere epaia zuzena da, ez baitut nere naia bilatzen, bidali nauenaren naia baizik.

«Nik nere buruaz aitor-egiten badut, nere aitoñera ori ezta siñesgaña; nitaz aitor-egiten duena beste bat da, eta arek nitaz egiten duen aitoñera siñesgaña dala badakit (2). Zuek man-

(1) Emen azken-epaiketaz (juizioaz) ari da Jesus; bera yañi du Aitak bizien ta ilen epailari. Egun artan gizon guziak beñiz-piztuko dira, baña ez guziak berdin; onak zerurako, an beti zorionetan bizitzeko, gaiztoak beñiz sulezerako.

(2) Yesusek esaten zien Yuduai, bera Yainko zala, Aitarekin berdin. Yuduak erantzun zezaioketen: Ori zuk diozu, zere burua goresteko esaten duzu ori, guk eztugu zure esana siñesten. Oregatik esaten die Yesusek or, bere esana siñetsi nai ezpate ere, badirala beste batzuek, bera nor dan aitortu dutenak; lenbizi Yoan Bataiazaleak esan zien argi bera nor zan. Alaz ere Yesusek eztu kontu aundirik egiten Yoan-en aitoñera ortaz, geiago balio duen aitorera baduelako, bere Aitaren aitoñera; Aitaren aginduz egiten dituen lanak eta gauza aundiak erakusten dute argi, Jesus nor dan.

datua bidali zenuten Yoan-engana, ta arek egiari buruz aitor-egin zuen. Ala ere, nik eztut gizon baten aitoñera bea-ñik, ta au esan dizuet, zuek gaizka zaitetzen bakañik. Argi-zuzi izekia ta disditsua zan Yoan; zuek aldi-puska bat poztu nai izan duzue aren argitan.

«Badut nik Yoan-ena baño gorago-ko aitoñera bat: Aitak neri egiteko eman dizkidan lanak, nik egiten ditudan lanak, oietxek aitortzen dute, ni Aitak bidalia naizela. Ta ni bidali nauen Aitak berak aitor-egin du nitaz. Baña zuek eztuzue aren mintzura aditu, ez aren itxura ikusi, ta aren itza ez daukazue zuen baitan gordea, arek bidalitakoari siñesten ez diozuelako.

«Idazkiak (liburu sanduak) ikertzen dituzue, betiko bizia aietan arkitu uste duzuelako; oietxek nitaz aitor-egiten dute bada. Zuek ordea eztuzue nigana etoñi nai, bizitzea izateko.

«Ez nabil gizonengandiko ospea-

ren, *gloriaren* bila (1); zuek ordea Yainkoaren maitasunik ez duzuela badakit. Nere Aitaren izenean etorri naiz eta ez nauzue ongi artzen; beste bat bere izenean etorri badadi, ura bai ongi artuko duzue (2). Nola izan dezakezue siñestea, elkaréngandiko ospea bilatu ta Yainkoagandiko ospea bilatzen ez duzuen oiek?

«Ez uste izan nik Aitaren aúrean salatuko zaituztedanik; Moisegan duzue zuen ustea, Moise izango da bada zuen salatzale. Baiki, Moise-ri siñesten bazeniote, neri ere siñetsiko zenidateke, arek nitaz idatzi du ta. Baña aren idazkiak siñesten ez badituzue, nere itzak nola siñetsiko dituzue?» (3)

(1) «Gauza auek esaten baditut ere, ez uste izan gizonengandiko osperik, gloriarik bilatzen dudala; ez orixe. Zuen bai ola zabilzate beti, gizonengandiko ospea, goraipamena bilatzen; ofegatik ez dituzue nere itzak, nere esanak siñetsi nai, aóoak zerafelako, anpoturik zaudetelako.

(2) Bai, bein baño geiagotan agitu zan Yesusek or diona: berari, Aitaren izenean etorri zanari etzioten siñetsi nai; geroago agertu ziran Yuduen artean ainbeste sasi-profeta eta sasi-kristo, ta oiei bereala siñetsi zieten.

(3) «Zuek uste duzue, Moise zuen alde aterako dala Yainkoaren aúrean azken epai-egunean, baña

41—Ikasleak galburuak yaten

(Mt. XII, 1-8; Mc. II, 23-28; Lc. VI, 1-5.)

Beste bein, larunbatez alor (soro) batzuetan zear zioan Yauna. Aren ikasleak goseak zeuden ta bide-egiñaz batera galburuak mozten asi ziran ta yaten zituzten, beren eskuaz mañuskaturik.

Farisau batzuek, ori ikusirik, esan zieten: «Zergatik egiten duzue, larunbatean zilegi ezтана?» Yesusi ere esan zioten: «Ora, zure ikasleak egiten dute larunbatean debeku dana.» (1)

Yesusek erantzun zien: «Ez al duzue egundaño irakuñi, zer egin zuen David-ek, bera ta bere lagunak beañean

ez; zuen aurka yaikiko da, arek nitaz diona siñetsi nai izan ez duuelakoz. Berak esan du aufetik ni nor naizen; baña zuek, ura zuen maisutzat badaukazue ere, eztuzue ori siñesten. Ezta beraz afitzekoa neri ere siñesten ez badidazue, niganako gofotoz suturik zaudeten ezkerro.

(1) Legeak debekutzen zuen larunbatez igitatzea; baña Farisauak zioten, galburuak eskuz moztea ere igitatzea bezela zala, ta geroztik debekatua zegola. Legea ezta ordea ofen zofozta.

ta goserik arkitu ziran batean? Nola sartu zan Yainkoaren etxera, Abiatar apaiz-nausi zalarik; nola artu ta yan zituen eskaintza-ogiak ta eman zizkien bere lagunai, oietatik yatea apaizai bakarrik zilegi izan aŕen? (1)

«Edo ez al duzue legean irakuŕi, apaizak yauretxean larunbata austen dutela, ta ala ere pekaturik ez dutela? (2) Nik diotsuet bada, yauretxea baŕno aundiagokorik bada emen. Erdesten (ulertzen) bazenute arako itz ura: Eŕukia nai dut eta ez oparia, etzenuten iŕnoiz obengaberik gaitzetsiko. Larunbata gizonarentzat egin da, ez gizona larunbatarentzat. Giza-Semea larunbataren ere nausi da.»

(1) *Eskaintza-ogiak*; Yainkoari eskaŕni ta aste osoan aldare aŕean egoten ziran amabi ogi: larunbatoro beŕitu bear ziran, eta apaizak yaten zituzten zaŕak; beste iŕnork etzuen zilegi aietatik yatea.

(2) Apaizak yai-eguna austen dute beren apaizlanak yauretxean egiŕnez, baŕna eztute argatik pekaturik egiten. Yai-egunean egin ditzeke zenbait lan pekaturik gabe.



42—Gizon esku-igara sendatzen du

(Mt. XII, 9-14; Mc. II, 1-6; Lc. VI, 6-11)

Beste larunbat batez sartu zan Yesus aien sinagogara ta irakasten asi zan. Esku eskuña igartua zuen gizon bat bazegon antxe. Lege-irakasle ta Farisauak zaintzen zuten Yesus, ea larunbatean sendatuko ote zuen, ura salatzeko aitzaki baten bila. Galdetu ere egin zioten: «Larunbatez iñor sendatzea zilegi al da?» (1)

Arek ordea ezagutu zituen aien asmoak, eta esan zion gizon esku-igari: «Yaiki ta zutik yar zaite erdian.» Orduan Yesusek esan zien: «Orain nik galdegiten dizuet: Zilegi al da larunbatez ongi ala gaizki egitea? bizi bat gorde ala galaraztea?

«Zuetako batek ardi bat badu eta larunbatean lezera erori badakio, ez al

(1) Farisauak ziotenez, yai-egunean etzan zilagi eri bat sendatzea ere, ori lan egitea dalako aitzakian. Yesusi galdegiten diote, ea berak zer uste duen ortaz. Erantzun edera ematen die Yesusek.

dio eutsiko ta andik aterako? Eta ardia baño zenbatenaz geiago da gizona! Bai, zilegi da beraz larunbatean ongi egitea.»

21 Aiek isildu ziran. Aien biotzeko itsumenaz atsekabeturik, inguru begiratu zien asafez ta gero esan zion gizonari: «Eda zazu eskua.» Arek edatu zuen, eta beste eskua bezain sendo egin zitzaion.

22 Aiek sumindu ziran ortaz, eta elkarékin mintzatu ziran, zer egingo zuten Yesusez. Yoan ziran bada ta Herodetáekin elkar-aditu zuten, Jesus ondarazteko.

43—Jesus itsas-aldean

(Mt. XII, 15-21; Mc. III, 7-12)

16 Yesusek ori ezagutu zuenean, andik aldegin ta itsas-bazteféra zan bere ikaslekin. Gizalde aundia yaíraiki zitzaion Galilea-tik; bai, Yudea-tik eta Yerusa-

lem-etik, Idumea-tik eta Yordan-arain-
ditik, Tiro ta Sidon erietatik ere gizal-
de aundia etoñi zitzaion, arek egindako
gauzak entzunik.

Orduan esan zien bere ikasleai, on-
tziska gertu idukitzeko berarentzat,
yendeak zapatu etzezan. Lagun asko
sendatu baitzituen, miñez zeuden gu-
ziak oldartzen zitzaizkion bera ukitze-
ko. Ats loiak (deabruak), ura ikustean,
aopez erortzen ziran ta oiuz esaten
zuten: «Zu zera Yainkoaren Semea.»
Yesusek beriz zoñozki debekatzen zien,
bera erazagutzea (nor zan esatea).

Yañaiki zitzaizkion guziak sendatu
zituen ta beraren beñi ematea debeka-
tu zien. Onela bete zan Isaia profetak
esandako ura (Is. XLII, 1):

«Oña or nere mirabe, nik autetsi du-
dana,
nere maite, nere biotzaren atsegiña;
oñen gañean ezañiko dut nere Atsa
ta zuzenbidea erakutsiko die atzeñiai;
Eztu yardukiko, ez zalapartarik ate-
rako,

ez kañaxirik egingo kañiketan;
Kañabera zartatua eztu autsiko
ta kea darion argi-mukia eztu itzaliko,
zuzenbidea garai-arazi arte;
aren izenean uste izango dute atze-
riak.»

44—Amabi Apostoluak

(Mc. III, 13-19; Lc. VI, 12-16)

Egun aietan, mendi batera igo zan
otoitz egitera, ta gau osoan Yainkoa-
rekin egon zan otoitzean. Egundu zue-
nean, otsegin zien bere ikasleai, ta aie-
tako amabi berexi ta Apostolu izena
eman zien; predikatzera bidali zitu-
en, eta miñak sendatzeko ta deabruak
erauzteko eskubidea eman zien.

Ona emen Apostoluen izenak: Simon
(Pedro izengoitia eman zion oni Yesu-
sek), ta bere anai Andrea; Yakobo Ze-
bedeo-ren semea ta Yoan bere anaia
(auei *Boanerges*, au da, *ostots-umeak*

eman zien izengoiti); Filipo ta Bartolomeo, Mateo ta Toma, Alfeo-ren seme Yakobo ta Simon Kanaandaña (izen-goitiz *Zelote, Kartsua*), Yakobo-ren Yuda Tadeo, ta Yuda Iskariote; onek saldu zuen gero Yesus.

45—Mendiko itzaldia (I)

(Mt. V, 1-12; Lc. VI, 17-23)

Yetxi zan aiekin menditik eta leku zelai batean gelditu zan. Bere ikaslemultzu aundi bat eta gizalde gaitz bat etoñi zitzaizkion Yudea guzitik, Yerusalem-etik, Tiro ta Sidon-go itsas-aldeetik, ari entzuteko ta beren eritasunak sendatzeko.

Ats loiak biurkaturik zeudenak sendatu zituen. Gizalde guziak ura ukitu nai zuen, arengandik indar bat irten ta guziak sendatzen zituen ta. Yesus, gizalde aiek ikusirik, mendira igo zan beñiz, eseri zan ta bere ikasleak urbildu zitzaizkion. Orduan bere begiak ikas-

lengan yafi ta bere agoa zabaldu ta irakasten zien esanez (1):

Zorionekoak gogozko beartsuak, zeruko yaurgoa aiena da ta;

Zorionekoak biotz-gozoak, luñaren yabe izango dira ta;

Zorionekoak negaiez daudenak, atseginduko dira ta;

Zorionekoak zuzenbidearen gosegañi diranak, aseko dira ta;

Zorionekoak erukitsuak, erukia iritxiko dute ta;

Zorionekoak biotz-garbidunak, Yainkoa ikusiko dute ta;

Zorionekoak pakegileak, Yainkoaren ume deituko dira ta;

Zorionekoak zuzenbideagatik yazarpena yasaten dutenak, zeruko yaurgoa aiena da ta.

«Zorionekoak izango zerate, gizo-

(1) *Mendiko itzaldia*. Emen asten da Yesusen itzaldi edo prediku luze, Mendiko itzaldia deritzana; ortan adiarazten du bere yaurgo beñiaren, bere Elizaren legea, luñeko erregena ez bezelakoa; erakusten du zertan dagon egiazko zoriontasuna, ez munduak uste duen gauzetan...

nek nigatik iguintzen, biraoztatzen, yaraikatzen, egozten ta iraintzen zaituztenean, eta zuen aurka edozein txarke-ri esaten dutenean gezuréz, eta izen ona kentzen dizuetenean Giza-Semea-gatik. Poztu zaitezte egun artan ta yauzi; zuen saria aundia da zeruan. Oien asabak (aurékoak) olaxe egin zuten profetekin, olaxe yazañi zitzaizkien zuek baño lenagoko profetai.

«Ai zuei beñiz aberatsoi! Artu duzue onezkero zuen pozaldia;

Ai zuei aserik zaudeteno! Gose izango zerate;

Ai zuei iriz ari zeratenoi! Negar ta mañaska egingo duzue;

Ai zuei, gizonak gorai patzen zaituztenean! Oien asabak orixe egiten zuten gezurézko profetekin.

46 – Mendiko itzaldia (II)-Lege beria

(Mt. V, 13-37)

«Luñaren gatzaz zerate zuek; baña gatzaz gezatu badadi, zertaz gazituko du-

te? Geroztik ezta ezertako on; kanpo-
ra egozten da, yendeak oinkatu deza-
ten (1).

«Munduaren argia zerate zuek; men-
di gañean dagon eñi bat ezin diteke
gorde. Berdin eztu iñork argi bat piztu
ta gero gaitzeru pean ezartzen, argi-
mutil gañean baizik; orduan argi-egiten
die etxeko guziaz. Oñela diztia beza
zuen argiak gizonen aurrean, zuen egi-
te onak ikusi ta zuen Aita zerukoa os-
patu dezaten.

«Ez uste izan ni legea ta profetak
ezeztatzera etoñi naizenik; ez naiz ezez-
tatzera etoñi, betetzera baizik. Bai,
egiaz, nik diotsuet: Yota bat ez izpitxo
bat ezta legetik kenduko, zeru-luñak
igaro ditezen arte, guziak bete arte.
Geroztik, agindu oietako bat, dan txi-
kiena ere, austen duena ta gizonai ola

(1) Gatzak begiratzen, gordetzen du aragia us-
teltzetik; Apostoluak ere beren irakatsiaz aienatu
bear dute gizarteko oituren usteltasuna. Bereolaxe,
argi-zuzi batek bezela, ondatu bear dituzte anime-
tako ilunbeak, gizonai zeruratzeko bear dituzten
egiak irakatsiz.

irakasten diena, txikiena izango da zeruko yaurgoan; agindu oiek bete ta irakasten dituen beñiz aundia izango da zeruko yaurgoan (1).

«Entzun duzue, nola esan zitzaien antziñakoai: Ez iñor il; iñor iltzen duenak auzitegiaren zigoñada merezi du. Nik beñiz diotsuet: Bere anaiari asafetzen zaion edozeñek auzitegiaren zigoñada merezi du; bere anaiari *buru-arin (raka)* esaten dionak Batzafé-Nausiaren zigoñada merezi du; ta *zoroa* esaten dionak sulezea merezi du (2).

«Argatik, baldin opari bat aldarean eskaintzera zoazenean, zure anaiak zure

(1) Lege zafean, Yainkoak Moiseren bitartez emandako legean agindu asko Yudentzat bakarik emanak ziran, Yesu Kristo etoñi arte bakarik izan bear zuten indafa ta au etortzearekin ondatuko ziran. Baña beste agindu asko, batez ere Dekalogoko amar aginduak, eñi ta gizon ta aldi guzietarako emanak ziran; ta agindu oiek Yesusek etzituen ezeztatu ta kendu bear; aitzitik, bete ta osotu egin bear zituen bere lege beñian.

(2) Ezta aski iñor ez iltzea; urko-lagunari asafetzea, goñoto izatea, itz gaiztoak edo iraiñak edo biraoak esatea bera ere pekatu da, ta sulezea merezi duen pekatua ala ere.

aurka zerbait baduela gogoratzen bazaitzu, utzi an zure oparia ta zoaz leenik zure anaiarekin onezkoak egitera; gero etoñi ta zure oparia eskain zazu.

«Adiskida zaite zure aurkariarekin (etsaiarekin) bereala, arekin bidean zoazen artean; ezperen, aurkariak yañi zentzake epailariaren (juezaren) eskuetan, eta epailariak bere moñoiaren eskuetan, eta baitegira (giltzapera) sartuko zinduzkete. Egiaz, nik diotsut: Etziñake andik aterako, azken maraikoa ordaindu arte.

«Entzun duzue, nola esan zitzaien antziñakoai: Ez autsi ezkontza. Nik beriz diotsuet: Edozeñek emakume bati begiratzen badio, aren zale izateko, arekin ezkontza-autsi du bere biotzean.

«Zure eskuñeko begiak gaizpidea ematen badizu, idoki zazu ta aurtiki (bota) zuregandik; zure gorputz osoa sulezean ondatzea baño obe duzu gorputz-alde bat galtzea. Zure esku eskuñak gaizpidea ematen badizu, ebaki zazu ta zuregandik aurtiki: gorputz osoa

sulezera ondatzea baño obe duzu zere gorputz-alde bat galtzea (1)

«Gañera esan izan da *legean*: Bere emaztea uzten duen edozeñek eman bezaio uzten duelako ageria, *papera* (2). Nik beñiz diotsuet: Bere emaztea uzten duen edozeñek (lizunkeriagatik uzten ezpadu beintzat) ezkontza autsiarazten dio; ta beste batek utzitako emaztea artzen duenak ezkontza austen du.

«Entzun duzue alaber, nola esan zitzaaien antziñakoai: Ez egin gezuñezko ziñik (yuramenturik), ta zintzo bete

(1) *Eskuñeko begia ta eskuñeko eskua*. Ditugun gauzarik maiteenak eta beaŕenak ere utzi ta galdu bear ditugu, gaizpidea edo pekaturako bidea ematen badigute.

(2) *Lege Zaŕak* ematen zuen aldiz, ezkontza austeko baimena, ezkonduak berexi ta bizi-alarguntzeko eskubidea. Ortarako senaŕak aski zuen paper batean bere emaztea uzten zuela idatzi, ta paper ori emazteari eman. Ori egin ezkerro, senar-emazte aiek berexirik gelditzen ziran, ta geroztik beste batekin ezkondu zitezken. Yesusek ordea bere *Lege Beŕian* kentzen du baimen ori, edozein ezkontza-auste debeketzen du. Bein ezkontzaz batu diranak baturik gelditzen dira, bietako bat il arteraño; bitartean ez-tute zilegi beste batekin ezkontzea.

Yainkoari egin dizkiozun ziñak. Nik beñiz diotsuet: Ez egin ziñik bat ere, ez zeruaz, Yainkoaren yauralkia dalako; ez luñaz, Yainkoaren oin-alkia dalako; ez Yerusalem-ez, eñege aundia-
ren iria dalako. Zere buruaz ere ez egin ziñik; berdin ile bat beltz ala zuri egiteko eskubidea ere eztuzu ta (1). Zuen izkuntza onela izan bedi: Bai, bai; ez, ez. Gañerako guzia gaiztoti-
kakoa da.

47—Mendiko itzaldia (III)—Etsaiak maite izateaz

(Mt. V, 38-48; Lc. VI, 26-46)

«Entzun duzue, nola esan dan: Begia begiaren orde, ortza ortzaren orde. Nik beñiz diotsuet: Ez gogor egin gaiztoari. Aitzitik, iñork eskuñeko ma-

(1) Oñekin eztu argatik zin-egitea, Yainkoa egiaren aitor ta yakiletzat; ekartzea debekatzen. Bear danean ta bear bezela zin-egitea ezta gauza gaiztoa, gauza ona ta sandua da, Yainkoa egiatia dala ta gezuñik ezin esan dezakela aitortzea da.

sailan yotzen bazaitu, bestea ere eskain zaiozu. Inork zuri auzi-eman ta soinpekoa kendu nai badizu, utzi zaiozu soingañekoa ere. Inork lekoka bateko bidea eragiten badizu, zoaz arekin beste bi lekoka ere. (1)

«Eskatzen dizunari emaiozu, eta yesan (2) nai dizuna ez iraitzi. Zurea kentzen dizunari ez biur-arazi. Beste gizonak zuei egitea nai duzuen bezela, zuek ere alaxe egiezue aiei.

«Entzun duzue, nola esan izan dan legean: Onetsi zure urko-laguna ta gaitzetsi zure etsaia. Nik beñiz diotsuet nere entzuleoi: Maite izan zuen etsaiak, ongi egin iguin zaituztenai. Onetsi zuen gaitzesleak, otoitz egin yazartzen ta beltzen zaituztenen alde.

«Orela zuen Aita zerukoaren umeak izango zerate; arek onen ta gaiztoen gañera irten-arazten baitu bere eguz-

(1) Ikasbide oiekin auxe esai nai digu: kristauak naiago izan bear dute bidegabeak, txarkeriak, kalteak yasan, berak besteai olakorik egin baño.

(2) *Yesan*; ordainzka eskatu, gero atzera itzultzekotan dirua eskatu, ori da *yesatea*.

kia, eta zuzenen ta makufen gañera bidaltzen du euria.

«Zuek maite zaituztenak bakarik maite badituzue, zer esker duzue ta zer sari izango duzue? Zergariak ere ez al dute berorixe egiten? Pekatariak ere maite dituzte beren maitatzaleak.

«Ta zuen ongi-egileai bakarik ongi-egiten badiezue, zer esker duzue? Pekatariak ere egiten dute ori.

«Atzera itzuliko dizuetela uste duzuenai bakarik ematen badiezue ordainzka, zer esker dukezue? Pekatariak ere elkarri ordainzka ematen diote, ordaña yasotzekotan.

«Ta zuen anaiai bakarik agur esaten badiezue, zer aundirik egiten duzue? Atzeritarrak (yentilak) ere ez al dute orenbeste egiten?

«Maite izan bada zuen etsaiak; ongi egizue ta ordainzka emazue, ordaña yasotzeko usterik gabe. Orduan aundia izango da zuen saria ta Guziz-Gorenaren ume izango zerate, ura ere biotz-bera baita esker-txarrekoen ta

gaiztoen aldera. Uríkaltiak izan zaitezte beraz, zuen Aita ere uríkaltia dan bezela; betegiñak (guziz onak) izan zaitezte, zuen Aita zerukoa betegiña dan bezela.

=====

48—Mendiko itzaldia (IV)—Ez izan itxuratiak!

(Mt. VI 1-34)

«Begira, ez gero zuen egintza onak gizonen aurrean egin, aiek ikusi zaitzaten; bestela ez duzue zuen Aita zerukoagandik saririk izango.

«Geroztik, limosna-egitean, ez turuta yo-arazi zure aurrean, itxuratiak sinagoga ta kañiketan egin oi duten bezela, gizonek goretsi ditzaten; egiaz, nik diotsuet: Oiek izan dute beren saria. Baña zuk limosna-egitean, zure esku ezkerak ez dezala yakin, zure esku eskuñak zer egiten duen, zure limosna ixkutuan geldi dedin. Zure Aita, ixkutuan ikusten duenak emango

dizu ordainsaria.

«Otoitz-egitean, ez izan itxurati-
antzeko (1); oiek sinagogetan ta ka-
ka-ertzetan zutik otoitz-egitea atsegin
dute, gizonak ikusi ditzaten (2). Egiaz,
nik diotsuet: Oiek izan dute beren sa-
ria. Zuk otoitz egin nai duzunean, sar-
zaite zure gelara eta atea itxirik ixku-
tuan otoitz egiozu zure Aitari; eta zure
Aita, ixkutuan ikusten duenak emango
dizu ordain-saria.

«Otoitz-egitean, ez itz asko esan,
atzeritarak bezela; auek uste baitute,
beren itz-yarioa dala bide entzungo
zaiela. Ez izan bada aien antzeko, ber-
din zuek eskatu orduko badaki zuen

(1) Limosna nola eman bear dan irakatsi on-
doan, Yesusek erakusten du orain nola otoitz egin
bear dan. *Itxuratiak* (itxuraz on, barnetik gaizto)
Farisauek-ta ziran, oso sandu agertu nai baitzuten
gizonen aurrean, barneko sandutasunaz ardura gutxi
zutelarik.

(2) Farisauak bazituzten beren ordu yakiñak ta
berexiak otoitz egiteko, eta ordu ura yotzean, non-
nai egon ta ere (iñondik al baziteken kañikan, gizo-
nen aurrean) egiten zuten beren otoitza. Yesusek
erakusten digu, guk eztugula ola egin bear, gure
otoitza ixkutuan Yainkoaren aurrean egin bear dugu-
la, ez gizonen goraiamenak bilatzeko.

Aitak, zeren beaŕean zeraten ta. (1)

«Otoitz egizue onela:

«Gure Aita zeruetan zaudena,

sanduetsi bedi zure izena,

betor zure yaurgoa,

egin bedi zure naia,

zeruan bezela luŕean ere.

Gure eguneroko egia iguzu gaur,

barka zaizkiguzu gure zoŕak

guk gure zordunai barkatzen diz-

kiegun bezela;

ez gaitzazula zirikal dian saŕarazi,

baña begira gaitzazu gaitzetik (2).

«Gizonei beren utsegiñak barkatzen

(1) Siñestegabeak, otoitz egitean, azkengabeko itz-yario luzean ari izaten dira, beren bear guziak yainkordeai, gezur-yainkoai yakin-araziz, bestela nai zutena iritxiko etzutela uste baitzuten. Guk eztugu ola egin bear. Zertako? Guk eskatu baño lenago bada ki gure Aitak zer bear dugun ta alpeŕik da Bera-ri itz itz asko esatea.

(2) Yesusek berak erakusten digu emen otoitz egiteko era, «Aita gurea» esaten zaion otoitz labur onekin. Or erakusten digu zer eskatu bear diogun Yainkoari ta nolako uste osoan, Yainkoa gu guzion Aita dalako. Otoitz oŕek zazpi eskari eder ditu, Do- triñak esaten digunez; lenbiziko iruak Yainkoari da- gozkio, beste lauak geroi. Yaiera, debozio aundiz esan dezagun beti Yainkoak berak irakatsitako otoitz eder ori.

badizkiezue, zuen Aita zerukoak ere barkatuko dizue. Gizonei barkatzen ez badiezue beriz, zuen Aitak ere ez dizkizue zuen utsegiñak barkatuko (1).

«Orobat baru egitean, ez yañi begi-
ilun, itxuratiak bezela; oiek beren aurpegia itxuragabetzen dute, baru egiten dutela gizonei erakusteko. Egiaz, nik diotsuet: Oiek izan dute beren saria (2).

«Zuk ordea baru egitean, zure burua gantzu zazu, zure aurpegia ikuzi (garbitu), yendeak ezagutu ez dezan baru egiten duzula, ta bai zure Aita, ixkutan ikusten duenak. Eta zure Aita, ixkutan ikusten duen oñek emango dizu ordain-saria (3).

(1) Yainkoak guri geren pekatuak barkatzea nai badugu, lenbizi barkatu bear diegu guk gaizki egin digutenai; bestela eztingu Yainkoak ere barkatuko.

(2) Limosna ta otoitza nola egin bear diran erakutsi ondoan, orain irakasten digu Yesusek, nola baru egin bear dan. Gure Yaunak ontzat ematen du barua, baña ongi egitekotan, ez Farisau añoak bezela; auek beren burua autseñez estali ta betetzen dituzte, gizonen begiak berenganatzeko, ta guziak ikusi zezaten, barua ta penitentzia egiten zutela.

(3) Yai-egunetan ta poz-aldietan Yuduak beren buruak usai oneko olio gozoz gantzutu ta igortzi oi

«Ez ibili lúfean ondasun biltzen, emen pipiak eta erdoilak ondatzen dituzte, eta lapurak sartu ta ostu (ebatsi) egiten dute. Bildu ondasunak zeruan, an pipiak eta erdoilak ez dituzte galtzen, ezta ere lapurak sartu ta ebasten; zure ondasunak dauden lekuan zure biotza ere antxe dago ta (1).

«Zure begia da zure gorputzaren argi-zuzia; zure begia garbi badago, zure gorputz guzia argi izango da; zure begia eri badago, zure gorputz osoa ilunbean egongo da. Eta zure baitako argia ilunbe bada, ilunbeak berak nolakoak izango dira? (2)

zituzten, beren poza erakusteko. Baru-egunetan ere orí bera egiteko esaten digu Yesusek; ez dugula aurpegi-ilun ta muker agertu bear, alai ta begi-argi baizik, yaietan bezela, baru egiten dugula iñork eza-gutu ez dezan.

(1) Mundu onetan eztugu ondasun biltzen ibili bear. Zergatik? Lenbizi, emengo ondasunak (uré, zilar, yantzi edeñak) iraupen gutxikoak diralako, pipiak eta sitsak ondatzen dituzte edo lapurak ebasten. Bigařen, ondasunak gure biotza beren ondotik afastaka eramaten dutelako, lúfeko gauzetara zaletu ta zerukoak aztuarazi egiten dizkigutelako.

(2) Gizonaren biotza, asmoa (begia) munduko gauzetatik aldendu ta zerukoetara zuzendua bada-

«Inor ezin diteke bi nausiren mirabe izan; bata onetsi ta bestea gaitzetsi egi-ten du, edo batari itxekiko zaio ta bes-
tea ezetsiko du. Ezin zaitezketen Yain-koaren ta Mamon-en mirabe izan (1).

«Oregatik esaten dizuet: Ez egon kezketan zuen biziagatik, zer yan ta edango duzuen; ezta zuen gorputzaga-
tik, zertaz yantziko zeraten. Bizia ez al da yatekoa baño geiago, ta gorputza yantzia baño geiago? (2)

«Begira zeruko egaztiak; oiek eztu-
te ereiten, ez igitatzen, ez sabaietara biltzen, ta ala ere zuen Aita zerukoak azten ditu. Ez al zerate zuek, aiek ba-

go, bere biziera guzia ona izango da. Baña gizona zeruko gauzak alde bat utzi ta luékoen ondotik badioa, zein gaiztoa ta txara izango dan aren bizi-
modua! Gaiztakeri guzien iturburua izango da aren biotza.

(1) Luéko aberastasunen ondotik dabilena, be-
re biotza aiei itsatsia duena, aien mendeko ta mira-
be dagona ezin diteke Yainkoaren mirabe zintzo izan, ezin Yainkoa ziñez maitatu.

(2) Ezta geiegi estutu bear yan-edanaz ta yan-
tziaz. Gizonak egin bear du bai egiñala bizi dan ar-
tean bear dituen gauzak biltzeko; baña laritu gabe,
zeruan Aita on bat baduela gogoratuz.

ño geiagokoak? (1)

«Zuetako zeñek erantsi (eratxeki) dezaioke bere biziari kana bat, kezketan egonez? (2)

«Eta yantziaz zergatik zaudete kezketan? Begira lañeko liliak, nola aunditzen diran; oiek eztute lanik egiten, ez iruten; ala ere, nik esaten dizuet: Salomon bere ospe guzian etzegoen lili oietako bat bezain eder yantzia. Beraz, gain zutik dagon ta biar labera egozten dan lañe-belar ori Yainkoak olayazten badu, zenbatenaz geiago yantziko zaituzte zuek, biotz-gutxiko oiek?(3)

«Ez egon bada lañi diozuela: Zer yango dugu? zer edango dugu? zertaz yantziko gera? Atzeñitafak (siñestega-beak) lañitzen dira gauza oiengatik. Ba-

(1) Yainkoak txoriai yatekoa ematen badie, ez al die emango gizonai, bere seme-alaba maiteak dituen gizon guziai?

(2) Lañi ta kezketan egonagatik ere, ez dezake iñork bere bizia luzatu ezta kana batez, ezta minutu batez ere; zertako bada estutu, alper-alperik da ta?

(3) Zein eder poliki yantziak dauden loreak! Salomon erege altsu, aberats, yakintsu arek berak etzuen ain soñeko txukunik. Eta lore oiek olayaz-

daki zuen Aita zerukoak, guzi ori bear duzuela (1).

«Bila zazue beraz lenbizi Yainkoaren yaurgoa ta aren zuzentasuna, ta gauza guzi oiek gañera emango zaizkitzue (2).

«Ez egon bada arduratan biarko egunaz; biaramonak beretzat ardura izango du; egun bakoitzak aski du bere gaitza (3).

49—Mendiko itzaldia (V)-Ez gero iñor gaitzetsi!..

(Mt. VII, 1-5; Lc. VI, 37-42)

«Ez iñor epaitu (juzgatu) ta etzaituzte iñork epaituko; zuek epaitzen du-

ten dituen Yainkoak yantzirik gabe utziko al ditu askoz geiago balio duten gizonak?

(1) Yentilak ibiltzen dira lafi gauza oiengatik, ezpaitakite Yainkoa beren Aita dala ta beren bear guziak ezagutzen dituela.

(2) Oia zer bilatu bear duten kristauak: zeruko yaurgoa, zeruko ondasunak, zeru ortan sartzeko bear dan zuzentasun ta sandutasuna. Ori bilatzen badute, gañerako guzi auek emango dizkie bai Yainkoak.

(3) Zertarako biarko egunaz kezketan egon?

zuen epaiaz epaituko zaituzte ta. Ez iñor gaitzetsi, ta etzaituzte iñork gaitzetsiko. Barka zazue ta barkatuko zaitzue (1).

«Emazue ta emango zaitzue. Neuñi ona, zapatua, astindua ta dariona emango dizuete altzora; zuek neurtzen duzuen neuñi beraz neurtuko zaitzue zuei ere ta (2).»

Berdintza au ere esan zien: «Itsuak itsuari bidea erakutsi ote dezaioke? Ez al dira biak zulora eroriko? (3).

«Ikaslea ezta irakaslea baño areago; ikasle betegiña (guziz ona) bada, bere ikaslea añakoa izango da (4).

Aski da gaurko egunaz ardura izatea; biarko eguna etortzean, orduan izango duzu biarko ardura.

(1) Artarako biderik gabe, ezta iñortaz uste eta goganbear txarrik izan bear, ez iñor epaitu, gaitzetsi, gaiztotzat iduki bear. Barkatu bear dugu, guri barkatzea nai badugu.

(2) Esku-zabala danari, ugari ematen duenari ordain ugari ta sari aundia emango zaio, neuñi bete betea, inukuru mukuru.

(3) Besten utsak ikusi ta zuzendu bear dituenak ezta utsik izan bear; bestela bestea zuzendu bea-fean geiago gaiztatu egin lezake.

(4) Geienetan beiñepein, ikaslea ezta bere mai-

«Nola ikusten duk agotz-pizaña ire anaiaren begian, eta ire begian dan abea beñiz eztuk ikusten? Nola esan dezaiokek ire anaiari: Anaia, zure begiko agotz ori ateratzen utzi zaidazu; eta erofek eztuk ire begiko abea ikusten? Itxuratia, leenik atera zak ire begitik abea, ta orduan ire anaiaren begitik agotza ateratzen saiatuko aiz (1).

50—Mendiko itzaldia (VI)—Zenbait irakaspen

(Mt. VII, 6-16)

Ez eman gauza sanduak zakurái, ta ez egotzi zuen pitxiak zerien aurrean, ez ditzaten gero beren oñez ostikatu ta zuengana itzulirik zatitu etzaitzaten (2).

sua, bere irakaslea baño yakintsuago; ofegatik maisua oker badago, ikaslea ere ala bearko.

(1) Iñoren utsak ikusi ta maiseatzeko begi erneak ditugu, naiz uts aiek txikiak izan; geren utsak beñiz ezin ikusi, naiz aundiak izan.

(2) Gauza sanduak (Sakramentuak eta) arduraz,

«Eska zazue ta emango zaitzue; bila zazue ta arkituko duzue; atean yo zazue ta zabalduko zaitzue; eskatzen duen edozeñek artzen baitu, ta bilatzen duenak arkitzen, ta atean yotzen duenari idekitzen baitzaio (1).

Zuetako zeñek emango lioke ari bat bere semeari, onek ogia eskatzen balio? Edo suge bat emango al lioke, añainkia eskatzen balio? Zuek bada, gaiztoak zeratelarik, zuen añai gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatenaz geiago emango dizkie zuen Aita zerukoak gauza onak eskatzen dizkio-tenai? (2)

kontuz ibili bear dira, etzaizkio edozeñi eman bear, merezi dutenai bakarrik eman bear zaizkie; bestela bai emalearen ta bai artzalearen kaltetan izan litezke.

(1) Yesusek irakasten dizkigun gauza oiek betetzeko, ezta aski gure indaia, Yainkoaren laguntza bear dugu. Eta au iristeko, eskatzea ta otoitz egitea besterik eztugu. Otoitza, eskatzea ezta bein ere alpeñikakoa; Yainkoak beti ematen du edo eskatzen dioguna edo egokiago zaigun beste gauzaen bat.

(2) Munduko aita batek beti ongi artzen du bere umearen eskaria, eta eskatzen diona ezin eman badezaioke, beintzat gauza txarrik eztio yakiñaren

«Beste gizonak zuei egitea nai du-
zuenan, orixe egiezue zuek aiei. Ortan-
txe daude lege ta profetak (1).

«Ate meafetik sar zaitezte; ondame-
nera daraman atea lasaia da ta bidea
zabala, ta asko sartzen dira andik. Bizi-
ra daraman atea beñiz estua da ta bidea
meaia, ta gutxik arkitzen dute ori. (2)

«Gezuñezko profetengandik begira
zaitezte, ardi-yantzian etortzen baitira
zuengana, barnetik otso afapariak di-
ralarik; beren arnarietan ezagutuko
dituzue (3).

gañean ematen. Zenbatenaz geiago eztu ori egingo
zeruko Aitak, on-utsa dan ta bere seme-alabak ain
maite dituen Aita arek?

(1) Zuretzat nai duzuna nai izan bestentzat ere;
zuretzat nai eztuzuna ez nai izan bestentzat ere. Ori
egin ezkerro, beteko dituzu ederki legea ta profeten
esanak, legea ta profeten esan guziak itz labur oie-
tan biltzen dira ta.

(2) Zerurako atea ta bidea estu meafak dira; gu
gerenaz gaitzera makurtuak gaude, ta zerura nai ba-
dugu, geren buruari indar egin bear diogu, ta bi-
dean yartzen zaizkigun atzerapide guziak garaitu
bear ditugu. Oregatik da neketsua zerurako bidea.

(3) Gezuñezko profetak, gezuñezko maisu ta ira-
kasleak etortzen zaizkigu batzuetan, gu zeru-bidetik

51—Mendiko itzaldia (VII)-Berdintzak

(Mt. VIII, 16-29; Lc. VI, 43-VII, 1)

«Eloñetatik biltzen al da matsik, edo karduetatik pikurik? Edo zein zuaitz (arbola) onek arnari (frutu) onak ekartzen ditu, zuaitz txarrek beñiz arnari txakartzen ditu.

«Zuaitz onak ezin dezake arnari txarik ekañi, ta zuaitz txarrek ezin dezake arnari onik ekañi. Zuaitz bakoitza bere arnarietan da ezagun, ez baitu inork karduetatik pikurik biltzen, ez eloñetatik matsik. Arnari onik egiten eztuen zuaitza moztu ta sutara egozten da. Beren arnarietan ezagutuko dituzue beraz (1).

baztertze eta gauza txarrek erakutsiz sulezerako bidean yartzeko. Oiek berenaz artaldea ondatzera datozen otsoen idurikoak dira, baña ala ere azaletik ardiz yantziak agertzen zaizkigu, gu eñazago arapatzeko. Kontu bada oiekin! Nola ezagutu oiek? Begira zer nolako biziera egiten duten, zer nolako gauzak egiten dituzten, zer erakusten duten...

(1) Nolako zuaitza, alako arnaria; zuaitz onak arnari ona, zuaitz txarrek arnari txara. Gizonak ere

«Gizon onak bere biotzeko gordairu onetik ateratzen du ongia; gizon gaiztoak beñiz gordairu gaiztotik ateratzen du gaizkia, biotzean gaindizka dagone-tik mintzo baita agoa.

«Zertako deitzen nauzue: Yauna, Yauna! ta eztuzue egiten nik esaten di-zuedana? Neri: Yauna, Yauna! esaten didaten guziak ez dira zeruko yaurgora sartuko, nere Aita zerukoaren naia egi-ten duena bai sartuko da zeruko yaur-gora.

«Egun artan esango didate askok: Yauna, Yauna, ez al dugu zure izenean profetatu, zure izenean deabruak erau-zi, zure izenean mirari asko egin? Nik beñiz esango diet argi ta garbi: Etzai-tuztet egundano ezagutu. Alde nigan-dik, gaizki-egile oiek (1).

«Orain bada, nigana etofi ta nere itz

berdin... Ora bada gezufezko profetak ezagutzeko bidea.

(1) Zerura sartzeko ezta aski Yaunari oiu egi-tea, Yauna deitzea; ortaz gañera bear dira Yauna-ren naia ta esanak ta aginduak bete. Mirariak egi-tea bera ere ezta aski.

auek entzun ta betetzen dituena esango dizuet noren idurikoa dan. Alakoak iduri du, etxea egiterakoan zulo sakon bat egin ta yasoña arkaitz gañean yartzen duen gizona. Euri-yasa yetxi zan, uiolak etoñi ziran, aizeak erauntsi ta etxe añi eraso zioten; baña etxea etzan erori, arkaitz gañean gogortua zegolako.

«Nere itzak entzun bai, baña betetzen ez dituena beñiz bere etxea lur axalean, yasoñik gabe, ondar gañean goratzen duen gizon zoro baten idurikoa da; euri-yasa yetxi zan, uiolak etoñi ziran, aizeak erauntsi ta etxe añi eraso zioten, eta bereala erori zan ta etxearen ondamena aundia izan zan.» (1)

Yesusek itzaldi ori azkendu zuenean, gizaldeak añitzen ziran aren irakaspe naz, eskubidea duen batek bezela irakasten baitzuen, ta ez aien lege-irakasle ta Farisauak bezela.

(1) Oñra zer gertatuko zaigun guzioi Yesu-Kristoren esanak zintzo egiten ez baditugu; ondatuko gera, etxe ura ondatu zan bezela.

52—Yesusek legenduna sendatzen

(Mt. VIII, 1-4; Mc. I, 40-45; Lc. V, 12-16)

Menditik yetxi zanean, gizalde aundiak yañraiki zitzaizkion. Eta eñi batean zegola, bazan legen-añez betetako gizon bat (1). Onek Yesus ikusi zuenean, yoan zitzaion, belaunikatu ta gurugin zion, ta otoitz egin zion esanez: «Yauna, nai baduzu, garbi nazakezu.»

Yesusek, uñikaldurik, edatu zuen bere eskua, ukitu zuen gizona ta esan zion: «Nai dut, garbi zaite.» Yesusek ori esan bezain laster, legen-aña kendu zitzaion ta garbi garbi egin zan. Eta bidali zuen andik, yoaterakoan agindu zoñrotz au ematen ziola:

«Begira, ez gero iñori ezer esan (2);

(1) *Legen-aña* (lepra) gaitz izugari bat da; lenbizi gizonaren lañua añapatzen du, gero aragiraño sartu ta guzia usteldu ta puskaka eroriarazten du, eria ezur utsean uzterañokoan. Oso kutsakoña da, ta geienetan ezin sendatuzkoa.

(2) Sendatze ori yakin-araztea debekatu zion Yesusek, yendea oñenbesteko miraria ikusi-ta asal-

zoaz ordea, ta apaiz-nausiari ager zakizkio ta Moise-k agindutako oparia eskain zaiozu, zure garbitzea siñetsarazteko.» (1) Baña gizonak yoan ta bereala zabaldu zuen gertaera oñen beña. Aren aomena gero ta geiago edatuz zioan.

Oñegatik ezin ziteken Yesus eñi batera agerian sartu ta bakar-lekuetan egoten zan kanpoan. Baña gizalde aundiak etortzen zitzaizkion entzutera ta beren gaitzetatik sendatzera. Orduan Yesus toki ixkutu batera zan, otoitz egitera.

datu etzedin, ta Eñomafen aurka zerbait egitea gogoratu etzekion.

(1) Legen-ardunak, etziran beste yendekin bizitzen, berex egoten ziran, beren gaitza besteai ez kutsatzeko. Oietakoen bat sendatzen zanean, gizonen artera agertu baño lenago apaiz-nausiaren auffera bear zuen ta sendaturik zegola esan bear zion ta legean agindurik zegon oparia eskañi bear zuen. Yesusek bada, lege ori ez austeko, agindurik dagona egiteko esaten dio.



7105 SPETROVICH 5277

53—Eunburuaren moñoia sendatzen

(Mt. VIII, 5-13; Lc. VII, 1-10)

Gero Kaparnaum-era sartu zan. Eunburu baten moñoi, berak oso maite zuen bat eri zegon, il-zorian (1).

Eunburu oñek bada, Jesus Kaparnaum-en zala entzunik, Yuduen arteko zaar batzuek bidali zizkion, etoñi ta moñoia senda zezan eskatzera, esanez: «Yauna, nere moñoia etxean datza elbañi, ta gaitzak ikusten ditu.»

Yoan ziran bada mandatariak Yesusengana ta leia aundiz otoitz egiten zioten ziotsatela: «Ori egin dezaiozun merezi du, gure eña maite baitu ta sinagoga bat ere goratu digu.» Ta Yesusek esan zuen: «Yoango naiz ta sen-

(1) *Eunburua* (centurio), *evn* gudamutil edo soldaduen *buru* edo agintaria da, eun gizon bere mendean dauzkana. Or aipatzen dan eunburu ori Heroderen mendekoen bat edo zan, atzeritaña, baña Yuduen Yainkoa ezagutzen zuena noski.

datuko dut moñoia.» Eta bazioan aiekin (1).

Baña etxetik urbil samar zegonean, eunburuak zenbait adiskide bidali zizkion esatera: «Yauna, ez nekatu, zu nere etxean sartzea ez tut merezi ta. Oregatik ez tut nere burua zuregana etortzeko gaitzat iduki. Itz batez agintzea aski duzu ta nere moñoia sendatuko da. Nik ere, besteen mendean nagon onek, baditut nere mendean gudarutak (soldaduak); eta esaten diot bati: Oa, ta yoaten da; beste bati: Ator, eta etortzen da; nere moñoiari: Egik au, eta egiten du» (2).

Jesus afitu zan, ori entzunik, eta arekin zegon gizaldeagana itzulirik

(1) Yesusen ontasuna! Eunburuak eskatzen dion baño geiago ere eskaintzen dio, bere etxera yoatea.

(2) Siñeste ta apalnaitasun aundia erakusten du emen gudari yentil arek; pekataria dala ta Jesus bere etxera sartzea merezi eztuela. Bidenabar, Yesusek bere itz utsaz nai duena egin dezakela aitortzen du.—«Bai, senda dezakezu nere moñoia. Nik, besteen mendean nagon gizon txatxar onek nere gudarutak zerbait agintzen badiet, aiek bereala egiten dute. Zuk ere bereolaxe nere moñoiaren gaitzari aldegiteko agintzen badiozu, alaxe agituko da.»

esan zuen: «Egiaz, nik diotsuet: Eztut Israel-en ere olako siñesterik arkitu. Baña nik diotsuet: Lagun asko etoñiko dira eguzki-sortze ta sartze aldetik, eta Abraham, Isaak eta Yakobekin maiera eseriko dira zeruko yaurgoan; yaurgo-ko umeak beñiz (zerurako berexirik zeudenak, yuduak) kanpoko ilunbeta-ra egotziko dituzte; an izango da negar-mañaska ta ortz-kañaska.»

Gero Yesusek esan zion eunburuari (*mandatarien bitartez*): «Zoaz, eta siñetsi duzunez gerta bekizu.» Ordu ar-tantxe sendatu zan mutila. Ta manda-tariak etxera ziranean, eri egondako moñoia sendaturik arkitu zuten.

**54—Andre alargunaren semea beñiz-
pizten**

(Lc. VII, 11-18)

Onen ondoan, Naim izeneko iri ba-tera yo zuen Yesusek. Bere ikasleak eta gizalde aundia berarekin zioazen.



Oren ondoan, Nain izeneko id ba-
tera yo zuen Jesusak. Bere ikasleak
eta bizalbe aundia bertatik in ziozen.

Iriko atera urbiltzean, gizon il bat ortzitzera (lur ematera) zeramatan, bere amaren seme bakarra; andrea alarguna zan, ta iriko gizalde aundiak lagun egi-ten zion.

Andre ura ikusirik, Yauna urikaldu zitzaion ta esan zion: «Ez negar egin.» Gero urbildu zan ta il-oea (zeñaldoa) ukitu zuen. Iloezaleak gelditu ziran ta Yesusek esan zuen: «Mutil, iri mintzo natzaik, yaiki adi.» Bereala ila eseri ta mintzatzen asi zan. Yesusek aren amari eman zion.

Guziak izutu ziran ta Yainkoa go-raipatu zuten esanez: «Profeta aundi bat agertu da gure artean, eta Yainkoa etofí da bere eñi au ikustatzera.»

Yudea guzian ta ondoko bazteretan zabaldu zan beñi au. Guzi ori yakin-arazi zioten Yoan-i bere ikasleak.

55—Yoan-en mandatariak

(Mt. XI, 2-6; Lc. VII, 19-23)

Yoan-ek baitegian (giltzapean) entzun zuen Yesusek egindakoen beria. Deitu zituen bere ikasletako bi ta Yesusi bidali zizkion galdegitera: «Zu al zera etortzeko dana, ala beste baten begira egon bear al dugu?» (1)

Etoñi ziran bada bi gizonak Yesusengana ta esan zioten: «Yoan Bataiazaleak bidali gaitu zuri galde au egitera: Zu al zera etortzeko dana, ala beste baten begira egon bear al dugu?»

Ain zuzen ere, ordu artantxe sendatu zituen Yesusek eri asko beren eritasun

(1) *Etortzeko dana.* Yoan-ek or aipatzen duen *etortzeko dan* ori, Mesia, Yainkoak aspaldi agindutako profeta aundia zan. Baña Yoan Sanduak ez al zekien bada, Jesus zala Yuduak berantesten zuten Mesia ura? Bai, ongi baño obeki zekien, berak alaxe aitortu zuen yende guziaren aúean. Ala ere galde ori egiten dio, bere ikaslengatik; bere ikasleak eta bere aldekoak ezagutu zezaten, Jesus zala Mesia. Argatik ere Yesusek egin zituen zenbait mirari mandatari aien aúean, siñetsi zezaten bera zala etortzeko zana.

ta gaitzetatik eta ats gaiztoetatik, eta itsu askori eman zien ikusbidea.

Yesusek erantzun zien bada mandatariai: «Zoazte, entzun ta ikusi duzuen guzia esaiozue Yoan-i: Itsuak bada-kuste, urgunak (maingiak) badabiltza, legendunak garbitzen dira, goñak badantzute, ilak pizten dira, onbearai berri-ona iragartzen zaie. Zorionekoa da Nigan gaizpiderik artzen ez duena.»

56—Yesusek Yoan goraipatzen

(Mt. XI, 7-17; Lc. VII, 24-35)

Yoan-en mandatariak aldegin ondolan, Jesus asi zitzaien gizaldeai Yoan ez mintzatzeko: «Zertara atera ziñaten basa-bazteiera? Aizeak darabilen kañabera bat ikustera ote? Ez. Zertara atera ziñaten bada? Soñeko guriz yantzitako gizon bat ikustera ote? Begira, soñeko guridunak eiegen yauregietan daude. Zertara atera ziñaten bada? Profeta bat ikustera ote? bai, diotsuet

nik, ta profeta baño geiagoko bat. Au da arako idatzirik dagon ura: Ona emen, nik bidaltzen dut zure aurrean nere mandataria, zure aurrean bidea apaindu dezaizun (1).

«Egiaz, nik diotsuet: Emakumengandik yaio diranen artean ezta Yoan baño profeta aundiagorik agertu; ala ere zeruko yurgoan txikiena dana ori baño aundiago da (2). Yoan Bataiazalearen egunetatik asita indarka egin bear da zeruko yurgora sartzeko, ta indar-egi-leak atzematen dute ura (3).

(1) Yoan Bataiazalea basamortuan predikatzen ari zan garaian, yende aundia biltzen zitzaion alde guzietatik, aren itza aditzera. Ta orain galdegiteu die Yesusek, ea zertara yoan ziran orduan basamortura, funtsgabeko gizon bat, gurikerian bizi dan bat ikustera? Ez, profeta aundi bat ikustera.

(2) Testamentu Zar eta Beñiaren artean bezela dago Yoan Sandua; Testamentu Zarreko patriarka, profeta ta errege guziak baño aundiago da, Yesu-Kristoren aurrendari ta bide-apaintzale izan zalako. Bañan ala ere, Testamentu Beñiko edo Elizako edozein kristau ura baño aundiago da; Kristoren aurrendari izatea baño gauza aundiagoa baita kristauizatea.

(3) Yoan Bataiazalea agertu ezkeru, zeruko yurgoa (Eliza) zabalik dago artara nai duten guzientzat; baña artaratzeko, indar egin bear da, nork be-

«Profeta guziak eta legeak Yoan-gañaño profetatu dute; eta bera artu nai baduzue, ori da etortzeko dagon Elia (1). Entzuteko belafirik duenak entzun beza.»

«Au entzunik, eñi guziak eta zergariak Yainkoa zuzen-etsi zuten, Yoan-en bataioa arturik; Farisauak eta lege-irakasleak beñiz Yaingoaren buruzpidea gutxietsi zuten ta etzuten artu Yoan-en bataioa.» (2)

Gero esan zuen Yaunak: «Norekin berdin-etsiko ditut gizaldi onetako gizonak eta nor iduri dute? Iduri dute eñi-

re burua bortxatu ta garaitu bear du; gogor egin gabe ta gurikerian bizi nai dutenak eztira on artarako.

(1) Yesu-Kristoren bigarren etoñi-aldian, Elia etoñiko zaio aurretik, bidea apaintzera; ori egin zuen Yoan-ek Yesu-Kristoren lenbiziko etoñeran. Argatik esaten du emen gure Yaunak, ura dala Elia, biok eginkizun bera dutelako, biok Kristoren aurretari diralako.

(2) Yuduen arteko yende-xeak eta biziera txar-eko zergariak onartu zituzten Yoan-en irakatsiak eta bataioa, ta oñela Yainkoa aietaz uñikaltzea merezi izan zuten. Farisau añoak beñiz etzituzten Yoanen itzak ongi artu, etzuten aietaz axolik artu, ta ola galdu ziran, Yainkoak nai zuena egin etzutelako.

zelaian eseri ta bere kideai onela oiuz ari zaizkien umeak:

Txirola yo dizuegu, ta ez duzue dantzaz egin:

Īleta yo dizuegu, ta ez duzue negar egin.

Yoan Bataiazalea agertu zan, ogirik yaten ta ardorik edaten etzuela; eta zuek diozue: Deabruak artua dago. Giza-Semea (Jesus bera) etoři da, yaten ta edaten duela; eta zuek diozue: «Ora or gizon sabelkoi ta ardozalea, zergari ta pekatarien adiskidea.» Eta zuurtzia zuzen-etsi zuten bere ume guziaz (1).»

57—Iri siñesgogorai akar-egiten—Aitari eskerak ematen.

(Mt. XI, 20-30)

Iri batzuetan beste inon baño mirari geiago egin izan zituen Yesusek, eta

(1) *Zuurtziaren umeak*, egiazko zuurtzia ta yakinduria dan Yainkoaren ume edo aldekoak, *zuzen-etsi zuten*, ezagutu ta aitortu zuten, Yainkoak gauza gu-

iri aiei akar egiten asi zitzaien orduan, onera biurtu etziralako:

«Ai iri, Korozaín! Ai iri, Betsaida! Zuengan egin diran mirariak Tiro ta Sidon-en agitu balira, aspaldi damutu ta onduko ziran zurdatz eta efautsean. Baña nik diotsuet: Tiro ta Sidon-i, zuei baño zigoñada biguñagoa emango zaie epai-egunean.

«Eta i, Kaparnaum, zeruraño goratuko al aiz? Sulezeraño beratuko aiz. Ire baitan egin diran mirariak egin balira Sodoma-n, zutik legokek oraño. Baña nik diotsuet: Sodoma-eñiari, iri baño zigoñada biguñagoa emango zaiok epai-egunean.» (1)

ziak zuurki ta xuxenki egiten dituela; Berak nai izan bazuen, Yoan-ek baru gogoñak egitea, Yesusek beriz barurik ez egitea, nork zer esan dezaioke Bera-ri? Ongi baño obeki daki Arek zer ari dan.

(1) Korozaín, Betsaida ta Kaparnaum Galilea-ko iriak ziran; aietan maiz predikatu ta mirari asko egin zituen Yesusek; baña aiek ala ere etziran beren biziera txarretik bide onera itzuli. Oregatik azken epai-egunean (azken juizioko egunean) gogoñak ikusiko dituzte. Tiro, Sidon ta Sodoma eñi gaizto usteletan olako mirariak egin izan balira, aiek ondu izango ziran ta Yainkoak etzituen beren gaiztakeriengatik

Aldi artan mintzatu zan Yesus, ziola:
«Eskeñak dizkizut, Aita, zeñu-luñen
Yauna,

gauza auek yakintsu ta zuuñai estali,
txikiyai beñiz erazagutu dizkiezulako;
bai, Aita, orixe izan da zure atsegi-
ña. (1)

Aitak bai, beste iñork eztu Semea
ezagutzen;

Semeak, eta Seme oñek erazagutu
nai dionak bai,
beste iñork eztu Aita ezagutzen.

Nekatu ta sortaturik zaudeten gu-
ziak atozte nigana,
ta nik arinduko zaituztet.

Nere uztañia ar zazue zuen gañera,
ta nigandik ikas zazue,
gozo ta biotzez apala naiz ta;

ondata izango, ondata zituen bezela; beren damuta-
suna ikusi-ta barkatu egingo zien, Ninive-ri barkatu
zion bezela.

(1) Yuduen artean yakintsu ziranak, Farisauak
eta lege-irakasleak, etzuten erdetsi Yesusek irakas-
ten zuena; yende-xeak ta ezyakiñak beñiz, Galilea-ko
añantzaleak-ta, ederki aditu zuten, Yainkoak ala nai
izan zuen ta.

ořela arkituko duzue zuen animei-
tzako atsedena.

Nere uztařia biguřa baita, eta nere
zama ariřa.»

58—Andre pekataria

(Lc. VII, 36-VIII, 3)

Farisau batek eskatu zion Yesusi,
arekin bazkaltzera yoateko. Yoan zan
Farisauaren etxera ta maiera zan.

Biziera txaręko emakume bat bazan
iri artan. Onek, Jesus Farisauaren e-
txean eseria zegola ikasi zuenean, eka-
ři zuen arzurizko ontzi bat bete gan-
tzukari (usai oneko ur), ta yoan zan a-
tzera aren ořen ondora, negaregiřez (1).
Aren ořak bere negar-malkoz busti-
tzen asi zan, bere buruko ile-adatsaz
legortu zituen, aren ořai muin egin
zien ta gantzukariz gantzutu zizkion.

(1) Yuduak etzanik yaten zuten, burua mai al-
dera ta ořak kanpo aldera zituztela. Ořegatik eřax
izan zitzaion emakumeari Yesusen ořetara urbiltzea.

Yatera deitu zuen Farisauak, ori ikusirik, esan zuen bere baitan: «Au profeta balitz, balekike noski zer nolako emakumea dan ukitu duen ori, biziera txarrekoa da ta.»

Yesusek itzegin zion onela: «Simon, zerbait esan bear dizut.» «Esazu, Maisua» erantzun zion arek. Orduan Yesusek: «Artzekodun batek bazituen bi zordun; batek bost eun denario zor zizkion, besteak berogei ta amar. Baña aiek ezin ordaindu baitzezaketen, biai barkatu zien zofa. Bietako zeñek izango du ura maiteago?» (1)

Simon-ek erantzun zion: «Nere ustez, geiena barkatu zionak.»

Yesusek esan zion: «Zuzen erabaki duzu.» Gero, emakumeari buruz, esan zion Simon-i: «Ba al dakuzu emakume au? Zure etxera sartu naiz, ta urik ez didazu eman, nere oñak ikuzteko; onek beriz negar-malkoz ezatu dizkit

(1) *Bi zordun* oiek Farisau ta pekataria dira; biak zofetan daude Yainkoarekin ta ezin dezakete beren zofa berdindu.

oñak eta bere ileaz txukatu.

«Musurik ez didazu eman; au beñiz, sartu naizen ezkerro, eztanere oñai muin egitetik gelditu. Nere burua eztuzu olio z gantzutu; onek beñiz olio gozoz gantzutu ditu nere oñak. (1)

Oregatik nik diotsut: Pekatu asko barkatu zaizkio, maitasun aundia duelako. Gutxi barkatzen zaionak beñiz gutxi maitatzen du.»

Orduan esan zion emakumeari: «Zure pekatuak barkatzen zaizkitzu.» Maikideak esan zuten beren baitan: «Pekatuak barkatu ere egiten dituen au nor dugu?» Yesusek beñiz esan zion emakumeari: «Zure siñesteak gaizkatu zaitu; zoaz pakean.»

Gero Yesusek inguratzen zituen iri ta eñiak, Yainkoaren yaurgoko Beñi-ona zabaltzen ta iragartzen zuela. Berare-

(1) Emakume ura baño sanduago zala uste zuen Farisauak: baña Yesu-Kristok, bien arteko berdintza ortaz erakusten dio, oker dagola; emakume arek maitasun aundiagoa erakutsi diola ta egiazko sandutasuna maitasun ortan dagola.

kin zebiltzen amabiak ta zenbait emakume, ats gaizto ta gaitzetatik sendatu zituenak: Maria, izengoitiz Madalena (zazpi deabru atera izan ziran onengandik), ta Yoana, Heroderen Ardurdun Kusa zeritzanaren emaztea, ta Susana ta beste asko; ari beren ondasunez laguntzen zioten.

59—Deabrudun itsu ta mutua—Farisauen marmariak.

(Mt. XII, 22-30; Mc. III, 20-27; Lc. XI, 14-23)

Etxeratu zan; ta bildu zan beriz ere gizaldea, yateko arterik ere uzten etziotela. Bere aideak ori entzun zutenean, yoan ziran ura arapatzera ziotela: «Erotu da.»

Ekañi zioten deabrudun itsu ta mutubat. Deabru mutu ura erauzi zuen ta deabrua atera zanean, mintzatu zan mutua ta ikusten zuen. Gizaldeak aritu ziran ta esan zuten: «Au al dugu gero David-en semea?»

Baña aietako zenbaitzuk, Farisauak eta Yerusalem-etik etoñitako lege-irakasleak, ori entzunik zioten: «Beelzebub-ek artua dago au, ta deabru-nausi oñen bitartez erauzten ditu deabruak.» Beste batzuek nañikatzten zuten ta zerutiko ezaupide bat eskatzen zioten.

Yesusek ikusi zituen aiek gogoetak, deitu zituen beregana ta esan zien berdintzetan: «Satanek nola erauzi dezake Satan? Yaurgo bat bere aurka berezia badago, yaurgo arek ez duke iraupenik. Etxe bat bere aurka berezia badago, etxe ura ezin dagoke zutik.

•Satan-ek Satan erauzten badu, bere buruaren aurka yañia dago; ta Satan bere buruaren aurka yañia badago, nola iraungo du aren yaurgoak? Ez, ezin legoke zutik Satan, ta ondatuko litzake; deabruak Beelzebub-en bitartez erauzten ditudala diozue ta. (1)

(1) Farisauak eta lege-irakasleak, Yesusen etsai baitziran, ezin begi onez ikusi zitzaketen Yesusek egiten zituen gauza aundi añigariak, eta aiek txikitzeko egiñala egiten zuten. Orain ere deabru bat aterazi du gizon oñengandik, yende-xea añitzen da;

«Eta nik Beelzebub-en bitartez erauzten baditut deabruak, zuen semeak noren bitartez erauzten dituzte? Oiek izango dira beraz zuen epaileak (juezak). Baña nik Yainkoaren beatzaz eta atsaz erauzten baditut deabruak, etori zaitzue segurki Yainkoaren yaurgoa.

«Inor ez diteke gizon azkar baten etxera sartu ta aren zerak ebatsi (ostu), aurretik azkar ura lotzen ezpadu. Orduan bai bipildu (lapurtu) dezake aren etxea.

«Gizon azkar batek iskiloturik (armaturik) zaintzen badu bere eskaratza, segur daude bere izaki guziak; baña azkaragoko bat etori ta garaitzen badu, kentzen dizkio bere iskiloak (aietan baitzeukan bere uste guzia) ta aren

baña Farisau afoak zer asmatzen dute, Jesus belz-teko? Deabruarekin itz-arturik, elkar-aditurik dago-la Jesus, deabru-nausiaren adiskide dala ta deabruak lagundurik aterazten dituela deabruak gizonengandik. Ori zorakeria! Ori egia balitz, deabruak bere buruari gudu (gefa) egingo lioke, bere buruaren kaltetan ariko litzake, bere yaurgoa ondatuko luke; ta ori asmatzea ez al da zorakeria?

ebaskiñak (ari ostutako gauzak) banatzen ditu. (1)

«Nere alde eztagona nere aurka dago; nerekin biltzen ez-tuenak bañeatu egiten du. (2)

60—Ats Sanduaren aurkako biraoa

(Mt. XII, 31-32; Mc. III, 28-30)

«Oñegatik, egiaz, nik diotsuet: Pekatu guziak barkatuko zaizkie gizonai, bai esango dituzten biraoak ere; baña Ats Sanduaren aurkako biraoa ezta barkatuko.

«Norbaitek zerbait esan badeza Giza-Semearen aurka, barkatuko zaio; Ats Sanduaren aurka zerbait esaten

(1) Bere etxea zaintzen duen azkar ori deabrua da; gizonen baitara sartu ta an dago, etxeke nausia balitz bezela. Baña etortzen zaio bera baño azkafagoko bat, Yesu-Kristo; onek garaitzen du deabrua, gizonengandik aterazi ta sulezera yoan-arazten du.

(2) Ongi gogoan iduki ditzagun itz oiek: edo Kristoren alde edo Kristoren aurka, eztago beste biderik. Kristoren adiskide ezpagera, aren etsai gera.

duenari beñiz etzaio barkatuko ez mundu onetan, ez bestean; eztu sekula barkamenik izango, beti-betiko pekatu batez obendun da; «deabruak artua dago» esaten zuten ta. (1)

«Esazue zuaitza ona dala ta aren arnaria ona, edo esazue zuaitza txaña dala ta aren arnaria txaña; zuaitza arnari-tik ezagun baita (2). Laña-sugekumeak, nola esan dezakezue gauza onik, zerok gaiztoak zeratelarik? Biotzean gain-

(1) Eztago barkatu ezin diteken pekatu guziak, aundienak ere bai, barkatzen ditu Yainkoak, pekatariak damuturik barkamena eskatu ezker. Nola dio bada or Yesusek, Ats Sanduaren aurkako biraoa ez tala barkatzen? Zer pekatu da bada ori? Yainkoak egindako gauza arigariak deabruari itxekitzea, ezartzea, deabruak egiñak dirala esatea, orixe da Ats Sanduaren aurkako pekatua; ta or elako pekatua egiten zuten Farisauak, Yesusen mirariak deabruaren bitartez egiñak zirala esatean. Olako pekatariak animaren begiak itsuturik dauzkate, animaren belarriak gorturik, biotza gogorturik. Argatik ez dute graziaren argia ikusten, ez Yainkoaren deia entzuten, eztu ezerk ere aien biotza beratzen; geroztik ez dute barkamenik eskatzen, ta beren pekatuan il-tzen dira.

(2) Nolako arnaria alako zuaitza. Olaxe, Yesusek gauza onak egiten baditu, ezin gaiztoa izan. Berdin Farisauak ezin dezakete gauza onik egin, gaiztoak diralako.

dizka dagonetik mintzo baita agoa.

«Gizon onak gordairu onetik ateratzen ditu gauza onak, ta gizon gaiztoak gordairu txarretik ateratzen ditu gauza txarrik. (1)

«Baña, egiaz, nik diotsuet: Gizonak esaten duten alpeñikako edozein itzen kontua eman beariko dute epai-egunean. Zure itzen ariora zuzen-etsiko zaituzte, zure itzen ariora gaitzetsiko zaituzte.»

61—Yona-ren ezaupidea—Ninivetarrik.

Egoaldeko eregiña

(Mt. XII, 38-42; Lc. XI, 29-32)

Lege-irakasle ta Farisauetako batzuek esan zioten orduan: «Maisua, zurgandiko (zuk egindako) ezaupide edo mirarien bat ikusi nai genuke.» (2)

(1) Biotza da gizonaren gordairu ori: ortik ateratzen ditu bakoitzak an dauzkanak; gizon onak gauza onak, gizon gaiztoak gauza txarrik.

(2) *Ezaupide bat, mirari edo arigari bat*; beren aurrean mirari aundi bat egitea eskatzen zioten Yesusi Farisauak, ura ikusi-ta siñetsi zezaten, nor zan Jesus, zeruko gizona zala.

Jesus'ek erantzun zien aiei ta inguratzen zitzaizkion gizaldeai: «Gizaldi au gizaldi biuria da; gizaldi gaizto ta ezkontzausle onek ezaupide bat eskatzen du; baña Yona profetaren ezaupideaz beste ezaupiderik etzaio emango.

«Yona Ninivetañei ezaupide izan zitzaien bezela, Giza-Semea olaxe izango zaio gizaldi oni. Yona iru gau ta iru egunez balearen sabelean egon zan bezela, Giza-Semea ere olaxe egongo da iru gau ta iru egunez luñaren barnean. (1)

«Niniveko gizonak epaiketa-aldian gizaldi onen aurka goratuko dira ta gaitzetsiko dute, Yona-k predikatu zienean on-biurtu baitziran; ta ona emen Yona baño aundiagoko bat. (2)

(1) Bai ziñez biuria eta gaiztoak ziran Farisau aiek; ainbeste mirari egin zituen orduko beren aufferan, ta ala ere beste bat eskatzen, ura nor zan siñesteko.

(2) Yona profeta, Ninivetañai predikatzera yoan baño lenago, itsasora erori ta bale batek iretsi zuen, ta iru egunez balearen sabelean egon ondoan, beñiz atera zan bizirik. Gero Ninive irian predikatu zuen, beren gaitzakeriak uzteko, bestela beñogei

«Egoaldeko eřegiņa gizaldi onen aurka yaikiko da epai-aldian ta gizaldi onetako gizonak gaitzetsiko ditu, luřeko azkenetik etoři baitzan Salomon-en yakintasuna entzutera; ta ona emen Salomon baņo aundiagoko bat. (1)

62—Ats loia atera ta beřiz itzultzen

(Mt. XII, 43-45; Lc. XI, 24-26)

«Ats loia (deabrua) gizon batengandik atera danean, toki idor ta urgabetan barna ibiltzen da atsedeen bila; eta ezpaitu arkitzen, esaten du: Itzuliko naiz len atera nintzan nere etxe artara.

«Etortzen da bada, eta etxea utsik,

egunen buruko Yainkoak Ninive ondatuko zuela. Ninivetařak beren gaiztakeriak utzi ta onera itzuli ziran. Yesus ere il ta iru egunez lur barnean egongo da; ta Yuduak bere esanak entzun nai ezpadituzte, ondatuko dira, Yona baņo aundiagoko batez axolarik izan eztutelako.

(1) Egoaldeko eřegiņak, Salomon-en beři entzun zuenean, oso uřundik etoři zan ura ikustera. Yuduak beřiz beren artean dute Salomon baņo geiagoko bat, Yesus bera, ta ez dira artaz bat ere axolatzen. Zer lotsa aientzat azken epai-egunean!

ekortua (garbitua) ta apaindua arkitzen du. Orduan yoan ta beste zazpi ats, bera baño gaiztoagoak artzen ditu berarekin, eta an sartu ta bizitzen dira. Eta gizon aren azken-aldia lenbizia baño tzañago da. (1)

«Orixe agituko zaio gizaldi gaizto oni ere.»

63—Emakume batek Yesus gorai patzen

(Lc. XI, 27-28).

Yesus ofela mintzo zalarik, ara non emakume batek gizalde erditik bere mintzura goratu ta esan zuen: «Zorionekoa zu ekañi zaituen sabela ta edoski dituzun ugatzak (bulañak).»

Arek ordea esan zion: «Zorionekoa-go dira askoz ere, Yainkoaren itza adi-

(1) Bein bere pekatuak aitortu ta barkatu ondolan beñiz aietara itzultzen dana, galdua da; etsaiak gero ta indar geiago artzen du aren gain, oitura txaña artzen du, ta azkenean deabruak nausiturik, an yoaten da gero ta makuñago, betiko sulezean erori arte.

tu ta begiratzén (gordetzen) dutenak. (1)

64—Yesusen Ama ta aideak aren bila

(Mt. XII, 46-50; Mc. III, 31-35; Lc. VIII, 19-21)

Bere Ama ta bere anaiak etoñi zitzaizkion, baña ezin urbildu zekizkeon gizaldeagatik. Eta oraño gizaldeari itzegiten ari zitzaiola, aiek an kanpoan zeuden berarekin mintzatu naiez. Eta mandatua bidali zioten ari otsegiñez. Gizalde aundia aren inguruan eseria zegon, ta norbaitek esan zion: «Zure ama ta zure anaiak or daude kanpoan zure bila, zu ikusi naiez.»

Yesusek ordea erantzun zion ori esan zionari: «Zein da nere ama ta zein dira nere anaiak?»

Gero bere inguruan eserita zeudenai begiraturik eta bere ikaslengana eskua luzatuz, esan zuen: «Oña or nere Ama

(1) Zorionekoa da Andre Maria, Yainkoaren Ama izan dalako; baña askoz ere zori-obekoa, Yesusen siñestea izan duelako, Yainkoaren esanak ta aginduak zintzo bete dituelako.

ta nere anaiak. Zeruan dagon nere Aita Yainkoaren naia egiten duen edozein, orixe da nere anaia, nere ańeba ta nere Ama. Baiki, Yainkoaren itza aditu ta egiten dutenak, oietxek dira nere ama ta nere senideak.»

65—Kristok itsasondoan irakasten—Ereilearen berdintza

(Mt. XIII, 1-9; Mc. IV, 1-9; Lc. VIII, 4-8)

Aldi artan, Yesus etxetik atera, itsasondoan eseri ta andik irakasten ari zan beńiz. Gizalde aundia bildu zitzaion, irietatik leiaka etońtzen zitzaizkion. Gero ontzi batean sartu ta eserizan eta gizalde guzia legońean itsasondoan zegon.

Eta berdintzetan gauza asko irakasten zizkien eta esan zien bere irakaspide artan: «Entzun: ereilea bere azia ereitera atera zan. Ereitean, azi-alde bat bide ondoan erori zan, eta yendeak

zapatu zuten ta zeruko egaztiak etoñi ta yan zuten.

«Beste azi-alde bat toki añizuan, lur mea zuen tokian erori zan; ta bereala sortu zan, lur-loditasunik etzuelako. Baña eguzkia sortu zanean, kixkali zan eta ezpaitzuen zañik ez ezetasunik ere, sortu orduko igartu zan.

«Beste azi-alde bat arantzartean erori zan. Arantzak arekin batean sortu ta aunditu ziran, eta ito zuten; oñegatik etzuen arnaririk eman.

«Beste azi-alde bat lur onera erori zan; ura sortu ta aunditu zan ta arnari edeña eman zuen, bateko ogei ta amar, irurogei, ta eun.»

Ta ori esan ondoan, oiu egin zuen: «Entzuteko belañirik duenak entzun dezala.»

66—Zer esan nai du berdintza oñek?

(Mt. XIII, 10-23; Mc. IV, 10-20; Lc. VIII, 9-15)

Gero bakañik zegon batean, urbildu zitzaizkion berarekin zebiltzen amabi

ikasleak ta galdegin zioten: «Zergatik itzegiten diezu berdintzetan? Eta zer esan nai du berdintza ořek?»

Arek erantzun zien esanez: «Zuei eman zaitzue zeruko yaurgoaren ixilkiak (gauza gordeak) ezagutzea; beste oiei, kanpoan diran oiei beriz ez, oiei dana berdintzetan irakasten zaie; duenari ematen zaio ta ugari izango du ta, eztuenari beriz duena ere kentzen zaio.

«Ořegatik mintzo natzaie berdintzetan, ikusiz ikusten ez dutelako, ta entzunez entzuten ez dutelako. Ta oien-gan betetzen da Isaia-k aldeauřez esandako ura:

Belariz entzungo duzue ta ez ulertuko,
begiz ikusiko duzue ta ez ikusiko;
gogortua baitago eři onen biotza,
bere belarriak entzun-gortu dira
eta bere begiak itxi ditu;
eztu bere begiz ikusi nai,
ez bere belariz entzun nai,
ez biotzaz aditu ta onera itzuli nai,
eztu nik sendatzerik nai.

«Zuen begiak beriz zorionekoak dira, ikusten dutelako, ta zuen belarriak entzuten dutelako. Begira, egiaz, nik diotsuet: Profeta ta zuzentsu askok zuek ikusten duzuen ikusi nai izan zuten, ta etzuten ikusi; zuek entzuten duzuen entzun nai izan zuten, ta etzuten entzun.»

Gero esan zien: «Eztuzue beraz berdintza ori aditzen? Beste berdintzak nola adituko dituzue bada?»

«Entzun bada orain ereilearen berdintza ori. Auxe da berdintza: Azia, Yainkoaren itza da; ereileak Yainkoaren itza ereiten du.

«Batzuek yaurgoazko itz ori entzuten dute, baña ez erdesten; orduan etortzen da etsaia, Satan, eta kentzen die beren biotzetatik an erein dana. Oiek dira bide ondoko azia.

«Beste batzuek itza entzun ta pozez artzen dute; eztute ordea berengan erorik, iraupenik eztute. Eta itz orengatik estu-aldia edo yaraikada etortzen zaien bezin laster, erortzen dira. Ori da ari-

gunean ereindako azia.

«Beste batzuek itza entzuten dute; baña bizi onetako kezakak eta aberastason utsalak eta gozamenak ito-arazten dute, ta ofela eztu arnaririk ekartzen. Ori da arantzartean ereindako azia.

«Beste batzuek itza entzun ta biotzon eta yatoñean artu ta gordetzen dute, ta arnari edeña ematen dute iraupezez: bateko ogei ta amar, irurogei ta eun.

67—Argia zertako piztu?—Nolako neuria...

(Mc. IV, 21-25; Lc. VIII, 16-18)

«Iñork eztu argi bat izeki ta gaitzerupean edo oe azpian estaltzen; argimutil gañean yartzen du, sartzen diranak argia ikusi dezaten. Ez baita gauza ixkutu, agertuko ez danik. Entzuteko belafirik duenak entzun beza.»

Gero esan zien: «Begira bada zer ta nola entzuten duzuen; zuek neurtzen

duzuen neufiaz neurtuko zaitzue zuei, ta gañera ere emango zaitzue; duenari ematen baitzaio, ez duenari beñiz bere ustean duena ere kenduko zaio.»

68—Īoĭoaren berdintza

(Mt. XIII, 24-30)

Beste berdintza bat erakutsi zien esanez: «Bere aloĭean (soroan) azi ona erein zuen gizon bat irudi du zeruko yaurgoak (1).

«Baña yendeak lo zeuden bitartean, etoĭi zan aren etsaia, gariaren erdian ĭoĭoa (belar txaña) erein zuen ta yoan zan. Gero belaña aunditu ta arnaria eman zuenean, agertu zan ĭoĭoa ere. Orduan etxeko yaunari urbildu zitzaizkion bere moĭoiak (mutilak) eta galdegin zioten: Yauna, ez al zenuen zure

(1) Yesusek emen ta geroxeago maiz aipatzen duen *zeruko yaurgo* (eĭeinu) ori Eliza Sandua da. Aloĭean belar ona ta belar txaña nasirik sortzen diran bezela, Elizan ere onak ta gaiztoak nasirik arkitzen dira.



gin zioten: Yamaia, ez bi zentzen zite
(1) Yesuek eman la puzoaren maiz ipuzco
duen zuzko yango (estatu) or Ebia Sautan da
Aloran bein on la beiz txara asatik entzen di-
tan bezia, Ebian ere onak la galzok narrik ar-
atzen dira.

aloŕean azi ona erein? Nondik du bada loŕoa?

Berak esan zien: Nere etsaiak egin du ori. Moŕoiak beŕiz esan zioten: Nai al duzu, yoan ta loŕoa bildu dezagun? Ez, erantzun zien nausiak; loŕoa biltzean, garia ere idokiko zenukete arekin batean. Utzi biok aunditzen igitaraño, eta igita-aldian esango diet igitariet: Lenbizi bil zazue loŕoa ta espalka lotu eŕetzeko; garia beŕiz nere sabaira bil zazue.»

69—Aziaren berdintza

(*Mc. IV, 26-29*)

Gañera esan zien: «Bere aloŕean azia erein duen gizon bat iduri du zeruko yaurgoak. Berak lo egiten du ta yaikitzen da gau ta egun; eta berak nola ez dakiela, azia sortzen da ta aunditzen. Luŕak berez ekartzen baitu arnaria: lenbizi belaña, gero burua, gero



ale betea buruan. Eta arnaria ondu danean, bereala igitaia yartzen zaio, uz-taroa bertan da ta.» (1)

70—Usta-alearen berdintza

(Mt. XIII, 31-32; Mc. IV, 30-32)

Beste berdintza bat erakutsi zien esanez: «Zerekin berdinduko dugu zeruko yaurgoa? Zein berdintzaren azpian agertuko dugu? Gizon batek artu ta bere aloñean erein zuen usta-alea iduri du zeruko yaurgoak. Azi ori luñean ereiten danean, luñean diran aziale guzietan txikiena da; baña erein ta sortu danean, beste belar guziak baño aundiago egiten da, zuaitz egiten da, adar aundiak ateratzen ditu, zeruko txoriak ere etoñi ta aren adañetan bizitzen baitira.» (2)

(1) Berdintza oñetan erakusten digu Kristok, nola sortu ta aunditu dan Eliza bere barneko indafaz pixkaka, luñean ereindako azia sortzen ta aunditzen dan bezelaxe.

(2) Usta-alea (mostaza-azia) ale edo pikor txiki txiki bat da berez; baña erein ondoan belar aundi

71—Orantzaren berdintza—Zergatik oñenbeste berdintza?

(Mt. XIII, 33-35; Mc. IV, 33-34)

Beste berdintza bat esan zien: «Zeruko yaurgoak iduri du orantza, emakume batek artu ta iru neurri iriñetan, ore guzia asti (yaiki) arte sartzen duen orantza.» (1)

Gauza guziok esan zizkien Yesusek gizaldeai berdintzetan, ta oñelako beste berdintza asko esan zizkien, aien artzearen araura. Berdintzarik gabe ez zien itzegiten; oñela betetzen zan profetak esandako ura (Ps. LXXVII, 2):

«Berdintzetan idikiko dut nere agoa, munduaren asieratik gorderik zeuden gauzak agertuko ditut.»

samaña egiten da. Ori agitu zaio Elizari ere; lenbizioan, zein txikia! Amabi Apostolu ta zenbait kristau... orain beriz zein aundia egin dan Eliza ori, nola zabaldu dan mundu osora!

(1) Oreatan sartzen dan orantza-puskak ore guzia ixkutuan asti-arazten, yaiki-arazten du. Elizak ere, mundu onetan agertu zanetik, nola aldatu ta bestelatu dituen, ez arian bezela, gizonen animak!

Baña bakarik zeudenean, guziak
azaltzen zizkien bere ikasleai

**72—Zer esan nai du Iōloaren berdintzak?
Beste zenbait berdintza.**

(Mt. XIII, 36-53)

Orduan gizaldeak bidalirik, etxera
zan; bere ikasleak urbildu zitzaizkion
ta esan zioten: «Alofeko Iōloaren ber-
dintza argi zaiguzu.»

Arek erantzun zien: «Azi ona yaur-
goko umeak (zerurako daudenak) dira;
Iōloa beñiz gaiztoaren umeak; Iōloa
erein duen etsaia deabrua da; igita-al-
dia munduaren amaia (azkena) da, ta
igitariak Aingeruak dira.

«Beraz, Iōloak bildu ta eñe egiten di-
ran bezela, orixe agituko da mundua-
ren azkenean. Giza-Semeak bidaliko
ditu bere Aingeruak; eta bere yurgoan
diran gaizpide-emale ta gaiztakeri-egi-
le guziak bildu ta su-labera egotziko
dituzte. An izango da negara ta ortz-

kafaska. Orduan zuzentsuak, eguzkiak bezela diztjatuko dute beren Aitaren yaurgoan (1).

«Entzuteko belaririk duenak entzun beza.

«Alor batean ixkutaturik dagon gordairu bat irudi du zeruko yaurgoak. Gizon batek arkitzen du gordairu ori, ostentzen du, pozez beterik yoaten da, dituen gauza guziak saldu ta alor ura erosten du.

«Oro bat, pitxi edeñen bila ibiltzen dan gizon sai-erosle bat iduri du zeruko yaurgoak. Balio aundiko pitxi bat arkiturik, yoan zan ta zituen gauza guziak saldu ta pitxi ura erosi zuen. (2)

«Orobat, itsasora egozten dan ta mota guzitako araiak atxitzen dituen

(1) Mundua mundu dan arte, orixe agituko da beti; onak eta gaiztoak nasirik biziko dira. Baña etoriko da munduaren azkena, ta orduan berexiko dira onak alde batera, zerura, ta gaiztoak beriz beste aldera, sulezera.

(2) Munduko ondasun, gordairu, pitxi ta gauza guziak baño geiago balio du zeruko yaurgoak, kristau-izateak. Argatik guzi oiek galdu bear dira, zeruko yaurgoa irabazteko, ola bear balitz: zeruko yaurgoa galdu baño obe da guzi oiek galdu.

sare bat iduri du zeruko yaurgoak. Sarea bete danean, ur-bazteñera ateratzen dute, gero esertzen dira ta berexten dituzte añai onak saskirako, txarñak beñiz egozten dituzte (1).

«Orixe gertatuko da munduaren azkenean: Aingeruak aterako dira, eta gaiztoak zuzentsuen artetik berexi ta su-labera egotziko dituzte; an izango da negaña ta ortz-kañaska.

«Guzi ori erdetsi al duzue?»

«Bai» erantzun zioten. Orduan Berak esan zien: «Geroztik, zeruko yurgoaren gauzetan asko-ikasia dan edozein maisuk, bere gardairutik gauza beñiak eta zañak ateratzen dituen etxe-ko yaun bat iduri du.»

Berdintza oiek akitu zituenean, Yesusek aldegin zuen andik.

(1) Berdintza ofekin beñiz ere erakusten digu Yesusek, munduaren azkenean onen ta gaiztoen artean egingo dan berezketa.

73—Itsaso-araindira—Yesusi yaraiki naiak...

(Mt. VIII, 18-22; Mc. IV, 35; Luc. IX, 57-62)

Egun artan, gizalde aundiak ikusi zituen Yesusek bere ondoan, eta iluntzean esan zien *bere ikasleai*: «Goazen itsaso-araindira.»

Orduan bidean zioazela, lege-irakasle bat urbildu zitzaion ta esan zion: «Zu yoango zeran edozein tokira yaraikiko natzaitzu.» Yesusek erantzun zion: «Azeriak badituzte beren zuloak, eta zeruko egaztiak beren kabiak; Giza-Semeak beñiz eztu non burua eratzan.» (1)

Beste bati esan zion: «Atoz nere-

(1) Lege-irakasle arek Yesusekin ibili nai zuen, baña ez asmo onetan. Arekin ibiliz, ondasunak eta dirua bildu uste zuen nonbait. Ta Yesusek erantzuten dio: Zer, ondasunak biltzeko asmoan ta ustean zatoz neregana? Eztuzu bada nerekin olakorik arkituko. Begira zein bear-gofian bizi naizen; animaliak badituzte beren bizitegiak, beren etzan-tokiak eta kabiak, nik beñiz ori ere ez tut, besten etxean bizi bear dut.

kin.» Eta arek erantzun zion: «Utzi zaidazu leenik yoan ta nere aita ortzi (lurperatu) dezadan.» Baña Yesusek esan zion: «Yañaiki zakizkit, eta utzi ilai beren ilak ortzitzen. Zu ordea zoaz eta Yainkoaren yaurgoa iragar zazu.» (1)

Beste batek esan zion: «Yauna, yango naiz zurekin; baña lenbizi nere etxekoei agur-esaten utzi zaidazu,» Yesusek erantzun zion: «Bere eskua goldean yañi ta gero atzera begiratzenez ezta Yainkoaren yaurgorako on.» (2)

(1) // oiek atsezko (espirituzko) ilak, siñesterik ez dutenak dira. Utzi oiek, esaten digu Yesusek, or konpon diteztela elkarrekin, zu atoz nere ondotik. Ez-tigu oñekin Yesusek debekatzen, gurasoenganako gure eginbeñak betetzea; baña erakutsi nai digu, gure eginbeñak aundiena Beraren esanak egitea dala, Berak deitu ta zerbait agintzen digunean, bereala egin bear dugula, artako aita ta ama ta aideak ta gauza guziak utzi bear baditugu ere.

(2) Goldean ari danak, goldatz edo ildo edo eñeka zuzena egin nai badu, ezta atzera begiratu bear, beti aña begiratu bear du. Bereolaxe, zerurako bidean Yesusen ondotik asi diranak eztira aspertu bear, eztute gogoa galdu bear; beraren aña an doan Yesusi, azkenean zai dagokien zeruari begiratu bear diote, ta oñela iraun bide ortan azkene-raño. Noizpait bidearen malkañaz nekaturik edo atze-



718. ALAUBROULA 1817

74—Yesusek itsasoa baretzen du.

(Mt. VIII, 23-28; Mc. IV, 36-V, 1; Lc. VIII, 22-26)

Orduan gizaldea bidalirik, artu zuten bereala Jesus ontzira ta sartu ziran berak ere. Beste ontzi batzuek ere baziran arekin. Itsasoz zioazela, Jesus lokartu zan.

Bitartean aize-zurumbilo gaitza sortu zan, itsasora yetxi ta itsaso guzia nasi zuen; ugiñak ontzira sartzen ziran ta ontzia ondatzeko zorian zeukaten. Jesus beñiz ontzi-atzean bururdi baten gañean lo zegon.

Yoan zitzaizkion bada bere ikasleak eta iratzañi zuten esanez: «Maisua, galtzera goaz ta zuk ez al duzu axolik? Yauna, gaizka gaitzatzu, ondatzera goaz ta.»

Yesusek esan zien: «Siñeste gutxi-ko gizonak, zergatik zerate beldur?» Gero yaiki zan; aizeari ta ur-zurumbilo-

ra begira gelditzen badira, galduak dira; laster saiestuko dira bide zuzenetik, eta eztira zerura iritxiko.

aria kar egin ta itsasoari esan zion: «Ixil adi, ago geldi!» Bereala aizeak gelditu ziran ta baretasun aundia egin zan. Orduan esan zien: «Non da zuen siñestea? Ez al duzue oraño siñesterik?»

Ta gizon aiek, añiturik eta beldur-laboiak arturik, elkañi esan zioten: «Nor ote da au, aizeai ta itsasoari agintzen ta aiek men-egiten dioten au?» Ta yoan ziran itsaso-araindira, Galileañen aurkez-aurke dagon Gerasatañen luñaldera.

75—Bi deabrudun sendatzen

(Mt. VIII, 28-34; Mc. V, 1-20; Lc. VIII, 26-39)

Ontzitik legoñera zan bezain laster, aspaldi artan deabruak arturik zegon gizon bat bidera etoñi zitzaion il-obietatik; etzuen soñekorik yazten, etzan etxean bizitzen, il-obietan zuen bere bizitegia (1).

(1) Marko ta Luka sanduak deabrudun bat bakaña aipatzen digute, Mateo sanduak beñiz bi. Bear-

Jesus urundik ikusi zueneko, yoan zitzaion lasterka, aurrean aozpeztu ta gur-egin zion, ta oiu aundiaz esan zion: «Zer ikusteko dut nik zurekin, Jesus, Yainko Guziz-Gorenaren semea? Yainkoaren izenean eskatzen dizut, ez nazazula biurkatu.» Gizon arengandik ateratzeko agintzen baitzion ats loiari.

Aldi askotan arapatu izan zuen deabruak, eta katez ere ezin zezaken inork ura lotu. Maiz lotu izan zuten, baina kateak autsi ta oin-burniak porokatu zituen eta etzezaken inork ezi; lokarriak autsirik, deabruak basa-lekuetara eramaten zuen. Gau ta egun il-obietan ta mendietan egoten zan, karaxika ta bere burua ariz yotzen zuela.

Yesusek galdegin zion: «Nola duzu izena?» Arek erantzun zion: «*Legio* (multzoa) dut izena, asko gera ta.» Deabru asko sartu baitziran arengan (1).

bada aietako bat ezagunago ta amonatuago zan ta aren sendatzeak asots geiago egin zuen, eta oregatik artaz bakarrik itzegiten digute bi Ebangelari aiek.

(1) Ez deabru bat bakarrik, deabru-talde aundi bat sartua zegoen gizon arengan; oregatik erantzu.

Deabruak aŕen ta aŕen eskatzen zioten, inguru artatik ez zitzala yoan-arazi, ez zezaiela agindu su-lezera yoateko.

Bazan inguru artan zeŕi-saldo aundi bat, mendian bazkatzen. Deabruak aietara sartzen uzteko eskatzen zioten, esanez: «Emendik erauzten bagaituzu, zeŕi-saldo ortara bidali gaitzatzu, oietan sar gaitezten.» Ta Yesusek bereala baiezkoa eman zien; «Zoazte» esan zien.

Atera ziran beraz deabruak gizon arengandik eta urdetara sartu ziran. Eta saldo osoa (bi mila buru bezelatsu) oldar aundian, taŕapatan amilka itsasora erori ta uretan ito zan.

Urdezaiak, ori ikusirik, iges egin zuten; eta irian ta inguruetan guzi oŕen beŕi eman zuten, ta deabrudunarekin gertatua yakin-arazi zuten.

Orduan yendeak atera ziran agitu zana ikustera ta Yesusengana yoan ziran, eta deabruak-arturik egon zan gi-

ten diote Yesusen galdeari: «Multzoa, saldoa, samalda, taldea da nere izena.»

zona Yesusen ondoan eseria, yantzia ta bere zentzuan zegola arkitu zuten. Ikusi zutenak yakitera eman zuten, zer agitu zitzaion deabrudun izandakoari, nola sendatu zan, ta zeñiai zer gertatu zitzaien.

Gerasa-eritar guziak Yesusen bidera atera ziran, eta ikusi zutenean, beren bazter aietatik lekutzeko eskatu zioten, beldur aundiak arturik zeuden ta. Yesus igo zan ontzira ta beste aldera zan.

Yesus ontzira sartzeko zegola, deabruak biurka ibili zuen gizona etoñi ta eskatu zion, berarekin (Yesusekin) yoa-tera utzi zezaion. Yesusek ordea etzion utzi ta bidali zuen ziotsala: «Zoaz, zure etxera biur zaite ta zure etxekoai yakin-arazi zaiezu, zer arigafia egin dizun Yainkoak, eta nola urikaldu dan zutaz.»

Yoan zan beraz, eta iri guzian ta Dekapoli-n iragafi zuen, zer gauza aundiak egin zizkion Yesusek. Ta guziak aritzen ziran.

Yesus ontzian sartu ta beñiz itsaso-

araindira zanean, gizalde aundia bildu zitzaion, guziak aren zai zeuden ta.

76—Jesus bere sorterian

(Mt. XIII, 54-58; Mc. VI, 1-6)

Jesus andik lekutu ta bere efira zan; bere ikasleak yañai ki zitzaizkion. Ondoko larunbatean aien sinagogan irakasten asi zan. Ta entzule asko afitzen ziran aren irakaspenez eta elkañi esaten zioten:

«Nondik du onek guzi ori? Zer ya ki.ñtasuna eman zaion oferi! Nolako mirariak agitzen diran ofen eskuz! Ez al da au zurgiñaren semea, eta bera ere zurgiña? Bere ama ez al da Maria? Bere anaiak ez al dira Yakobo ta Yose ta Simon ta Yuda? Bere afebak ez al daude emen gure artean? (1)»

(1) Or izendatzen diran oiek etziran Yesusen anai-afebak, Yesusek ez baitzuen anai-afebarik izan; bere lengusuak ziran. Baña Yuduak beren izkuntzan *lengusu* esateko itzik etzuten, eta artarako ere *anai-areba*, *senidea* esaten zuten.

Oñela gaizpidea artzen zuten aren kariaz. Yesusek beriz esan zien: «Profeta bat ez da omenik gabe bere erian, bere etxean ta bere aiden artean baik.» Etzuen ere an miraririk asko egin; zenbait eri sendatu bakarik egin zituen, eskuak gañean yartzen zizkiela. Aien siñesgogortasunaz añiturik zegon (1).

Gero bazebilen ango erietan barna, irakasten ari zala.



77—Apostoluak predikatzera bidaltzen

(Mt. X, 1-15; Mc. VI, 7-11; Lc. IX 1-5)

Deitu zituen beregana amabi Apostoluak, eta aiek binaka bidaltzen asizan; deabru guzien gañeko indara ta

(1) Orduko, Yesus oso ezaguna ta aipatua zan bazteretan, bere aomena alde guzietara zabaldua zegon. Nazaretarak poztu egin bear zuten, alako gizon aundia beren eritara zalako; baña poztu bearean, Yesusen aurka mintzatu ta maiseatu egiten zuten, zurgin baten semea zala ta etxalde txarekoa zala ta esanez. Oñela, Yesus nonnai gorai patzen ta ongi artzen duten bitartean, bere erian etzioten afera onik egin ta gutxietsi zuten.

eskubidea eman zien, ats loiak erauzteko, edozein gaitz ta eritasun sendatzeko eskubidea ere bai.

Amabi Apostoluen izenak auek dira: Aúfena Simon, izengoitiz Pedro, ta bere anai Andrea; Yakobo, Zebedeoren semea ta Yoan bere anaia; Filipo ta Bartolomeo, Toma ta Mateo zergaria; Yakobo-ren seme Alfeo ta Tadeo; Simon Kartsua ta Yuda Iskariote; onek saldu zuen Yesus.

Amabi oiek bidali zituen bada Yesusek Yainkoaren yaurgoa predikatzera ta eriak sendatzera, agindu au ematen ziela:

«Arotz-erietarako bidea ez artu, ta Samariañen erietara ez sartu; aitzitik, zoazte Israel-etxeko ardi galduetara (1).

(1) Guzioi predikatzera eta guziok gaizkatzera etofi da Yesu-Kristo zerutik luñera; baña lenbizi Yuduai, bere eritañai erakutsi nai die Ebangelioa ta zerurako bidea. Ora zergatik esaten dien Apostoluai, ez yoateko oraño atzeñietara, yentiletara, lenbizi Israel-etxeko ardi galduak bilatzera yoateko. Geroago, Yuduak Ebangelio ori iraitzi, ez-artu egingo dutenean, orduan Yesusek bidaliko ditu bere Aposto-

Zoazte ta predika zazue diozuela: Zeruko yaurgoa urbil da. Eriak senda itzatzue, ilak beñiz piztu, legendunak garbitu, deabruak erauzi; utsean eman zaitzue, utsean eman zazue (1).»

Eta biderako ezer ez artzeko aginduzien, ez ogirik, ez geñikoan dirurik; oñetan zatak, ez bi soinpeko yantzi.

Onela mintzatu zitzaien: «Ez iduki uñerik, ez zilañik, ez dirurik zuen geñikoan; ez bide-zoñorik, ez bi soinpeko, ez oskirik (zapatarik), ez makilarik; langileak merezi du bere yana (2). Iri naiz eñi batera sartzen zeratenean, galdegizue nor dan artan merezidunik, eta etxe batera sartzen zeratenean, egon

luak luñeko alde guzietara, gizon guziai Ebangelioa predikatzera.

(1) Eriak sendatu ta beste mirari oiek egiteko eskubidea utsean, ezer kosta gabe eman zaitzue, ta zuek ere mirari oiek egiteagatik eztuzue deus eskatu bear.

(2) Eztute biderako ezer artu bear; beren eginbidea ongi betetzea beste ardurarik eztute izan bear, munduko beste gauza oiengatik eztute kezketan egon bear; Yainkoak bear duten guzia emango dietela etsirik yoan bear dute Apostolu ta predikariak.

zaitezte an ta ez andik atera, andik aldegin arte.

«Etxera sartzean, diosala egizue, esanez: Pakea dela etxe onetan. Etxe ura mereziduna bada, zuen pakea etorriko da aren gañera; mereziduna ezpada beñiz, zuen pakea zuengana itzuliko da. Ta norbaitek ongi artzen ez bazaituzte ta zuen itzak entzuten ez badituzte, etxe edo iri artatik atera ta zuen oñetako autsa ere iñañosi (astindu) zazue, beren aurkako aitoñeratzat (1)

«Egiaz, nik diotsuek: Epai-egunean, iri aferi baño zigoñada biguñagoa emango zaie Sodoma ta Gomoñari (2).

(1) Zuen oñetako autsa ere astin zazue, aditzera emateko, alako yendengandik eztuzuela ezer artu nai, galduak dirala ta alakoekin eztuzuela deus nai.

(2) Sodoma ta Gomoña eñi oso gaiztoak ziran, argatik Yainkoak zerutik sua erauntsi ta kixkali zitu. Ala ere, azken-epai egunean Sodoma ta Gomoñari baño zigoñada gogoñagoa emango zaio Apostoluak eta predikariak gaizki artzen dituen eñiari.

78—Apostolui agindu berriak

(Mt. X, 16—XI, 1)

«Ora, ardiak otsoen erdira bezela igortzen zaituztet. Zuñak izan zaitezte beraz, sugeak bezela, eta bakunak (tolesgabeak), usoak bezela (1).

«Baña begira zaitezte gizonengandik; bere batzarétara eramango zaituztee ta beren sinagogetan azoñiz yoko zaituztee. Agintari ta eñegen auñera eramango zaituztee neregatik, aiei ta atzeñiei yakile izan zakizkieten (2). Oñe-

(1) Yesusek alde-auñez erakusten die Apostolui, zenbat neke ikusi bearko dituzten, munduan barna Ebangelioa predikatzera yoango diranean; galbide ta arisku aundietan arkituko dira, otso artean dauden ardien antzera. Oñegatik zuñak eta begiratuak izan bear dute beti, predikatzean bear ez dani ez egin ta ez esateko; baña beste aldera bakunak, xaloak, lañoak, tolesgabeak izan bear dute, iñori esanbiderik ez emateko.

(2) Or Yesusek esaten duen guzi ori agitu zitzaien Apostolui ta beren ondorekoai. Zenbat aldiz eraman zituzten auzitegiétara, eñege ta agintarien auñera, kontu ematera! Olakoetan, bai Yuduak eta bai atzeritañak beren begiz ikusi zuten Apostoluen siñeste bizia ta azkartasuna; aien auñean ere pre-

la eramaten zaituzteenean, ez egon kezketan, zer edo nola mintzatuko zerate; ordu artan emango zaitzue zer itzegin, ez baitzerate zuek mintzo, zuen Aitaren Atsa mintzatuko da zuengan (1).

«Anaiak bere anaia ta aitak bere aua il-araziko du, seme-alabak yaikiko dira gurasoen aurka eta il-araziko dituzte. Guziak iguinduko zaituztee nere izenagatik; baña azkeneraño sendo irauten duena, orixe gaizkatuko da (2).

«Iri batean yazartzen bazaizkitzue,

dikatu ta aitortu zuten Apostoluak Ebangelioa lotsarik gabe.

(1) Zenbat aldiz egiztatu dan ori ere! Zenbat aldiz eskolarik bat ere gabeko yendeak eta aur txikiak agertu izan dira munduko epailarien (juezen) aufera, eta guziak afiturik uzteko moduko erantzunak eman eta yakintsurik aundienak ixil-arazi! Yainkoa mintzo zan aien bitartez, Yainkoak agora ematen zizkien esan bear zituzten itzak, Yesusek or agintzen duenez.

(2) Zuen aiderik urbiñenak, zuen gurasoak, zuen senideak gofoto izango dizuete, kristauak zerate-lako; gaizki ibiliko zaituztee, ilko zaituztee. Au ere maiz agitu izan da, martirien *istorietan* ikusten dugunez. Neke guzi oien erdian sendo iraun bear da il arte; bestela eztago zerura yoaterik.

beste batera iges egizue. Egiaz, nik diotsuet: Ez dituzue Israelgo iri guziak ibiliko, Giza-Semea etoñi baño lenago. (1)

«Ikaslea ezta bere maisua baño geiago, ezta ere moñoia bere nausia baño geiago. Ikasleak aski du bere maisua ainbat izatea, ta moñoiak bere nausia ainbat izatea. Etxeko yauna Beelzebub deitu badute, zenbatenaz geiago aren etxekoak? (2)

(1) *Giza-Semea* (Yesu Kristoren) *etortze* ori bi aldetara artu diteke: Batzuek uste dute, munduaren azkeneko etoñeraz mintzo dala or Yesu Kristo ta orduan auxe esan nai du: Ordu arte etzaie Israeldar guziaz Ebangelioa predikatuko, azken egun artaraño eztira Yudu guziak kristau-siñestera itzuliko.

Beste batzuek uste dute, or dion etoñera ori, Yesu Kristo Yerusalem ta arekin batean Yudu-eri osoa ondatzera etoñi zanekoa dala. Ori andik beñogeien bat urtera gertatu zan. Orduan esan nai du Yesusek, Israelgo iri ta eri guzietan Ebangelioa predikatu gabe, etoñiko dala Bera, Israel ta Yerusalem ondatzera.

(2) Ez estutu, gizonak goñoto ba-dizuite, ta txar-keriak esaten ta egiten ba-dizkitzuite; neri, zuen maisu ta nusi naizen oni ere beste ainbeste egin didate, ta askoz geiago egingo dizuite zuei, nere eskolako ta nere moñoi zeraten oiei.—Beelzebub deitzen zuten Farisauak deabru-nausia, ta Yesusekin elkar-aditurik zegola esaten zuten.

«Ez aien beldur izan beraz. Ez baita ezer estalirik, agertuko ez danik; ezta ezer gorderik, yakingo ez danik. Nik ilunbetan esaten dizuedana, zuek esazue argitan, eta belafira ixilka esan zaitzuen, oiuka esazue etxe-gaindegietan.

«Gorputza il bai, baña anima ezin il dezaketena ez beldur izan; baña gorputza ta anima sulezean ondatu ditzaikenari, oferi bai beldur zan zaiozue. (1)

Ez al dira bi karatxori lau ko batean saltzen? Ta ala ere, aietako bat ere ezta luñera erortzen, zuen Aitak nai gabe, Zuen buruko ile guziak ere zenbatuak daude; ez beldur izan beraz, karatxori askok baño geiago balio duzue zuek. (2)

(1) Ez gizonen beldur izan; berdin oiek gorputza il bai, baña gero besterik ezin dagikete; zuek nai ezpaduzue, ez diete zuen animai kalterik egingo. Yainkoaren beldur izan bear duzue; arek gorputza il ondoan, anima ere galdu ta ondatu dezake sulezean.

(2) Ez duzue kezkarik izan bear; zergatik? Zuen Aita zerukoak zuetaz ardura duelako ta zainduko zaituztelako. Ofen gutxi balio duten karatxori (etxe txori, eliza-txori, muru-txori, txoañe) oietaz ar-

«Ni gizonen aurrean aitortzen naue-
na, aitortuko dut nik nere Aita zeru-
koaren aurrean; ni gizonen aurrean ukat-
zen nauena beriz, ukatuko dut nik ne-
re Aita zerukoaren aurrean (1).

«Ez uste izan, lurrean pakea yartze-
ra etorri naizenik; ez naiz etorri pakea
yartzera, ezpata yartzera baizik. Semea
aitarekin ta alaba amarekin ta eñaña
amagiarbarekin makur-araztera etorri
naiz. Eta norberaren etxekoak dira be-
re etsaiak.

«Aita edo ama ni baño maiteago due-
na ezta nere diña; semea edo alaba ni
baño maiteago duena ezta nere di-

dura badu, zuen buruko ileak zenbat diran ere ba-
daki, nola eztu zuetaz, karatxori guziak baño geia-
go balio duzuen oietaz ardura izango.

(1) Oiek itz gogoangariak! Jesus zeruan gure
alde yartzea nai badugu, guk ere lurrean aren alde
aurpegia atera bear dugu. Gu emen kristau-izateaz,
kristau-siñestea aitortzeaz, Kristoren alde aurpegia
ateratzeaz lotsatzen bagera, Kristo ere lotsatuko da
gutaz, ez gaitu bere aldekotzat, kristautzat artuko.
Beti ta nonnai lotsarik gabe aitor dezagun beraz gu-
re siñestea.

ña (1). Eta bere gurutzea soñean arturik nere ondotik ez datořena ezta nere diña (2). Bere bizia gorde nai duenak, galduko du; neregatik bere bizia galtzen duenak beřiz, aretxek gordeko du (3).

«Zuek ongi artzen zaituztenak ni artzen nau; eta ni ongi artzen nauenak ni bidali nauena artzen du. Profeta bat, profeta dalako artzen duenak, profeta-
ren saria izango du; eta zuzentsu bat, zuzentsua dalako, artzen duenak zuzentsuaren saria izango du. Onako txiki auetako bati, nere ikaslea dalako,

(1) Yesu Kristo pakea ta bere yaurgoa yartzera etoři zan mundura; baña ortarako leenik etsaiak garaitu bear, Satan ta bere aldekoak azpiratu bear, geroztik gudu (geřa) egin bear. Bestalde, munduan ta bai etxe bakoitzean ere batzuek Kristoren alde yařiko dira, besteak etsaiaren alde; eta ortik ere beřiz gudu-bidea ta asafe-bidea.

(2) Yesusek gurutzea yaso ta eraman zuen bezela, guk ere geren gurutzea, mundu onetako neke guziak ongi artu bear ditugu, kristau onak izan nai badugu.

(3) Mundu onetako bizia ez galtzeagatik nere siñestea ukatzen duenak, betiko bizia galduko du; baña nere siñestea ez ukatzeagatik mundu ontako bizia galtzen duenak, ořetxek arkitu du betiko bizia.

ontzi bat ur otz soilki ematen dionak, egiaz nik esaten dizuet, eztu bere saria galduko, ezta sari gabe geldituko.»

Yesusek, bere amabi ikasleai agindu oiek eman ondoan, aldegin zuen an-dik, inguruetako irietan irakatsi ta predikatzerara.

79—Apostoluak predikatzen—Herode elegea kezketan.

(Mt. XIV, 1-2; Mc. VI, 12-16; Lc. IX, 6-9)

Apostoluak atera ziran beraz eta efi guzietan barna zebiltzan, Beñi ona irakatsiz ta eriak sendatuz. Damu-artze-ko ta onera itzultzeko predikatzen zieten, deabru asko erauzten zituzten, ta eri asko olio-z gantzutu ta sendatzen zituzten.

Aldi artan, Herode elegeak Yesusen beñi aditu zuen, Yesusek egindako guziak ikasi zituen, aren izena nonnai aipu zan ta. Elegea kezketan zegon, esaten baitzuten batzuek: «Yoan piztu da

beriz ilen artetik;» beste batzuek beriz: «Elia agertu da;» beste batzuek: «Lengo profeta aietako bat piztu da beriz.» Herode-k esan zien bere mirabeai: «Au da Yoan Bataiazalea; bera piztu da beriz ilen artetik, eta afigaŕiak gertatzen dira beraren bitartez. Nik lepoa moztu nion Yoan-i; nor da bada, aintbesteko gauzak egiten omen dituen au? Baiki, nik lepoa moztu nion Yoan ura bera piztu da ilen artetik.»

Eta Yesus ikusi naiez zebilen.

80—Herodek nola il izan zuen Yoan.

(Mt. XIV, 3-12; Mc. VI, 17-29; Lc. III, 19-20)

Yoan Bataiazaleak akar (erixta, mokoka) egiten zion Herode erageari, onek bere anai Filipino-ren emazte, Herodiade zeritzana bere emaztetzat artu zuelako, ta beste gaiztakeri asko ere egin zituelako (1). Yoan-ek esaten zion:

(1) Bai, gaiztakeri aundia egin zuen Herode erageak; bere emaztea etxetik igori, ta Herodiade

«Eztuzu zilegi, zure anaiaren emaztea artzea.» Orduan Herodek Yoan atze-
man, lotu ta baitegian (giltzapean) sar-
tu zuen.

Herodiade-k ezin-ikusi aundia zion
ta il-arazi nai zuen; ezin zezaken or-
dea, Herode Yoan-en beldur baitzan,
gizon zuzentsu ta sandua zala bazekie-
lako. Gañera eñiaren ere beldur zan,
guziak Yoan profetatzat zeukaten ta.
Argatik zaintzen zuen; ari entzun on-
doan, kezka aunditan yartzen zan, ta
ala ere gogotik aditzen zion.

Baña egun egokia etoñi zan. Hero-
dek bere yaiotegunear bazkari aundia
egin zien bere aundizkiei ta gudalbu-
ruei ta Galilea-ko aundimaundiei. He-
rodiade beraren alaba sartu zan, dan-
tza egin zuen, eta Herode-ri ta beste

oñekin ezkondu egin zan. Herodiade bere iloba zan
ta gañera bere anai Filipo-rekin ezkondua zegon or-
duko. Zenbat gaiztakeri batean! Nolako gaizpidea
eñege lizunkoi aren mendekoentzat! Oñegatik etzion
Yoan-ek pakerik ematen, eñixta egiten zion eten-
gabe.

maikideai atsegin egin zien (1). Orduan éregeak esan zion neskatxari: «Eska zaidan nai dunana ta emango diñat.» Zin ere egin zion: «Bai, eskatzen dunnan guzia emango diñat, baita nere yaurgoaren erdia balitz ere.»

Neskatxa atera zan ta bere amari galdegin zion: «Zer eskatuko dut?» Arek esan zion: «Yoan Bataiazalearen burua.» Bereala sartu zan beñiz leiaka éregeagana ta eskatu zion: «Nai dut oraintxe azpil batean Yoan Bataiazalearen burua eman dezaidazun.»

Éregea begi-ilundu zan. Ala ere, ziñagatik eta maikiden edeñagatik etzion ezezkorik eman nai izan. Bidali zuen beraz gudamutil bat, aren burua azpil batean ekartzeko aginduz. Yoan zan gudamutila, baitegian burua moztu zion Yoan-i, ekañi zuen burua azpil batean ta neskatxari eman zion, neskatxak be-

(1) Herodiade ta Filipo-ren alaba arek Salome zuen izena. Garai artan, bazkari edo oturuntza aundietan dantza zikin lotsagañiak egiteko oitura bazan, ta olako dantza zikin bat egin zuen Salome-k.

ñiz bere amari eraman zion.

Yoan-en ikasleak, ori ikasi zutenean, etoñi ziran, artu zuten aren gorputza ta il-obian ortzi zuten. Gero Yesusi ofen beñi eman zioten.

81—Apostoluak itzultzen dira Yesusengana.

(Mc. VI, 30; Lc. IX, 10)

Apostoluak itzuli ziran predikatzetik, eta Yesusengana bildurik, egin ta irakatsi zuten guzia yakin-arazi zioten.

82—Kristo basa-lekura—Gizaldea goserik—Bost ogiak ugaltzen.

(Mt. XIV, 13-21; Mc. VI, 31-44; Lc. IX, 10-17; Io. VI, 1-14)

Yesusek *Yoan-en eriotza* ikasi zutenean, esan zien bere Apostolui: «Atozte nerekin bakar-lekura, ta atse-

den piska bat ar zazue.» (1) Yateko as-
tirik ere ez baitzuten, yoan ta etortzen
ziran gizaldeak asko ziran ta. Yesusek
artu zituen beraz aiek berarekin ta le-
kutu zan andik. Ontzi batean sartu ta
Betsaida ondoko basa-bazter batera
yoan zan, Galilea-ko itsaso, beste ize-
nez Tiberias deritzanaren beste aldera.

Baña lagun askok ikusi zituzten yoa-
ten ta ezagutu zituzten, eta iri guzieta-
tik oñez bildu ziran ara, ta aiek baño
lenago iritxi ziran. Bai, gizalde aundia
yafaiקי zitzaion, eri zeudenekin egiten
zituen mirariak ikusten zituztelako.

Yesusek, ontzitik ateratzean, ikusi
zuen gizalde ura ta uřikaldu zitzaion,
artzai-gabeko ardiak iduri zutelako (2).
Yainkoaren yaurgoaz gauza asko ira-

(1) *Atsedeen piska bat ar zazue.* Yesusen gozo-
tasuna! Nola uřikari dituen bere Apostoluak, neka-
turik daudela ikustean!

(2) *Artzai-gabeko ardiak.* Farisauak ta lege-ira-
kasleak zaindu bear zuten Yaunaren artaldea, Is-
rael-eřia, eta erakutsi bear zioten Yainkoaren legea;
baña artzai gaizto aiek etzuten beren eginbide ori
betetzen. Ořegatik Jesus bera yartzen da gizalde
aiei irakastera.

kasten asi zitzaien eta sendatu-beaia zuten guziak sendatu zituen. Gero igo zan Jesus mendira ta an eseri zan bere ikaslekin. Yuduen Pazko-yaia urbil zegon.

Baña eguna apalduz zioan ta beranduzan. Orduan urbildu zitzaizkion bere ikasleak eta esan zioten: «Bazter au basa-lekua da ta eguna auferatua da onezkero. Bidal itzatzu gizaldeak, inguruko eñi ta basetxe oietara yoan ta ostatua ta yatekoa bila dezaten.»

«Yesusek ordea erantzun zien: «Ez tute yoan beaia; zuek yatera emaezue.» Aiek esan zioten: «Yoango gera beraz eta befeun denarioko ogia erosiko dugu, aiei yatera emateko.» (1)

Yesusek bere begiak goratu ta gizalde aundia bazetorkiola ikusirik, galdegin zion Filipo-ri: «Non erosiko dugu ogia, oiek yan dezaten?» Ura nañi-

(1) *Denarioa* Eñomatañen diru bat zan, eta pezetak baño gutxixeago balio zuen (larogei xentimo gutxi gora-bera); geroztik befeun denarioak eun-ta irurogeien bat pezeta ziran.

katuz esan zuen ori, berak bazekien zer egin bear zuen ta. Filipino-k erantzun zion: «Beñeun denarioko ogia ez litza-ke aski izango, bakoitzari puskatxo bat emateko ere.»

Yesusek galdegin zien: «Zenbat ogi dituzue? Yoan ta ikusi.» Ikusi zuten; eta ikasletako batek, Simon Pedro-ren anai Andreak ekañi zion beñi au: «Emen dagon mutil batek baditu bost garagar-ogi ta bi añai; baña ori zer da onenbes-te lagunentzat? Gizalde guzi onentzat yanariak erostera yoaten ezpagera...»

Yesusek esan zien: «Ekañi onera ogi ta añai oiek.» Baziran an bost mila gi-zon bezelatsu. Yesusek esan zien bere ikasleai: «Eseri-arazi itzatzue sailka, beñogei-ta-amarnaka belar ezearen ga-ñean.» Belar aundia zegon toki artan ta. Alaxe egin zuten bada, ta guziak eseri-arazi zituzten eunaka ta beñogei-ta-amarnaka.

Yesusek, gizaldea oñela eseriarazi ondoan, bost ogiak eta bi añaiak artu, eta zerura begiratzuz bedeinkatu zituen.

Eskeñak eman zituen, ogiak autsi ta bere ikasleai banatu zizkien, aiek gizaldeai eman zitzaieten. Bi añaiak alaber guziaz banatu zizkien, bakoitzak nai adinbat.

Yan zuten beraz guziak eta ase ziran. Eta bete ziranean, esan zien bere ikasleai: «Goititu diran puskek bildu itzatzue, galdu ez ditezen.» Bildu zituzten bada ta amabi ortondo (zare) bete zituzten puskez; ori goititu zitzairen bost garagar-ogietatik yan zutenai. Eta yan zutenak bost mila gizon bezelatsu ziran, emakumeak eta añaak sartu gabe.

Orduan gizon aiek, Yesusek egindako miraria ikusirik, esan zuten: «Auxe da zinez mundura etortzekoa dan profeta.» (1)

(1) Añitu zan gizaldea, Yesusek egindako miraria ikusi ta. Eta bereala gogoratzen zaie: Onen gauza añaafia egin duen gizon au ezta besteak bezelako gizona, au da Yainkoak Moise-ren bitartez (Deut. XXVIII, 15-18) agindu zigun profeta.

83—Itsasoko ekaitza—Kristo ta Pedro urgañean ibiltzen.

(Mt. XIV, 22-33; Mc. VI, 45-52; Io. VI, 15-21)

Yesusek auteman zuen, gizaldea Berra artu ta eñege egitera etoñiko zala (1), ta bereala ontzi batean sañarazi zituen bere ikasleak, bere aũean itsaso-araindira Betsaida aldera yoan zitezen, Berak gizaldea igoñi bitartean.

Añastu zuenean, ikasleak yetxi ziran itsasora, eta ontzian sarturik yoan ziran beste aldera, Kaparnaum-era. Yesusek beñiz, gizaldea bidali ondoan, bakar-bakariñ iges egin zuen mendira otoitz egitera.

(1) Yuduak uste zuten, beren Mesia eñege aundi baten itxuran agertuko zala beren artean, Yudu-eriaren etsaiak ta batez ere Eromatañak ondatuko zituela, ta Yuduak yañiko zituela mundu guziaren nausi. Oregatik orain Yesusen mirari ura ikustean, iduritzen zaie orixe dala berak igurikitzen duten Mesia, ta nai dute indañean Yerusalem-era eraman ta an eñege egin. Yesus ordea ezta mundu onetako eñege izatera etoñi; beste yaurgo bat, emengo yaurgoak ez-bezelako bat yartzera etoñi da. Ta argatik iges egiten du, yende aiek munduko eñege egin nai dutenean.

Afats-beranduan, ilun-kozkortu ondoan, Jesus bakarik zegon legoñean eta etzan oraño aiengana yoan. Ontzia itsaso erdian zegon, ta ugiñak (olatuak) azkar iñafosten zuten, aizea auzezka zuten ta. Jesus oartu zan, afaunketan nola nekatzen ziran, eta laugañen gaualdian-edo (1) aiengana zan, itsaso gañean ibilki. Ogei ta bost edo ogei ta amar *eztatu* bezelatsu afaunketan egin ondoan (2), ikusi zuten Jesus itsaso gañean ibiltzen ta ontzira urbiltzen. Auñera igaro nai zuen.

Aiek ordea, ura itsaso gañean ibiltzen ikusirik, mamu bat zala uste izan zuten, eta izu-laboñiak arturik esan zuten «Mamua da.» Eta kañaxi egin zuten (3).

Yesusek beñiz itzegin zien bereala,

(1) Lau *alditan* berezten zuten lenagokoak gaua; laugañen *gau-aldia* goizeko iruetan edo asten zan.

(2) *Eztatua* (stadium, estadio) bide-neuri bat zan, eta eun-ta-larogei ta bost (185) metro bezelatsu zituen.

(3) Apostoluak, gizon ura uraren gañean zebilela ikustean, ikaratu ziran; mamu edo izugañi edo ireltxo bat zalakoan.

esanez: «Biotz-on izan! Ni naiz, ez bel-
dur izan.»—«Yauna, erantzun zion Pe-
dro-k, zu bazera, ur gañean zuregana
yoateko agindu zaidazu.»—«Atoz» e-
sanzion Yesusek.

Pedro yetxi zan bada ontzitik eta ur
gañean zebilen Yesusengana yoateko.
Baña aize azkaña sumatu baitzuen, bel-
durtu zan; urpetzen asi zan ta oiu egin
zuen: «Yauna, gaizka nazazu!» Berea-
la Yesusek eskua luzatu, ari eldu ta
esan zion: «Zergatik durduzatu (dudan
egon) zera, biotz-gutxiko ori?»

Orduan ikasleak ontzira sartu nai
izan zuten. Igo zan aiengana ontzira,
ta sartu bezain laster baretu zan aizea.
Ontzian ziranak yoan zitzaizkion ta
gur-egin zioten esanez: «Benetan Yain-
koaren Semea zera.»

Are geiago aritu ziran, ogiekiko mi-
raria ez baitzuten erdetsi, aien biotza
itsuturik zegon ta. Eta bereala ontziak
lur-artu zuen zioazen tokian.

84—Genesar-eñian—Eriak sendatzen.

(Mt. XIV, 34-35; Mc. VI, 53-56.)

Beste aldera igaro ziranean, Genesar-eñira ziran ta lur artu zuten. Ontzitik atera zaneko, gizaldeak ezagutu zuten; eta inguru guzian laster-egiñik, gaizki zeudenak zeñaldoietan ekartzen asi ziran, ura zegola entzuten zuten lekura. Eri guziak aren auñera eramane zituzten.

Eta edozein baseñi, eñi edo irira sartzen zanean, eñi-zelaietan yartzen zituzten eriak, ta bere soñeko-litsa berderen ukitzen uzteko eskatzen zioten. Ta ukitzen zuten guziak sendatzen ziran.

85—Kristok zeruko ogiaz itzegiten.

(Io. VI, 22-VII, 1.)

Biamamonean, itsaso-araindian geldiditu zan gizaldeak, auteman zuen, on-

tzi bat besterik etzagola an, eta Jesus etzala sartu ontzi artan bere ikaslekin, ikasleak bakarik abiatu zirala. Tiberias aldetik etofí ziran bitartean beste ontzi batzuek Yaunak eskeñak eman-ta ogia yan zuten leku ondora. Orduan gizaldeak, ez Jesus ta ez bere ikasleak etzeudela an ikusi zutenean, ontzietan sartu ta Kaparnaum-era yoan ziran Yesusen bila. (1)

Itsaso-araindian arkitu zuten ta galdegin zioten: «Yauna, noiz etofí zera?» (2).

Yesusek erantzun zien (3): «Egiaz, egiaz, nik diotsuet: Bilatzen nauzue,

(1) Yesusek ogia bedeinkatu ta ugaldu zuen leku artan zeuden zenbait yende, Jesus beñiz ere an agertuko zalako ustean. Apostoluak ontzian sartu ziranean, Jesus etzan aiekin sartu, ta ofengatik uste zuten yende aiek Jesus oraño alde artan zegola. Baña laster ikasi zuten, Jesus beste aldera yoana zala ta Kaparnaum-en zegola, ta ara yoan ziran itsasoz.

(2) Afitu ziran yende aiek Jesus itsasoaren beste aldean arkitzean; ezin asmatu zezaketen, nola aratu zan ain laster ontzirik gabe.

(3) Ondoko itzaldi ortan Yesusek alde-aufez esaten ta agintzen du Eukaristia, Aldareko Sakramentu Sandua.

ez mirariak ikusi dituzuelako, ogietatik yan ta ase zeratelako baizik. Lan egizue ez galtzen dan yanaria *irabazteko*, betiko bizirako irauten duen yanari, Giza-Semeak emango dizuena *irabazteko* baizik; Seme ori zigilatu baitu Yainko Aitak.» (1)

Aiek esan zioten: «Zer egin bear dugu, Yainkoaren lanak egiteko?» Ta Yesusek erantzun zien: «Yainkoaren lana auxe da: Arek bidali dionari siñetsi dezaiozuen.»

Aiek esan zioten: «Zer ezaupide egiten duzu, guk ori ikusi ta siñetsi dezaizugun? Zer lan egiten duzu? (2). Gure aitak mana yan zuten basa-baztefean; ola dago idatzia: Zerutikako ogia eman zien yateko.»

(1) *Seme ori zigilatu du Aitak.* Yainkoak alako zigilū (sello) bat bezela yari dio Yesusi, guziak ezagutu dezaten Yainkoaren semea ta Mesia agindua dala. Zein da zigilū ori? Yesusek egiten dituen mirariak; oiek adierazten dute nor dan Jesus.

(2) Yuduak etzuten itsura siñetsi nai Yesusen esana, nai dute ezaupide bat Yesusen esana egia dala ezagutzeko, orain arte egin dituen mirariak etzaizkie nonbait aski iduritzen.

Yesusek erantzun zien: «Egiaz, egiaz, nik diotsuet: Zerutikako ogi egiazkoa etzizuen Moise-k, nere Aitak ematen dizue egiazkoa zeru-ogia; Yainkoaren ogia da, zerutik yetxi ta munduari bizia ematen diona.» (1)

Orduan esan zioten: «Iguzu beti ogi ori.»

Ta Yesusek esan zien: «Ni naiz bizi-ogia; nigana datořena ezta gose izango, nigan siñesten duena ezta egaři izango. Baña nik esan dizuet: Ikusi nauzue, baña eztuzue siñesten. Aitak eman didan guzia nigana etořiko da; eta nigana datořenik eztut nik iraitziko, zerutik yetxi bainaiz ez nere naia egitera, ni bidali nauenaren naia egitera baizik. Eta ni bidali nauen Aitaren naia auxe da: Berak eman didan gauzarik bat ere galdu ez dezadan, ta azkenegunean guzia beřiz piztu dezadan.»

«Auxe da ni bidali nauen Aitaren naia: Semea ikusi ta arengan siñesten

(1) Yesus bera, bere gorputza da zeruko ogi egiazko ori.

duen edozeñek betiko bizia izan dezan; ta nik beñiz piztuko dut azken egunean »

Yuduak marmarka ari ziran artaz, ni naiz zerutik yetxitako, ogia esan zuelako. Esaten zuten: «Ez al da au Yesus, Yose-ren semea? Bere aita-amak ez al ditugu ezagutzen? Nola dio bada onek: Zerutik yetxi naiz?» (1)

Yesusek erantzun zien: «Ez marmar egin elkarren artean. Ezin diteke inor nigana etorri, bidali nauen Aitak erakarki ezpadeza; ta nik beñiz piztuko dut azken-egunean (2).»

«Profetetan idatzia dago: 'Yainkoaren ikastun (eskolakoak) izango dira guziak'. Aitari entzun ta argandik ikasten duen edozein nigana etortzen da. Aita ikusi eztu inork egin, ez; Yainkoarena

(1) Yesusek egindako mirari guziengatik ere ez-tute Yuduak siñetsi nai, ura zerutik yetxia dala; Yose-ren semea, beste edozein gizon bezelakoa dala uste dute.

(2) Nigana etortzekoz, neri siñetsi ta ni ezagutzekoz, beañezkoa da Yainkoaren grazia, bear da siñestea izan; baña zuek ezduzue siñeste ori, ez grazia ori zuen efuz, zuen obenez.

danak bakarrik ikusi du Aita (1).

«Egiaz, egiaz, nik diotsuet: Nigan siñesten duenak badu betiko bizia. Ni naiz bizi-ogia. Zuen aitak yan zuten mana basa-baztefean ta il-ziran. Auxeda zerutik yetxitako ogia, ortatik yaten duenik il ez dedin. Ni naiz zerutik yetxitako ogi bizia. Ogi ontatik yaten duena betiko biziko da. Ta nik emengo dudan ogia, nere aragia da, munduaren bizirako.»

Yuduak eztabaidaka asi ziran elkarfeekin ta esaten zuten: «Onek nola eman dezaiguke bere aragia yatera?»

Yesusek beriz erantzun zien: «Egiaz, egiaz, nik diotsuet: Giza-Semearen aragia yaten ta aren odola edaten duenak badu betiko bizia, ta nik beriz piztuko dut azken-egunean. Nere aragia ziñez yanaria baita ta nere odola edaria. Nere aragia jaten ta odola edaten duena nigan dago, eta ni arengan.»

«Bidali nauen Aita bizi da ta ni bizi

(1) *Yainkoarena danak*, Yesusek berak bakarrik ikusi du zeruko Aita, beste inork eztu ura ikusi.

naiz Aitaren bidez; ni yaten nauena ere olaxe biziko da nere bidez. Zerutik yetxitako ogi au ezta zuen aitak yan zutena bezelakoa; *ura yanagatik*, aiek il ziran; ogi au yaten duena beriz beti-betiko biziko da.»

Itz auek esan zituen Kaparnaum-eko sinagogan irakasten ari zala. Bere ikasletako askok, itz oiek entzun ta, esan zuten: «Gogoña da izkuntza ori! Nor entzun dezake ori?» (1)

Bere ikasleak ortaz marmarka ari ziralara bazekien Yesus'ek ta esan zien: «Ortaz gaizpidea artzen duzue? Giza-Semea len zegon tokira igotzen ikusiko bazenute! Atsak ematen du bizia, aragia ezta ezertako on. Nik esaten dizkitzuedan itzak atsa ta bizia dira. Baña badira zuen artean siñesten ez duten batzuek.» Yesusek bazekien asi-

(1) *Gogoña da izkuntza ori!* Yuduak uste zuten, Yesusek bere aragia puskatu ta yatera eman bear ziela, animalien aragia yaten dan bezala; ta ore-gatik esaten zuten gogoña zala izkuntza ura. Yesusek etzien oraño erakutsi, nola eman bear zien bere aragia yatera.

eratik, nor ziran siñesten etzutenak ta nork saldu bear zuen bera.

Gero esan zien: «Oregatik esan dizuet, ezin ditekela iñor nigana etoñi, nere Aitak ematen ezpadio »

Orduezkero, bere ikasletako asko atzeratu zitzaizkion, ta etziran geroz arekin ibiltzen. Orduan Yesusek galdegin zien amabiai: «Zuek ere yoan nai al duzue?»—«Yauna, erantzun zion Simon Pedro-k; norengana yoango gera? Betiko biziko itzak zuk dituzu. Guk siñesten dugu ta badakigu, Yainkoaren Sandua zerala.» (1)

Yesusek erantzun zien: «Ez al zaituztet amabi autatu? Ta ala ere, zuetako bat deabru da.» Simon-en seme Yuda Iskariot-engatik esan zuen; amabietako bat zan ura, ta arek saldu bear zuen Jesus. Gero Jesus Galilea-n barna zebilen. Yudean etzuen ibili nai, Yuduak bera il naiez zeudelako.

(1) Yesusen itzaldi ori zala ta, orduarte arekin zebiltzen yende askok aldegin zuten arengandik, etzuten geroz arekin ikustekorik izan nai. Ala ere bere Apostoluak iraun zuten bere ondoan, aiek berederen zintzo izan zitzaizkion Yesusi.

**86—Eskuak ikuzi gabe yatea.—Fari-
sauekin eztabaidan.**

(Mt. XV, 1-14; Mc. VII, 1-17.)

Orduan bildu zitzaizkion Farisauak eta Yerusalem-etik etoñitako lege-irakasle batzuek. Auek oartu ziran, aren ikasletako batzuek eskuez-garbiekin, esan nai da, eskuak ikuzi gabe yaten zutela.

Farisauak eta beste Yudu guziak, zañagokoen irakatsiai eutsiz, eztute yaten, eskuak maiz ikuzi (urez garbitu) gabe. Eta kañikatik etoñi-ta eztute yaten beren burua urez garbitu gabe. Olako beste gauza asko ere egiten dituzte, irakatsi oien araura: edal-ontziak, txantxilak, pertzak, etzanguak ikuzi ta olakoak.

Farisauak eta lege-irakasleak galdegin zioten esanez: «Zure ikasleak zer-gatik austen dituzte zañagokoen esanak? Ezpaitute eskurik ikuzten yatera-

koan, ta esku ez-garbiekin yaten dute.» (1)

Yesusek erantzun zien onela: «Zuek ere zergatik austen duzue Yainkoaren agindua zuen irakatsi oiengatik? Ederki profetatu zuen Isaia profetak itxurati oietaz; olaxe dago idatzia:

'Eri onek ezpañez goresten nau, baña bere biotza nigandik ufun dago; alferik goresten naute, gizonen agindu ta irakatsiak irakatsiz:'

«Yainkoaren legea alde batera utzi, ta gizonen aginduai eusten diezue; txantxilak eta edal-ontziak ikuzi, ta olako beste gauza asko egiten dituzue.» (2)

Gañera esan zien: «Ederki ezezta-

(1) Yuduak pekatu aundizat zeukaten, eskuak ikuzi gabe yatea. Baña lege ori etzuten Yainkoak emana, berak asmatutako legea zan. Argatik Yesusen ikasleak eskurik ikuzi gabe yaten bazuten ere, etzuten Yainkoaren legea ezertan austen, ez pekatu egiten.

(2) Aiek gizon eroak! Berak asmatutako lege ala-olako bat etzuten den gutxiena ere autsi nai; Yainkoak emandako legea austeko befiz axola gutxi zuten; beren legea, Yainkoaren legea baño zofotzago artzen zuten.

tzen duzue Yainkoaren agindua, zuen irakatsiari eusteko. Baiki, Yainkoak esan zuen Moise-ren bitartez: «Zure aita-amak goretsi itzatzu.» Eta gañera: «Bere aitari edo amari biraoa esaten diona eriotzez il bedi.»

«Zuek beriz diozue: Norbaitek bere aita edo amari esan badezaio: Nigandik izan bear zenuken laguntza-bide guzia *korban* da (Yainkoari eskaña dago), *eztu besterik zor*, eztu bere aita ta ama geiago goretsi beańik; eta eztozue uzten bere aita edo amari besterik egin dezaion. Ońela ezeztatzen duzue Yainkoaren itza, zuek emandako irakaspén oien bidez. Olako gauza asko egiten dituzue.» (1)

(1) Or erakusten die Yesusek nola austen duten Farisauak Yainkoaren legeko laugarén agindua. Aita eta ama gorestea agindu zuen Yainkoak bere legean; bańa Farisauak beste lege bat asmatu dute, ura ezeztatzeko. Orduko Yuduak, Yainkoari zerbait eskańi ta agintza (promesa) bat egiteko, ilz auek esaten zituzten: «Onako gauza au *korban* da.» Same batek bear-gońian bizi ditu bere gurasoak, berak baditu ondasunak ugari ta lagundu dezaieke beańean dauden gurasoai, ezte ordea lagundu nai. Orduan aski du esatea: «Nere ondasun guzi auek *kor-*

79 Gero deitu zituen beriz gizaldea
beragana ta esan zien: «Entzun guziok,
eta aditu. Kanpotik gizonaren barnera
sartzen danek ezin dezake gizona zi-
kindu; gizonagandik ateratzen diranak,
oiek bai zikintzen dute gizona. Entzu-
teko belafirik duenak, entzun beza.»

Eta gizaldea utzi ta etxera sartu za-
nean, bere ikasleak urbildu ta esan zio-
ten: «Zure itz oiek aditu ta, Farisauak
samindu dirala ba al dakizu?»

Berak erantzun zien: «Nere Aita ze-
rukoak landatu eztuen edozein landare
erotik erauziko da. Utzi itzatzue, itsuak
dira, ta itsu-auñekoak. Eta itsu batek
beste itsu bat bidatzen badu, biak leze-
zulora erortzen dira.»

ban dira, Yainkoari eskañiak eta emanak daude.»
Eta ori esan ezkerro, ez tie bere gurasoai deus ere
zor, ez tu aiei laguntzeko bearkirik, goseak ilko ba-
dira ere. Ofela Farisauak, berak asmatutako lege
ortaz, ezeztatzen ta uratzen zuten Yainkoaren legea.

87—Zer esan nai du berdintza oñek?

(Mt. XV, 15-20; Mc. VII, 17-23)

Bere ikasleak galdegin zioten, ea zer esan nai zuen berdintza arek. Pedro-k esan zion: «Berdintza ori azaldu zaiguzu.»

Yesusek erantzun zien: «Zuek ere adimen-gabeak al zerate oraño? Ez al duzue nabaritzen, kanpotik gizonaren agora sartzen danak ez dezakela ura zikindu? Ezpaita biotzera sartzen; sabelera yoaten da ta gero gordelekura egozten da; oñela garbitzen dira yaki guziak.»

Gero esan zuen: «Agotik ateratzen diranak beñiz biotzetik ateratzen dira, ta oietxek zikintzen dute gizona. Barrietik, gizonaren biotzetik ateratzen dira gogoeta gaiztoak, ezkontzausteak, aragikeriak, gizon-iltzeak, ebaskoak (lapufetak), gezuñezko aitoñerak, zikoizkeriak, gaiztakeriak, atzipeak, lizunkeriak, bekaizgoak, biraoak, aun-

dinaikeria, zorokeria.

«Gaitz guzi oiek barnetik ateratzen dira ta gizona zikintzen dute. Baña eskuak ikuzi gabe yateak eztu gizona zikintzen.»

88—Andre kananearen alaba sendatzen

(Mt. XV, 21-29; Mc. VII, 24-31)

Yesus andik yaiki ta atera zan, eta Tiro ta Sidon-go bazteretara yo zuen. Etxe batera sartu zan ta etzuen nai, iñork ori ikasi zezan. Baña ezin gorderik egon ziteken.

Andre batek, bere alaba ats loiak (deabruak) arturik zeukan andre kananearen batek aren beñi entzun zuen bezain laster, alde aietatik atera ta oiuz esan zion: «Uñikal zaite nitaz, Yauna, David-en semea; nere alaba deabruak biurka darabil.»

Yesusek etzion itzik erantzun. Orduan urbildu zitzaizkion bere ikasleak eta eskatu zioten onela: «Bidal zazu

ortik, oiuka gure ondotik dator ta.» Arek erantzun zion: «Israel-etxeko ardi galduetara bakañik bidalia naiz.»

Baña andrea (atzeñitaña zan bera, sirofeniziaña) yoan zitzaion, aren añaean aozpez erori ta gur-egin ondoan esan zion: «Yauna, lagun zaidazu.» Ta deabrua aren alabagandik erauzteko eskatzen zion.

Yesusek ordea erantzun zion: «Utzi leenik umeak asetzen; ezta on, umeai ogia kendu ta zakuñai ematea.» (1) Andreak erantzun zion: «Baiki, ala da, Yauna; baña txakuñak ere mai azpian yaten dute etxeko-yaun ta umeen papuñetatik.» (2)

Orduan Yesusek esan zion: «Oi an-

(1) *Umeai ogia kendu.* Ume oiek, Yainkoaren etxeko *umeak*, Yuduak dira; Yainkoa zan bereziki oien aita. *Zakuñak* beñiz atzeñitañak, yentilak dira, ta andre ura añaotza zan.

(2) Ori erantzun edeña! Bai, egia da, ni txakur bat bezala naizela; egia da, eztala on etxeko umeai ogia kendu ta txakuñai ematea. Baña begira: txakuñak, maitetik ezpada ere, yaten dituzte maipen mai gañetik erortzen diran ogi-papurtxoak. Ori eskatzen dizut bada nik ere; papurtxo bat, zuk eñaz egin dezakezun gauza bat, nere alaba sendatzea.

drea, aundia da zure siñestea! Gerta bekizu nai duzuna. Zure itz ofengatik zoaz, atera da deabrua zure alabagan-dik.» Orduezkero sendatu zan aren alaba. Bere etxera zanean, neskatxa oean etzana arkitu zuen; deabrua atera izan zan.

Gero Jesus Tiro-ko bazteřetatik atera ta Sidon-en barna itsasora zan, Dekapoli-ko bazteřen erditik.

89—Gizon gor-mutua sendatzen

(Mc. VII, 32-37)

An ekaři zioten gizon gor ta mutu bat, eta aren gañean eskuak yartzeko eskatzen zioten Yesusi.

Onek gizona artu ta gizaldetik berex eraman zuen; bere beatzak aren belafietan sartu ta aren mingaña aogozoz ukitu zuen. Gero zerura begiratu, intziri egin ta esan zion: «*Effeta*, esan nai du, *idiki adi*.» Bereala idiki ziran aren belafiak, askatu zan aren mingain-

lokaña ta zuzen mintzo zan.

Iñori ez esateko agindu zion. Baña arek debekutzenago, ta aiek zabaltzenago zuten beñi ori. Añiturik zeuden ta zioten: «Guziak ongi egin ditu; goñai entzunbidea ta mutuai mintzoa eman die.»

90—Zazpi ogi ugaltzen ditu Yesusek

(Mt. XV, 29-39; Mc. VIII, 1-10)

Yesus mendi batera igo ta an eserizan. Gizalde aundiak urbildu zitzaizkion, mutu, itsu, urgun (maing), elbarñi ta beste eri asko berekin zituztela; aren oñetara yañi zituzten, ta Yesusek sendatu zituen. Gizaldeak añitu ziran, ikustean nola mintzo ziran mutuak, ibiltzen urgunak, ikusten itsuak; eta Israel-go Yainkoa gorai patu zuten.

Gizalde aundia zegon beñiz ere egun artan eta yatekorik etzuten. Yesusek deitu zituen bere ikasleak eta esan zien: «Uñikari dut gizaldea; iru egun

auetan nerekin daude ta yatekorik ez-tute. Barurik ez ditut beren etxera igofri nai, bidean uko-egingo bailukete, oietako batzuek urundik etofri dira ta.»

Ikasleak erantzun zioten: «Nondik aterako dugu basa-bazter onetan, gizalde aundi ori asetzeko bear dan ainbat ogi?» Yesusek galdegin zien: «Zenbat ogi dituzue?»—«Zazpi, ta zenbait arai» erantzun zioten.

Gizaldea lur gañean etzanarazi zuen. Gero artu zituen zazpi ogiak eta araiak, eta eskeñak eman ondoan, autsi ta bere ikasleai eman zizkien, ta ikasleak gizaldeari. Guziak yan zuten ta ase ziran. Eta goititu ziran pusketaz zazpi saski bete zituzten gañera. Yan zutenak lau mila gizon bezelatsu ziran, araiak eta emakumeak sartu gabe. (1)

Gero gizaldea bidali zuen, ta berea-

(1) Bi aldiz egin zuen Yesusek mirari aundi ori, bi aldiz ugaldu zuen ogia; lenbiziko aldian bost ogiz ase zituen bost mila gizonki, bigařenean zazpi ogiz lau mila gizonki. Lenbiziko aldian goititu ziran amabi ortondo (zare) bete, bigařenean zazpi saski.

la bere ikaslekin ontzi batera sarturik, Magedan-go bazteretara, Dalmanuta aldera yoan zan.

**91—Farisauak ezaupide bat eskatzen—
Farisauen orantza.**

(Mt. XVI, 1-12; Mc. VIII, 11-21)

An urbildu zitzaizkion Farisauak eta Sadukearñak, eta arekin eztabaidan asi ziran. Zerutikako ezaupide bat eskatzen zioten, nañikatuz. (1)

Arek beñiz erantzun zien: «Añatsean esaten duzue: Aro ona izango da, ortzia (zerua) goñi goñi dago ta. Goizean beñiz: Gaur ekaitza dugu, ortzia goñi-ñunkara dago ta. Geroztik ortziaren aurpegia ezagutzen badakizue, ta denboraren ezaupideak beñiz ezin aditu di-

(1) *Zerutikako ezaupide bat.* Yesusi eskatzen zioten, bera nor zan ezaguerazteko egin zezala zeruan gauza añigañien bat, esaterako: eguzkia geldiarazi, suzko euri bat egin edo olako zerbait. Ori egi-ten bazuen, siñetsiko zutela, bera nor zan.

tzakezue?» (1) Eta bere barnean antzi-egiñez, esan zuen: «Gizaldi gaixto ta ezkontzausle onek zergatik eskatzen ditu ezaupideak? Egiaz, nik diotsuet: Yona profetaren ezaupidea bai, besterik etzaio gizaldi gaixto oni emango.»

Eta aiek an utzirik, ontzi batera igo ta itsaso-araindira zan. Bere ikasleak beste aldera iritxi ziranean, ogia artzeaz aztu ziran ta ogi bat besterik etzuten berekin ontzian. Eta Yesusek eman zien agindu au: «Oar-emazue ta begira zaitezte Farisauen ta Sadukea-
ren orantzatik eta Herode-ren oran-
tzatik.»

Aiek gogoeta egiten zuten beren artean ziotela: «Ogirik eztugu ekañi ta.» Yesusek ezagutu zuen ori ta esan zien: «Zergatik zaudete gogoetan, ogirik ez duzuelako? Ez al duzue oraño ezagu-

(1) Euskeraz ere ola esaten dugu: «*Arats goñi, biar eguraldi; goiz goñi, arats euri.* Yesusek esaten die bere etsaiei: Zeruari begiratzuz asmatzen duzue zer eguraldi, zer aro egingo duen. Eta nik egiten ditudan gauza añañiak ikusiz, ezin asma al dezakezue, zuei aspaldi agindutako Mesia ni naizela?»

tzen ta aditzen? Itsutua al duzue oraño zuen biotza? Begiak badituzue, ta ez al duzue ikusten? Belarñiak badituzue, ta ez al duzue entzuten? Ta ez al daukatzue gogoan, nola bein bost ogi lau mila lagunentzat autsi nituen? Zenbat ortondo (zare)-bete puska yaso zenituzten?»

«Amabi» erantzun zioten.

«Eta beste bein zazpi ogi lau mila lagunentzat autsi nituenean, zenbat saski bete puska yaso zenituzten?» — «Zazpi» erantzun zioten. Orduan esan zien: «Nola eztuzue oraindik ulertzen? Zergatik eztuzue autematen, Farisauen ta Sadukearren orantzatik begira zaitezte esatean, ez nintzala ogiaz mintzo?»

Orduan ezagutu zuten, ogi-orantzatik ez baña Farisauen ta Sadukearren irakaspenetik begiratzeko esan ziela. (1)

(1) Yesusek orantza (lemamia, altxagaña) aipatzean, Apostoluak oartzen dira eztutela ogirik ekañi. Jesus etzan ordea ogi-orantzaz eta yaten dan ogiaz mintzo, beste orantza bat zeukan gogoan itz oiek esatean. Zer orantza zan bada ori? Farisauen ta Sadukearren irakatsiak; orantza oferi, irakatsi txar

92—Itsu bat Betsaidan sendatzen

(Mc. VIII, 22-25)

Gero Betsaidara yoan zan. An ekañi zioten Yesusi itsu bat eta ura ukitzeko eskatu zioten. Yesusek itsua eskutik artu ta eñitik kanpora atera zuen; aren begiak aogozoz busti zituen, bere eskuak aren gañean yañi, eta ea zerbait ikusten ote zuen galdegin zion.

Arek begiratu zuen ta esan zuen: «Gizonak ibiltzen ikusten ditut, zuaitzak iduri.» (1)

Gero yañi zizkion beñiz eskuak begietan; orduan zoñotz begiratu zuen gizonak, eta sendatu zan ta guzia argi ikusten zuen urunera. Yesusek bere etxera bidali zuen ta esan zion: «Ez gero eñian ere sartu.» (2)

oiei oar-emateko, kontu idukitzeko agintzen die Yesusek.

(1) Itz oietatik ageri da, gizon ura etzala yaio-tzez itsua, gizonak eta zuaitzak nolakoak diran badaki ta.

(2) Latiñezko *Vulgata-k* beste alde ontara dakazki itz oiek: *Baldin ori ortara* (Betsaidara) *sartzen bazera, ez zaiozu iñori esan.*

93—Pedro-ren aitormena—Pedro-ren geientasuna

(Mt. XVI, 13-19; Mc. VIII, 27-29; Lc. IX, 18-20)

Yesus andik atera ta Caesarea Philippi ondoko bazteretara zan. Eta bein batez, bera otoitz egiten ari zala, ikasleak ere berarekin zeuden.

Eta bidean galdegin zien bere ikasleai: «Nor naizela diote gizaldeak?» Aiek erantzun zioten: «Batzuek Yoan Bataiazalea zerala diote, beste batzuek Elia, beste batzuek Yeremia edo profetatako bat zerala, lengo profeta aietako bat beñiz piztu dala.»

Orduan Yesusek esan zien: «Zuek beñiz, nor naizela diozue?» Simon Pedro-k erantzun zion: «Zu zera Kristo, Yainko biziaren Semea.»

Ta Yesusek beñiz esan zion: «Zorionekoa zera Simon, Yonaren seme ori, ez aragiak ez odolak ez baitizu ori erakutsi, nere Aita zerukoak baizik. Nik esaten dizut: Zu zera Pedro (*Arkaitza*)



eta arkaitz onen gañean goratuko dut nere Eliza, ta infernuko atariak etzaizkio nausituko.

«Zuri emango dizkitzut zeruko yurgoaren giltzak; zuk lufean lotzen duzun guzia, loturik egongo da zeruan ere; ta zuk lufean askatzen duzun guzia askaturik egongo da zeruan ere.» (1)

94—Kristok bere Nekaldia alde-auñetik esaten.

(Mt. XVI, 20-28; Mc. VIII, 30-39; Lc. 21-27)

Eta zoñozki agindu zien ikasleai, Berra zala Kristo ez iñori esateko. Bereala asi zitzaien Jesus bere ikasleai erakusten, Berak Yerusalem-era bear zuela, ta an Giza-Semeak neke asko ikusi zear zituela; ango Zañenak, apaiznau si ta lege-irakasleak gaitzetsi ta il bear

(1) Itz oiekin Yesusek agintzen dio Pedrori, bere Elizaren Buru egingo duela. Geroago, Jesus il ta beñiz piztu danean, beteko du bere agintza au ta emango dio Pedrori, ta gero aren ondoko Aita Sanduai Elizaren gañeko nausitasuna.

zutela; baña irugañen egunean beñiz piztuko zala.

Orduan Pedro-k, Yesus berex artu ta akar egiten asi zitzaion, esanez: «Yau-na, ez orixe, etzaitzu olakorik gertatuko.» Baña Yesus itzuli zan, bere ikasleai begiratu ta Pedro-ri mokoka egin zion esanez: «Zoaz emendik, Satan; zuk eztuzu Yainkoaren asmorik, gizonen asmoak baizik.»

Orduan deitu zituen Yesusek bere ikasleak eta gizaldea, ta guziai esan zien: «Iñork nere ondotik etoñi nai badu, uka beza bere burua, ar beza bere gurutzea ta yañai bekit. Bere bizia gorde nai duenak galduko du; bere bizia nigatik eta Ebangelioagatik galtzen duenak beñiz, oñetxek gordeko du. Zer on-egiten dio gizonari mundu osoaren irabazteak, bere anima galtzen badu? Edo zer ordain-sari eman dezake gizonak bere animaren orde?»

«Gizaldi ezkontzausle ta pekatari onetan nitaz ta nere itzetaz iñor lotsatzen bada Giza-Semea ere lotsatuko da ar-

taz, bere ospean ta bere Aitaren ospean ta Aingeru sanduen ospean agertuko danean. Giza-Semea bere Aitaren ospean bere Aingeruekin etoñiko baita, eta orduan emango dio bakoitzari bere egiñen ariora.»

Gero iratxeki zuen: «Egiaz, nik dio-tsuet: Emen daudenen artean badira zenbait, Yainkoaren yaurgoa bere indaŕean, Giza-Semea bere yaurgoan etortzen ikusi arte, eriotza murtxatuko ez dutenak.»

95—Yesu-Kristo irudi-aldatzen da

(Mt. XVII, 1-9; Mc. IX, 1-9; Lc. IX, 28-36)

Itz oiek esan ta sei-zortzi egunen ondoan Yesusek artu zituen Pedro ta Yakobo ta onen anai Yoan; eta mendi gora batera eramán zituen berex, otoitz egitera. An aien aúŕean irudi-aldatu zan (1).

(1) *Mendi gora batera.* Aspaldiko ustea danez, mendi ori Galilea-ko *Tabor* mendia da. An gure Yau-

Otoitzean ari zala, aren aurpegia bestelatu zan; aren begitarteak dizdiz egin zuen, eguzkiak bezela; aren soñekoak elufa bezain dizdizari ta txuri egin ziran, bolazaiek lufean ezin zuritu litzaiken ainbat (1). Bi gizon agertu zitzaizkien ta Yesusekin izketan ziarduten. Moise ta Elia ziran; ospe aundian azaldu ziran, ta Yesusi Yerusalem-en agitu bear zitzaion eriotzaz itzegiten zuten (2).

Pedro ta bere lagunak loak arturik zeuden; ta itzañi (esnatu) ziranean, ikusi zuten aren ospea, ta arekin zeuden bi gizonak ere ikusi zituzten. Aiek andik aldegitean, Pedro mintzatu zan onela: «Yauna, on da guretzat emen egoitea; nai baduzu, ementxe egingo ditugu

na *irudi aldatu* zan, beste itxura bat artu zuen, gero dionez.

(1) *Bolazaiak* edo *bolazaleak*, artilea garbitu, zuritu ta lantzeko eieran (erotan) edo *bolan* lan egiten dutenak dira.

(2) *Eriotzaz*; itzez-itzez; Yesusek Yerusalem-en egin bear zuen *ateraldiaz* edo *ateratzeaz*. Orixe da izan ere gizonaren eriotza, mundu onetatik *ateratzea*, beste mundura yoateko.

iru txabola, bat zuretzat, bat Moiserentzat, bat Elia-rentzat.» Zer zion ere etzekien, izu-laboñiak arturik zeuden ta.

Ura oraño mintzo zala, odei argitsu bat etoñi ta itzalpetu zituen; odei artan sartzean izutu ziran. Ta odeitik atera zan mintzo au: «Auxe da nere Seme maitea, onengan daukat nere atsegiña; oñeri entzun zaiozue.» (1)

Mintzo ura ixildu bezain laxter, Yesus bakañik arkitu zan. Ikasleak, ura entzutean, aozpez erori ta guziz ikaratu ziran. Orduan urbildu zitzaien Yesus, ukitu zituen ta esan zien: «Yaiki, ta ez beldur izan.»

Aiek begiak goratu, ta alde guzieta-
ra begiratu zuten; baña Yesus bakañik berekin, besterik iñor etzuten ikusi. Gero menditik yextean, Yesusek zo-
rózki agindu zien, ikusi zutena iñori ez salatzeke, Gizi-Semea ilen artetik piz-

(1) *Oñeri entzun zaiozue*, oñek esaten dizuena egizue. Orixe esaten digu Yainkoak kristau guziori: «Zorionekoak izan ta noizpait zerua iritxi nai baduzue, Yesu-Kristok irakatsi dizuena egizue, bizi zaitzte Ebangelio Sanduak agintzen duenez.»

tu arte.» Esan zien: «Ikusi duzuen ori ez gero iñori esan, Giza-Semea iñen artetik piztu dedin arte.»

Ixilik egon ziran beraz, eta egun aietan etzioten iñori ikuskari oñen beñirik eman; elkañi galdegiten zioten, *iñen artetik piztutze* añek zer esan nai ote zuten. (1)

96—Elia ta Yoan Bataiazalea

(Mt. XVII, 10-13; Mc. IX, 10-12)

Orduan bere ikasleak galdegin zioten onela: «Zergatik diote bada Farisauak eta lege-irakasleak, Elia lenbizi etoñiko dala?» (2)

(1) Yuduak eta bai Apostoluak ere uste zuten, berak igurikitzen (espero) zuten Mesia etzala bein ere ilko. Apostoluak siñesten dute, Jesus dala Mesia ura, eta esaten zuten beren baitarako: «Zer esan nai digu itz oiekin? Aspaldi igurikitzen dugun Mesia au baldin bada, ta Mesiak il bear ezpadu, nola dio onek iñen artetik piztuko dala, il ta irugañen egunean?»

(2) «Zu baldin bazera Kristo ta laster il bear baduzu, zergatik aldegin du emendik Elia-k? Ez al da

Yesusek onela erantzun zien: «Bai-ki, Elia etoriko da aurretik, eta gauza guziak zuzenduko ditu beñiz. Ta nola dago idatzia Giza-Semeaz, neke asko ikusi bear dituela, ta ezetsi bear dute-la? Baña nik esaten dizuet, Elia etorri izan dala; eztute ordea ura ezagutu, ta nai zutena egin zuten arekin, artaz idatzia zegonez. Bereolaxe Giza-Se-meari ere neke aundiak ikusi-araziko dizkiote.»

Orduan auteman zuten irakasleak, Yoan Bataiazaleaz itzegiten ziela.

egia gure eriko irakasleak diotena, Mesiaren aurretik Elia etoriko dala, hebrearai predikatzera?» Oraindik etzekiten Apostoluak, Yesu-kristok bi aldiz etorri bear duela mundura. Bigarren aldian gizon guziaz kontuak eskatzera agertuko danean, Elia etoriko zaio aurretik; baña lenbiziko aldian, gizonak zerurako bidean yartzera etorri zanean, Yoan Bataiazalea etorri zan aurretik, ari bidea apaintzera.

97—Mutiko ilargi-eria sendatzen

(Mt. XVII, 14-20; Mc. IX, 13-28; Lc. IX, 37-44)

Biaramonean, menditik yeixtean gizalde aundia bidera atera zitzaien. Yoan zan Yesus bere ikaslengana, ta gizalde aundia ikusi zuen aien inguruan, ta lege-irakasleak aiekin eztabaidaka ari zirala. Yesus ikusi bezain laster afitu ta zurtu ziran; yoan ziran lasterka arengana ta diosala egin zioten.

Yesusek galdegin zien: «Zer dala ta ari zerate eztabaidaka?»

Orduan gizon bat gizaldetik atera, arengana yoan, aren aurrean belaunikatu ta oiuz esan zion: «Maisua, ats mutuak arturik dagon nere seme bat ekañi dut onera.

«Yauna, uñikal zaite nere seme ortaz, ilargi-eria da ta gaitzak ikusten ditu; askotan sutara erortzen da, ta maiz uretara. Añen! begira zaiozu nere seme oñeri, seme bakaña dut eta. Ats batek añapatzen du, ta añapatzen duen guzi e-

tan, kañaxika asten da, iñañosten du ta gaxoari apaña dario; ortzak kañaskatzen ditu, ta igartuz doakit. Nekez ateratzen da arengandik, ongi biurkatu ondoan. Zure ikasleai ekañi diet seme ori, ta atsa erauzteko eskatu diet; baña ezin izan dute ori sendatu.»

Yesusek erantzun zuen: «O gizaldi siñesgogor ta biurña! Noiz arte egongo naiz zuekin! noiz arte burutuko dut zuekin? (1) Ekar zaidazu zere seme ori.» Ta ekañi zioten.

Urbiltzean, ats gaiztoak, Yesus ikusi bezain laster, iñañosi (astindu) ta biurkatu zuen mutikoa; luñean erori ta iraulkatzen zan, apaña zeriola.

Yesusek bere aitari galdegin zion: «Noiz ezkerro gertatzen zaio ori?» Arek erantzun zion: «Umetatik. Askotan sutara ta uretara egotzi izan du, bera iltze-

(1) Itz gogor oiek, ez dizkio Yesusek mutikoaren aitari bakañik esaten; an zeuden Farisau ta legeirakasleai esaten dizkie orobat; aiek ziran biurñiak eta siñesgogorak, Yesusen esanai ta irakatsiai beti gogor egiten zietenak.

ko. Zuk ezer al badezakezu, gutaz urikal zaite ta lagun zaiguzu.» (1)

Yesusek esan zion: «Zuk diozu: Ezer al badezakezu. Baldin siñestea baduzu, guzia baditeke.» Bereala mutikoaren aitak negañez ta oiuka esan zuen: «Yauna, siñesten dut; lagun zaitozu nere siñeste gutxiari.»

Yesusek, gero ta gizalde aundiagoa zetorkiola ikusirik, ats loiari akar (mokka, efixta) egin zion esanez: «Ats gor ta mutu ori, nik agintzen diat; atera adi oregandik eta ez adila geroz oregana sartu.»

Kařaxika ta azkar astinduz atera zan arengandik; mutikoa ilik bezela gelditu zan ta askok zioten: Il da. Baña Yesusek eskutik eldu ta eraiki zuen; mutikoa yaiki zan ta orduezkero sendaturik gelditu zan. Ta Yesusek bere aitari eman zion.

Guziak ařitu ziran Yainkoaren aundi-

(1) *Ezer al badezakezu.* Itz oietatik ageri da gizon aren siñestea etzala oso sendoa ta azkařa, baña ala ere Yesusek egin zion eskatzen zuena.

tasunaz. Gero Yesus etxera sartu zanean, urbildu zitzaizkion bere ikasleak eta ixilka galdegin zioten: «Guk zergatik ezin izan dugu ats ori erauzi?»

Arek erantzun zien: «Zuen siñeste gutxiagatik. Egiaz, nik esaten dizuet: Baldin usta-ale (moztaza-pikor) bat adiñeko siñestea baduzue, esango diozue mendi oñeri: Alda adi ortik ara, ta aldatuko da, ta zuentzat ezta ezinkizunik izango (1). Deabru-mota ori otoitz ta baruaren bitartez bakañik erauzi ditekete.»



98—Kristok bere Nekaldia beñero aldeau- rez esaten.

(Mt. XVII, 21-22; Mc. IX, 29-32; Lc. IX, 44-45)

Gero andik lekutu-ta, Galilean barna zebiltzen. Etzuen ordea nai, iñork bere beñi yakitea.

Galilean zebiltzen bitartean irakasten

(1) Bai aundia dala siñestearen indaño! Siñeste aundiz ta bear bezela eskatzen zaionik ezta Yainkoak ukatzen. Oñegatik ezta siñestedunarentzat ezinkizunik.

zien bere ikasleai; ta guziak afiturik baitzeuden berak egindako guziengatik, esan zien bere ikasleai: «Onako itzauk ongi gogoan ar itzatzue: Giza-Semea gizonen eskuetan yañiko dute ta ilaraziko dute; baña il ta irugañen egunean piztuko da beñiz.»

Aiek etzuten izketa ori erdetsi; iluna zan aientzat eta etzuten ulertu; ortaz ari galdegiteko beldur ziran ordea. (1)

99—Kristok bi-drakmakoa ordaintzen du.

(Mt. XVII, 23-26)

Kaparnaum-era iristean, bi-drakmakoa biltzen zebiltzenak Pedrori urbildu zitzaizkion ta galdegin zioten: «Zuen

(1) Apostoluak ezin ulertu zezaketen Yesusek esaten ziena: «Nola diteke Israelgo errege izatera etoñi dan Jesus au gurutze batean yosirik iltzea? Nola gaizkatuko du bere eria, il egiten bada? Nola goratuko du Israek eria, ofelako eriotza lotsagañiaz iltzen bada?» Ola zioten beren baitarako Apostoluak.

Maisuak ez al du bi-drakmakoa ordaintzen? (1)

«Bai orixe» erantzun zien.

Gero etxera sartu zanean, Yesusek aúrea artu zion ta galdegin: «Zer iduri zaitzu, Simon? Luíeko éregeak zeñengandik yasotzendit uzte zerga ta legafak (petxak), beren semengandik ala bestengandik?»

«Bestengandik» erantzun zion arek (2).

«Geroztik, esan zion Yesusek, semeak lokabe dira (3). Ala ere, gaizpiderik eman ez dezaiegun, zoaz itsasora, amua egotzi zazu ta lenbizi azaltzen dan aíaia ar zazu. Bere agoa za-

(1) Ogei urtetik gorako yudu guziak bi drakmakoko (bi pezeta gutxi gora bera) zerga ordaindu bear zuten yauretxerako; zerga ori biltzen zutenak urbildu zitzaizkion bada Pedrori.

(2) Alaxe da egia; luíeko éregeak ez diete beren umeai zergarik eskatzen. besteai, kanpokoai eskatzen diete; umeak eztute zergarik zor.

(3) Yesusek eztu beraz zerga ori zor, Yainkoaren etxerako baita zerga ori, eta Yesu-Kristo Yainkoaren Semea baita. Ala ere iñori deus esateko biderik ez emateagatik, oía or zer agintzen dion Pedrori.

bal zaiozu ta *estater* bat arkituko duzu barnean (1). Arekin ordain zazu nereztat eta zureztat.»

100—Apostoluen aundinaikeria— Apalnaitasuna

(Mt. XVIII, 1-5; Mc. IX, 32-39; Lc. IX, 46-50)

Aldi artan gogoetan asi ziran Apostoluak, beren artean aundiena zein ote zan (2).

Yesusek aien biotzeko gogoetak ikusi zituen, ta gero etxean zeudela, galdegin zien: «Zertaz yarduki duzue bidean?»

Aiek ordea ixildu ziran, bidean eztabaidan etoñi baitziran, aien arteko aundiena zein ote zan. Jesus eseri zan,

(1) *Estatera* lau drakma balio zituen diru bat zan; beraz *estater* batekin aski zuen Pedrok bere izenean ta Yesusen izenean bi-drakmakoa ordaintzeko.

(2) Maiz ibiltzen zuten Apostoluak eztabaida ori, ea beren artean aundiena, nausiena zein zan. Guziak nai zuten Yesu-Kristoren ondoan aundienak izan.

deitu zituen amabiak ta esan zien: «Iñork lenbizikoa izan nai badu, guzien azkenekoa ta guzien mendekoa izango da.»

Gero deitu zuen aur bat, eldu zion ta bere ondoan guzien erdian yañi zuen txutik; besarkatu zuen, ta esan zien Apostoluai: «Egiaz, nik diotsuet: Baldin ondu eta auren idurikoak egiten ezpazerate, etzerate zeruko yaurgora sartuko. Geroztik, bere burua aurtxo onen antzera apaltzen duena, orixe da aundiena zeruko yaurgoan. Eta aurtxo auetako bat nere izenean ongi-artzen duenak ni ongi-artzen nau; eta ni ongi-artzen nauenak ez nau ni ongi-artzen, ni bidali nauena baizik. Zuen artean txikiena dana uraxe da aundiena.» (1)

Orduan esan zion Yoan-ek: «Maisua, norbait zure izenean deabruak er-auzten ari zala ikusi dugu ta eragotzi egin diogu, gurekin ez dabilelako.»

Yesusek erantzun zion: «Etzaiozue

(1) Zerura nai badugu, auren idurikoak izan bear dugu apaltasunean, xalotasunean.

eragotzi; ez baita inor, nere izenean mirariak egin ta bereala nitaz gaizki itzegin dezakenik. Zuen aurka eztago-
na zuen alde dago ta.»

101—Gaizpiderik ez eman

(Mt. XVIII, 6-9; Mc. IX, 40-47)

«Norbaitek nere izenean, Kristotafak zeratelako, ontzi bat ur edatera ematen badizue, egiaz, nik diotsuet, ez-tu bere saria galduko.

«Eta baldin norbaitek nigan siñesten duten txiki auetako bati gaizpidea ematen badio, obe luke alakoak eiera-afi (erotañi) bat lepotik lotu ta itsaso-zolara egozten balute.

«Ai munduari, gaizpideak dirala-ta! Gaizpideak izatea nai-ta-naiezkoa da; bañan ai gaizpideak bere bitartez eto-ri-arazten dituen gizonari! (1)

(1) Yesusek or eta geroxeago esaten dituen itz ikaragañiak ederki erakusten digute, zein pekatu izugañia dan inori gaizpidea ematea, nolako ardura bear dugun pekatu ori iges egiteko.

«Zure eskuak gaizpidea ematen badizu, moztu zazu; esku-motz bizira sartu obe duzu, bi esku dituzula su-lezera, ezin-itzalezko sura yoan baño; an ezpaita aien aña iltzen, ez sua itzaltzen.

«Zure oñak gaizpidea ematen badizu, moztu zazu; urgun (maingi) bizira sartu obe duzu, bi oin dituzula sulezera, ezin-itzalizko sura yoan baño; an ezpaita aien aña iltzen, ez sua itzaltzen.

«Berdin zure begiak gaizpidea ematen badizu, idoki (atera) ta urun aurtiki zazu; begi-bakar zerura sartu obe duzu, bi begi dituzula sulezera yoan baño; an ezpaita aien aña iltzen, ez sua itzaltzen.

«Edozein lagun suaz gazitzen da, edozein opari gatzez gazitzen dan bezela. Ona da gatzia; baña gatzia gezatu (moteldu) badadi, zertaz gazituko duzue? Izan zazue gatzia zuengan, ta pa-kea izan zazue elkarékin.»

**102—Txikiak ez gutxietsi—Anaia zentza-
razi—Barkatu.**

(Mt. XVIII, 10-35)

«Begira, txiki auetako bat ere ez gutxietsi gero; nik esaten dizuet, oien Aingeruak zeruan beti ikusten dute nere Aita zerukoaren aurpegia. Giza-Semea galdurik zegona gaizkatzera etoñi da ta.

«Zer iduri zaitzue? Norbaitek eun ardi balitu, eta aietako bat basatu baltzaio, ez al lituzke larogei-ta-emeretziak mendian utziko, galdu danaren bila yoateko? Eta zorionez ura arkitzen baidu, nik diotsuet: galdu etziran larogei-ta-emeretziak baño poz aundiagoa artzen du artaz. Bereolaxe zuen Aita zerukoak ere eztu nai, txiki auetako bat ere galdu dedin.

«Zure anaiak zure aurka utsegin baidu, zoaz eta zentza zazu, biok buruzburu zaudetela. Entzuten badizu, zure anaia irabazi izango duzu. Entzuten ezpadizu beñiz, beste lagun bat edo bi

ar itzatzu oraindik, bi edo iru yakilen (testiguren) aitoferaz guzia sendortu dedin. Oiei ere entzuten ezpadie, Elizari esaiozu; eta Elizari ere entzuten ezpadio, orduan yentiltzat eta ageriko pekataritzat iduki zazu.

«Egiaz, nik diotsuet: luñean lotzen duzuen guzia loturik egongo da zeruan ere; eta luñean askatzen duzuen guzia askaturik egongo da zeruan ere.

«Gañera nik esaten dizuet: Zuen arteko bi lagunek, elkar arturik, luñean edozein gauza eskatzen badute, eman-go die nere Aita zerukoak; bi edo iru lagun nere izenean bildurik dauden tokian, ni antxe aien erdian nago ta.»

Orduan urbildu zitzaion Pedro ta galdegin zion: «Yauna, zenbat aldiz barkatu bear diot nere anaiari, nere aurka utsegin badu? Zazpi alditarano ote?» Yesusek erantzun zion: «Ez, zazpi aldiz bakañik ez; baita irurogei-ta-amar aldiz zazpi aldiz ere.

«Oregatik, bere mirabekin kontuak garbitu nai izan zituen eñege bat iduri

du zeruko yaurgoak. Kontu-gartitzen asi zanean, amar mila talentu zor zizkion gizon bat ekafi zioten aufera. Bana arek ezin baitzezaken ordaindu, elegeak agindu zuen, bera ta bere emaztea ta bere auñak eta zituen ondasun guziak saltzeko ta ola zoña berdintzeko. Mirabea aozpez yañi zitzaion, ta otoitz egiten zion esanez: Epea eman zaidazu ta guzia ordainduko dizut. Nausia uñikaldu zan mirabe artaz eta loka-be utzi zuen ta zoña barkatu egin zion.

«Mirabea atera zanean, eun *denario* zor zizkion mirabe-kide bat arkitu zuen. Eutsi zion añeri ta itotzeko zorian zeukan ta esaten zion: Ordain zaidak zor dukana. Orduan mirabe-kide ura aozpez yañi zitzaion ta otoitz egiten zion, esanez: Epea eman zaidak eta guzia ordainduko diat. Arek ordea etzuen nai izan; aitzitik, yoan zan ta baitegian (giltzapean) sañarazi zuen, bere zoña berdindu arte.

«Mirabe-lagunak, gertatua ikusi zu-

tenean, atsekabetu ziran; eta yoan ta agitu zan guzia yakinarazi zioten ére-geari. Orduan bere nausiak etoñi-arazi zuen mirabe ura, ta esan zion: Mirabe gaiztoa, zor guzia barkatu nian, eskatu idalako. Ez al uen bada ik ere ire mirabe-kideaz urikaldu bear, ni itaz urikaldu ninduken bezela?

«Nausiak, asafeturik, biurkarien eskuetan yañi zuen mirabe ura, zor guzia ordaindu arte. Beste oñenbeste egingo dizue zuei nere Aita zerukoak, baldin elkañi biotzez barkatzen ezpadiozue.»

103—Jesus Yudea-aldean

(Mt. XIX, 1-2; Mc, X, 1)

Jesus, itzaldi oiek amaitu ondoan, andik yaiki ta Galileatik aldegin zuen. Yudea-ko bazterétara, Yordan-araindira etoñi zan. Gizalde aundia bildu zitzaion ta sendatu zituen antxe. Gero, oitura zuenez, irakasten zien beñiz.

104—Samaritan gaizki artzen dute Yesus

(Lc. IX, 51-56)

Yesus *luřetik* zeruratzeko egunak urbilduz zioazen-ta, Yerusalem aldera yoateko asmo ziña artu zuen, ta bere mandatariak bidali zituen bere aũetik. Aiek yoan ziran ta Samariañen efi batera sartu ziran, ostatua atontzeko (prestatzeko). Angoak ordea etzioten ostatu eman, Yerusalem alderako bidea zeramalako. (1)

Bere ikasle Yakobo ta Yoanek, ori ikusirik, esan zioten: «Yauna, nai duzu zerutik sua yetxi-arazi dezagun, oiek kixkaltzeko?» (2)

Yesus aiengana itzuli ta akar (erix-

(1) Lendik ere esanik daukagu, Samariañak eta Yuduak elkañen etsai zirala. Argatik Samariar aiek añera txaña egin zioten Yesusi, au Yudua zalako ta Yerusalem-erako bidea zeramalako.

(2) Ori egin zuen bein Elia Profetak: zerutik sua yetxi-arazi ta bere ondotik zetozkion etsaiak eñe zituen. Baña Yesusen aldekoak eztute olakorik egin bear; gozoak izan bear dute, egiten zaizkioten txarkeriak ongi eraman bear dituzte, gaizkia ongiz ordaindu bear dute.

ta) egin zien esanez: «Eztakizue, zein atsaren umeak zeraten. Giza-Semea ezta etofi animak galtzera, gaizkatzera baizik.»

Gero beste erixka batera yoan zan.

105—Irurogei ta amabi ikasle predikatzena bidaltzen.

(Lc. X, 1-24)

Oren ondoren berexi zituen Yau-nak beste irurogei ta amabi ikasle, ta binaka bidali zituen bere auñetik, berak yoan bear zuen iri ta lekuetara.

Esan zien (1): «Zitua (uzta, laborea) aundia da, langileak beriz gutxi. Zituaren yabeari eska zaiozue bada, langile geiago bidaltzeko bere zitura.

«Zoazte! Bildotsak otsoen erdira bezela bidaltzen zaituztet. Ez eraman zoñorik, ez ziskurik, ez oskirik (zapa-

(1) Yesusek or irurogei ta amabi ikasle oiei esaten dizkien itz berak, gutxi gora bera, esan zizkien ienago amabi Apostoluei, predikatzena bidali zituen batean. (Ikus. 73-74).

tarik) ta bidean ez iñori agurik egin (1). Edozein etxetara sartzean, esan lenbi-zi: Pakea etxe oneri! eta etxe artan pakearen umerik baldin bada, zuen pakea aren gañera yetxiko da; ezperen, zuengana itzuliko da. (2)

«Etxe artan egon zaitezte, an dutena yan ta edan zazue, langileak bere saria irabazia du ta. Ez yoan etxe batetik bestera. Eta eñi batera sartu ta ongi artzen zaituztenean, yan zazue aúean yartzen dizuetena, an diran eriak senda itzatzue ta esan zaiezue: Yainkoaren yaurgoa urbil duzue.

«Baña iri batera sartu ta añerarik egiten ezpadizuite, ango eñi-zelaietara yoan ta esan zazue: Gure oñai iri onetan itsatsi zaien autsa ere astintzen

(1) *Ez agurik egin*, ez astia eman diosala luzetak egiten. Yuduen artean etzan diosala gure artean bezain laburra; itz asko ta agur asko egiten zizkio ten elkarri ta ala aldi luzea yoaten zitzaien. Yesusek, olako diosala luzetan egotea debekatzen die bere ikasleai, ta beren lanari azkar ekiteko agintzen die.

(2) *Pakearen umerik*, zuek eskeintzen diozuen pakea ta ongia merezi duenik.

dizuegu. Ala ere, yakizue, Yainkoaren yaurgoa urbil dala. Nik esaten dizuet: Egun artan Sodomari biguñago egingo zaio, iri aferi baño (1)

«Ai iri Korozain! ai iri Betsaida! Zuengan agitu diran mirariak agitu balira Tiro ta Sidon-en, aspaldi zakuz ta autsez estalirik damutu izango ziran (2). Ala ere, epai-egunean zuei baño biguñago egingo zaio Tiro ta Sidon-i. Eta i, Kaparnaum, zeruraño goratu aiz? Sulezeraño ondatuko aiz.

«Zuei entzuten dizuenak neri entzuten dit, zuek ezesten zaituztenak ni ezesten nau. Eta ni ezesten nauenak ni bidali nauena ezesten du.»

Pozez beterik itzuli ziran irurogeita-amabiak eta esan zioten: «Yauna, zure izenean deabruak berak ere gure mendean daude.»

(1) *Egun artan*, azken-epai egunean, zuei afera txarra egin dizuen eñari baño biguintasun aundiagoa erakutsiko diot nik Sodoma eñi gaiztoari.

(2) *Zakuz ta autsez*. Orduko yendeak, beren biotz-miña ta damutasuna erakusteko, zakuz edo soñeko latzez yazten ziran, ta beren buruak suko autsez estaltzen zituzten.

Berak esan zien: «Satan, tximista bezela, zerutik erortzen ikusi dut. Ona, suge ta arcbien gañean ibiltzeko eskubidea ta etsaiaren indar guzien gañeko indaia eman dizuet; ez dizue ezerk ere kalterik egingo. Baña ala ere, ez zaitzeltela poztu, atsak (deabruak) zuen mendeko daudelako; bai ordea poztu zaitetze, zuen izenak zeruan idatziak daudelako, (*zerurako berexiak zeratelako*).»

Ordu artan pozkariatu zan Ats Sanduan eta esan zuen:

«Eskeñak dizkitzut, Aita, zeru-luñen

Yauna,

gauza auek yakintsuta zuuñai estali, ta txikiyai beñiz erakutsi dizkiezula-ko.

Baiki, Aita; orixe izan da zure atsegin ona.

Nere Aitak guzia eman dit neri;

nor dan Semea eztaki iñork, Aitaz landara,

nor dan Aita eztaki iñork, Semeaz landara,

eta Semeak erakutsi nai dionaz landara.»

Gero itzuli zan Yesus bere ikaslegana ta esan zien: «Zorionekoak zuen begiak, dakustena dakustelako. Nik esaten dizuet: Profeta ta érege askok ikusi nai izan dute zuek dakuszuena, ta eztute ikusi; entzun nai izan dute zuek dantzuzuena, ta eztute entzun.»

106—Yainkoa ta urko-laguna maitatzeaz—Jesus Marta-ren etxean.

(Luc. X, 25-42.)

Eta ara non urbildu zitzaion lege-irakasle bat, Yesus zirikatzer, ta esan zion: «Maisua, zer egin bear dut betiko bizia irabazteko?» (1)

Yesusek erantzun zion: «Legean

(1) Lege-irakasle arek eztio Yesusi galde ori egiten arengandik zerbait ikasi naiez; bazekien berak ongi aski, Yainkoaren legeko lenengo agindua zein dan. Galde ori egiten dio, Yesus zirikatze, probatze, ea legearen aurkako itzen bat ateratzen zion ta ofela gero Yesus galdu zezaken.

zer dago idatzirik? Zer irakurtzen duzu?» Arek erantzun zion: «Zure Yainko Yauna maita zazu zure biotz guziaz, zure anima osoaz, zure indar guziaz, zure gogo osoaz; eta urko-laguna zere burua bezala.»

«Ederki erantzun duzu, esan zion Yesusek; egizu ori ta biziko zera.» (1) Orduan arek, bere burua zuritu naiez, galdegin zion Yesusi: «Baña nor da nere urko-laguna?» (2)

Eta Jesus mintzatu zitzaion onela(3): «Gizon bat bazioan Yerusalem-etik bei-

(1) Ezta aski legea yakitea, lege ori bete ere egin bear da zeruratzekoz.

(2) Yuduen artean batzuek uste zuten, urko-laguna gure adiskideak bakarik dirala; beste batzuek, gure eritafak bakarik dirala, eta geroztik oiek bakarik maite izan bear ditugula; baña gure etsaiak edo yende gaiztoak edo arotzak maitatzera ez gaudela beartuak. Oregatik, lege-irakasle arek galdetzen dio Yesusi, ea berak zer uste duen ortaz, ea nor dan gure urko-laguna.

(3) Ondoko gertaera ofen bidez erakusten digu Yesusek, nor diran gure urko-lagunak; ez gure adiskideak edo gure eritafak bakarik, yende guziak dira gure urko-lagunak, baita gure etsaiak ere, eta guziak maite izan bear ditugu, guziai ongi egin bear diegu.

ti Yeriko-ra, eta lapuñen eskuetan erori zan. Lapuñak muñiztu zuten, zauriz bete zuten, ta an erdi-ilik utzirik leku-tu ziran.

«Apaiz bat bide bereartatik igarotzea gertatu zan; ikusi zuen gizona ta auñera yoan zan (*artaz axolatu gabe*). Orobat Levi-tar batek, toki aren ondolik zioala, ikusi zuen, ta auñera yoan zan. Samariar bat ere andik igarotzen zala, aren ondora zan, ta ura ikustean urikaldu zitzaion. Yoan zan bada arengana, ta aren zauriak lotu zituen, olioia ta ardoa aietara isuri ondoan. Gero artu zuen abere gañean, ostatu batera eraman zuen ta artaz ardura izan zuen. Biaramonean atera zituen bi *denario* ta ostalariari eman zizkion esanez: Ardura izan zazu ortaz; eta diru onetaz gañera irioten (gastatzen) duzuna, ordainduko dizut atzera etortzen naizeanean. (1)

(1) Yudu-apaizak eta Levi-tarñak beren efitar gaxo ura ikusi ta etzuten artaz ardurarik artu, auñera yoan ziran artaz efukitu gabe. Samariañak beñiz,

«Iruetatik zein uste duzu urko-laguna izan zitzaiola lapuñen eskuetan eroritako gizon ari?»

Arek erantzun zion: «Artaz urikaldu zana.» — «Zoaz bada, esan zion Yesusek, eta zuk ere egizu beste oñenbeste.»

Aldi batez, Jesus bidez zioala, erika batera sartu zan; Marta izeneko emakume batek artu (ostatatu) zuen bere etxean. Arek bazuen Maria zertizan aizpa bat. Au Yaunaren oñetara eseri ta aren itza aditzen zegon; Marta beriz bareatua zebilen gauza guziak atontzen (1). Beingoan, gelditu zan Yesusen aurrean ta esan zion: «Yauna, nere aizpak neri utzi dit gauzak atontze-

naiz Yuduen etsai izan, erukia izan zuen Yudu gaxo artaz eta ura sendaturik ikusi arte etzuen onik izan, etzuen bere dirua ere kupidetsi. Aretxek bai maitezituela bere urko-lagunak bear dan bezela, iñor berexi gabe!

(1) Marta ere, bere aizpa bezela, pozik egongo zan geldi geldia Yesusen itzak entzuten; baña ezin, an zebilen alde batera ta bestera bear ziran gauza guziak eta batez ere Yesusentzako bazkaria atontzen, prestatzen eta etxeko mirabeai mandatuak-ta ematen.

ko lan guzia, ta zuk ez al duzu axolarik? Neri laguntzeko esaiozu bada.»

Yesusek ordea erantzun zion: «Marta, Marta, kezketan zaude ta lañi zabil-tza gauza askotan; baña gauza bat ba-kaña da bearezkoa. Mariak puskarik onena berexi du; etzaio ori kenduko »

107—Otoitz-egiteaz

(Lc. XI, 1-13)

Bein batez Jesus otoitz egiten ari zan leku batean; eta bukatu zuenean, esan zion bere ikasletako batek: «Yau-na, otoitz egiten irakatsi zaiguzu, Yoa-nek ere bere ikasleai irakatsi zien be-zela.»

Ta arek esan zien: «Otoitz egitean esazue ola:

Aita, sanduetsi bedi zure izena,
betorkigu zure yaurgoa,
iguzu gaur gure eguneroko ogia;
barka zaizkiguzu gure pekatuak, guk

ere gure zordunai barkatzen diegu ta;
eta ez gaitzatzula zirikaldian safa-
razi.»

Gero esan zien: «Zuetako batek badu adiskide bat, eta au etortzen zaio gau erdian ta esaten dio: Adiskidea, eman zaizkidak ordeazko iru ogi; nere adiskide bat bidez dioala etoñi zaidak etxera, eta ari auñean yartzeko (yatera emateko) ezer eztiat. Besteak beñiz erantzuten dio barnetik: Pakean utzi nazak; atea itxirik zegok, nere auñak nere ondoan dituk oatzean (oean); ezin yaiki naitekek, iri ezer ematera. Baña arek auñera ere atean yotzen badu, nik esaten dizuet, bere adiskidea dalako yaikitzen ta ematen ezpadio ere, yaikiko da bai ta emango dio bear duen guzia, ain mutiria dalako.

«Nik ere esaten dizuet: Eska zazue ta emango zaitzue; bila zazue ta arkituko duzue; yo zazue atean ta idikiko zaitzue. Eskatzen duenak artzen baitu, ta bilatzen duenak arkitzen, ta atean

yotzen duenari idikitzen baitzaio (1).

«Zuetako batek bere aitari ogia eskatzen balio, onek aña emango ote lioke? Edo añaia eskatzen balio, sugea emango ote lioke añaiaaren orde? Edo añoltzea eskatzen balio, añobia emango ote lioke?

«Zuek bada, gaiztoak zeratelarik, zuen umeai gauza onak ematen baldin badakizue, zenbatenaz geiago zuen Aita zerukoak emango die ats ona eskatzen diotenai!

108—Begia da gorputzaren argi-zuzia

(Lc. XI, 33-36)

«Iñork eztu argi bat piztu ta zoko ilun batean edo gaitzerupean yartzen; argimutil gañean ezartzen du, sartzen diranak argia ikusi dezaten.

(1) Ongi ta bear bezela eskatzen zaion gauzarik eztu Yainkoak ukatzen, ona bada beñepein; aundia da otoitzaren indaña, Yainkoagandik bear dugun guzia iristeko.

«Zure begia da zure gorputzaren argi-zuzia. Zure begia sendo badago, zure gorputz osoak argia izango du; eri badago ordea, zure gorputza ilunbetan egongo da. Begira bada, zure baitako argia ez dedila gero ilunbe izan. Zure gorputz osoak argia badu, alderdi bat ere ilun ezpadu, guzia argitan egongo da, argi-zuzi batek bere diztiz argitzen zaituenean bezelaxe.»

109—Ai zuei Farisau ta lege-irakasleoi!

(Lc. XI, 37-54)

Jesus oraño mintzo zala, Farisau batek bere etxean bazkaltzera yoateko eskatu zion. Yoan zan bada ta maiera yañi zan. Farisaua añiturik gelditu zan, Jesus yan-auñean ikuzi (garbitu) etzala ikusi ta. (1)

(1) Etxera sartu ta bereala maiera eseri zan, lenik eskuak ikuzi gabe, Farisauak erakusten zuten bezela. Pekatu aundizat zeukaten eskuak garbitu gabe yatea.

Ta Yaunak esan zion: «Zuek Farisauok ontziaren ta azpilaren kanpoaldea garbitzen duzue, zuen barnea beñiz añapakeriz ta gaiztakeriz betea dago. Zoroak, kanpoaldea egin zuenak berak ez al du barneko aldea ere egin? (1) Ala ere limosna emazue duzuenetik, eta ofela guzia garbia izango da zuentzat. (2)

«Baña ai zuei Farisauoi! Zuek mendaren ta boskotxaren ta belarki guzien amañenak ematen dituzue, baña zuzentasunaz eta Yainkoaganako maitasunaz axola gutxi duzue. Gauza oek egin bear ziran, ta beste aiek ez utzi (3).

(1) Baldin norbaitek bere etxeko edal-ontziak ta azpilak kanpo-aldetik garbitu ta barnea beñiz zinkinkeriz betea uzten balu, zorakeri aundia egingo luke. Orixe egiten dute bada Farisauak; gorputzeko, kanpoko garbitasunaz axola aundia dute, eta animakoaz, barnekoaz beñiz bat ere ez. Ta ala ere Yainkoak berdin ikusten ditu barnea ta kanpoa, eta biak garbi egon ditezen nai du.

(2) Zer egin bear dute bada beren barnealdea ere garbitzeko, beren pekatuak eta añapakeriak ordaintzeko? Beartsuai lagundu, geiegi dutenetik limosna eman.

(3) Arnari (frutu) guzien amañenak emateko agindu zien Yainkoak yuduei; eta Farisauak, lege ori estu artuz, beren baratzetako belarkien amañenak

«Ai zuei Farisauoi! Sinagogetan len-
biziko alkiak bilatzen dituzue, ta pla-
zan zuei agur egin dezaizuen nai du-
zue! Ai zuei, nabari ez diran ilobiak
iduri duzue, aien gañean ibiltzen baiti-
ra gizonak, bat ere yakin gabe.» (1)

Lege-irakasle batek erantzun zion:
«Yauna, ofela mintzatzuz guri ere iroi
egiten diguzu.»

Ta arek esan zion: «Ai zuei lege-ira-
kasleoi ere! Ezin-yasanezko sortak
yartzen dituzue gizonen gañean, zuek
beñiz beatz batez ere ez dituzue sorta

ere ematen zituzten. Baña bitartean, oiek baño bea-
ragoko gauzaz, zuzentasunaz eta Yainkoaganako
maitasunaz etzuten axolik. Eta ori eztago ongi; gau-
za aiek egitea, amañen aiek ematea ongi dago, baña
beařago da beste gauza auek egitea.

(1) Yuduak debekaturik zeukaten ilobien gañean
ibiltzea, ori egiñez beren buruan zikintzen ta kutsa-
tzen zirala uste zuten. Argatik ilobiak kisuz (karez)
txuritu egiten zituzten, yendeak ikusi ta aietara ur-
bildu etzitezzen. Baña aldiarekin ilobiak galtzen zu-
ten txuritasun ura, belañez ta luñez estaltzen ziran,
ta orduan yendeak bat ere oartu gabe ibiltzen ziran
aien gañean. Olakoak zerate zuek, esaten die Ye-
su-Kristok Farisauai, ardura aundiz estaltzen dituzue
zuen gaiztakeriak, yendeak ikusi ez dezaten, nola-
koak zeraten.

oiek ukitzen! (1)

«Ai zuei! profetai ilobiak goratzen dizkiezue, zuen aitak ordea il zituzten aiek. Oñela aitortzen ta ontzat ematen dituzue zuen aiten egintzak; aiek il zituzten profetak, eta zuek goratzen dizkiezue ilobiak. Oñegatik esan zuen Yainkoaren zuurtziak: Profetak eta apostoluak bidaliko dizkiet, eta oietako batzuek ilko dituzte, beste batzuei yazañiko zaizkie. Bai, gizaldi oni eskatuko zaio profeta guzien odol, munduaren asieratik isuri danaren *kontua*; Abelen odoletik asi, eta aldare ta yauretxearen artean il zan Zakaria-ren odoleraño. Baiki, nik esaten dizuet: Gizaldi oni eskatu zaio guzi oñen *kontua*.

«Ai zuei, lege-irakasleoi! Yakintasunaren giltza artu duzue; zerok etzerate

(1) «Sorta, *karga* gaitzak yartzen dituzue yenden bizkañean, Yainkoaren legea estuegi artuz; eta gañera lege ortaz landara zerok asmatu dituzue ainbeste lege ta agindu ta zeremonia astun. Baña zuek, besteai legeak eman bai, baña zerok legerik gabe lasai bizi zerate.»

sartu, eta sartu nai zutenai eragotzi diezue.» (1)

Yesusek gauza oiek esatean, lege-irakasle ta Farisauak gogorki samindurik asi zitzaizkion alde batera ta bestera galde asko egiten, ta zelatan zegozkion aren aotikako itzen bat arapatu ote zezaketen, ura salatzeke. (2)

**110—Ez izan itxuratiak, ez ondasun-
goseak—Erne egon**

(Lc. XII, 1-59)

Bitartean gizalde asko biltzen baitzitzaizkion ingurura, elkar zapatzeko

(1) Liburu Sanduen yakintasunaren giltza lege-irakasleak artu zuten; berak bakarik zekitela ongi legea ta berak besteai erakutsi bear zietela esaten zuten. Liburu Sanduak Kristoganako bidea erakusten dute; baña lege-irakasle aiek yendea bide ortatik eraman beaŕean, atzeratu ta baztertu egiten zuten, arengana yoan etzedin. Berak etziran sartu, etziran Kristogana yoan, eta yoan nai zutenai eragotzi zieten yoatea.

(2) Beti ola ari ziran Farisau gaiztoak, ea bear eztan itzen bat edo esaeraen bat ateratzen zioten Yesusi, bereala auzi-emateko, agintariei salatzeke.

ainbat asi zitzaien bere ikasleai esaten:

«Begira zaitezte Farisauen orantzatik, ori da itxurakeria (1). Ezer ezpaita estalirik, agertuko eztanik. Zuek ixilka ilunbetan esaten duzuen argitan esango da, ta zuek etxe barnean belafira esan duzuen etxe gañetatik oiuka adieraziko da (2).

•Zuei nere adiskideoi esaten dizuet: Gorputza il bai, baña besterik ezin egin dezaketen gizonen beldur ez izan. Nik erakutsiko dizuet, noren beldurizan bear duzuen: Il ondoan oraindik sulezero bidali dezakenaren beldur izan zaitzte. Bai, nik esaten dizuet: oretxen

(1) Farisauen *orantza* ori *itxurakeria* da, barnean gaiztoak izan ta kanpotik on agertu naia. Orantza puska batek nasten zaion ore guzia astiaratzen duen bezela, itxurakeriak ere galtzen ta ondatzen ditu kristauen egite on guziak, baita onenak ere, baita birtuterik aundienak ere.

(2) Alpeñik da nor bere gaiztakeriak estali naiez ta ona agertu naiez ibiltzea; emen ezpada, beste munduan agertuko da nor zer dan. Antxe agertuko dira kristauen pekaturik ixkutuenak ere, ixil-ixilean esandako itzak, ixilka belafiri esandako kontuak, guziak azalduko dira an.

beldur izan zaitezte (1).

«Bost etxe-txori ez al dira bi maraitan saltzen? Ta ala ere oietako batez ez eztago azturik Yainkoa. Zuen buruko ile guziak ere zenbaturik daude. Ez beldur izan bada; etxe-txori askok baño geigo balio duzue zuek.

«Nik esaten dizuet: Ni gizonen aurrean aitortzen nauena, Giza-Semeak ere aitortuko du Yainkoaren Aingeruen aurrean. Ni gizonen aurrean ukatzen nauena beñiz ukatuko dut Yainkoaren Aingeruen aurrean (2). Giza-Semearen aurkako itz bat esaten duenari barkatuko zaio; Ats Sanduaren aurkako biraoa esaten duenari beñiz etzaio barkatuko.

«Sinagogatara ta eñi-buru ta agintarien aurrea eramango zaituztenean, ez egon kezketan, zer edo nola erantzun-

(1) Yainkoa alde badugu, eztugu zeren beldur izan, gizon guziak aurka ba ditugu ere. Gizonak geienaz ere gorputza il dezakete, animaz ordea ezer ez dezakete egin.

(2) Gizonen aurrean kristau bezela agertzeaz, nonnai Kristo aitortzeaz lotsatzen al gera? Kristo ere lotsatuko da bada gutaz, ez gaitu beretzat, kristautzat idukiko.

go duzuen edo zer esan bear duzuen;
Ats Sanduak erakutsiko dizue ordu ar-
tan, zer esan bear duzuen.»

Gizaldek batek esan zion: «Maisua,
esaiozu nere anaiari, ondarea nerekin
erdi-banatzeko.»

Arek ordea erantzun zion: «Gizona,
nork yañi nau ni zuen arteko epaile ta
banatzale?» (1) Gero esan zien: «Go-
go-eman ta begira zaitezte gero (edo-
zein ondasun-gosetik. Zein ere onda-
sun ugariak dituen batek, gizonaren
bizia eztago ondasun asko izatean.» (2)
Eta gero esan zien onako berdintza au:

«Gizon aberats batek alor (soro) bat
bazuen, ta zitu (uzta) ugaria ekafi zion.
Eta gogoetan ari zan ziola: Zer egingo
dut? Nere zitu oiek biltzeko tokirik ez-
tut. Eta esan zuen: Auxe egingo dut:

(1) Zer ikusteko zuen Yesusek bi gizon aien
auzi artan? An konpon zitezela berak elkarékin, be-
ren etorkia edo ondarea erdi-banatzeko.

(2) Bai ziñez, ondasun asko izan edo gutxi izan,
gizonaren bizia eztago ortan. Ondasun asko gabe
ere bizi diteke ta bizi dira ainbeste kristau; beste
aldera beriz, ondasun asko dutenak ere berdin il-
tzen dira, yenderik beařenak bezela.

nere aletegiak ufatu ta aundiagoak egingo ditut, ta sortu zaizkidan zituak, nere ondasun guziak an sartuko ditut. Gero esango diot nere animari: Ene anima, urte askotarako ondasunak bildurik dauzkatzu orain; atsedean ar zazu, yan zazu, edan zazu, atsegin ar zazu. Baña Yainkoak esan zion: Zorua, gaur bertan beñiz eskatuko (kendu) ditek bizia, eta bildu ditukan guzi oiek norentzat izango dituk? (1) Ori agitzen zaio beretzat ondasunak bildu bai, baña Yainkoaren baitan aberats ez danari.» (2)

Gero esan zien bere ikasleai: «Oregatik esaten dizuet: Ez egon kezketan zuen biziaz, zer yango dugu, edo zuen gorputzaz, zertaz yantziko gera. Yana-

(1) Zertarako ainbeste nekatu ondasunak biltzen, berdin eriotzak guzi aiek laster kendu ta beste bati eman bear dizkio ta?

(2) Ondasunak beretzat biltzen ditu, beretzat bakarik, bere onerako, ez Yainkoari ta ez urko-lagunaren onari begiratu gabe aberastasunak biltzen dituenak. Yainkoaren aurrean aberats da Yainkoagatik yende beñai laguntzeko bere ondasunetaz baliatzen dana.

riak baño geiago balio du biziak, eta yantziak baño geiago gorputzak. Begira beleak; oiek eztute ereiten ez igitatzen, eztute gordairurik ez sabairik; Yainkoak azten ditu. Egaztiak baño zenbat geiago balio duzue zuek? Zuetako zeñek eratxeki (erantsi) dezaioke bere biziari kana baten luzea kezketan egonez? Geroztik, gauza txikiena ere ezin badagikezue, zergatik zaudete kezketan gañerakoaz?

«Begira liliak nola aunditzen diran; eztute lan egiten, ez iruten; ta ala ere nik esaten dizuet, Salomon bera bere ospe guzian etzan oietako bat bezela yazten. Baña gaur lañean dagon ta biar labera egozten dan belaña Yainkoak oñela yazten badu, zenbatenaz geiago zuek, biotz-gutxiko oiek? Geroztik ez ibili galdezka, zer yango duzuen edo zer edango duzuen, ta ez lañitu. Atzeritañak (yentilak) ibiltzen dira gauza oiengatik kezketan. Baña zuen Aitak guzi oñen beaña duzuela badaki. Bila zazue beraz len-lenik Yainkoaren yaur-

goa ta artarako *bear dan* zuzentasuna ta beste gauza oiek gañera emango zaizkitzue.

«Ez beldur izan, artalde txiki ori; zuei yaurgoa ematea atsegin izan du Aitak. Dituzuen gauzak saldu ta limosna egizue (1). Zartzen eztiran ziskuak egizkitzue, galtzen eztan gordairua bilzazue zeruan, ara ezpaita lapuñik sartzen, ez pipiak yaten (2). Zuen gordairua dagon lekuan, zuen biotza ere antxe dago ta.

«Beude zuen geñiak loturik (3), eta

(1) Yainkoak eskañi dizuen yaurgo ori eñazago irabazteko, dituzuen gauza guziak saldu ta yende beañai eman. Ori egiten zuten lenbiziko kristauak.

(2) Nola egin zartzen eztiran ziskuak? Zuen dirua yende beañen eskuetan yañiz; beartsuai ematen zaiena ezta galtzen, Yainkoari ordainzka eman egiten zaio, ta Yainkoak atzera itzuliko dizu obari edo irabazi aundiekin.

(3) *Beude zuen geñiak loturik*, edo beste itzez, lanerako gertu egon. Yuduak soñeko luzeak ibiltzen zituzten; eta lan egin bear zutenean eragotzi ez zezaieten, geñian bildu ta lotu egiten zituzten.—*Argiontziak izekirik*, nausiari, etoñi dedinean, argi egiteko.—*Ezteietatik gauez etoñi*. Gauez egiten zuten Yuduak eztei-afaria. Yesusek erakusten digu oñekin, beti eta bai gauez ere erne egon bear dugula bera datoñenerako, ez baitakigu zer ordutan etoñiko dan.

argi-ontziak zuen eskuetan izekirik. Eta zerok zaudete *erne*, beren nausia ezteietatik noiz etoriko dan, etori ta atean yotzen duen bezin laster idikitze-ko begira dauden gizonak bezela. Zorionekoak dira, beren nausiak etortzean esna arkitzen dituen mirabeak. Egiaz, nik, esaten dizuet: lotuko du bere ge-ria, yafi-araziko ditu eta arat-onat da-bilela mirabe egingo die (yatera eman-go die.) Eta bigarren gau-aldian etori badadi eta irugarren gau-aldian etori ba-dadi, ta orrela arkitu baditza, zorione-koak dira mirabe aiek (1).

«Baña au gogoan artu: Baldin etxe-ko nausiak baleki, zer ordutan etoriko zaion lapuñá, esna legoke ta ezluke be-re etxea zulatzen utziko. Zaudete zuek ere *erne*, Giza-Semea uste eztuzuen orduan etoriko da ta.»

Pedro-k galdegin zion: «Yauna, ber-

(1) Ora zer egingo dien nausi arek bere mirabe zintzo aiei: maiean yafi-arazi ta berak bere eskuz yatera eman. Orixe egingo die Yainkoak zeruan, emen kristau onak izan diranei: bere maiean yafi-arazi, berak duen bizia bera eman egingo die.

dintza ori guretzat bakarik esan al duzu, ala guzientzat ere bai?»

Yaunak esan zion: «Nor uste duzu dala artadun (etxezain) zintzo ta zuuía, yaunak bere etxekoen gain yartzen duena, aiei bear dan garaian bizigaría eman dezaien? Zorionekoa mirabe ura, bere nausiak, etxeratzean, lan ortan arkitzen badu. Egiaz, nik esaten dizuet: Dituen gauza guziak aren gain utziko ditu. Baña mirabe arek esan badeza: Nere nausiak luzatuko du oraindik etortzea; eta moñoi-neskameak yotzen ta yaten ta edaten ta orditzen asi badadi, berak uste ezten egunean ta berak eztañien orduan etoñiko da mirabe aren nausia, ta zanpaka zatituko du ta siñestegaben artean yañiko aren egoitza (1).

«Bere nausiaren naia yakin bai, ta aren naia egitera gogoz yañi eztan mirabeak, zigoñaldi asko artuko ditu. Ba-

(1) Siñestegaben artera edo betiko sulezera bidaliko du Yainkoak mundu onetan makur ibili dan kristaua, aren esanak ongi egin ez dituen kristaua.

ña nausiaren naia yakin-gabe zigoñada merezi duen gauzaen bat egiten duen mirabeak zigoñaldi gutxi artuko ditu. Asko eman zaionari asko eskatuko zaio; asko utzi diotenari (gordetzeko), asko galdetuko diote.

«Luñean sua yartzera etoñi naiz, eta zer nai dut, eñe dezan besterik? Baña lenik bataioaz bataiatu beaña naiz, eta bai estu nagola bururatu dedin arte! (1)

«Luñera pakea ekartzera etoñi naizela uste al duzue? Pakea ez, berezpena baizik. Gaurgero etxe batean berezirik egongo dira bost lagun: iru bien aurka; ta bi iruen aurka. Bereziko dira aita semearen aurka ta semea aitaren aurka; ama alabaren aurka ta alaba amaren aurka; amagiañeba eñañaren aurka ta eñaña amagiañebaren aurka.» (2)

(1) Yesusek gogo biziaz artu nai duen bataio ori bere Nekaldia da, gure onez eraman zuen pasio edo nekaldi gogofa.

(2) Yesu-Kristok ez ditu berak egiten berezpen oiek, kristauen gaiztakeriaz gertatzen dira. Kristau guziak Yesu-Kristoren esanak egitera yartzen balira, bakoitzak bere eginbeaña egiten balu, pake gozoa

Gero esan zien gizaldeai: «Eguzki-sortaldean odei bat ikusten baduzue, bereala esaten duzue: Badator erauntzia, ta ala agitzen da. Egoaizeak yotzen duela sumatzen baduzue, esaten duzue: Berotuko du, ta ala agitzen da. Itxuratiak, zeru-luñen aurpegia ezagutzen badakizue, oraingo aldi au beñiz nola eztuzue ezagutzen? Nola eztuzue zerok zerenaz ezagutzen, zer dan zuzena?»

«Zure aurkariarekin agintariagana zoazenean, egiñala egizu bidean aren mendetik askatzeko. Bestela yañiko zaitu epailearen (juezaren) eskuetan, epaileak bere mirabearen eskuetan, ta mirabe arek giltzapera bidaliko zaitu. Nik esaten dizut: Etzera andik aterako, arik-eta azken maraikoa ordaindu arte.»

izango litzake kristau guzien artean. Baña askok ezpaitute Yesusen esanik egin nai, ortik sortzen dira berezpenak ta asañeak ta elkar-ezin-eramanak.

**111—Damutu ta ondu bear—Andre eri
bat sendatzen.**

(Lc. XIII, 1-21)

Garai artantxe etoñi ziran zenbait lagun, ta Yesusi yakinarazi zioten, Pilatok Galilear batzuen odola isuri zuela, aiek beren opariak eskaintzen ari ziran bitartean (1).

Yesusek erantzun zien: «Galilear aiek beste Galilear guziak baño pekatariago zirala uste al duzue, olako ezbeaña ikusi dutelako? Ez, esaten dizuet nik. Damutzen ta ontzen ezpazerate, guziok oñelaxe galduko zerate (2).

(1) Galileañak gogo txañez zeuden Eñomatañen mendean, beren buruen yabe izan nai zuten, ta oñegatik maiz sortzen zuten matxinada edo naspñen bat beren nausi añotz aien aurka. Olakoen bat egin zuten agi-denean Yerusalem-en, Yainkoari opariak eskaintzera yoan izan ziran aldien batez, ta orduan Pilatok bere gudamutñak (soldaduak) bidali ta ilarazi zituen nasle aiek.

(2) Kristau bati zoritxar asko gertatzen zaizkiola ikusten baduzu, ez esan: Kristau ori oso gaiztoa da iñondik ere. Ez orixe; askotan yenderik onenai etortzen zaizkie ezbeañik aundienak, yende gaiztoai gauza guziak ongi ateratzen zaizkien bitartean.

«Berdin arako emezortzi lagun, Si-loe-ko dofea gañera erori ta il zituen aiek Yerusalem-eko beste bizilariak baño zordunago (obendunago) zirala uste al duzue? (1) Ez, esaten dizuet nik: baño damutzen ta ontzen ezpazerate, guziok ofelaxe galduko zerate».

Gero onako berdintza au esan zien (2): «Gizon batek pikondo bat landatu zuen bere mastian. Yoan zan artara, aren arnariak (frutuak) bilatzera, baño etzuen bat ere arkitu. Orduan esan zion masti-zaiari: Ona emen, iru urtez etoñi naiz pikondo onetara arnari bila, baño eztut bat ere arkitu. Moztu zazu; zertako artzen du alpeñik luña? Baña arek erantzun zion: Yauna, utza-

—Besten zorigaitzak ikustean, gure pekatuak gogorra ekañi ditzagun, eta damutzen ezpagera, Yainkoak emango digun zigoñadaren belduña ar dezagun.

(1) Yerusalem-eko dofe aundi ura erori ta emezortzi lagun arapatu zituen azpian.

(2) Ondoko berdintza ortan erakusten digu Yesu-Kristok, zer egingo digun baldin geren pekatuetaz damutu ta ontzen ezpagera. Pikurik ekartzen eztuen pikondoa moztu ta sutara egozten dan bezela, guri ere bizia moztu ta betiko sutara bidaliko gaitu.

zu oraindik aurten. Inguruan zuloa egin ta ongaría emango diot. Ofela bearbada arnaria ekañiko du gaurgero; bestela moztuko duzu.» (1)

Aien sinagoga batean irakasten ari zan Jesus larunbatez. Eta ara, emezortzi urte aietan eritasunezko atsa zuen emakume bat bazan an; makurmakurtua zegon ta etzezaken iñolaz ere gora begiratu.

Yesusek ura ikusirik beregana deitu zuen ta esan zion: «Emakumea, zure gaitz ortatik askatua zaude.» Ta eskuak gañean yañi zizkion. Bereala lerdendu (zuzendu) zan ta Yainkoa goraipatzen zuen.

Sinagoga-burua, Yesusek larunbatez sendatu zuelako asafeturik, esan zion gizaldeari: «Badira sei egun lan egiteko; atozte egun oietan ta senda zaitzte, ez ordea larunbatean.»

(1) Yesu-Kristo gure Yauna bera da mastizai on ori, guretzat eruki eskatzen dio bere Aitari, ontzeko epea eman dezaigun eskatzen dio. Baña gu lenbailen ontzen ezpagera, Yainkoa gogaituko da azkenean ta orduan galduak gera.

Baña Yaunak erantzun zion: «Itxuratiak, ez al du zuetako edozeñek bere idia edo astoa ganbelatik askatzen ta eradatera eramaten larunbatean? Abraham-en alaba au beñiz, Satan-ek emezortzi urte auetan loturik zeukan au, lokañi ortatik larunbatean askatzea ez al zan egoki?»

Arek ori esatean, bere aurkari (etsai) guziak lotsaz goñitzen ziran. Eñi osoa beñiz pozten zan ark egiten zituen gauza añigañi guziotaz.

Gero esan zuen: «Zer iduri du Yainkoaren yaurgoak ta zerekin berdin-etsiko dugu? Iduri du, gizon batek artu ta bere baratzean erein zuen usta-alea (mostaza-azia); azi zan ta zuaitz aundia egin zan ta zeruko egaztiak aren adañetan kokatu ziran.»

Beñiz ere esan zuen: «Zerekin berdin-etsiko dut Yainkoaren yaurgoa? Iduri du orantza, emakume batek artu ta iru neñi iriñetan, guzia asti arte, sartu zuen orantza.»

112—Zenbat dira zerurakoak?

(Lc. XIII, 22-35)

Oñela irakasten ari zan iri ta eñietan, Yerusalem aldera bide egiñaz batera. Ta norbaitek galdegin zion: «Yauna, gutxi al dira zerura bear dutenak?»

Berak esan zien: «Ate meañetik sartzeko egiñala egizue. Nik esaten diuet: Asko saiatuko dira sartzera, baña ezin sartu izango dira. Etxeko yau-nak yaiki ta atea itxi dezanean, antxe egongo zerate kanpoan ta asiko zerate atea yotzen ta esaten: Yauna, idiki zai-guzu. Baña arek erantzungo dizue: Ez-takit nongoak zeraten.

«Orduan zuek esango duzue: Zure begien aũean yan ta edan dugu ta gu-re kañiketan irakatsi izan duzu. Berak ordea erantzungo dizue: Nik eztakit nongoak zeraten. Alde nigandik, gaiz-ki-egile guziok!

«An izango da negar-mañaska ta ortz-kañaska, Abraham ta Isaak ta Ya-

kob ta profeta guziak Yainkoaren yaurgoan ikusiko dituzuenean, zuek kanpoan gelditzen zeratela. Eguzki-sortaldetik eta sartaldetik, Ipar-aldetik eta Egoaldetik etoriko dira ta Yainkoaren yaurgoan maiera eseriko dira. Eta azkenekoak diran asko lenengoak izango dira, ta lenengoak diranak azkenekoak izango dira.»

Egun artan berean urbildu zitzaizkion Farisau batzuek ta esan zioten: «Zoaz ta aldegizu emendik, Herodek il nai zaitu ta.» (1)

Yesusek erantzun zien: «Zoazte ta esaiozue azeri ari: Ona emen, nik deabruak erauzten ditut eta sendaketak egiten ditut gaur ta biar, eta irugañen egunean amaiera iritxiko naiz. Ala ere gaur ta biar ta etzi ibili bear dut, ezin baiditeke profeta bat Yerusalem-etik

(1) *Herodek il nai zaitu.* Batzuek diotenez, Herodek etzuen olako asmorik; Farisau gaizto aiek Jesus andik yoatea nai zuten, ta ari belduña sartzegatik asmatu zuten Herodek bizia kendu nai ziolako kontu ori.

kanpo iltzea. (1)

Yerusalem, Yerusalem, zuk iltzen dituzu profetak eta arikitzen dituzu zuzana bidaliak! Zenbat aldiz bildu nai izan ditudan zure umeak, oloak bere txitoak egapean biltzen dituen bezela; baña zuek eztuzue nai izan! Begira, bertan-bera utzirik geldituko da zuen etxea. Nik esaten dizuet: Ez nauzue beriz ikusiko, arik-eta auxe oiu egin dezazuen arte:

Biz bedeinkatua Yainkoaren izenean datořena.»

113 - Ur-eria sendatzen—Irakatsiak.

(Lc. XIV, 1—35)

Aldi batez, Farisau aundizki baten etxera sartu zan Yesus larunbatez bazkaltzera, eta zaintzen (zelatan) zegoz-

(1) Zein beldur gutxi duen Yesusek gizonengatik! Bere Aitak egiteko eman dizkion lanak egingo ditu berak iñoren beldurik gabe; gero lan oiek burutu ondoren, amaituko du bere bizia, ilko da Yerusalem-en, ta ori ere bere Aitak berexi dion egun ta orduan, ez gizonak nai dutenean.

kion. Eta ara, bazan an ur-eri zegon gizon bat. Yesusek galdegin zien lege-irakasle ta Farisauai: «Larunbatean sendatzea zīlegi al da? bai ala ez?»

Aiek ixildu ziran. Yesusek beñiz eriarri eldu zion, sendatu zuen ta bidali zuen. Gero galdegin zien beñiz: «Zueta-ko bati astoa edo idia putzura erori badakio, ez al du bereala andik aterako, naiz larunbata izan?»

Eta ezin zezaioketen ezer ere erantzun (1).

Bazkaldañak lenbiziko yarlekuen bila zebiltzala oartu zan Jesus, eta onako berdintza au esan zien: «Iñork ezteietara deitzen bazaitu, ez gero eseri lenbiziko lekuan; baliteke su baño gizon aundiago bat artara deitua izatea. Eta gero zu ta ura deitu zaituztena etoñi ta esaten badizu: Leku egiozu oni, orduan lotsaturik yoango ziñake azken alkian esertzera.

(1) Ta izan ere, zer erantzungo zioten? Idi bat putzutik larunbatean ateratzea zīlegi (libre) bada, zenbatenez geiago gizon bat sendatzea?

«Deitzen zaituztenean, zoaz ta azken lekuan eseri zaite. Gero zure deitzalea etofi dedinean, esango dizu: Adiskidea, gorago igo zaite. Orduan ospe aundia izango duzu maikiden aurrean. Goratzen dana beeratuko da ta, eta beeratzen dana goratuko.»

Bera bazkaltzera deitu zuenari ere esan zion: «Bazkari naiz afari bat egiten duzunean, ez deitu gero artara zure adiskide edo anaiak, ez zure aide edo auzo aberatsak; bestela aiek zu gero atzera deituko zaituzte, ta ola ordainduko dizute. Bazkari bat egiten baduzu, deitu itzatzu artara eskale ta elbañiak, maingi ta itsuak. Zorionekua zu orduan! Oiek ezin ordaindu dezai-zukete, bañan zuzentsuen beñiz-piztean emango zaitzu ordaña». (1)

Ori entzunik, maikidetako batek esan zuen: «Zorionekoa, Yainkoaren yaurgoan ogia yango duena!»

Yesusek esan zion: «Gizonbatek afa-

(1) Yainkoak beste munduan emango dizu yende beartsu oiei egin diezun ongiaren ordaña.

ri aundi bat egin zuen ta lagun asko deitu zituen artara. Afal-ordua etofí zanean, bidali zuen bere mirabea afaldaíai esatera: Atozte, guzia gerturik dago. Eta guziak asi ziran aitzakiak ateratzen. Lenbizikoak esan zuen: Bazter-etxe bat erosi dut eta ura ikustera yoan bear dut. Aíen bada! ontzat ar zazu nere aitzaki au. Bigaíenak esan zion: Bost uztaíidi erosi ditut eta aiek probatzera yoan bear dut. Aíen! ontzat ar zazu nere aitzaki au. Irugaíenak esan zion: Ezkondu naiz ta ezin yoan naiteske.

«Mirabea etxera itzuli zan ta guzi ori yakin-arazi zion bere nagusiari. Orduan etxeko yauna sumindu zan ta esan zion bere mirabeari: Zoaz laster iriko kaíika ta plazetara, eta ekaíi onera eskaleak, elbaíiak, maingiak eta itsuak.

Mirabeak esan zion: Yauna, egin dut zure agindua ta oraindik bada tokia.

Eta yaunak esan zion mirabeari: Zoaz bide ta esietara, eta ertsa itzatzu

guziok sartzera, nere etxea bete dedin. Nik esaten dizuet: Deiturik zeuden gizon aietako batek ere eztu nere afaria murtzatuko».

Gizalde aundiak bazioazen arekin. Itzuli zan bada aienagana ta esan zien: «Iñor neregana badator, baña bere aita ta ama ta andrea ta umeak ta anai-afebak ta bere burua bera ere iguin ez baditu, ezin diteke nere ikasle (nere eskolakoa) izan. Eta gurutzea artu-ta nere ondotik ez datořena ezin diteke nere ikasle izan.

Zuetako batek doře bat goratu nai badu, ez al da leenik esertzen ta irion (gastatu) bearko duen diruaren kontua ongi ateratzen, bere lana bururatzeko aski duen edo ez? Bestela, yasoña yaři ondoren, etxea ezin goratu badezake, ori ikusten duten guziak iseka egingo liokete ta esango lukete: Gizon au etxea goratzen asi da, ezin izan du ordea bere lana bururatu.

Edo eřege batek beste eřege batekin gudu egin nai badu, ez al da lenik

yartzen ta gogoeta egiten, ea amar mila gizonekin bidera atera ote dakio- ken ogei mila gizonekin datorkion *etsaiari*? Bestela, ura oraiño uruti da- goelarik, mandatariak bidaltzen dizkio ta pakea eskatzen dio. Bereolaxe zue- tako inor ezin diteke nere ikasle izan, dituen gauza guziaz uko egiten ezpa- die. Gatza ona da; baña gatza gezatu (moteldu) badadi, zertaz gazituko da? Ezta ona ez luñerako, ez ongarirako, kanpora egozten (botatzen) da.

Entzuteko belaririk duenak, entzun beza».

**114—Ardi galdua, drakma galdua,
seme galdua.**

(Lc. XV, 1=32)

Zergariak ta pekatariak urbiltzen zi- tzaizkion, ari entzutera. Ortaz marmar- ka ari ziran Farisauak ta lege-irakasle- ak, esanez: «Onek pekatariak berega- na artzen ditu ta aiekin yaten du».

Orduan Yesusek ondoko berdintza au esan zien: «Zuetako batek eun ardi baditu ta bat galdu badakio, ez al ditu larogei ta emeretziak basamortuan uzten ta galdu zaionaren bila yoaten, arik eta ura arkitu arte? Eta arkitu duenean, bere soin gañean artzen du pozik. Eta etxera etoñirik, deitzen ditu bere adiskide ta auzoak ta esaten die: Poztu zaitezte nerekin, galdu zitzaidan ardia arkitu dut eta.

Nik esaten dizuet: Bereolaxe zeruan ere poz aundiagoa izaten da ongi damutu ta ontzen dan pekatari batengatik, damutu ta ondo beañik eztuten larogei ta emeretzi zuzentsuengatik baño.

Eta emakume batek amar drakma baditu ta bat galdu badakio, ez al du argia piztutzen, etxea ekortzen (esko-batzen) ta arduraz bilatzen, drakma arkitu arte? Eta ura arkitu duenean deitzen ditu bere adiskide ta auzokoak ta esaten die: Poztu zaitezke nerekin, galdu nuen drakma arkitu dut eta.

Bereolaxe, nik esaten dizuet, poz aundia izaten da Yainkoaren Aingeruen artean damutu ta ontzen dan pekatari batengatik».

Seme galdua. Gero esan zuen beñiz: «Gizon batek ba zituen bi seme. Aietako gaztenak esan zion aitari: Aita, emadazu neri dagokidan senipar-tea. Aien artean banatu zituen beraz ondasunak.

Zenbait egunen buruan, seme gaztenak guzia bildu zuen eta urutiko lur-alde batera yoan zan. An ondasun guziak ondatu zituen, lasaikerian bizi zala. Guzia ondatu zuenean, gosete gaitza gertatu zan luralde artan ta bear goñian arkitu zan.

Orduan yoan ta alderdi artako iritar baten moñoi yañi zan; onek bere zelai-era bidali zuen, urdeak zaintzera. Txerriak yaten zituzten lekaz bete nai zukean bere sabela; etzizkion ordea iñork ematen.

OrJuan bere baitara sarturik esan zuen: Zenbat moñoiek nere aitaren e-

txean ogia ugari badute, ni beñiz emen goseak iltzen nago. Yaikiko naiz, nere aitarengana yoango naiz ta esango diot: Aita, pekatu egin dut zeruaren aurka ta zure aurrean; ez tut geroztik merezi zure seme deitzea, zure mofoietako bat bezela ar nazazu. Yaiki zan beraz ta bere aitarengana yoan zan.

Ufundik ikusi zuen bere aitak eta erukiz bete zan. Laster egin zuen aren bidera, besarkatu zuen ta musu eman zion. Baña semeak esan zion: Aita, pekatu egin dut zeruaren aurka ta zure aurrean; ez tut gaurgero merezi zure seme deitzea. Aitak ordea esan zien bere mirabeai: Laster, ekartzue yantzirik onena ta yantzi zaiozue. Yañi eraztun bat aren eskuan ta oskiak (zapatak) aren oñetan. Gero ekañi zekor gizendua ta il zazue. Yan dezagun, bazkari aundi bat egin dezagun, nere seme au ilik zegon ta beñiz bizi baita, galdua zegoen ta beñiz arkitu baita. Eta bazkaria egiten asi ziran.

Bitartean aren seme zañena aloñean

(soroan) zan. Eta etxera zetofelarik etxera urbiltzean, soñua ta irada entzun zuen. Mirabetako bat deitu ta galdegin zion, zer gertatzen zan. Onek erantzun zion: Zure anaia etoñi da; zure aitak zekor gizendua ilarazi du, sendorik etxeratu zaiolako. Ura asafetu zan ta etzuen sartu nai. Beraz aita atera zan ta otoizka asi zitzaion. Berak ordea erantzun zion bere aitari: Oña, ainbeste urtez zure mirabe egon naiz; egundaño eztut zure agindurik autsi. Ta ala ere eztidazu egundaño antxume bat eman, nere adiskidekin yanaldi bat egiteko. Zure zeme oñek beñiz emagalduekin ondatu ditu ondasun guziak, ta orain etxera etortzean, zekor gizendua ilarazi duzu oñentzat.

Aitak erantzun zion: Ene seme, zu beti nerekin zaude, ta nere gauza guziak zureak dira. Baña orain bazkari bat egitea ta poz artzea egoki zan, zure anai au ilik zegoen ta beñiz bizi baita, galdua zegoen ta beñiz arkitu baita».

115—Artadun makura.

(Lc. XVI, 1-13)

Gero esan zien bere ikasleai: «Gizon aberats batek bazuen artadun bat (1); eta gizon aferi salatu zioten, bere ondasun guziak ondatu zizkiola afeak. Deitu zuen beraz beregana ta esan zion: «Zer aditu dut nik zutaz? Zure artadungoaren kontua eman zazu, gaurgero etzera zu nere artadun izangota.»

Artadunak esan zuen bere baitarako: «Nere nagusiak artadungoa kentzen dit; eta zer egingo dut? Aitzur-lanean ez naiteke ari, ta eskean ibiltzeaz lotsatzen naiz. Badakit zer egin, artadungoa kentzen zaidanean, yendeak beren etxetara ar nazaten».

Bildu zituen beraz bere nausiaren zordun (edo maxtar) guziak, bata bestearen ondotik. Lenbizikoari galdegin zion:

(1) *Artaduna*, kontu-eramalea, etxeko kontuak ta eramaten dituenak.



«Zenbat zor diozu nere nagusiari?»

«Eungurbil olio», erantzun zion aiek.

«Ar zazu zere ageria (papera), esan zion berak, ta jañi zaite laxter; idatzi zazu berogei ta amar».

Beste bateri galdegin zion: «Ta zuk zenbat zor duzu?»

Ark erantzun zion: «Eun eřegu gari.»

«Ar zazu zere ageria (papera), esan zion, ta idatzi zazu larogei». (1)

Nausiak goraipatu zuen artadun ma-kuña, ez-zintzoa, zuurki egin zuelako. Mundu onetako umeak zuuřago bai dira beren kidekin, argiaren umeak ba-ño (2).

Nik ere esaten dizuet: Ondasun utsalen bidez adiskideak egizkitzue, il-tzen zeratenean, betiko egoitzetara ar zaitzaten. Gauza txikian zintzoa dana, zintzoa da aundian ere; ta gauza txiki-

(1) Oña zer asmatu zuen gizon aiek: Nere nau-siaren maxtafai zoña barkatuko diet, ofela aien adis-kide egoigo naiz; eta nausiak bizi-bidea kentzen didanean, aiek emango didate bizitzeko bear dudana.

(2) Gizon aiek bere nausiari kalte egin bazion ere, nausia ařitu zan aren maltzurkeriaz ta goratu zuen aren zuurtzia.

an ez-zintzoa dana, ez-zintzoa da aundian ere. Ondasun utsaletan zintzoak izan ezpazerate, egiazko ondasuna nork utziko du zuen kontura? Eta besten gauzekin zintzoak ezpazerate, zuena nork emango dizue?

Iñor ezditeke bi nausiren mirabe izan; edo bata goñotatuko du ta bestea maitatuko, edo bati itsatsiko zaio ta bestea ezetsiko du. Ezin zaitezketen Yainkoarenta Mammon'en (ondasunen) mirabe izan».

116—Farisau zikoitzai.....

(Lc. XVI, 14-17)

Farisauak guzi ori entzuten zuten, ta diru-zaleak baitziran, Yesusi iseka (ifri) egiten zioten.

Berak ordean esan zien: «Zuek zuzentzuak (sanduak) zeratela erakusten duzue gizonen aurrean, baina Yainkoak ezagutzen ditu zuen biotzak; gizonei gorragari iduri zaiena, Yainkoarentzat naz-

kagañi da Legea ta Profetak Yoan'garaño irixten dira; añezkero Yainkoaren yaurgoazko beñi ona iragartzen da ta indar egiten duena sartzen da artara. Zerua ta luña ondatzea eñazago da, legekoko izpitxo bat erortzea (indaña galtzea baño).

Bere emaztea utzi ta beste bat artzen duenak ezkontza-austen du; ta senañak utzitakoa artzen duenak ezkontza austen du».

117—Aberats zikoitza.

(Lc. XVI, 19-31)

«Bazan gizon aberats bat; purpuraz ta mise guriz yazten zan ta yan-edanaldi bikañak egiten zituen egunero. Aren ate aúfean etzanik egoten zan Lazaro izeneko eskale bat; zauriz betea zegoen. Aberatsaren maietik erortzen ziran ogi-apuñez ase nai zuen; etzizkion ordea iñork ematen. Zakuñak yoaten zitzaizkion ta bere zauriak milika-

tzen zizkioten. Noizpait il zau eskalea ta Aingeruak Abraham-en magalera eramán zuten. Aberatsa ere il zan ta lurpean ortzi zuten. Sulezean oñazetan zegoelarik goratu zituen bere begiak ta ikusi zuen urutian Abraham eta Lazaro aren magalean. Orduan oiu egin zien: «Aita Abraham, urikal zaite nitaz ta bidal zazu Lazaro, bere beatz-mutuña uretan busti ta nere mingaña ozkiñitu (freskatu) dezan, sugar onetan oñaze gaitzak ikusten ditut eta».

Baña Abraham-ek erantzun zion: Seme, gogoan iduki zure bizian ongiak izan dituzula, Lazarok ordea gaizkiak; orain ordea bera atsegiñetan dago, zu beñiz oñazetan. Gañera gu ta zuen artean leze zabal bat bada; iñor ez diteke, naita ere, emendik zuengana yoan, eta iñor ez diteke ortik guregana etoñi».

Añek esan zion: «Aita, geroztik bidal zazu Lazaro nere aitaren etxera; bost anai baditut; gaztiga dezaiela, berak ere oñaze-tokí ontara etoñi ez ditezen».

Abraham-ek erantzun zion: «Badi-
tuzte Moise ta Profetak, aiei entzun
dezaietela».

«Ez, Aita Abraham, esan zion aiek;
baña iiletako bat yoaten bazaie, damutu
ta onduko dira».

Abraham-ek esan zion: «Moise ta
Profetai entzuten ezpadiete, norbait ile-
tatik piztu badadi ere eztute siñetsiko».

118—Gaiztabiderik ez eman—Barkatzeaz.

(Lc. XVII, 1-10)

Bere ikasleai esan zien: «Nai-ta-nai-
ez izan bear dute gaizpideak: baña aí!
oiek etofierazten dituenari! Obe luke
eiera-ári (efotafi) bat lepotik lotu ta
itsasora botatzen balute, txiki auetako
bati gaizpidea eman baño.

Begira zeren buruari! Zure anaiak
tsarkeria egiten badizu, eñista egiozu;
ta damutzen bazaio, barka zaiozu. Eta
egunean zazpi aldiz txarkeria egiten
badizu ta egunean zazpi aldiz etortzen

bazaizu, esanez: Damutu dut, barka zaiozu».

Apostoluak esan zioten Yaunari: «Siñestea aunditu zaiguzu».

Yaunak erantzun zien: «Baldin ustalea (mostaza-azia) adiñako siñestea baziñute, esango ziñiotেকে masustondo oni: Eñotik atera ta itsasora alda adi; ta egingo luke zuen esana.

«Zuetako batek badu moñoi itzai edo artzai bat. Ori aloñetik (sorotik) etxeratzan danean, esango ote dio *nausiak*: Atoz bereala, yar zaite maiera? Aitzitik, ez ote dio esango: Afaria apain zaidazu; geñia lotu ta mirabe-egin zaidazu, nik yan ta edan arte, gero yan ta e lango duzu zuk? Moñoi añeri eskeñik zor aldio, onek bere agindua egin due-lako? Eztut uste.

«Bereolaxe zuek ere, agindu zaizkitzuen guziak egin ondoan, esan bear duzue: Mirabe alpeñak gera, gure egin-beaña besterik eztugu egin».

119—Etxola-yaia — Yesusen itzaldia.

(Ioan VII, 2-27)

Urbilduz zioan yudutaŕen yai bat, Etxola-yaia. (1) Eta bere anaiak (aideak) esan zioten Yesusi: «Aldegizu emendik eta zoaz Yudeara, zuk egiten dituzun lanak zure ikasleak ere ikusi ditzaŕten. Iñork ez baitu gauzarik izkutuan egiten, bere burua erakutsi nai duenean. Gauza oiek egiten badituzu, agerzakizkio muduari». Bere anaiak (aideak) ere etzuten aregan siñesten ta.

Yesusek erantzun zien: «Nere garaia ezta oraiño etoŕi; zuen garaia beŕiz beti gertu dago. Zuek ezin goŕota zaitzakete munduak, ni ordea bai goŕotatzzen nau, aren egiteak txararak dirala aitortzen dudalako. Zuek zoazte bai yai

(1) *Etxola-Yaia*. Yudutaŕak zuten yairik audiene-takoa zan; zortzi egunez irauten zuen, ta egun oietan osto ta abañez egindako txaboletan bizi ziran Yudutaŕak. Ortik bere izena. Ofela gogoratzen zuten, beren auŕekoak basamortuan, etxerik gabe, txaboletan egin zituzten beŕogeŕi urteak.

ortara, ni ez noa *oraiño* yai ortara, nere garaia oraiño etoñi eztalako» (1)

Ori esan ondoan, bera Galilean gelditu zan. Baña bere anaiak (aídeak) igo ziranean, igo zan bera ere yaiera, ez ordea agerian, izkutuan baizik. Yudutañak bilatzen zuten yai-egunean ta galdegiten zuten: «Non da?» Eta marmari aundia zebilen artaz yende artean; batzuek esaten baitzuten: «Ona da». Beste batzuek beñiz: «Ez, ezta ona, yendea nasten du ta». Baña agerian etzan iñor artaz mintzutzen, Yudutañen belduñez. (2)

Yaiaren erdi aldean, igo zan Yesus yauretxera ta irakasten ari zan. Yudutañak, ariturik, galdetzen zuten: «Nola ote dakizki onek idazkiak (*eskriturak*),

(1) Yesus-en aideak beren aide ori Yerusalem-era yoan ta Erege bezela an sartu ta ikusi nai zuten. Baña Yesus-ek esaten die ezala oraiño ortarako garaia, geroago bai egingo du sañaldi ospetsu ori; orain ordea izkutuan yoan nai du Yerusalem-era.

(2) Yesus-en aldekoak ta adiskideak etziran ausartzen beren adiskide ortaz ongi itzegiten, beldur ziran, Yuduak goñoto aundia baitzioten Yesusi ta ura il naiez baitzabiltzan.

eskolarik eztu izan ta?»

Yesusek erantzun zien: «Nere irakaspenna ezta nereea, ni bidali nauenarena baizik. (1) Iñork Yainkoaren naia egin nai badu, oñetxek ezagutuko du nere irakaspenna Yainkoagandikakoa dan ala ni nere baitatik mintzo naizen. Bere baitatik itzegiten duenak bere ospea bilatzen du; bidali duenaren ospea bilatzen duena beñiz egiatia da ta arengan ezta gezufik. Moise-k ez al dizue legea eman? Ta ala ere zuetako batek ere eztu legea betetzen. Zergatik zabilzate ni il beañez?»

Gizaldeak erantzun zion: «Deabrua duzu; nor dabil zu il beañez?» (2)

Yesusek esan zien: «Egite bat bakarrik egin dut (*elbarñiaren sendatzea*) ta

(1) *Nere irakaspenna*, nik ikasi ta irakasten dudana, *ezta nereea*, ezta nik eskoletan nekez bildua; nik dakidan guzia ni bidali nauenak, nere Aita zerukoak emana dut.

(2) Jesus il naiez zebiltzen bai Yuduak; baña yende xeak etzekien oñen beñirik, ta orgatik ariturik gelditzen dira, Jesus il nai dutela aditzean. Eñiko agintari ta nausiak zituzten Yesusen aurkako asmo gaizto oiek; yende xeak maite zuen Jesus.

guziok ariturik zaudete. Moise-k eman zituen bilebaiketa (au egiaz ez dator Moise-ngandik, len-aitengandik baik), eta larunbatean berdin egiten duzue bilebaiketa. Gizon batek bilebaiketa artu badezake larunbatean ere, Moise-ren legea autsi eztedin, zergatik asafetzen zerate nerekin, larunbatez gizon osoa sendatu dudalako? Ez erabaki itxuren arauera, epai zuzena egizue». (1)

Orduan esan zuten Yerusalem'etar batzuek: «Ez al da au arako il naiez dabilzan ura? Ora bada, agerian mintzo da ta inork eztio ezer esaten. Gure agintariak ezagutu ote dute egiaz, au dala Mesia? Au ordea badakigu, nondikakoa dan; baña Mesia etori dedine-

(1) «Gizon elbari bat yai-egunez sendatu nuelako asafetu ziñaten ta yaia autsi nuela esan ziñuten; ta ori ezta egia. Yaio ta zortzigarren egunean bilebaiketa egiteko agindu zizuen zuei Moisek ta lege ori zintzo betetzen duzue, bilebaiketa ori yai-egunean berdin egiten duzue. Geroztik bilebaiketa ori yai-egunez egin baditeke, yaia autsi gabe, nik yaia autsi nuela diozue, gizon osoa sendatu nuelako?»

an, iñork eztu yakingo nondik etoñi dan». (1)

120—Jesus-en itzaldia. - Agintariak arapatu nai dute.

(Ioan, VII, 28-53)

Eta Yesusek, yauretxean irakasten ari zala, oiu egin zuen: «Ni ezagutzen nauzue, ta nondikakoa naizen ere badakizue. Ni ez naiz nere baitatik etoñi; beste batek bidali-ta etoñi naiz, ta ura egiatia da. Zuek eztuzue ura ezagutzen; Nik bai ezagutzen dut, arengandik etoñi naiz eta ark bidali bainau».

Ura arapatu ta lotzeko asmoa artu zuten; etzion ordea iñork eskurik gañean yañi, aren ordua etzan oraño etoñi-ta. Baña eñiko lagun askok siñetsi

(1) Ongi aski zakiten yuduak, beren Mesia Betlehem-en yaioko zala, Profetak argi ta garbi esanik zeukaten ori. Baña Yudu aiek uste zuten, Mesia ori yaio ta bereala toki izkutu batera yoango zala ta gero bat-batean, iñork uste etzuelarik, agertuko zala yendearen auñera.

zuten aren baitan; esaten zuten: «Mesia etoñi dediñean, onek baño mirari geiago egingo al ditu?» Farisauak ikasi zuten yendea ixkutuan artaz itz egiten ari zala. Ta Agintari ta Farisauak bidali zituzten mirabeak, ura lotzera.

Jesus-ek esan zuen: «Oraindik aldi bat egongo naiz zuekin, gero yoango naiz ni bidali nauenarengana. Nere bila ibiliko zerate, baño eznauzue arkituko eta ni nagon lekura ezin yoan zaitezke.»

Yudutañak esan zioten elkañi: «Nora yoango ote da bada au, ezpaitugu arkituko? Yentilen artean banaturik bizi diran yuduetara yoan ta, yentilei irakasteko asmoa ote du? Zer esan nai ote du esan digun itz oñek: Bilatuko nauzue, baño ez nauzue arkituko, ta ni nagon lekura ezin yoango zaitezke?» Yaiaren azken egunean, egunik aundinean, Jesus zutik yañi ta oiu egiten zuen: «Iñor egañi bada, betor neregana ta edan beza. Nigan siñesten duenari, Idazkiak (Liburu Santuak) dionez, ur

bizizko ibaiak yarioko zaizkio barnetik. Arengan siñeste zutenak artu bear zuten Atsaz mintzo zan itz oiekin, Atsa ezpaitzan oraiño eman, Yesus oraiño ospatu etzalako.

Gizaldeko lagun askok, izkuntza orientzunik, esan zuten: «Auxe da egiaz Profeta». Beste batzuek zioten: «Auxe da Mesia». Beste batzuek ordea zioten: «Baña Mesia Galilea-tik etoñiko al da? Ez al dio Idazkiak: David-en sorteri Betlehem eritxotik etoñiko dala Mesia?»—Eztabaida zebilen beraz gizaldean aren gañetik. Aietako batzuek nai zuten ura arapatu ta lotu; etzion ordea iñork eskurik gañean yañi.

Mirabeak atzera yoan ziran beraz Apaiz-nausi ta Farisauengana. Auek galdegin zieten: «Zergatik eztiguzue ekañi *gizon ura?*» Mirabeak erantzun zieten: «Egundaño eztu gizonek itz egin, gizon oñek bezela».

Farisauak esan zieten: «Zer, zuek ere atzipetu al zaituzte? Agintari edo Farisauetakoen batek siñetsi al du oñen-

gan? Ez; yende xeak, legea eztakiten yende oiek bakarik *siñetsi dute oñengan*; madarika ditezela!» Nikodemo, lenago gauez Yesusengana etoñi izan zan ura, aietako bat zan ta esan zuen orduan: «Gure legeak gaitzesten al du iñor, berari entzun gabe ta zer egin duen ikusi gabe?» Besteak erantzun zioten: «Zer, zu ere Galileaña zera ala? Ikertu (*miratu*) itzazu Idazkiak, eta ikusiko duzu Galilea-tik eztala Profetarik sortzen».—Gero itzuli ziran zein bere etxera.

121—Andre lizunkoia.—Beriz ere Yuduai itzegiten.—Yuduak Yesus'i arika egin nai.

(*Ioan. VIII, 1-29*)

Yesus Olibadi-mendirayoan zan. Biaramonen goizean goiz etoñi zan beriz yauretxera eta eñi guzia bildu zitzaion. Bera eseri zan ta irakasten zien.

Lege-irakasle ta Farisauak ekañi zio-

ten lizunkerian arapatutako emakume bat. Erdian yaíi zuten ta esan zioten Yesusi:

—«Maisua, emakume ezkondu au beste gizon batekin pekatu egiten arkitu dute oraintxe. Olako emakumeak arika iltzeko agindu zigun Moisek legean. ¿Zuk zer diozu ortaz?»

Ura zirikatuz esaten zuten ori, ura salatzeko (1). Jesus ordea beera makurtu ta beatzaz luñean idazten (*eskribitzen*) asi zan. Aiek auñera ere galdegiten baitzioten, Jesus lerdendu zan ta esan zien: «Zuen artean pekaturik gabekoa danak aurtiki (*bota*) dezala lenbiziko aña oñen aurka». Gero beñiz ere makurtu ta luñean idazten zuen.

Aiek ordea, ori entzunik, lekutu ziran bata bestearen ondotik, zañenak

(1) Yudu gaizto aiek esaten zuten: «Baldin Yesusek emakume oni barkatzen badio, efi guzia asafetu ta aurka yañiko zaio, legea austen duelako; oñi arika egiteko agintzen badu beñiz, biotz gogofekoa dala agertuko da ta bere adiskide guziak yoango zaizkio. Galdua da beraz edozein aldetara erantzuten dezan.»

aurera. Yesus gelditu zan bakarik, eta emakumea an erdian zutik. Orduan lerdendu zan Yesus ta esan zion: «Emakumea, non dira zure salatzeak? Ez al zaitu inork ere gaitzetsi?»

—«Inork ez, Yauna», erantzun zion aiek.

Ta Yesusek esan zion: «Nik ere etzaitut bada gaitzetsiko. Zoaz eta ez gero beñiz pekaturik egin».

Beñiz ere itzegin zien Yesus-ek, esanaz: «Ni naiz munduaren argia; nere ondotik datořena eztabil ilunbetan; bizizko argia badu».

Farisauak esan zioten: «Zuk zere buruaz aitor-egiten duzu; zure aitořera ořek eztu indarik» (1)

Yesus'ek erantzun zien: «Nik nere buruaz aitor-egiten badut ere, nere aitořera onek badu indařa, nondik etoři naizen ta nora noan badakit eta. Zuek

(1) Itz oien bidez esan nai zioten Yuduak: «Zuk diozu, au ta ori zerala; baña ezta aski zuk esatea: nork bere buruaz gauza aundiak esatea eřaz da; baña ori egia dala erakutsi bear».

eztakizue nondik natoren ta nora noan. Zuek aragiaren arauera epaitzen duzue, nik ez tut inor epaitzen; eta nik epai bat ematen badut, nere epai ori egiazkoa (zuzena) da, ezpainago ni bakarrik, ni bidali nauen Aita nerekin dago ta. Zuen legean idatzirik dago bi lagun en aitorera egiazkoa (indarduna) dala (1).

Nik nere buruaz aitor-egiten dut eta ni bidali nauen Aitak ere nitaz aitor-egiten du». Aiek galdegin zioten: «¿Non da zure Aita?»

Yesues'ek erantzun zien: «Ez gaituzue ezagutzen ez ni ta ez nere Aita. Ni ezagutzen baninduzue, nere Aita ere ezagutuko ziñuteke.»

Diru-gordairu (2) ondoan esan zituen

(1) Epaiketa, *juizio* batean bi yakilek, *testiguk*, gauza bat aitortzen badute, aien aitorera egiazkoa da, indara badu; egiaztat artzen da. Emen ere bi lagunek aitortzen dute Yesukristo nor dan: Yesu-Kristo berak eta bere Aitak. Geroztik oien aitorera, oiek diotena egia da.

(2) Yauretxera ematen zan dirua biltzeko kutxa edo gordairu batzuek baziran Yauretxe (Yaunaren etxe) ondoan; antxe ari zan Yesus irakasten ta an esan zituen aurreko itz oiek.

Yesus'ek itz oiek, yauretxean irakasten ari zala. Eta etzuen iñork atxitu, aren ordua oraño etori etzalako.

Beriz ere esan zien Yesus'ek: «Ni banoa; bilatuko nauzue, baña ez nauzue arkituko. Ni noan tokira ezin etofiko zaitezketek zuek».

Yuduak esan zuten: «Onnek bere burua il nai ote du? Ni noan tokira zuek ezin etofi zaitezketek, esan du ta.»

Yesus'ek esan zien: «Zuek bekoak zerate, ni goikoa naiz; zuek mundu ontakoak zerate, Ni ez naiz mundu ontakoa. Zuen pekatuetan ilko zeratela esan dizuet; bai, ni nor naizen siñesten ezpaduzue, zuen pekatuetan ilko zerate».

«¿Nor zera zu bada?» galdegin zioten.

Yesusek erantzun zien: «Nik esan dizuedana, orixe naiz ni. Gauza asko esan ta erabaki bear nuke oraindik zue-taz. Baña ni bidali nauen Aita egiatia da, eta ari entzun diodana, orixe irakasten diot nik munduari».

Aiek etzutenez agutu bere Aita Yani-koaz ari zala.

Yesusek esan zien aútera ere: «Gizasemea goratu dezazuenean, orduantxe ezagutuko duzue ni nor naizen eta nere baitatik ezer egiten ez tudala, nere Aitak irakatsi didana besterik esaten ez tudala. Eta Ni bidali nauena nerekin dago eta ez nau bakañik utzi, aiek atsegin duena egiten baitut nik beti.»

Gauza oiek esandakoan, lagun askok siñetsi zuten arengan. Yesusek esan zien bada arengan siñetsi izan zuten Yuduei: «Nere esanean irauten bazu zue, nere ikasleak izango zerate egiaz. Eta egia ezagutuko duzue ta egiak lokabe (*libre*) egingo zaituzte.»

«Abraham-en umeak gera, erantzun zioten, eta ez gera egundano iñoren mendeko (*moñoi*) izan; zuk zergatik diozu: Lokabe izango zerate?»

Yesusek erantzun zien: «Egiaz, egiaz, nik diotsuet; Pekatu egiten duen edozein, pekatuaren mendekoa (*moñoia*) da. Baña moñoia ezta beti etxean

egoten; semea ordea bai beti etxean egoten da. Geroztik semeak lokabe egiten bazaituzte, egiaz lokabe izango zerate.

«Abraham-en umeak zeratela bada-
kit. Baña ni il naiez zabilzate, nere
itza ezin artu dezakezuelako. Nik nere
Aitarengan ikusi dudana esaten dut;
zuek beñiz zuen aitarengan ikusi duzu-
ena egiten duzue».

«Abraham da gure aita», esan zio-
ten aiek.

Yesusek erantzun zien: «Abraham
baldin bada zuen aita, Abrahamen egi-
ñak egizkitzue. Orain ordea ni il bea-
ñez zabilzate; nik Yainkoari entzun dio-
dan egia irakatsi besterik eztizuet egin
bada; Abraham-ek etzuen olakorik
egin. Zuek zuen aitaren egiñak egiten
dituzue».

«Gu ez gera lizunkeriazko umeak,
esan zioten; guk Yainkoaz beste aitarik
eztugu.»

Yesusekerantzun zien: «Yainkoa zuen
Aita balitz, ni maite izango ninduzue,

ni Yainkoagandik atera ta etoñi naiz ta. Ni ez naiz nere baitatik etoñi, Berak bidali nau. Zergatik eztuzue nere izkuntza erdesten (aditzen)? Nere esana entzun ezin dezakezuelako.

«Deabrua da zuen aita eta zuen aita oñen naikeriak egin nai dituzue. Ori gizon-iltzalea izan zan asieratik (1) eta etzuen egian iraun, arengan egiarik bat ere ez talako. Gezuña esaten duenean, berak duenetik mintzo da, gezurtia ta gezuñaren aita da ta. Nik beñiz egia esaten dizuet eta eztidazue siñisten.

«Zuetako zeñek yaurki (aurpegira eman) dezaiket pekaturik? Egia esaten badizuet, zergatik eztidazue siñesten? Yainkoaren aldekoa danak, Yainkoaren itzak aditzen ditu; oñexegatik eztuzue zuek aditzen, Yainkoarenak etzeratelako.»

Yuduak erantzun zioten: «Samaritana ta deabruak artua zerala esateko izpiderik (arazoirik) ez al dugu?»

(1) Deabrua gizon-iltzalea da, gure lenbiziko guraso Adan ta Eva il zituen; aien gorputza etzuen il, bai ordea anima, pekatu egiñarazten ziela.



Yesusek erantzun zien: «Ni ez nago deabruak artua, nik nere Aita goretsi egiten dut, zuek beñiz ni gutxietsi egiten nauzue. Nik ez tut nere ospea bilatzen; bada beste bat ori bilatzen duena ta epai-egiten duena. Egiaz, egiaz, nik diotsuet: Inork nere itza gordetzen badu, ez tu sekula eriotzarik ikusiko.»

Yuduak esan zioten: «Oraintxe ezagutu dugu deabrua duzula; Abraham ilzan, Profetak ere il ziran, ta zuk diozu: Inork nere itza gordetzen badu, ez tu sekula eriotzarik mustatuko. Gure aita Abraham ilzan ta Profetak ere il ziran; aiek baño aundiago al zera zu? Nor zerala diozu bada?»

Yesusek erantzun zien: «Nik nere burua ospatzen badut, nere ospea ezer ezta. Nere aitak, zuen Yainkoa dala diozuen orék ospatzen nau ni. Zuek ez tuzue ori ezagutzen, nik bai ordea ezagutzen dut. Eta ura ezagutzen ez tudala esan baneza, gezurtia nintzake, zuen antzera. Baña bai, nik ezagutzen dut eta aren itza gordetzen

dut. Zuen aita Abraham pozez yauzi zan nere eguna ikusi naiez: ikusi zuen ta poztu zan». (1)

Orduan Yuduak esan zioten: «Beñogei ta amar urte ezdituzu oraño, ta Abraham ikusi al duzu?»

Yesusek erantzun zien: «Egiaz, egiaz, nik diotsuet: Abraham izan baño lenago, banaiz ni.» (2)

Orduan aiek ariak artu zituzten, ari aurtikitzeke (botatzeko); Jesus ordea ezkutatu ta yauretxetik atera zan.

122—Yaiotzazko itsua sendatzen du Kristok

(Ioan. IX)

Andik igarotzean, Yesusek ikusi zuen yaiotzaz itsu zan gizon bat. Bere

(1) Abrahamek *aldeauretik* ikusi zuen Yesukristo luñean agertu bear zan eguna (denbora) eta ori ikustean pozez zoratu zan.

(2) Yesukristo, gizon danez, Abraham baño urte askoz geroago yaioa bazan ere, Yainko danez, beti-betikoa da ta argatik Abraham baño lenagokoa. Itz oiekin argi aski esan zien beraz Yesukristok Yuduai, bera Yainko zala.

ikasleak galdegin zioten: «Maisua, ze-
ñek egin du pekatu: onek ala bere gu-
rasoak, au itsu yaiotzeko?»

Yesusek erantzun zien: «Ez onek ta
ez bere gurasoak ez tute pekaturik egin;
Yainkoaren egiteak oréngan agertu di-
tezen da ori. Eguna dan arte, bidali
nauenaren lanak egin bear ditut; bada-
tor gaua ta artan eztezake iñork lanik
egin. Munduan nagoen arte, mundua-
ren argi naiz.»

Ori esandakoan, listu egin zuen lu-
íera, listuaz loia egin zuen ta gero loi
artaz igortzi zituen itsuaren begiak.
Gero esan zion: «Zoaz, garbi zaite Si-
loe-ko putzuan» (*Bidalia* esan nai du
Siloe itz orék). Yoan zan beraz, garbi-
tu zan eta etoíi zan ikusten zuela.

Orduan bere auzokoak eta lenago
eskean zebilela ikusten zutenak esaten
zuten: «Ez al da au arako lenago ese-
ri tan eskean egoten zan ura?» Batzuek
esaten zuten: «Bai, bera da». Beste
batzuek beríz: «Ez, aren antzeko bat
da.» Berak ordea esaten zuen: «Bai,

ni naiz.»

Galdegin zioten bada: «Nola idiki zaizkik begiak?»

Berak erantzun zien: «Jesus deritzan gizon aŕek loia egin du ta artaz igortzi dizkit begiak; gero esan dit: Zoaz Siloe-ko putzura ta garbi zaite. Yoan naiz, garbitu naiz ta ikusten dut».

«Non da ura?» galdegin zioten.

«Eztakit» erantzun zien berak.

Farisauengana eramán zuten itsu izandakoa. Yesusek loia egin ta aren begiak idiki zituen eguna larunbata (yaieguna) zan. Beriz ere galdegin zioten bada Farisauak, nola ikusi zuen. Aŕek esan zien: «Loiez igortzi zizkidan begiak ta garbitu nintzan ta orain ikusten dut».

Farisauen arteko batzuek esan zuten: «Gizon au ezta Yainkoagandikakoa, yaieguna ezta gordetzen ta». Beste batzuek beriz zioten: «Pekatarí batek nola egin litzake olako mirariak?» Eztabaida zan beraz aien artean. Oregatik galdegin zioten beriz ere itsuari:

«Zuk zer diozu begiak idiki dizkitzun ortaz?»

«Profeta dala», erantzun zien aiek.

Yuduak etzuten siñetsi ura itsu izan zala ta ikustea iritxi zuela, arik-eta sendatuaren gurasoak deitu arte. Aiei galdegin zieten: «Au al da zuen semea, zuek diozuenez itsu yaio zana? Orain nola ikusten du bada?»

Aren gurasoak erantzun zieten: «Aure semea dala eta itsu yaio zala badakigu. Orain nola ikusten duen ezta-kigu, edo begiak nork idiki dizkion guk ezta-kigu; berari galdegiozue, adiña badu, berak eman dezala bere buruaren beñi». Aren gurasoak ori esan zuten, Yuduen beldur ziralako, orduko itz-arturik baitzeuden Yuduak, iñork ura Mesiatzat aitortzen bazuen, sinagogatik egozteko. Oregatik esan zuten aren gurasoak: «Adiña badu, berari galdegizue».

Deitu zuten bada beñiz itsu-izandako gizona ta esan zioten: «Yainkoari emaiok ospea! Gizon ori pekataria dala ba-

zekiagu». Arek ordea esan zien: «Pe-
kataria ote dan, nik eztakit; auxe ba-
kañik dakit nik: lenago itsu nintzan ta
orain ikusten dut».

«Zer egin dik, galdetu zioten; begi-
ak nola idiki dizkik?»

Arek erantzun zien: «Esan dizuet
lenago ta entzun duzue; zertako en-
tzun nai duzue beñiz? Zuek ere aren
ikasle izan nai al duzue?»

Orduan birao-egin zioten ta esan
zioten: «I izan adi aren ikasle, gu Moise-
ren ikasle gaituk. Moise-ri Yainkoak
itzegin diola bazekiagu; au beñiz nondik
etofia dan etzekiagu».

Gizonak erantzun zien: «Auxe bai
dala añaña! Zuek eztakizue ori non-
dikakoa dan; neri begiak idiki dizkit
bada. Badakigu ordea pekatariari eztiela
Yainkoak entzuten; aren beldur diranai
ta aren naia egiten dutenai bai entzuten
diela. Egundaño ezta entzun, iñork itsu
yaiotako baten begiak idiki dituenik.
Au Yainkoagandikakoa ezpalitz, ezin
lezake ezer egin».

Erantzun zioten: «Aizen guziori pekatutan sortua aiz, eta ik guri irakatsi nai diguk». Eta kanpora egotzi zuten.

Ura kanpora egotzi zutela ikasi zuen Yesusek, ta arkitu zuenean galdegin zion: «Yainkoaren Semeagan siñesten al duzu?» Arek erantzun zion: «Yauna, nor da ori, Arengan siñetsi dezadan?» Yesusek esan zion: «Zuk ikusi duzu ura, ta zurekin izketan ari dana, orixe da». — «Yauna, siñesten dut», esan zuten arek. Eta belaunikaturik gur-egin zion.

Yesusek esan zuen: «Epai-egitera etoñi naiz ni mundura, ikusten eztutenak ikusi dezaten, ta ikusten dutenak itsutu ditezen».

Arekin zeuden Farisau batzuek entzun zuten ori ta galdegin zioten: «Gu ereitsuak al gera?»

Yesusek esan zien: «Itsu baziñate, etziñukete pekaturik. Orain ordea esaten duzue: Guk ikusten dugu; oregatik zuen pekatuak badirau».

123 — Artzai Ona.

(Ioan. X, 1-21)

«Egiaz, egiaz, nik esaten dizuet: Artzaira atetik ez, baña beste nonbaite-
tik sartzen dana, lapuía ta arapatzalea
da. Atetik sartzen dana beriz, ura ar-
tzaia da. Oni idikitzen dio atezaiak ta
ardiak entzuten dute aren deia eta be-
re ardiak zein bere izenez deitzen ditu
ta ateratzen ditu. Bere ardiak atera di-
tuenean, aien aurrean yoaten da, eta ar-
diak yaraikitzen zaizkio, aren deia eza-
gutzen dutelako. Arotz bati etzaizkio
yaraikitzen, aregandik iges egiten du-
te, arotzen deia ezagutzen ez tulako».

Berdintza ori esan zien Yesusek; ai-
ek ordea etzuten aditu, zer esan nai
zien. Beriz ere esan zien beraz Yesu-
sek: «Egiaz, egiaz, nik esaten dizuet:
Ni naiz ardien atea. *Nere aurretik* eto-
ri diran guziak lapuía ta arapatzaleak
dira ta ardiak etzieten entzun. Ni naiz
atea. Nigandik sartzen dana gaizkatu-

ko da; sartu ta atera egingo da ta bazka arkituko du. Lapuía ostutzera ta iltzera ta ondatzera besterik ez dator. Ni beñiz *ardiak* bizia izan dezaten ta bizia ugari izan dezaten etoñi naiz.

«Ni naiz Artzai ona. Artzai onak bere bizia ematen du bere ardiengatik. Artzai moñoiak beñiz, artzai-nausia eztanak, ardien yabe eztanak, otsoa datotofela ikusten duenean, ardiak utzi ta iges-egiten du. Eta otsoak arapatzen ta banatzen ditu ardiak. Artzai-moñoiak iges-egiten du, moñoi dalako ta ardien axolik eztuelako. Ni naiz Artzai ona, nik ezagutzen ditut nere *ardiak* ta nereak ezagutzen naute, Aitak ni ezagutzen nauen bezela eta nik Aita ezagutzen dudan bezela. Nik nere bizia ematen dut nere ardiengatik.

«Artalde ontakoak eztiran beste ardi batzuek baditut; aiek ere ekañi bear ditut; aiek nere deia entzungo dute eta artalde bat ta artzai bat bakaña izango da.

«Oñexegatik maite nau Aitak, nere ar-



diengatik nere bizia galtzen dudalako, gero beñiz artzekotan. Inork eztit neri *bizia* kentzen, nik nere gogoz ematen dut ori. Bizia galtzeko eskubidea badut eta ori beñiz artzeko eskubidea badut; mandatu orixe eman dit Aitak».

25 Izketa oiek zirala-ta, beñiz ere eztabaida sortu zan Yuduen artean. Aieta-ko askok esaten zuten: «Deabruak artua ta eroturik dago. Zertako entzuten diozue?» Beste batzuek zioten: «Oiek eztira deabrudun baten itzak. Deabruak itsuen begiak idiki ote ditzake?»

124—Amar legenardun sendatzen.

(Lc. XVII, 11-37)

26 Bazioan Yesus Yerusalem aldera, Samaria'n ta Galilea'n barna igaroaz. Eta efitxo batera sartzean, bidera atera zitzaizkion amar gizon legenardun (lepradun); uruti gelditu ziran ta oiu egin zioten: «Yesus, Maisua, urikal zaite gutaz».

Ikusi zituen bezela, esan zien: «Zozte, ager zaitezte apaizengana». Eta arako bidean zioazela, garbitu (sendatu) ziran.

Aietako bat, garbiturik zegoela ikustean, itzuli zan, oiuka Yainkoa gorai-patzen zuela. Yesusen oñetara aozpez erori, ta eskeñak eman zizkion; *gizon* ura Samariaña zan.

Yesusek esan zuen: «Ez al dira amar garbitu (sendatu)? Beste bederatziak non dira? Afotz au besterik ez alda atzera etoñi ta Yainkoari ospea eman?» Gero esan zion ari: «Yaiki zaite ta zozaz; zure siñesteak sendatu zaitu».

«Noiz etoñiko da Yainkoaren yaurgoa?», galdegin zioten Farisauak; ta berak erantzun zien: «Yainkoaren yaurgoa ezta agerian etoñiko. Ez diteke esan: Ona emen, edo ara an dago; begira Yainkoaren yaurgoa zuen artean dago.»

Gero esan zien bere ikasleai: «Egunen batez naiko duzue Giza-Semearen egun bat ikusi ta eztuzue ikusiko. Esan-

go dizute: Ona emen dago, ara an! Ez yoan zuek ara, ta ez laster egin aienondotik. Tximistak, zeru-alde batetik atera ta beste alderaño diz-diz egiten duen bezela, olaxe izango da Giza-Semea bere egunean. Baña lenik neke asko ikusi bear ditu ta gizaldi onek gaitzetsi bear du.

«Noe-ren egunetan gertatu zana gertatuko da Giza-Semearen egunetan ere: yaten zuten ta edaten zuten, gizonak ezkontzen ziran ta ezkontzera eskeintzen ziran, arik-eta Noe kutxara sartu zan eguna arte; orduan etoñi zan ugoldea ta guziak ondatu zituen.

«Bereolaxe gertatu zan Lot'en egunetan; yaten ta edaten zuten, saltzen ta erosten zuten, landatzen ta etxe-egiten zuten. Baña Lot Sodoma'tik atera zan egunean, su ta sufre-erauntsia erori zan zerutik ta guziak galdu zituen. Orixe gertatuko da Giza-Semea agertuko dan egunean ere.

«Egun artan egaztegi (telatu) gañean dagoena ta bere zerak etxe bar-



nean dauzkana, eztedila yetxi aien yasotzera. Zelaian dagona eztedila atzera etori. Gogora zazue Lot'en emaztea!

«Bere bizia gordetzera saiatzen danak galduko du, ta galtzen duenak gordeko du.

«Nik esaten dizuet: Gau artan bi lagun egongo dira etzauntza (oe) batean; bat artuko da, ta bestea utziko da; bi emakume ariko dira eiera (*erota*) batean eiotzen; bat artuko da ta bestea utziko da.»

Aiek galdegin zioten: Ori non, Yau-na?»

Erantzun zien: «Saaskia (gorputz ila) dagon lekura biltzen dira aranoak».

125—Epailaria ta andre alarguna—Farisaua ta Zergaria

(Lc. XVIII, 1-14)

Berdintza bat esan zien, beti ta etengabe otoitz egin bear dala erakusteko. Esan zien bada: «Ez Yainkoari beldurik ez gizoni lotsarik etzion epailari bat bazan iri batean. Andre alargun bat ere

bizi zan iri artan ta yoaten zitzaion esatera: Zuzenbidea emaidazu nere aurkariari buruz».

«Aldi luzean etzuen nai izan. Baña geroago esan zion bere buruari: Ez Yainkoari belduñik, ez gizoni lotsarik ezpadiot ere, zuzenbidea emango diot andre alargun oni, ain nekagafia zaidalako; bestela azkenean etoñiko zait eta aurpegian yoko nau.»

Gero esan zuen Yaunak: «Entzun zer dion epailari makur ofek. Eta Yainkoak ez al die bere autetsiai zuzenbidea emango, berari gau ta egun oiukari zaizkionean? berantetsi-araziko al ditu? Nik esaten dizuet: Bereala emango die zuzenbidea. Baña Giza-Semeak etortzean siñesterik arkituko ote du luñean?»

Beren buruak zuzentsutzat iduki ta besteak ezetsi egiten zituzten batzuei esan zien ondoko berdintza au:

«Bi gizon igo ziran yauretxera (Yauaren etxera), otoitz egitera, bata Farisaua ta bestea zergaria. Farisaua zu-

tik yañi ta otoitz egiten zuen bere baitan onela: Oi Yainkoa, eskeñak dizkitzut, ez naizelako beste gañerako gizonak bezelakoa, lapuñak, makuñak, ezkontza-ausleak bezelakoa, ezta ere orako zergari ori bezelakoa. Astean bi aldiz baru egiten dut eta ditudan guzien amañenak ematen ditut.

«Zergaria beñiz uruti gelditu zan txutik eta begiak zerura goratzen ere ezta ausartzen; bere bulaña yotzen zuen ta esaten: Urikal zakizkit, oi Yainkoa, pekatari oni.

«Nik esaten dizuet: Au zuzentsuegiñik yoan zan bere etxera, beste ura ez ordea; goratzen dana beeratuko baita, eta beeratzen dana, goratuko.

126 – Yesus bere Yainkotasunaz mintzo da.

(Ioan. X, 22–42)

Yauretxe-sagaratze yaia egiten zan Yerusalem-en ta negua za (1). Yesus

(1) *Yauretxe-sagaratze-yaia*, Yuduak urtero egiten zuten yai bat zan. Yuda Makabeañak bere eñia-

bazebilen yauretxean, Salomon-en gorapean. Yuduak inguratu zuten ta galdegin zioten: «Noiz arte idukiko gaituzu ezbaian? Baldin zu bazera Mesia, esaiguzu argi ta garbi.»

Jesus-ek erantzun zien: «Esan dizuet, baña eztidazue siñesten. Nik nere Aitaren izenean egiten ditudan lanak, oietxek aitor-egiten dute nitaz. Zuek ordea eztuzue siñesten, nere ardietakokak etzeratelako. Nere ardiak aditzen dute nere deia; eta nik ezagutzen ditut eta aiek yañaikitzen zaizkit. Betiko bizia ematen diet nik; eztira sekula galduko ta iñork eztitu nere eskuetatik añapatuko. Oiek Neri eman dizkidan Aita, guziak baño aundiago da, ta iñork ezin ditzake nere Aitaren eskuetatik añapatu. Ni ta Aita bat gera.» (1)

Yuduak añiak artu zituzten ari añika egiteko.

aren etsaiak Yerusalem-etik bota ondoren, aiek zikindutako yauretxea (Yaunaren etxea) garbitu ta beñiz sagaratu, bedeinkatu zuen. Eta gertaera oñen oroitzapenetan egiten zuten Yuduak urteroko yai ori.

(1) Yesukristo Yainko da ta oñegatik *izatez* bere Aitarekin bat da, *personetan* berex badira ere.

Yesusek esan zien: «Egite on asko egin ditut zuen aúfean nere Aitaren indáñez; egite oietako zeñengatik nai nauzue aúrikatu?»

Yuduak erantzun zioten: Egite onengatik etzaitugu aúrikatzen, biraoa esan duzulako baizik, gizona zeralarik zere burua Yainko egiten duzu-ta».

Yesusek esan zien: «Ez al dago zuen legean idatzirik: Nik esan dut: Yainkoak zerate? Beraz yainkoaren itza adiarazi zitzaien aiek Yainko deitzen baditu (ta Idazkia ezin diteke ezezta-tu), Yainkoak sandutu ta mundura bialli duenaz nola esan dezakezue: Birao egin duzu, Yainkoaren semea naiz, esan dudalako? Nere Aitaren lanak egiten ezpaditut, ez neri siñetsi. Nik oiek egiten baditut beriz ta zuek neri siñetsi nai ezpadidazue, nere egiñai siñetsi zaiezue, Aita nigan dagola eta ni Aitagan nagola ezagutu ta siñetsi dezazuen».

Beriz ere atxitu nai izan zuten, baña aien esku artetik iges egin zuen. Yoan zan beñero Yordanez beste aldera, Yoan

lenbizian bataiatzen egon zan lekura, eta an gelditu zan. Lagun asko etoñi zitzaizkion ta esaten zuten: «Yoan-ek eztu mirari bat ere egin; baña Yoan-ek ontaz esan zuen guzia egia atera da». Eta askok siñetsi zuten arengan.

127—Ezkontza uratu ote diteke?

(Mt. XIX, 3-12; Mc. X, 1-12, Lc. XVI, 18).

Orduan urbildu zitzaizkion Farisau batzuek, eta zirikatzeke asmotan galdegin zioten: «Senafari zilegi al zaio edozein kariaz bere emaztea uztea?»

«Zer agindu dizue Moisek?» galdetu zien Yesusek.

Eta aiek erantzun zioten: «Uzten dalako paper bat idatzi-ta bidaltzeko baimena eman du Moise-k.»

Jesus-ek erantzun zien: «Ez al duzue irakuñi lenbizian gizona egin zue-nak gizakia ta emakumea egin zituela ta esan ziela: Onegatik utziko du gizonak aita ta ama, eta bere emazteari itxekiko zaio eta aragi bat bakaña izan-

go dira biak? Geroz eztira bi lagun, aragi bakar bat baizik».

Aiek galdetu zioten: «Zergatik agindu zigun bada Moisek, uzte-agiria eman ta bidaltzeko?»

Yesusek erantzun zien: «Zuen biotzgogortasuna dala-ta eman dizue Moisek agindu ori, nork-bere emaztea uzteko baimen ori; asieran ordea etzan oñela. Nik esaten dizuet: Inork bere emaztea bidaltzen badu (lizunkeriagatik ezpada) eta beste bat artzen badu, ezkontza austen du; eta besteak utzitako emaztea artzen duenak ere ezkontza austen du.»

Etxean beñiz bere-ortaz galdetu zioten bere ikasleak. Berak esan zien: «Bere emaztea utzi ta beste bat artzen duen edozeñek, ezkontza austen du aren kariaz. Eta emazteak bere senara uzten badu ta beste batekin ezkontzen bada, ezkontza austen du.»

Bere ikasleak esan zioten: «Senar-emazten arteko arioa oñelakoa bada, ezta on ezkontzea.» Berak esan zien:

«Ori eztute guziak erdexten, aditzen; oñen erdextea eman zaienak bakarrik *aditzen dute*. Badira zenbait eunuko, gizonak olakotu dituztenak; eta badira zenbait eunuko, berak beren buruak olakotu dituztenak zeruko yaurgoaren kariaz. Aditu dezakenak adi dezala.»

128—Yesusek aurak bedeinkatzen

(Mt. XIX, 13-15; Mc. X, 13-16; Lc. XVIII, 15-17)

Orduan aur txiki batzuek ekañi zizkioten, eskuak gañean yañi ta ukitu zitzan ta aientzat otoitz egin zezan. Ikasleak ori ikusirik, eñixta ta eskainka egi-ten zieten aien ekarleai. Yesus, ori ikusirik, asañetu zan, eta aiek beregana deiturik esan zien: «Utzi añañai nigana etortzen eta ez eragotzi; Yainkoaren yaurgoa olakoena da ta. Egiaz, nik esaten dizuet: Yainkoaren yaurgoa aur bateg bezela artzen eztuena, ezta artarako.» Eta aiek besarkatuz ta eskuak gañean yañi ondoan, aldegin zuen andik.

129—Zer egin betiko bizia irabazteko?

(Mt. XIX, 16-22; Mc. X, 17-22; Lc. XVIII, 18-23)

Bidera atera zanean, agertu zitzaion aúera gizaseme aundiki bat eta aúean belaunikaturik galdegin zion onela: «Maisu ona, zer egin bear dut betiko bizia irixteko?» Yesusek erantzun zion: «Zergatik deitzen nauzu ona? Zergatik galdetzen didazu zer dan ona? Bat bakara da ona, Yainkoa. Bizira sartu nai baduzu, aginduak gorde itzatzu».

«Zein ta zein?» galdetu zion aúek.

Yesusek esan zion: «Aginduak bada-kizkitzu: ez ezkontza-autsi; ez iñor il; ez ostu, gezuézkó aitoéerarik ez esan; atziperik ez egin: zure aita ta ama gorretsi».

Gizasemeak erantzun zion: «Maisua, guzi ori begiratu (gorde) izan dut gazetandik asi ta. Zer besterik egin bear dut?»

Ori entzunik Yesusek begiratu zion, maitatu zuen ta esan zion: «Gauza bat

falta zaizu oraindik: betegiña (guziz ona) izan nai baduzu, zoaz, duzun guzia sal zazu, ta beartsuai emaiezu; ofela izango duzu gordairu bat zeruan. Gero atoz ta yafaike neri».

Itz ori entzundakoan, gizasemea atsekabetu zan ta aldegin zuen begi-ilundurik, ondasun aundien yabe zan ta.

130—Aberatsak nekez zeruratzen

(Mt. XIX, 23-26; Mc. X, 23-37; Lc. XVIII, 24-27)

Yesusek, ura ofela atsekabetu zala ikusirik, inguru begiratu zuen ta esan zien bere ikasleai: «Bai nekez sartuko dirala dirudunak Yainkoaren yaurgora! Aberatsak nekez sartuko dira zeruko yaurgora.»

Ikasleak aritu ziran bere itz oietaz. Yesusek ordea esan zien beñiz ere: «E-netxoak, bai nekez sartuko dirala Yainkoaren yaurgora ondasunetan beren ustea dutenak! Beñiz ere esaten dizuet: Kamelu bat ofatz-begi batetik igaro-

tzea érazago da, aberats bat zeruko yaurgora sartzea baño». (1)

Ori entzunik, ikasleak orduan ta geiago aritu ziran ta beren artean esaten zuten: «Nor zerurako da beraz?»

Yesusek begiratu ta esan zien: «Gizonen baitan ezinkizun da ori, ez ordea Yainko baitar: Yainkoak guzia badezake ta. Gizonentzat ezinkizun dana, Yainkoarentzat eginkizun da.»

131—Gogozko beartsutasuna.

(Mt. XIX, 27-30; Mc. X, 28-31; Lc. XVIII, 28-30)

Orduan Pedrok itzegin zuen eta esan zion: «Ona, guk gauza guziak utzi ditugu ta zuri yafaiki gatzaizkitzu; zer

(1) Kamelua, oren animalia aundia nola igaro ofatz-txulo batetik? Inolaz ere ezin. Oren zaila da bada aberats bat zerura sartzea. Yakiña da, Yesukristo ezta or aberats guzietaz mintzo; ainbeste ta ainbeste kristau aberats sandu egin dira ta zeruratu. Beren biotza aberastasunei itsatsirik daukaten aberatsak, beren ondasunak Yainkoa baiño maiteago dituzten aberatsak ukitzen ditu or gure Yaunak, eta alakoak ezin zerura ditezkeela agerian dago.

izango dugu beraz guk *ordañez?*»

Yesusek erantzun zion onela: «Egiaz esaten dizuet: Zuek, neri yañaiki zatzazkidaten oiek, beñiz-piztean, Giza-semea bere alki ospetsuan yañiko danean, zuek ere yañiko zerate amabi alkitan, Isráelgo amabi yendakiak epaitzeko. Eta neregatik ta Ebangelioagatik ta Yainkoaren yaurgoagatik *bere* etxea edo anaiak edo ařebak edo aita edo ama edo emaztea edo seme-alabak edo aloñak (soroak) uzten dituen edozeñek, askoz ere geiago, bateko eun izango ditu, mundu onetan yazarpenen erdian etxeak, anaiak, ařebak, amak, seme-alabak, ta aloñak; eta beste munduan betiko bizia. Ta orain lenngoak diran asko azkenekoak izango dira, ta azkenekoak diran asko lenngoak».

132—Mastiko langileak

(Mt. XX, 1—16)

Goizean goiz bere mastirako langileak akuratzera atera zan etxeko-nausi bat iduri du zeruko yaurgoak. Langilekin eguneko *denario* batean itz-arturik, bere mastira bidali zituen. Irugañen ordu aldean atera zan beñiz eta eri-zelaian (1) zutik alper zeuden batzuek ikusi zituen ta esan zien: «Zoazte zuek ere nere mastira, eta zuzen dana eman-go dizuet.» Aiek yoan ziran. Seigañen ta bederatzigañen ordu aldera atera zan beñiz ere eta beste ainbeste egin zuen.

Amaikagañen ordu inguruan atera zan, arkitu zituen beste batzuek an zutik zeudela ta esan zien: «Zergatik zaudete emen egun guzian alpeñik?» Aiek

(1) *Eri-zelaian* edo plazan biltzen ziran goizero langileak, ta ara yoaten ziran etxeko-nausiak egunero bear zituzten gizonak akuratzera; an berean egiten zuten egiunea, *tratu*, eguneko ainbat, eta andik yoaten ziran lanera. Gaurko egunean ere ofela egiten da Napañoko zenbait eritan.

erantzun zioten: «Iñork ez gaitu akuratu ta.» «Zoazte zuek ere nere mastira», esan zien.

Afustu zuenean, masti-yabeak esan zion bere artadunari: «Dei itzatzu langileak eta saria emaezu, azkenetatik asi ta lenengotaraño». Agertu ziran beraz amaikagañen orduko langileak eta *denario* bana artu zuten. Lenengo langileak agertu ziranean, berai geiango emango zitzaIELA uste zuten; baña *denario* bana artu zuten aiek ere. Eta ura artu ondoan, marmarka asi ziran etxeko-yaunaren aurka, esanaz: «Azkeneko auek ordu batez bakañik lan egin dute ta ala ere zuk gurekin, egun guziko sorta eta beroa yasan dugun auekin berdin yañi dituzu».

Arek erantzun zion aietako bati: «A-diskidea, nik eztiat bidegaberik egi-ten; ez al intzan *denario* batean nerekin itz-artu? Ar zak irea dana ta oa; azkeneko oni ere iri ainbat eman nai zio-at. Ez al zezakeat nik nai dudana egin? Ala ire begia gaiztoa (bekaiztia) al duk

ni ona naizelako? Orelaxe azkenekoak lenengoak izango dira, ta lenengoak azkenekoak. (1)

133—Lazaroren eriotza ta beriz-piztea.—
Yuduen Batzarea—Yesusek aldegiten.

(Io. XI, 1-56)

Gizon bat eri zegon, Lazaro Beta-
niakoa, Mariaren ta bere aizpa Marta-
ren erikoa. Maria zan arako, Yauna
gantzutu ta aren oñak bere ileaz txu-
katu zituen ura. Onen anai Lazaro eri
zegon beraz.

Aren arebak beñi auxe bidali zioten:
«Yauna, zuk maite duzuna eri dago.»
Yesusek, beñi ori entzunik, esan zuen:
«Eritasun au ezta eriotzezkoa; Yain-
koaren osperako da, oñen bidez Yain-
koaren Semea ospa dedin.» Yesusek

(1) Ezta aski norberak lan egitea ta saiatzea zerua irabazteko; ortaz gañera Yainkoaren grazia ta laguntza ere bear dira, nai-ta-naiez bear dira, ezer onik egingo badugu ta zerua iritxiko badugu.

maite zituen Marta eta bere aizpa Maria ta Lazaro; ala ere, au eri zegola entzunagatik, toki bereartan egon zan bi egunez. Gero esan zien bere ikasleai: «Goazen Yudeara beriz.» «Bañan, Maisua, erantzun zioten ikasleak; orain beriki Yuduak afika egin nai zizuten, eta beriz ara zoaz?» Yesusek beriz esan zien: «Egunak ez al ditu amabi ordu? Egunez dabilena ezta beaztopatzen, mundu ontako argia ikusten duelako.» Gero esan zien: «Gure adiskide Lazaro lo dago; ura lotatik iratzartzera noa.»

Ikasleak esan zioten: «Yauna, lo badago, sendatuko da.» Jesus aren erioztaz mintzo zan; aiek ordea loak-artzeaz ari zala uste zuten.

Orduan Yesusek argi esan zien: «Lazaro il da, eta pozten naiz zuengatik, an ez nintzalako, siñetsi dezazuen. Orain goazen arengana».

Toma, izengoitiz Bikia deritzanak esan zien ikaskideai: «Goazen gu ere, ofekin batean il gaitezen.»

Yoan zan beraz Jesus, eta lau egun

aietan ilobian zegola arkitu zuen. Betania Yerusalem-etik urbil samar zegon amabosten bat eztatuko bidean. Yudu asko Marta eta Mariarengana etoñiak ziran, beren anaiaz pozkidatzera. Marta, Yesus bazetoñela ikasi orduko, bidera yoan zitzaion; Maria beñiz etxean gelditu zan.

«Yauna, esan zion Martak Yesusi, zu emen izan baziña, nere anaia etzan ilko. Baña orain ere, Yainkoak eskatzen diozun guzia emango dizula bada-
kit.»

Yesusek diotsa: «Zure anaia piztuko da beñiz.»

«Bai, erantzun zion Martak; azken egunean beñiz-piztaldian beñiz-piztuko dala bada-
kit.»

«Yesusek esan zion: «Ni naiz beñiz-piztea eta bizia; nigan siñesten duena biziko da, il bada ere; eta nigan siñetsiz bizi dana ezta sekula ilko. Siñesten al duzu au?»

«Bai, Yauna, erantzun zion; zu Yainko biziaren, Seme mundu ontara oto-

ria, zerala siñesten dut.» Ori esandakoan, yoan zan ta bere aizpa Maria deitu zuen ixilkian, esanez: «Maisua or da ta deitzen zaitu.»

Maria, ori entzun bezain laster, bereala yaiki ta arengana zan; Jesus ezpaitzan oraiño eñira etofi, antxe zegon, Marta bidera atera zitzaion lekuan. Bere etxean, bera pozkidatzen zeuden Yuduak ikusi zuten Maria nola yaiki ta atera zan; eta ilobira, an negar egitera zioalako ustean, yañaki zitzaizkion. Maria, Jesus zegon tokira yoan ta ura ikusi zueneko, aren oñetara erori zan esanez: «Yauna, emen izan baziña, nere anaia etzan ilko.»

Jesus, Maria negařetan ari zala ta onekin etofiriko Yuduak ere negařetan ari zirala ikustean, dardaratu zan bere baitan eta biotza erdiratu zitzaion. Eta galdegin zuen: «Non ezañi duzue?

«Atoz eta ikusazu!» erantzun zioten.

Yesusek negařari eman zion. Orduan Yuduak esan zuten: «Oñ zein maite zuen!» Beste batzuek beñiz zioten:

Itsuaren begiak idiki dituen onek oren iltzea ez ote zezaken eragotzi?» Beriz ere bere baitan dardaraturik, Jesus ilobira zan. *Obi* au aizpe bat zan, eta gainean ari bat zetzan. «Ken zazue ari ori» agindu zuen Yesusek.

Ilaren afeba Martak esan zion: «Yau-na, kirastu da onezkero, lau egun badi-tu or ta.»

Yesusek erantzun zion: «Siñetsi ez-kero, Yainkoaren ospea ikusiko duzula ez al dizut esan?»

Kendu zuten beraz aña; eta Yesusek, begiak gora zuzendurik, esan zuen: «Aita, eskeñak dizkitzut, entzun dida-zulako. Zuk beti entzuten didazula ba-nekien; baña inguruan dagon yendea-gatik esan dut, zuk bidalia naizela si-ñetsi dezaten.» Ori esan ondoan, oi-u egin zuen ozenki: «Lazaro, atoz kan-pora!»

Bereala atera zan ila, esku-oñak lo-turaz bilduak eta aurpegia izerkari ba-tez estalia zituela. Yesusek esan zien: «Aska zazue, ta yoaten utzi.»

Mariarengana etoñi izan ziran Yudu aietako askok, Yesusen egiña ikusirik, Arengan siñetsi zuten. Aietako batzuek ordea Farisauengana yoan, eta Yesusek egin zuena adiarazi zieten. Apaiznausi ta Farisauak bildu zuten beraz Batzañe Aundia, ta onela zioten: «Zer bide yoko dugu, gizon oñek ezaupide (mirari) asko egiten ditu ta? Oñela *ibiltzen* utzi badezaiogu, guziak arengan siñetsiko dute; gero etoñiko dira Eñomatañak eta kenduko dizkigute bai eñia ta bai yendaki osoa ere.»

Aietako batek, urte artan apaiznausi zan Kaifa-k, esan zien: «Zuek ezer ez-takizue; eta yendaki guzia galtzea baño gizon bakar bat eñiagatik iltzea obe du-zuela eztuzue gogoratzen.» Baña ori etzuen arek bere baitatik esan; urte artako apaiznausia baitzan, Yesus beren yendakiagatik il beaña zala iragañi zuen alde-auñez. Baña etzuen ala ere beren yendakiagatik bakañik il bear, baita Yainkoaren ume, sakabanaturik zeude-nak batera biltzeko ere. Egun ura ez-

kero, ari bizia kentzeko asmotan zebiltzen.

Oregatik, orduezkero etzan Jesus Yuduen artean agerian ibiltzen; aldegin zuen andik basamortu ondoko alderdira, Efrem deritzan irira. An egon zan bere ikaslekin.

Yuduen Pazkoa bereala zan. Alderdi artako asko lagun igo ziran Yerusalemera yai-eguna baño lenago, bere buruak garbiestera. Jesus bilatzen zuten, eta yauretxean zeudelarik, elkañi galdegiten zioten: «Zer uste duzue? Ezta noski yai-egunera eteñiko.» Apaiznausi ta Farisauak agindu auxe emana zuten: Iñork baldin bazekien, Jesus non zegon, beñi emateko, atxitu zezaten.

**134—Yesus-ek bere Nekaldia alde auñez
esaten.**

(Mt. XX, 17-19; Mc. X, 32-34; Lc. XVIII, 31-34)

Yerusalem alderako bidean gora zioazen ta Yesus auñean zioakien; aiek ariturik ta belduñez yañakitzen zitzaizkion. Yesusek berex artu zituen beñiro amabi ikasleak eta esan zien, zer gertatu bear zitzaion berari: «Ona, esan zien, bagoaz Yerusalem-era eta an beteko da Profetak Giza-Semeaz idatzi duten guzia. Apaiz-nausi ta lege-irakasle ta zaañen eskuetan yañiko dute, ilgari-etsiko dute, yentilei eskuratuko diete; iseka egingo diote, azoñiz yoko dute, listu-egingo diote; azoñiz yo ondoan ilaraziko dute, baña irugañen egunean beñiz piztuko da».

Aiek ordea etzuten ortaz ezer ulertu; izkuntza ori iluna zitzaien eta etzuten erdetsi (aditu) esandakoa.

135—Zebedeo'ren emaztea ta semeak...

(Mt. XX, 23-28; Mc. X, 35-46)

Orduan urbildu zitzaion Zebedeo'ren seme *Yoan ta Yakobo apostoluen* ama bere seme oiekin, ta agur-egiñik zer-bait eskatu nai zion. Yesusek galdegin zion: «Zer nai duzu?»

Arek erantzun zion: «Nere bi seme auek bat zure eskuin aldean ta bestea zure ezkeraldean yañi-arazi itzazu zure yaurgoan.»

Yesusek atzera esan zien: «Eztakizue zer eskatzen duzuen. Nik edan bear dudan edal-ontzia edan al dezakezue? edo nik artu bear dudan bataioaz bataia al zaitezket?»

Aiek esan zioten: «Bai, yauna, ba-dezakegu.»

Jesus'ek beñiz: «Nik edan bear dudan ontzia edan bai egingo duzue eta nik artu bear dudan bataioaz bataiatu bai egingo zerate. Baña nere eskuin

edo ezkeñaldean yañi-arazteko eskubiderik eztut nik; nere Aitak zeñentzat berexi dituen, ta aientzat dira toki oiek.»

Beste amañak, ori entzunik, asañetu ziran Yakobo ta Yoan'i buruz. Yesus-ek ordea beregana deitu ta esan zien: «Badakizue: yende-arteko aitzindariak agintzen diete beren mendekoai, eta aundizkiak badute eskubidea aien gain. Zuen artean eztedila oñela izan; aitzitik, zuen artean aundia izan nai duena, guzion mendeko izan bedi. Giza-Semea ere ezta etoñi, besteak berari mirabe-egin dezaioten; mirabe-egitera ta bere bizia guzion eros-saritan ematera etoñi da.»

Eta iritxi ziran Yeriko'ra.

136—Yeriko'ra sartzean itsu bat sendatzen

(Lc. XVIII, 35-43)

Eta ara, Yeriko'ra urbiltzean, itsu bat bide-bazterean eseri-ta eskean ari zan. Yende-aldea igarotzen zala entzun zuenean, galdegin zuen, ea zer zan ura. Yesus Nazaretara andik igarotzen zala esan zioten. Orduan otsegin zuen: «Yesus, David-en semea, urikal zaite nitaz.»

Aurean zioazenak akar (mokoka) egin zioten, ixilik egoteko. Berak ordea gero ta geiago oiu egiten zuen: «David-en semea, urikal zaite nitaz.»

Yesusek tenk-egin ta itsua beregana ekañiarazi zuen. Urbildu zitzaionean, galdegin zion: «Zer nai duzu nik dagizudan?»

Arek erantzun zion: «Yauna, ikusi dezadala.»

Yesus-ek esan zion: «Ikus zazu! Zere siñesteak onegin dizu.»

Bereala ikusten zuen ta Yainkoa go-

raipatuz yoan zan Yesus'en atzetik. Yende-alde guziak ere, ori ikusirik, Yainkoa goraipatu zuen.

137—Zakeo—Amar minaen berdintza.

(Lc. XIX, 1-28)

Sartu zan Yeriko-ra ta bazebilen irian barna. Eta ara, bazan Zakeo izeneko gizon bat; zergari-burua zan ta oso aberatsa. Oñek Yesus nor zan ikusi nai zuen; ezin zezaken ordea gizaldeagatik, irazkiz (gorputzez) txikia zalako. Beraz auñeratu zan lasterka eta pikomasustondo baten gañera igo zan, Yesus ikusteko, andik igaro beara zan ta.

Toki artara zanean, Yesus-ek begiak goratu ta ikusi zuen ta esan zion: «Zakeo, yetxi laster, gaur zure etxean gelditu bear dut eta». Laster yetxi zan ta pozik artu zuen *bere etxean*.

Ori ikusirik, guziak marmariaz ari ziran, gizon pekatari baten etxean ostatu zala esanez. Zakeo ordea, Yau-

naren aurrean zutik yarı ta esan zion:
«Yauna, ona! nik nere ondasunen erdia
beartsuei ematen diet, eta inñori ezertan
kalterik egin badiot, lau aldiz beste ain-
beste ordaintzen diot.»

Jesus-ek esan zion: «Gaur osasuna
gertatu zaio etxe oni, au ere (Zakeo)
Abraham-en seme da ta; galdurik ze-
gona bilatzera ta gaizkatzera (salba-
tzera) etorri baita Gizasemea.»

Entzuten zegozkionai berdintza bat
ere esan zien, Yerusalem-etik urbil zeu-
delako ta Yainkoaren yaurgoa laster
agertuko zala uste zutelako. Esan zien
beraz:

«Gizon aundizki bat urutiko luñalde
batera yoan zan, eregetasuna iritxi ta
beriz atzera etortzeko. Deitu zituen
bere amar moñoi, amar mina (1) eman
zizkien ta esan zien: Oiekin irabazia
egizue, ni itzuli arte.

«Bere eritafak ordea iguin (goñoto)
zuten gizon ura, eta mandatariak bida-

(1) *Mina* aldi oietako diru bat zan eta oraingo
larogei-ta-amar (90) pezeta balio zituen.

li zituzten aren atzetik mandatu onekin: Eztugu nai, ori gure efege izan dedin. Arek iritxi zuen ala ere efegetasuna, ta atzera etoñi zan. Orduan deituarazi zituen dirua eman zien moñoi aiek, bakoitzak zenbat irabazi zuen ikasteko.

«Lenengoa etoñi zan ta esan zuen: Yauna, zure minak amar mina irabazi ditu. Berak esan zion: Ederki, moñoi ona, gauza txikian zintzo izan zeralako, amar irien nausi izango zera.

«Etoñi zan bigaena ta esan zuen: Yauna, zure minak bost mina irabazi ditu. Oni esan zion: Zu bost irien nausi izango zera.

«Beste bat etoñi zan esanez: Yauna, ona emen zure mina; zapi (oial) batean bildurik iduki dut. Zure beldur izan naiz, gizon gañatza zeralako. Yasotzen duzu *gordetzeko* utzi eztuzuna eta zitua (uzta) biltzen duzu erein eztuzun lekuan. Oni esan zion: Eroñen itzez gaitz-esten aut, moñoi ezereza. Baekien gizon gañatza naizela, utzi eztuda-

na yasotzen, ta erein eztudan lekuan uzta egiten dudala. Zergatik eztuk bada nere dirua dirumaiera (bankora) eraman, nik atzera etortzean obariekin (irabaziekin, interesekin) yaso nezan?

«Eta ondoan zeudenai esan zien: Ken zaiozue mina ori eta emaiozue amar mina dituenari. — Yauna, esan zioten, orek baditu amar mina.

«Nik esaten dizuet: Duen edozeñi emango zaio ta ugari izango du; ez-tuenari beñiz duena ere kendu egingo zaio. Nere etsai aiek ordean, ni beren erege izatea nai etzuten aiek, ekañi itzatzue onera ta nere aurrean il itzatzue.»

Ori esandakoa, aurreratu zan Yerusalem'era bidean.

138—Yeriko-tik ateratzean itsu bat sendatzen

(Mt. XX, 29-34; Mc. X, 46-52)

Jesus bere ikaslekin eta gizalde aundi batekin Yeriko-tik ateratzean, itsu bat bide-bazterean eserita eskean ari zan. Bartimeo-ren seme Timeo zan. Jesus Nazaretaña an zala entzun zuen bezin laster, oiuka asi zan esaten: «Jesus, David-en semea, urikal zaite nitaz». Askok erixta (mokoka) egiten zioten, ixilik egon zedin. Arek beñiz orduan ta geiago otsegiten zuen: «David-en semea, urikal zaite nitaz.»

Jesus gelditu zan ta deituarazi zuen. Deitu zuten beraz itsua ta esan zioten: «Biotz on izan; yaiki adi, deitzen au.» Arek bere soñekoa aurtiki (bota) ta yauzian arengana zan.

Yesusek galdegin zion: «Zer nai duzu egin dezaizudan?» Itsuak erantzun zion: «Maisua, ikusi dezadan.»

Yesusek esan zion: «Zoaz, zure si-

ñesteak onegin dizu (sendatu zaitu).»
Eta bereala ikusten zuen eta yañaikei zitzaien bidean.

139—Mariak Yesus gantzutzen du

(Mt. XXVI, 6-13; Mc. XIV, 3-9; Io. XII, 1-11)

Yesus beraz, Pazko-yaia baño sei egun lenago, Betaniara zan; an bizi zan Lazaro, il ondoan Yesusek beñiz piztu izan zuen ura. Eñi artan afari bat apaindu zioten; Martak maian mirabegeiten zuen (serbitzen zuen), Lazaro beñiz afaldañetako bat zan.

Mariak artu zuen arzurizko ontzi batean libra bat gantzukari, akarazko gantzukari zin balio aundikoa (1), eta artaz gantzutu zituen Yesusen oñak, eta bere ileaz txukatu zituen aren oñak; gero ontzia autsi ta aren buru gañera isuri zuen, eta gantzukariaren atxonaz

(1) *Gantzukaria*, usai oneko ur edo olio-gisa bat gorputzak gantzutzeko, igorzteko. Mariak ekañi zuen ura akaratik, *nardo* belar onetik ateria zan.

(usai onaz) bete zan etxea.

Ori ikusirik, aren ikasleak asafetu ziran ta esaten zuten: «Zertako galdu da gantzukari au alpeñik? Irureun baño geiago denariotan (1) saldu ziteken ta *diru ori* beartsuai eman.» Eta marmarka ari ziran aren (Mariaren) aurka.

(Ikasletako bat, Yesus saldu bear zuen Yuda Iskariote nabarmendu zan geiena marmari oietan). Arek ere esan zuen: «Zertako ezta saldu gantzukari au irureun denariotan ta diru ori beartsuai eman?» Ori esan zuen ez beartsuetaz axola zuelako, lapuñá zalako baizik; berak idukitzen zuen diru-ziskua, ta artara sartzen zana *beretzat* gorde egiten zuen.

Yesus oartu zan marmari oietaz eta esan zien: «Zergatik nekarazten duzue emakume au? Utzazue, nere ortzitze-egunerako gorde dezan gantzukaria. Egite on bat egin du nere aldera. Beartsuak beti badituzue zuen artean, ta

(1) *Irureun denario*, beñeun ta beñogei pezeta gutxi gora bera.

nai duzuenean ongi egin dezaiekezue, ni beñiz ez nauzue beti zuekin. Al zezakena egin du onek: nere gorputza aurretik gantzutu egin du, ortzitzeko (1). Egiaz, nik esaten dizuet: mundu guzian nere Beñi-on au predikatzen dan leku guzietan yakiñaraziko da onek egin duena ere, bere oroitzapenetan.

Yudutar gizalde aundi batek ikasi zuen Yesus an zala, eta yoan ziran, ez Yesusengatik bakañik, baita onek ilen artetik piztutako Lazaro ikusteagatik ere. Apaiznausiak beñiz Lazaro ere ilarazteko asmoa artu zuten, yudu asko yoaten baitziran arengatik Yesusengana ta siñesten zuten arengan (2).

(1) Gorputz-ila usai oneko urez gantzutzen ziran lur emateko. Eta Yesus laster il beaña baita, Mariak aren gorputza gantzutu du, ortzitzeko edo lur emateko balitz bezela.

(2) Yudu zoro aiek, Yesusen egiñak ikusi ondoan Arengan siñetsi beañean, ofa zer asmo artzen duten: Lazaro ilarazi. Yesusek ez al zezaken bada Lazaro bigařen aldiz piztu, lenago piztu zuen bezin eñaz?

140—Ereñotz-abararak (eramuak)

(Mt. XXI, 1-9; Mc. XI, 1-10; Lc. XIX, 29-40; Io. XII, 12-19)

Biaramonean, Betaniara ta Betpage-ra, Olibadi deritzan mendira urbildu zanean, Yesusek bidali zituen bi ikasle ta esan zien: «Zoazte zuen aurrean dagon erixka ortara, eta an sartu orduko, arkituko duzue asteme bat loturik eta, arekin, oraño iñor gañean eseri etzaion astakume bat; aska zazue ta ekañi. Eta iñork galdegiten badizue: Zergatik askatzen duzue? onela erantzungo diozue: Yaunak ofen beaña badu. Ta berealautziko dizuete ekartzen.»

Guzi ori agitu zan, arako Profetak esandako ura bete zedin: «Esaiozue Sion-go alabari: Oña, zure eñegea bada-torkizu gozo, asto gañean, uztarpeko abere baten ume dan astokoaren gañean eserita.» (Zach. IX, 9-10).

Yoan ziran beraz bidalitako ikasleak eta egin zuten Yesusek esan zie-

na. Arkitu zuten, arek esan bezela, astokoa zutik, ate aurrean loturik bidegurutzean, ta askatu zuten. Askatzen ari zirala, yabeak esan zieten: «Zer dala ta askatzen duzue astokoa?» Aiek erantzun zieten, Yesusek agindu zienez: «Yaunak oren beara badu.» Ta ala utzi zieten.

Eraman zituzten beraz astemea ta astokoa, beren soñekoak aien gañean yafi zituzten ta Jesus gañean eseriarazi zuten, idatzia dagonez: «Ez beldur izan, Sion-go alaba; ora, zure eregea badator, astakume gañean eserita.»

Bere ikasleak etzuten lenbizian au ulertu; baña gero Jesus ospatu zanean, oroitu ziran gauza oiek artaz idatzirik zeudela ta berek egin zizkiotela.

Yaiegunerako etofi izan zan gizalde aundia, Jesus Yerusalem-erako bidean zala ikasirik, atera zitzaion bidera; beren soñekoak edatzen zituzten ura zioan bidean, zuaitzetatik palmadañak ebaki, ta guziak pozik asi ziran Yain-



koa oiuka gorai patzen ikusitako ari ga-
riengatik, esanez:

«Hosanna David-en semeari!

Bedeinkatua Yainkoaren izenean da-
tořena,

Israelgo eřegea;

Bedeinkatua orain datořen gure aita
David-en yaurgoa;

Pakea zeruan eta ospea goietan.»

Lazaro ilobitik deitu ta iletatik beřiz-
piztu zuenean Yesusekin zegoen giza-
deak ořela gorai patzen zuen orain Ye-
sus. Ořexegatik etoři zitzaion giza ldea
bidera: ezaupide (mirari) ori egin zuela
aditu zuelako.

Farisauak ordea esan zioten alkaři:

«Ořa, ikusten duzue, ezer irabazten
eztugula. Yende guzia atzetik dioa-
kio.» Eta yende artean zeuden Farisau

batzuek esan zioten berari: «Maisua,
mokoka (eřixta) egiezu zere ikasleai.»

Berak erantzun zien: «Nik esaten di-
zuet: Baldin auek ixildu balitez, ařiak
oiu egingo lukete.»

141—Jesus negarez...—Yauretxera sartzen da...

(Mt. XXI, 10-16; Mc. XI, 11; Lc. XIX, 41-46)

Urbildu ta iria ikusi zuenean, negar egin zuen arengatik ta esan zuen: «Ai! ezagutzen bazenu, zure egun onetan, zure pakerako diran gauzak! Estalirik dagozkie ordea zure begiai. Etoñiko zaizkitzu egunak, zure etsaiak aresiz inguratu, ertsi, alde guzietatik estutu egingo zaituztena; zu ta zugan diran zure semeak luñera egotziko dituzte, eta eztute aña añaaren gañean utziko, zure ikuskatzearen eguna ezagutu ez-tuzulako.»

Eta Yerusalemera sartu zanean, iri guzia asaldatu zan ta zioten: «Nor da au?» Gizaldeak zioten: «Au da Jesus, Galilea-ko Nazaret eriko Profeta.»

Eta sartu zan Jesus yauretxera. Eta an saldu-erosten ari ziranak aurtiki (bota) zituen, dirularien maiak eta saltzalen alkiak irauli zituen esanaz: «Ida-

tzirik dago: Nere etxea otoitz-etxea da, zuek ordea lapur-zulo egin duzue.» (Is. LVI, 7).

Itsuak ta urgunak (maingiak) uñeratu zitzaizkion yauretxean, ta sendatu zituen. Apaiznausi ta Farisauak, arek egindako mirariak ikusirik eta yauretxean «Hosanna David-en semeari» oiuka ari ziran aurrak entzunik, asaratu ziran ta esan zioten: «Aditzen al duzu, zer dioten oiek?»

«Bai orixe, erantzun zien Yesusek. Ez al duzue egundano irakurri: Aurren ta bularrekoen agotik aterazi duzu zure gorripamena?» (Ps. VIII, 3)

142—Kristok pikondoa madarikatzen. Saltzaleak aurtikitzen

(Mt. XXI, 17-19; Mc. XI, 11-19; Lc. XIX, 47-49)

Guziai begiraturik, antxe utzi zituen ta ilunabarrean iritik atera zan kanpora, Betania-ra, bere amabi lagunekin, ta an egin zuen gaua.

Biaramon goizean Betania-tik atera ta irira zetozela, Jesus gosetu zan. Ikusi zuen urundik bide-baztefean pikondo bat, ostoz beterik; eta aratu zan, ezer atzematen ote zuen. Baña bertara zanean, ostoak besterik etzuen arkitu, etzan pikuaroa ta. Orduan mintzatu zitzaion esanez: «Egun-ta-beti eztedila igandik arnaririk (fruturik) sortu, inork ez dezala ire arnaririk yan». Bere ikasleak entzun zuten. Pikondoa igartu zan bereala.

Gero yoan ziran Yerusalem-era. Sartu zan yauretxera eta an saldu-erosten ari ziranak aurtiki zituen, dirularien maiak eta uso-saltzalen alkian irauli zituen (1). Eta etzuen uzten inork ontziririk eramane zezan yauretxean barna.

Eta irakasten zien esanez: «Ez al dago idatzirik: Nere etxea otoitz-etxea

(1) Yauretxean saltzen ziran, Apaiz nausien baimenaz, Yainkoari oparitan eskeintzeko bear ziran usoak. Baña orela galtzen zitzaion Yainkoaren etxeari zor zaion lotsa ta begirapena, ta argatik Yesusek txartzat ematen ditu an egiten diran artueman guzi aiek.

deituko da eñi guzietan? Zuek ordea lapur-zulo egin duzue.»

Ori entzunik, Apaiznausi ta Lege-irakasleak ura nola galduko zuten bila zebiltzen, aren beldur baitziran, gizalde guzia aren irakaspenez añiturik zegoe-lako. Añastu zuenean, iritik irten zan. Eta egunero yauretxean irakasten ari izaten zan.

143 – Siñesteaz eta otoitz-egiteaz

(Mt. XXI, 20-22; Mc. XI, 20-26)

Goizean goiz, pikondoaren ondotik igaro ziran, ta ura eñoetaraño igartua zegoela ikusi zuten. Ikasleak, ori ikusi ta añiturik esan zioten: «Oña, bereala igartu da.» Pedro ere oroitu zan ta esan zion: «Maisua, zuk madarikatu zenuen pikondoa igartu da.»

Yesusek erantzun zien: «Euzue Yainkoagango siñestea! Egiaz, nik esaten dizuet, siñesten baduzue eta zalantzarik ezpaduzue, eztuzue pikondo oni

agitu zaiona bakarik egingo. Baita ere, baldin norbaitek orako mendi ori esan badezaio: «Ken adi ortik eta itsasora alda adi», eta bere biotzean ezbaian egongabe siñesten badu bere esana gertatuko dala, alaxe egingo da.

Oregatik esaten dizuet: Etsirik zaudete, otoitzean eskatzen duzuen guzia artuko duzuela ta emango zaitzuela. Otoitz egitera zoaztenean, norbaiten aurka (kontra) zerbait baldin baduzue, barka zaiozue, zuen Aita zerukoak ere zuen pekatuak barka dezaizkizuen. Zuek barkatzen ezpaduzue, zuen Aita zerukoak ere eztizkizue barkatuko zuen pekatuak.»

144—Yesusek nondik du bere eskubidea?

(Mt. XXI, 23-27; Mc. XI, 27-XII, 1; Lc. XX, 1-8)

Egun aietako batean yoan zan Jesus beñiz Yerusalem-era ta yauretxean sartu zan. Bazebilēn yauretxean aruntz-onuntz, eñiari irakasten eta Beñi-ona ira-

gartzen. Orduan urbildu zitzaizkion Apaiznausi ta Lege-irakasleak ta eñiko Zañenak ta galdegin zioten:

«Esaiguzu; zer eskubidez egiten dituzu gauza guziok? Edo nork eman dizu oiek egiteko eskubidea?»

Yesusek erantzun zien onela: «Nik ere galde bat egingo dizuet; galde ori erantzuten badidazue, orduan nik ere esango dizuet, zer eskubidez egiten ditudan guziok. Yoan-en bataioa nondiakakoa zan, zerutikoa ala gizonengandikoa? Erantzun zaidazue.» (1)

Aiek ordea gogoetan ari ziran beren artean: «Baldin zerutikoa zala erantzun badezagu, esango digu: Zergatik ez-tiozue bada siñetsi? Gizonengandikoa zala erantzun badezagu beñiz, gizaldearen beldur gera. Eri osoak arika egingo digu, guziak etsirik baitaude, Yoan profeta zala.» Argatik erantzun

(1) Yoan Bataiazalearen bataioa ta Yoan-ek irakasten zuen guzia Yainkoak emana al zan ala gizonek asmatua? Itxuraz oñen eñaxa dan galde ofekin, nolako esturan yartzen dituen Yesusek bere etsaiak! Zer erantzun eztakitela uzten ditu.

zioten Yesusi: «Eztakigu.»

Orduan Yesusek esan zien: «Nik ere eztizuet bada esango zer eskubidez egiten ditudan gauza guziok.»

Gero berdintzetan itzegiten asi zitzaien

145—Bi semeen berdintza

(Mt. XXI, 28-32)

«Zer deritzazue? Aita batek bazituen bi seme. Yoan zitzaion lenbizikoari ta esan zion: «Seme, zoaz, lan egizu gaur mastian.» Arek erantzun zion: «Banoa, aita,» baña etzan yoan.

«Gero bigaíenari yoan zitzaion ta gauza-bera esan. Arek beñiz erantzun zion: «Eztut nai.» Gero ordea damutu zitzaion ta yoan egin zan.

«Bietako zeñek egin zuen bere aita-ren naia?»

«Bigaíenak» erantzun zioten.

Orduan Yesusek esan zien: «Egiaz,

nik diotsuet, zergariak (1) eta emagalduek auferatuko zaizkizue zeruko yaurgora (ereinura). Etoñi zitzaizuen Yoan, zuzenbidea erakutsiz, eta zuek etzenioten siñetsi. Zergari ta emagalduek beñiz bai siñetsi zioten. Zuek ikusi zenuen ori, baña etziñaten argatik damutu ta etzenioten siñetsi *gero ere.*»

146—Mastiko langile gaiztoen berdintza

(Mt. XXI, 33-46; Mc. XII, 1-12; Lc. XX, 9-19)

«Entzun beste berdintza bat. Etxeko nausi batek masti bat landatu zuen; esiz inguratu, artan dolare bat sakondu ta doñe bat goratu zuen. Gero langile batzuei akuran eman zien ta bera uruti yoan zan luzaroko. Mats-biltzeko garaia iritxi zanean, bidali zien mastizaiei bere mirabe bat, aiengandik matsaren saria yasotzera. Aiek ordea mi-

(1) *Zergariak* nor ziran, esan dugu ienago ere: zergak (kontribuzioak) biltzeko Yudu-erian zeuden gizonak. Yuduak ezin-ikusi aundia zieten, gizon gaiztotzat zauzkaten.

rabe ura lotu ta zanpatu ondoan, esku utsik atzera bidali zuten.

Orduan beste mirabe bat igofi zien. Au ere yo zuten, arika egin zioten, bu-ruan yo zuten ta irañez (itz gaiztoz) ase ondoan, esku utsik bidali zuten.

Irugañen mirabe bat ere bidali zien. Ta ura berdin yo ta egotzi ta il egin zuten. Beste mirabe asko, lengoak ba-ño geiago, bidali zizkien. Baña guziaz berdin egin zieten: batzuek yo, bes-teak il.

Masti-yabeak esan zuen: «Zer egin-go dut? Nere seme maitea bidaliko diet; au ikusi ta lotsa izango diote agian.» Ta alaxe egin zuen. Guziz maite zuen seme bat izaki oraño ta ura bidali zien azkenean.

Mastizaiak ordea, semea ikusirik, gogoratu zuten beren baitan ta elkañi esan ere bai: «Auxe da yabegaia; atoz-te, il dezagun ta guretzat izango da oñen yarauntsia(ondorea). «Atxilotu zu-ten beraz, mastitik kanpora egotzi ta il zuten.

Masti-yabea etori dedinean, zer egingo die mastizai aiei?»

Erantzun zioten: «Gizon tzar aiek tzarki ilaraziko ditu, ta beste langile batzuei, bere garaian matsaren saria ordainduko dioten langile batzuei emango die bere mastia.»

«Baiki, esan zien Yesusek, maistar aiek galduko ditu ta mastia beste batzuei emango die.»

Aiek, ori entzunik, esan zioten: «Ez al da olakorik agituko (gertatuko)».

Yesusek begiratu ta esan zien: «Ez al duzue bada irakuñi arako idatzirik dagon ura: (Ps. CXVII, 12):

Etxagiñak iraitzitako (botatako) aña orixe egin izan da zoko-aña?

Yainkoak egin du ori

ta añañari da gure begietan.

Oregatik esaten dizuet: Kenduko zaitzue Yainkoaren yaurgoa (ereinua) ta zuzeneko arnariak (frutuak) egiten dituen eñi bati emango zaio. Aña onen gañera erortzen dana puskatzen da; aña

au gañera erortzen zaiona beñiz zapal-
durik gelditzen da.»

Apaiznausi ta Lege irakasle ta Fa-
risauak, aren berdintza oiek entzunik,
ezagutu zuten berentzat esan zituela.
Oregatik atxitu ta lotu nai zuten, baña
gizaldearen beldur ziran, guziak Profe-
tatzat zedukaten ta.

147—Ezteiliañen berdintza

(Mt. XXII, 1-14)

Beñiz ere mintzatu zitzaien Yesus
berdintzetan ta esan zien:

«Bere semeari ezteiak egin zizkion
eñege bat iduri du zeruko yaurgoak.
Eñege arek bidali zituen bere mirabeak,
ezteiliañak deitzera, aiek ordea etzuten
etoñi nai izan.

Beste mirabe batzuek ere igoñi zi-
tuen agindu onekin: Zoazte, esaiezue
ezteiliañei: Ona emen, nere oturuntza
gertu dago, zezenak taazienda gizen-
duak il ditut, guzia gertu dago. Atozte
ezteietara.

Aiek ordea etziran ortaz axolatu ta aldegin zuten, batek bere bazteretxera, besteak bere garatzera (irabazbidera). Besteak beriz aren mirabeak atxistu ta irañez ase ondoan il egin zituzten.

Eregea asaretu zan ori entzunik, eta bere gudamutil-taldeak bidalirik galdu zituen gizon-iltzale aiek eta beren iriakixkali zuen. Gero esan zien bere mirabeai: Eztei-oturuntza gertu dago, baina deiturik zeuden ezteiliañak eztira merezidun. Zoazte beraz bide zabal oietara, eta arkitzen dituzuen guziak dei itzazue ezteietara.

Yoan ziran mirabeak, eta bildu zituzten arkitu-alako guziak, onak eta gaiztoak. Oñela maikidez bete zan ezteigela.

Sartu zan eregea, maikideak ikustera; eta eztei-yantzirik gabe zegon gizon bat arkitu zuen. (1) Ta esan zion:

(1) Eztei-oturuntzara sartzeko, bear zan artarako yantzi bat, eta ezteiliañen batek yantzi ori ezpazuen, etxeko nausiak ematen zion. Oñegatik maikide arek entzun aitzakirik.

Adiskide, nola sartu aiz onera, ezteiyantzirik gabe? Arek etzion tutik erantzun. Orduan eʔegeak esan zien bere mirabeai: Lotu zaizkiozue esku-oñak eta kanpoko ilunbe oietara egotzi (bota) zazue. (1) Or izango da maʔaska ta ortz-kaʔaska.

Asko baitira deituak, gutxi ordea autatuak. (2)

148—Farisau ta Herodetaʔak Yesus zirikatzen

(Mt. XXII, 15-22; Mc. XII, 12-17; Lc. XX, 20-26)

Orduan ura an utzi ta, yoan ziran Farisauak ta elkar aditu zuten, Yesus bere itzetan atxitzeko (aʔapatzeko). Zoʔozki zaintzen zuten, ta beren ikasle ba-

(1) *Kanpoko ilunbe oietara*, argigabeko kaʔika ortara. Gogoan iduki bear da, eztei-oturuntza gauez egiten zala, ta kaʔiketan (kaletan) etzala orain leku geienetan dan bezelako argirik izaten.

(2) Yuduen arteko asko dira deituak Kristoren yaurgoan (Elizan) sartzeko, baña zein gutxi sartu diran izatez! Yudu geienak Elizatik kanpo daude oraiño, eztute kristau-legea artu.

tzuek ta Herodetar zenbait bidali zizkioten bañandari (zelatari), gizon zintzoak ziralako itxura egin ta bere itzetan atxitu zezaten, ofela Yesus agintarien ta yaurlearen eskuetan yartzeko.

Yoan zitzaizkion bada ta onela galdegin zioten: «Maisua, badakigu egiatia zerala, zuzenki itzegiten ta irakasten duzula ta eztuzula iñortaz axolarik, ezpaituzu gizonen aurpegira begiratzen ta Yainkoaganako bidea egiaz erakusten baituzu. Esaiguzu bada zer deritzaizun: Kaiser-i zerga ematea zilegi (libre) al zaigu, bai ala ez?» (1)

Yesusek ezagutu zuen aien maltzurkeria ta esan zien: «Itxuratiak, zergatik zirikatzen nauzue? Erakutsi zaidazue

(1) Ona emen zertan dagon Yuduen maltzurkeria: Yesusek erantzuten badigu, Kaiser-i zergak ematea ez tala zilegi, eformak etsaituko zaizkio, ta bazteak nasten dabilako aitzakian, lotuko dute. Zerga oiek ematea zilegi dala erantzuten badu beriz, Yudu efi osoa aurka (kontra) yafiko zaio, yudu geienak ezpaitzuten olako zergarik ordaindu nai, bortxaz eta ezin-bestean ematen zizkieten eformai, nausi arotz aiei eskatutako zergak. Ofegatik, zioten gizon maltzur aiek, edozein aldetara erantzun dezan Yesusek, arapatzen dugu.

zerga-diru bat, ekañi *denario* bat ikusi dezadan.» Ekañi zioten bada *denarioa* ta Yesusek esan zien: «Noren aintzura (imagen) ta idazkia dauka oñek?»

«Kaisar-ena» erantzun zioten.

Orduan Yesusek esan zien: «Emaiozue beraz Kaisar-i dagokiona Kaisar-i, ta Yainkoari dagokiona Yainkoari.»

Etzuten itz batean ere arapatu al izan eñirean añean, eta aren erantzunaz ariturik, ixildu ziran. Gero Jesus an utzi ta aldegin zuten.

149—Sadukearñak Yesus zirikatzen

(Mt. XXII, 23-33; Mc. XII, 18-27; Lc. XX, 27-40)

Egun bereartan, beñiz-pizterik eztala uste duten Sadukear batzuek (1) urbildu zitzaizkion ta galdegin zioten: «Moise-k auxe agindu zigun: Norbaiten anaia

(1) *Sadukearñak* Yuduen artean, axolagabeak ziran erlijio-gauzetan. Entzuten siñesten animarik ez aingerurik badala; gorputza il, guzia il. Argatik ere etzuten uste gizonen gorputzak noizpait beñiz-piztuko diranik.

aurik izan gabe il ta bere emaztea uzten badu, bere anaiak artu dezala aren emaztea ta bere anaiari ondorea sortu dezaiola.

Baziran bada gure artean zazpi anai; lenbizikoa ezkondu zan, baña umerik izan gabe il zan ta bere emaztea bere anaiari utzi zion. Bigarrenak artu zuen emaztea, baña ura ere il zan umerik utzi gabe. Berdin irugarrenak eta beste guziak artu zuten emazte bera, ta zazpiak il ziran umerik izan gabe. Guzien azkena il zan emaztea ere.

Geroztik, guziak beriz-piztuko diranean, zazpietako zeñen emazte izango da andre ura? Zazpien emaztea izan zan ta.» (1)

Yesusek erantzun zien: «Ez al zabiltzate gero oker, ez Idazkiak ez Yainkoaren indaia ezagutzen eztuzuelako? Ilen artetik piztuko diranean, eztira se-

(1) Oña nola arapatu nai duten Yesus Sadukeak: Ezin diteke beriz-pizterik izan; bestela orain senar bat baño geiago izan dituen emaztea, gero beriz-piztean zeñen emazte izango da?

nartuko ezta ere ezkonduko, zeruan Yainkoaren Aingeruen antzekoak izango dira.

Mundu onetako umeak senartzen ta ezkontzen dira. Baña beste munduaren ta ilen artetiko beñiz-piztearen gai izango diranak, eztira ezkonduko ez emazterik artuko, ezin il baititezke; Aingeruekin berdin ta Yainkoaren ume dira, beñiz-piztearen umeak diran ezkerro. (1)

Ilak beñiz-pizten dirala ordea Moise-k ere erakutsi du. Ez al duzue bada irakurri Moise-n liburuan, sasiaz mintzodan alde artan, nola esan zion Yainkoak: Ni naiz Abraham-en Yainkoa, Isaak-en Yainkoa ta Yakob-en Yainkoa? Ezta ordea ilen Yainkoa, bizienera baizik; arentzat guziak bizi dira ta. Oso oker zaudete beraz.»

Orduan Lege-irakasletako batzuek esan zioten: «Maisua, ederki mintzatu

(1) Oraingo aldi ontan gizonak iltzen dira, ta gizadia akitu eztadin, ezkontza beañezkoa da, gizon beñiak sortzeko. Baña beñiz-piztu ondoan, ezta iñor ilko ta ezta ere ezkontza beañik izango. Gizonak Aingeruen iduriko izango dira.

zera.» Eta etziran ausartzen ari beste galderik egitera.

Ori entzuten zuten gizaldeak ańiturik zeuden aren irakaspenaz.

150—Legeko agindurik aundiena zein da?

(Mt. XXII, 34-40; Mc. XII, 28-34)

Farisauak, Sadukeańak ixilarazi zituela ikusirik, elkańengana bildu ziran. Eta aien arteko Lege-irakasle bat, Yesusek Sadukeańekin izan zuen eztabaida aditu zuen bat urbildu zitzaion, eta aiei ederki erantzun ziela oarturik, galdegin zion zirikatuz:

«Maisua, zein da legeko agindurik aundiena ta lenena?»

Yesusek erantzun zion: «Legeko agindu lenena auxe da: Entzun, Israel: zure Yainko Yauna Yainko bakańa da. Maita zazu zere Yainko Yauna zere biotz guziaz, zere anima guziaz, zere gogo guziaz ta zere indar guziaz. Orixe da agindurik aundiena ta lenena.

Bigarrena beñiz oñen antzekoa da: Zure urko-laguna maita zazu zere burua bezala. Auek baño agindu aundiagorik eztago. Bi agindu oietan datza lege guzia, eta bai Profetak ere.»

Lege-irakasleak esan zion: «Ederki, Maisua, ongi esan duzu Yainko bat bakaña dala ta artaz landara ez tala besterik, eta Bera maite izan bear dugula biotz guziaz, gogo guziaz, ta indar guziaz, eta urko-laguna geren burua bezala maite izan bear dugula; eñe-opari eta beste opari guziak baño obeda ori.»

Yesusek, oñen zuurki erantzun ziola ikusirik, esan zion: «Etzaude urun Yainkoaren yaurgotik (eñe-inutik.)»

151—Kristo David-en semea nola?

(Mt. XXII, 41-46; Mc. XII, 34-37; Lc. XX, 41-44)

Farisauak bildurik zeudela, galdegin zien Yesusek: «Zer uste duzue Mesia-ri buruz? Noren semea da?»

«David-ena» erantzun zioten.

Eta Jesus yauretxean irakasten ari zala, esan zuen: «Nola diote Lege-irakasleak, Mesia David-en seme dala? David berak, Ats Sanduak eragiñik, bere Yaun deitzen baitu Salmoen liburuan, diolarik:

Yaunak diotsa nere Yaunari:

Eseri zaite nere eskui aldean,

nik zure etsaiak yañi arte

zure oinpeko alki.

Geroz, David-ek bere Yaun deitzen badu, nola da aren seme?» (1)

Iñork etzezaioken itzik erantzun. Eta egun ura ezkerro, iñor etzan ausartzen ari galderik egitera.

Yende guziak gogoz aditzen zion.

152—Begira Lege-irakaslengandik!

(Mt. XXIII, 1-12; Mc. XII, 38-40; Lc. XX, 45-47)

Orduan Jesus mintzatu zitzaien gi-

(1) Mesia, Yuduai aspalditik ainbeste aldiz agindu ta iragañi zitzaien Mesia ura, gizon dan aldetik

zaldeai ta bere ikasleai; eñi guziak enzuten zuela esan zien bere irakaspi-dean:

«Begirauzue Lege-irakaslengandik! Lege-irakasle ta Farisauak Moise-ren irakastalkian eseri dira. Esaten dizueten guzia egizue ta bete zazue; aiek egiten dutena ordea etzazue egin; oiek esan bai egiten baitute, ez ordea egin.

Zama astun ezin-yaso-alakoak lotu ta gizonai soñean yartzen dizkiete, berak beñiz beatz batez ere eztituzte goratu nai. (1) Beren lan guziak egiten dituzte, gizonak ikusi ditzaten; lañu-xeñenda zabalak (2) eta soñeko-lits lu-

David-en seme da; baña gizon baño geiago ere bada. Bestela, zergatik deituko zuen David-ek bere Yaun, bere semea besterik ezpazan? Ortik ageri da Mesia Yainkoaren seme ta Yainko dala, ta ori aterra zezaketen Yuduak ere David-en itzetatik.

(1) Lege ta agindu gaitzak, pisuak, ezin-bete-alakoak asmatu ta yartzen dituzte. Ori egiten zuten Yuduen Lege-irakasle aiek: Yainkoaren legea aisatu ta arindu beañean, berak beren buruz asmatutako lege beñiak eratxekiz astunago ta gaitzago egin.

(2) *Lañu-xeñendak*. "Yuduak, Yainko-legea beti gogoan zutela adiarazteko, aren agindu nausienak lañu-xeñenda batzuetan idatzi, eta bekokian ta ezke-

zeak dituzte, oturuntzetan lenengo etzauntzak (1) ta sinagogetan lenengo alkiak atsegin dituzte. Nai dute kañikan agur egin dakien ta gizonek Maisu-izena eman dezaieten.

Zuek ordea eztuzue Maisu-izenik artu bear, bat bakaña baita zuen Maisua, zuek beñiz guziok senideak zerate. Orobat zuetako iñor ez deitu Aita luan, bat bakaña baita zuen Aita: zerruan dagoena. Irakasle-izenik ere ez artu, bat bakaña baita zuen irakaslea: Kristo. Zuen arteko aundiena zuen moñoi izan bedi. Goratzen dana beeratuko baita, ta beeratzen dana goratuko.

Aiek iresten dituzte andre alargunen ondasunak, ta ordañez otoitz luzeak egiten dituzte itxuraz. Oietxek izango dute zigofadarik gogoñena.»

reko besoan loturik eramaten zituzten. Farisauak, beste yendeak baño xefenda zabalagoak zeramazkiten, legea betetzen besteak baño zintzoagoak zirala erakusteko nonbait. Itxuraz bai, baño barnetik...

(1) *Etzauntzak*. Lenagokoak etzuten, orain bezela, alkietan eseri ta yaten; artarako etzauntza batzuetan etzan ta yaten zuten.

153—Ai zuei, Lege-irakasle ta Farisauoi!

(Mt. XXIII, 13-39)

Ai zuei, Lege-irakasle ta Farisau itxuratioi! Gizonei zeruko yaurgoa itxi egiten diezue. Zerok etzerate sartzen ta sartu nai dutenai eztiezue uzten.

Ai zuei, Lege-irakasle ta Farisau itxuratioi! Andre alargunen ondasunak iresten dituzue, itxuraz otoitz luzeak egiñez; oregatik epai gogoñagoa izango duzue.

Ai zuei, Lege-irakasle ta Farisau itxuratioi! Itsasoa ta legoña inguratzen dituzue, zuen fedekide bakar bat biltzeko (1); eta bildu duzuenean, sulezekume egiten duzue, zerok baño zazpi aldiz gaixtoagoa.

Ai zuei, aulendari (gidari) itsuoi! Zuek diozue: Inork yauretxeaz zin-egiten (juramentu egiten) badu, eztu bali; baña yauretxeko ufeaz zin-egiten

(1) *Zuen fedekide bat biltzeko*, atzeritar bat zuen federa, zuen erlijiora erakartzeko.

badu, zor du. Zoro ta itsuak, zer da aundiago: uírea, ala uíe ori sandutzen duen yauretxea? Gañera: Iñork aldareaz zin-egiten badu, eztu balio; baña aldare gañean dagon opariaz zin-egiten badu, zor du. Itsuak, zer da aundiago: oparia (emaitza), ala opari ori sandutzen duen aldarea? Geroztik, aldareaz zin-dagienak, zin dagi artaz ta artan bizi danaz. Zeruz zin dagienak zindagi Yainkoaren alkiaz eta artan eseririk dagoenaz.

Ai zuei, Lege-irakasle ta Farisau itxuratioi! Zuek mendaren ta anetaren ta kuminoaren amaíenak ematen dituzue (1); baña utzi egin dituzue legean diran gauzarik nausienok: zuzentasuna, eíukia ta zintzotasuna. Gauza auek

(1) *Menda, aneta ta kuminoa* usai oneko iru belar ziran. Yainkoak agindu zuen legean, arnari (fruitu) guzien amaíenak emateko, ta Farisauak lege ori estuegi artuz belar oien amaíenak ere ematen zituzten, naiz ori agindurik ez egon, bitartean beste agindu aundiagoak ezertan artzen etzituztela. Ola ziran gizon aiek: gauza txikietan zintzo, andietan ezaxola; eltxoa iragazi (ez iresteke) ta kamelua befiz kezkarik gabe iretsi; zaietan zintzo, iriñetan ero.

egin bear ziran, ta besteak ez utzi egin gabe. Auñendari itsuak, eltxoa iragazten duzue, ta kamelua beriz ires-ten.

Ai zuei, Lege-irakasle ta Farisau itxuratioi! Edal-ontzi ta eñatiluaren kanpoko-aldea garbitzen duzue; barnetik ordea lapurkeriz ta lizunkeriz beteak zaudete. Farisau itsua, garbi zak leenik ontziaren ta eñatiluaren barnealdea, ta orduan garbituko duk kanpo-aldea ere.

Ai zuei, Lege-irakasle ta Farisau itxuratioi! Il-obi zurutuak dirudizue; il-obi oiek kanpotik eder ematen dute, barnean ordea il-ezur ta loikeriz beteak daude. Zuek ere kanpotik zuzentsu-itxura egiten duzue gizonen aurrean, barnean ordea saldukeriz ta tzarkeriz beteak zaudete.

Ai zuei, Lege-irakasle ta Farisau itxuratioi! Zuek eraikitzen dituzue Profeten il-obiak, ta zuzentsuen oroikañiak apaintzen; ta esaten duzue: Gure arbasoen (aurrekoen) aldian bizi izan ba-

giña, ez giñan aiekin kutsatuko Profeten odolean. Oñela zerok aitortzen duzue, Profeta-iltzale aien semeak zera-tela. Bete zazue bada zuen aiten neurria. Suge ta lañasuge-kumeak, nola iges-egingo diozue sulezerako epaiari?

Oñegatik begira: Nik bidaltzen dizkizuet profetak eta yakintsuak eta lege-irakasleak. Zuek oietako batzuek ilta gurutzean yosi egingo dituzue, beste batzuek zuen sinagogetan azoñiz yo ta eñi batetik bestera yazañi. Oñela etoñiko da zuen gañera luñean obenik gabe isuri dan odol guzia: Abel zuzentsuaren odoletik asi ta Barakiaren seme Zakaria, zuek yauretxe ta aldare artean ilzenutenaren odoleraño. Egiaz, nik dio-tsuet, guzi ori etoñiko da gizaldi onen gañera.

Yerusalem, Yerusalem! Zuk iltzen dituzu Profetak eta añika egiten diezu zugana bidaliai. Zenbat aldiz bildu nai izan ditut zure auñak, oñoak bere txikoak egalpean biltzen dituen bezela; zuk ordea eztuzu nai izan. Oña bada,

bertanbera utzia geldituko da zuen etxea. Nik esaten dizuet: gaurgeroz ez nauzue ikusiko, arik-eta auxe esan dezazuen arte:

Biz bedeinkatua Yainkoaren izenean datořena.»

154—Andre alargunaren emaitza

(Mc. XII, 41-44; Lc. XXI, 1-4)

Gero eseri zan Yesus diru-kutxaren aurkaz-aurka, eta begira zegon, yendeak nola egozten zuen dirua diru-kutxara. Aberats askok dirua ugari egozten zuten. Andre alargun beartsu batere etoři zan ta bi loben (marai erdi bat gutxi gora-bera) egotzi zituen. (1)

Yesusek beregana deitu zituen bere ikasleak eta esan zien: «Egiaz, nik dio-tsuet, andre alargun beartsu ořek, diru-kutxara egotzi duten beste guziak ba-

(1) Yerusalem-eko yauretxean, orain gure elizetan bezela, bazan diru-kutxa bat; ara egozten zuten Israeldar zintzoak dirua, Yaunaren etxeko beafetarako.

ño geiago egotzi du. Beste guziak gain-
dizka zutenetik eman dute Yainkoaren
emaitzatako; andre onek beñiz berak
bear zuena, zuen guzia, bizitzeko bear
zuen guzia eman du.

155—Yauretxea ondatuko da

(Mt. XXIV, 1-2; Mc. XIII, 1-2; Lc. XXI, 5-6)

Gero atera zan Yesus yauretxetik eta
aldegin zuen. Orduan urbildu zitzaiz-
kion bere ikasleak eta erakutsi ziz-
kioten yauretxeko etxagintzak. Aieta-
ko batek esan zion: «Maisua, begira
nolako añiak ta nolako etxagintzak, no-
lako añi edeñez ta emaitzez apaindurik
dagon yauretxe ori.» (1)

Yesusek erantzun zien: «Ikusten al
duzue guzi ori? Egiaz, nik diotsuet, ez-
ta or añi bat bestearen gañean gelditu-
ko, guzia irauliko da.»

(1) Izan ere, guziz eder ta begi-betegañia ta al-
de guzietan aipatua zan Yerusalem-eko yauretxea
ta bere ondoko etxagintzak.

156—Kristo noiz etoriko beriz?—Munduaren azkena noiz izango?

(Mt. XXIV, 3-8; Mc. XIII, 3-8; Lc. XXI, 7-11)

Andik laster, Olibadi-mendian yau-
retxearen aurkaz-aurka eserita zegoela,
urbildu zitzaizkion bere ikasleak; eta
Pedro, Yakobo, Yoan ta Andrea-k be-
rex galdegin zioten:

«Maisua, esaiguzu, noiz agituko dira
guzi oiek? Eta guzi ori agitzen asi bear
dalako ezaupidea zein izango da? Zein
zure etortzearen ta mundu onen amai-
aren ezaupidea?» (1)

Yesusek onela erantzun zien: «Begi-
ra gero, etzaitzaten inork okerbidera-
tu. Asko etoriko baitira nere izenean
eta esango dute: Ni naiz Kristo, aldia
etofi da. Eta lagun asko okerbiderako
dituzte. Zuek bada ez yoan aien on-
dotik.

(1) Bi galde egiten dizkiote or Apostoluak Yesu-
si: auřena, noiz izango da yauretxe ořen ondamena?
Bigarřena: noiz izango da mundu onen amaia, azke-
na? Aiek uste zuten bi gertakari oiek batean agitu-
ko zirala.

«Guduen ta gudu-otsen beñi adituko duzue, ta orduan ez beldur izan, ez izutu; ori agitu bear da auñena, baña oraindik ezta amaia (azkena).»

Gero esan zien: «Eñi bat bestearen aurka, yaurgo bat bestearen aurka yai-kiko dira. Lur-ikara aundiak, izuñiteak, goseteak izango dira bazteñetan, izu-kariak ta ezaupide gaitzak zeruan. Gu-zi ori miñen asiera besterik ezta.

157—Yazañiko zaizkizue...

(Mt. XXIV, 9-14; Mc. XIII, 9-13; Lc. XXI, 12-19)

«Ori agitu baño lenago, esturan yañi-ko zaituztee. Eskuak egotziko dizkitzute, yazañiko zaizkizue, sinagoga ta baitegietan sartu ta azoñiz yoko zaituztee, eñege ta agintarien auñera eramango zaituztee nere izenagatik, aien auñean aitor-egin dezazuen.

«Olakoak agitzen zaizkizuenean, ez egon kezketan ta ez auñetik gogoratzen ibili, zer esango duzuen, zer erantzun-

go duzuen; ordu artantxe burutara ematen zaitzuen, orixe esazue. Zuen etsai guziak ezin yarki ta ezin gogor egingo dioten bezelako mintzoa eta zuurtzia emango dizuet nik orduan. Ez-paitzerate zuek mintzo, Ats Sandua baizik.

Orduan lagun asko okertuko dira siñestean, elkañi iruzur-egin ta gofoto izango diote. Anaiak anaia ta aitak bere umea eriotzaren mendean yañiko dute; umeak yaikiko dira gurasoen aurka ta ilaraziko dituzte. Bai, zeron guraso ta senide ta aide ta adiskideak iruzur-egingo dizuete ta zuetako asko il egingo dituzte. Guziak iguinduko zaituztee nere izenagatik; baña zuen buruko ile bat ere ezta galduko. Azkar yasanez, gaizkatuko dituzue zuen animak.

Sasi-profeta asko azalduko dira, ta lagun asko okerbiderako dituzte. Gaix-takeria nausi dalako, askoren maitasuna oztuko da. Baña azkeneraño sendo irauten duena, orixe gaizkatuko da.

Eta leenik yaurgoaren Beñi-on au

mundu guzian predikatuko da efi gu-
zien aitoferatzat; orduantxe etoñiko da
azkena.

158—Asperkunde (mendekio)-egunak

(Mt. XXIV, 15-22; Mc. XIII, 14-20; Lc. XXI, 20-24)

Yerusalem gudamutil-taldez ingura-
turik ikusiko duzuenean, yakizue ordu-
an aren ondamera bertan dala. Daniel
Profetak esandako ondameraren nazka
bear eztan lekuan, toki sanduan dago-
ela ikusi dezazuenean (1), (irakurleak
gogo-eman dezala!), orduan Yudean di-
ranak bioaz igesi mendira, eta etxe-
gaindegian dana ez bedi bere etxera
sartu zerbait artzera; eta aloñean (so-
roan) dagona ez bedi atzera etoñi bere
soñekoa artzera.

Irian diranak aldegin dezatela, base-

(1) *Ondameraren nazka toki sanduan dagola, Yauretzea, Yainkoaren etxea, toki sandua itsusturik ta ondaturik ikusiko duzuenean. Eñomafak Yerusalem-eko yauretxean egin zituzten itsuskeriak ta nazkagarikeriak ukitzen ditu emen Yesusek aldeau-ñetik.*

rietan diranak ezditezela eñira sartu; oiek baitira asperkunde-egunak, idatzirik dagon guzia beteko baita orduan. Ai egun aietan aurdun diranai ta bulaña ematen dutenai! Otoitz egizue, zuen igesa neguan edo larunbatean agitu eztedin. (1)

Yainkoak egindako mundu au asiez-kerro izan eztiran ta izango ere eztiran bezelako estura-lañiak izango dira orduan. Ertxidura gaitza etorriko da lufalde guzi onetara, ta asañea eñi onen gañera. Batzuek ezpata-agoz yo ta eroriko dira, beste batzuek loturik eramango dituzte arotz-eñi guzietara ta Yerusalem oinkatuko dute atzeñitañak, atzeñien aldia igaro arte.

Yainkoak egun aiek laburtu ezpalitu, gizon bakar bat ere ezlitzake gaizkatuko (bizirik aterako). Baña Berak berexi dituen autetsiengatik laburtuko ditu egun aiek.

(1) *Larunbatean*. Yakiña da, larunbata yaieguna zala Yudentzat; eta egun ortan lan-egitea debekuzan bezala, debekuzan orobat bidali luzea egitea.

159—Gezuzeko kristo ta gezuzeko profetak

(Mt. XXIV, 23-28; Mc. XIII, 21-23)

Orduan inork esan badezaizue: Ona emen da Kristo, edo: Ara an da Kristo, ez sinetsi. Sasi-kristo ta sasi-profeta asko azalduko baitira, ezaupide ta mirari aundiak egingo dituzte, autetsiak berak, al baliteke, okerbidez eramateko erakoak. Oia bada, nik esan dizuet aldeauretik.

Esaten badizuite beraz: Ara, basalekuan da, ez yoan ara; Ara etxe barenan da, ez sinetsi. Tximista eguzki-aldean azaldu ta sartalderano ageri dan bezela, Gizasemearen etofera ere ola xe izango da. Saaskia (gorputz-ila) dagon lekura biltzen dira aanoak.

160—Gizasemearen azken etofera

(Mt. XXIV, 29-31; Mc. XIII, 24-27; Lc. XXI, 25-28)

Egun aietako esturen ondotik, bela-

xe izango dira ezaupideak eguzkian ta ilargianta izařetan. Eguzkia ilundukoda, ilargiak eztu bere argirik emango, izařak zerutik eroriko dira ta zeruko indařak asiko dira kolokan. Luřean naspila ta lařitasun aundia sortuko da yenden artean, itsaso-ugiiñen ořuak dirala bide. Lubil (lur-bira) guziari etoři bear zaizkion gauzen begira, belduřez igartuko dira gizonak, zeruko indařak (izařak) ere kolokan asiko dira ta.

Orduan agertuko da zeruan Gizasemearen ezaupidea (1); luřeko gizeli (eři) guziak mařaska egingo dute, eta ikusiko dute Gizasemea ospe ta indar aundirekin zeruko odeietan datořela. Bere Aingeruak bidaliko ditu turutots ozenekin, ta bilduko dituzte aren autetsiak lau-aldeetatik, zeru-aieka batetik besteraño.

Gauza auek agitzen asten diranean, begira zazue ta zuen buruak goratu; urbil da zuen beřerospena.»

(1) *Gizasemearen* (Yesu-Kristo beraren) *ezaupide* ori, gurutze sandua da, Eliza-aitak uste dutenez.

161—Eguna ta ordua noiz?

(Mt. XXIV, 32-36; Mc. XIII, 28-32; Lc. XXI, 29-33)

Berdintza au esan zien: «Ikas zazue pikondoaren berdintza. Begira pikondoa ta gañerako zuaitzak. Aien adañak samurtu ta ostoak sortu ta ernamintzen diranean, uda urbil dala badakizue. Bereolaxe bada, gauza guzi oiek agitzen dirala ikusten duzuenean, yakizue *Gizasemea* urbil atarian dagola, Yainkoaren yaurgoa urbil dala.

Egiaz, nik diotsuet; Gizaldi au ezta suntsituko (ondatuko), guzi ori agitu arte (1). Zeru-luñak ondatuko dira, nere itzak beñiz eztira ondatuko.

Egun eta ordu artaz iñork eztaki ezer, ez zeruko Aingeruak, ez Semeak ere, Aitak bakañik baizik.

(1) «*Gizaldi onek*, orain bizi diran gizonak ikusiko dute guzi au gertatzen, ikusiko dute yauretxearen ondarena (ez ordea munduaren azkena». Andik ogei ta amazapien bat urtera ondatu zuten eromañak Yerusalem-eko yauretxe ura; geroztik bizi ziran oraño Yesus ezagutu zuten lagun asko.

162-- Noe-ren egunetan bezela...

(Mt. XXIV, 37-41)

Noe-ren egunetan bezela agituko da Gizasemearen etoferan ere. Ugolde aurreko egunetan, yendeak yaten eta edaten zuten, senartzen ta ezkontzen ziran, arik eta Noe kutxara sartu zan egunera arte; eta etziran zentzatu, ugoldea etoñi eta guziak atxitu zituen arte. Orelaxe izango da Gizasemearen etoferan ere.

Orduan bi lagun egongo dira aloñean (soroan); bat artuko da, ta bestea utziko. Bi emakume ariko dira eieran (eñotan) eiotzen; bat artuko da, bestea anutziko (1).

(1) Goizeñi aldean, etxetan izaten dira eskuz erabiltzen diran eiera (eñota) txikiak, egunean eguneko iriña egiteko. Lan ori emakumeak egiten zuten.—Or erakusten digu Yesu-Kristok, nola arapatuko gaituen eriotzak: gutxiena uste dugunean, gure lan ta egitekoen erdian. Eta orduan, bat (ongi prestaturik dagona) *artuko da* zerurako, bestea (ala eztagona) *utziko da* sulezerako.

163—Erne egon bada

(Mt. XXIV, 42; Mc. XIII, 35-37; Lc. XXI, 34-36)

Begira gero, ez gero zuen biotzak yan-edanez ta ordikeriaz ta lu'eko kez-kaz astundu, egun ura ustekabean eto-ri eztakizuen, xedera (lakio) bat beze-la; lubil osoan bizi diran guziai eto'riko zaie ta. Erne egon bada ta otoitz egin beti, etortzeko diran gauza oiei iges-egin ta Gizasemearen a'fean agertze-ko gai izan zaitezten.

Begira gero, erne egon ta otoitz egin, aldia noiz dan eztakizue ta. U'ru-tira yoateko bere etxetik aldegin zuen gizon batek bezela; eskubide osoa eman zien bere mirabeai, bakoitzari be-re eginbea'ra xedatu (berexi) zion, eta atezaiari erne egoteko esan zion. Erne egon beraz, ezpaitakizue zein ordutan eto'riko dan etxeko nausia, ilunaba'fean ala gauerdian, ala cla'ritean ala goize-an. Ustekabean eto'ri ta lo zaudetela a'rapatu zentzakete. Zuei diotsuedana, guziai diotset: Erne egon.

164—Beriz ere erne egon—Berdintzak

(Mt. XXIV, 43—XXV, 1-30)

Gogora zazue: baldin etxeko nausiak baleki, lapuía zer ordutan etoñiko zai-on, erne legoke noski ta ezluke bere etxea zulatzera utziko. Zuek ere erne egon bada, Gizasemea zer ordutan etoñiko dan eztakizue ta.

Nor ote da moñoi zintzo ta zuuía, bere nausiak bere etxadiaren gain yañi duena, bear dan aldian yatekoa eman dezaien? Zorionekoa moñoi ura, baldin bere nausiak, etxera etortzean, ori egi-ten ari dala arkitzen badu. Egiaz, nik diotsuet, bere ondasun guzien gain yañiko du.

Baña moñoi ura gaixtoa bada ta bere baitan esan badeza: Nere nausiak luzatzen du etortzea; eta bere moñoi-ki-deak yotzen ta mozkoñekin yan-edaten asi badadi, etoñiko da moñoi oñen nau-sia berak uste eztuen egunean ta berak eztakien orduan; ta erdibituko du, ta

itxuratién artean berexiko dio bere to-
kia; antxe izango da mañaska ta ortz-
kañaska.

Amar neskatxen berdintza. Beren
argiontziak artu ta senar-emaztegaiaren
bidera atera ziran amar neskatxen iru-
dikoa izango da orduan zeruko yaur-
goa. (1) Aietako bost zoroak ziran, ta
beste bostak zuuñak.

Bost zoroak beren argiontziak artu
zituzten, oliorik ordeá etzuten artu.
Zuuñak beñiz argiontziekin batean artu
zuten olioá ere beren oliontziétan. (2)

Senargaiak luzatzen baitzuen etor-
tzea, neskatxa guziak logaletu ta ge-
roenean lokartu egin ziran. Baña gau-
erdian oiu bat aditu zan: Oía, badator
senargaia, zoazte aren bidera. Orduan

(1) Yuduen artean, eztei-yaia añatsean egiten
zan. Andregaiá bere etxean egoten zan ederki be-
fegindurik (apaindurik), senargaia bere eske noiz
etoñiko zan begira. Berarekin egoten ziran bere
gazte-lagunak, argiontziak eskuétan zituztela, se-
nargaia etortzen zanean, ezkonbeñiai beren bizitegi-
ra laguntzeko ta argi-egiteko kañika ilunetan barna.

(2) Argiontzi aiek txikiak ziran ta ango olioá las-
ter akitzen zan, oñegatik maiz bete bear.

yaiki ziran neskatxa guzi aiek eta beren argiontziak xuxendu zituzten.

Baña zoroak esan zieten zuuñai: Iguzue zuen olio ortatik, gure argiontziak itzaltzen dira ta.

Zuuñak erantzun zieten: Oberenean ezta naikoa izango guretzat eta zuentzat; obe da saltzalengana yoan ta erosi egiten baduzue.

Aiek erostera yoan ziran bitartean, etoñi zan senargaia, ta gertu zeudenak sartu ziran arekin ezteietara ta atea itxi zan.

Geroago etoñi zrian gañerako neskatxak ere ta esan zuten: Yauna, Yauna, idiki zaiguzu.

Arek ordea erantzun zien: Egiaz, nik diotsuet, etzaituztet ezagutzen.

Erne egon beraz, ez eguna ta ez ordua eztakizue ta.

Talentuen berdintza. Urutira yoan nai izan zuen gizon batekin agitu zana agituko da orduan. Deitu zituen bere moñoiak eta bere ondasunak aiei eman zizkien. Bati eman zizkion bost talentu,

besteari bi, besteari bat, bakoitzari bere eskuantzearen ariora. (1) Gero aldegin zuen.

Bost talentu artu zituena yoan zan, garatz-egin zuen aiekin ta beste bost irabazi zituen. Bi talentu artu zituenak orobat beste bi irabazi zituen. Talentu bat artu zuena beñiz yoan zan ta luñean zulo bat egiñik, an ortzi (gorde) zuen bere nausiaren dirua.

Andik aldi luzearen ondoan itzuli zan moñoi aien nausia, ta aiekin kontuak garbitzen asi zan. Urbildu zitzaion bost talentu artu zituena, beste bost talentu eskañi zizkion ta esan zion: Yauna, bost talentu eskuratu zenizkidan; ona emen, beste bost talentu irabazi dizkit.

Bere nausiak esan zion: Ots, moñoi on ta zintzoa, gauza gutxietan zintzo izan zeralako, gauza askoren gain yafiko zaitut. Sar zaite zure nausiaren pozera.

(1) *Talentua*, balio aundiko diru bat zan.

Urbildu zitzaion bi talentu artu zituen ere ta esan zion: Yauna, bi talentu eskuratu zenizkidan; ona emen, beste bi irabazi ditut.

Ots, moñoi on ta zintzoa! esan zion nausiak; gauza txikietan zintzo izan zeralako, gauza askoren gain yañiko zaitut. Sai zaite zure nausiaren pozera.

Azkena urbildu zitzaion talentu bat artu zuena ta esan zion: Yauna, bada- kit gizon gogoña zerala. Uzta-egiten duzu erein eztuzun tokian, ta biltzen duzu banatu eztuzun tokian. Oregatik beldurturik, yoan nintzan ta lurpean ortzi nuen zure talentua. Ona emen duzu zurea dana.

Orduan bere nausiak erantzun zion: Moñoi gaixto ta alpeña, ba-ekien nik erein eztudan tokian uzta-egiten dudala ta banatu eztudan tokian biltzen dudala? Oregatik ezafi bear uen nere dirua diru-maian (bankuan), tanik, atzera etortzean, nere dirua obariekin yasoko nian. Ken zaiozue beraz talentu ori ta emaioszue amar talentu dituenari.

Duen edozeñi emango baitzaio ta gain-
dizka izango du; eztuenari ordea due-
na ere kenduko zaio. Moñoi alper ori
kanpoko ilunbetara egotzazue; an izan-
go da mañaska ta ortz-kañaska.

165—Azken-epaiketa (juizioa)

(Mt. XXV, 31-46)

Gizasemea bere ospean Aingeru gu-
zien erdian etofiko danean, eseriko da
bere ospezko alkian. Aren auñera bil-
duko dira gizenda (giza-añaza) guziak,
eta berak elkañengandik berexiko ditu,
artzaiak bere ardiak akeñetatik berex-
ten dituen bezela. Ardiak bere eskui-
aldean ta akeñak bere ezker-aldean ya-
ñiko ditu.

Orduan esango die eñegeak bere es-
kui-aldekoai: Atozte, nere Aitaren be-
deinkatuok, munduaren asieratik zuen-
tzat gerturik dagoen yaurgoaz yabetu
zaitezte;

gose izan bainintzan, ta zuek yatera

eman zenidaten,
egafi nintzan, ta zuek edatera eman
zenidaten,
afotza nintzan, ta zuek aterbea eman
zenidaten,
bilutsik nengoen, ta yantzi ninduzu-
ten,
eri nintzan, ta ikertu ninduzuten,
baitegian (kartzelan) nengoen, ta
etofi zintzaizkidaten.

Orduan zuzentsuak galdegingo dio-
te: Yauna, noiz ikusi zaitugu gosez, ta
eman dizugu yatera; egafiz, ta eman
dizugu edatera? Noiz ikusi zaitugu
afotz, ta eman dizugu aterbea; bilu-
tsik, ta yantzi zaitugu? Noiz ikusi zai-
tugu eri edo baitegian, ta yoan gatzai-
kizu ikustera?

Eregeak erantzungo die: Egiaz, nik
diotsuet, nere anai auetako txikienari
egin diozuena, neroni egin didazue.

Gero esango die bere ezker-aldekoai
ere: Alde nigandik, madarikatuok, dea-
bruarentzat eta bere aingeruentzat ger-
turik dagoen betiko sura;

gose bainintzan, ta zuek etzenidaten
yatera eman,
egañi nintzan, ta etzenidaten eda-
tera eman,
aíotza nintzan, ta etzenidaten ater-
berik eman,
bilutsik nengoen, ta ez ninduzuten
yantzi,
eri ta baitegian egon nintzan, ta etzi-
ñaten etoñi ikustera.

Aiek ere galdegingo diote orduan:
Yauna, noiz ikusi zaitugu gosez edo
egañiz edo aítotz edo bilutsik edo eri edo
baitegian, eta eztizugu mirabe-egin?

Berak erantzungo die: Egiaz, nik
diotsuet, onako txikitxo auetako bati
egin eztiozuena, neri ere eztidazue
egin.

Eta auek betiko oñazetara yoango
dira, zuzentsuak beñiz betiko bizira.»

**166—Jesus ta atzeritarak—Jesusen
mintzaldia**

(Io. XII, 20-36)

Yaiegunean Yainkoa yaurestera (adoratzera) igo ziranen artean baziran atzeritar batzuek. (1) Oiek urbildu zitzaizkion Filipo-ri (Galilea-ko Betsaida-erikoa zan Apostolu au) ta eske au egin zioten: «Yauna, guk Jesus ikusi nai genuke.»

Yoan zan Filipo, ta Andrea-ri esan zion; Andrea-k eta Filipo-k beñiz Yesusi esan zioten.

Yesusek erantzun zien: «Gizase-mea ospatu dedin ordua etorri da. Egiaz, egiaz, nik diotsuet, gari-alea luñera erori ta il ezpadadi, bera bakarik gelditzen da; il badadi beñiz, ale asko ekar-

(1) Atzeritar aiek etorkiz, yaiotzez etziran yuduak, baña auen erlijioa artu zuten, egiazko Yainko agan siñesten zuten, ta Yerusalem-era yoanak ziran, yaiotzezko yuduak bezela yainkoa ango yauretxean yaurestera ta opariak eskeintzera.

tzen ditu. (1) Bere bizia maite duenak galtzen du; bere bizia mundu onetan iguin duenak beñiz, betiko bizirako gordeko du.

Nere mirabe izan nai duena, betor nere ondotik; ta ni nagon tokian, nere mirabea ere antxe bego. Nere mirabe dana ospatuko du nere Aitak. Orain nere anima nasirik dago, ta zer esango dut? Aita, gaizka nazazu ordu onetatik? Baña ain zuzen ere, ortarako etoñi naiz ordu onetara. Aita, ospa zazu zere izena». (2)

Orduan oiu bat egin zan zerutik: «Ospatu dut eta beñiz ere ospatuko dut.»

An zegoen gizaldeak, oiu ori entzunik, ostots (trumoi) bat egin zuela uste

(1) *Gari-ale* ori Yesus bera da; Yesusek ere, gari-aleak bezela, il bear du, gero arnari (frutu) ugaria ekartzeko, gizon guziak beferosteko.

(2) Bat-batean gogora datorkio Yesusi bere eriotza, ta gogorapen oñek ikarazten du guzia. Baña Yainkoaren naia ori dan ezkerro, Yesus bereala yartzen da Yainkoaren naiera, aragiaren bortxa bada ere.

zuen. Beste batzuek beriz zioten: «Aingeru bat mintzatu zaio.»

Yesusek ordea erantzun zien: «Oiu ori ezta neregatik egin, zuengatik baik. Orain da munduaren epaiketa; orain mundu onen buruzagia kanpora egotziko da. (1) Nik beriz, luřetik goratzen banaute, guziak neregana erakariko ditut.» Itz oietaz adierazi zuen, zer eriotzez il beara zan. (2)

Gizaldeak erantzun zion: Guk legean ikasi dugu, Mesia betiko biziko dala. Nola diozu bada zuk: Gizasema *gurutzean* goratu beara da? Nor da Gizaseme ori?»

Yesusek erantzun zien: «Oraindik aldi-labuřez zuekin duzue argia. Zabiltzate, argia duzuen arte, ilunbeak atxistu etzaitzaten; ilunbetan dabilenak ez-

(1) *Munduaren buruzagi* ortaz Satan edo deabrua adiarazten du, ordurarte orixe izan baitzan ziñez gizon geienen nausi ta agintaria, bere mendean zeuzkala. Bana laster akituko da ofen yaurgoa; Yesusek bere eriotzaz garaituko du ta kenduko dio gizonen gain duen eskubide ori.

(2) *Luřetik goratu* edo berdin dana, *gurutzera goratu*, *gurutzean yosi*.

paitaki nora dioan. Argia duzuen arte, siñetsi zazue argian, argiaren ume izan zaitezten.»

Itz oiek esandakoan, aldegin zuen Yesusek ta aien auřetik gorde egin zan.

167—Yuduen siñesgogortasuna

(Io. XII, 37-50; Lc. XXI, 37-38)

Aien auřean ainbeste mirari egin zituenařen, etzuten ařengan siñesten. Ořela bete zan Isaia-ren esan ura (Is. LIII, 1):

Yauna, nork siñesten du guri entzundakoa,

nori agertu zaio Yaunaren besoa?

Ořegatik etzezaketan siñetsi, geiagore esan baitzuen Isaiak (Is. VI, 9):

Arek itsutu ditu aien begiak

ta aien biotzak gogortu,

beren begiz ikusi eztezaten,

beren biotzez ulertu eztezaten

ta onera itzuli eztitezen

ta sendatu eztitzadan. (1)

Au esan zuen Isaiak, aren ospea ikusi ta artaz mintzatu zanean.

Alaz ere, aitzindarien arteko askok ere siñesten zuten arengan; baña Farisauen belduñez etzuten agerian aitortzen, sinagogatik egotzi (bota) ez zitzaten. Yainkoagandiko ospea baño naiago izan zuten alegia gizonengandiko ospea.

Yesusek beñiz oiu egin ta esan zuen: «Nigan siñesten duenak eztu nigan siñesten ni bidali nauenagan, baizik; eta ni ikusten nauenak ni bidali nauena ikusten du. Ni argi-aintzu etofí naiz mundura, nigan siñesten duenik bat ere ibili eztedin ilunbetan.

Iñork nere itzak aditu bai, baña begiratzen (gordetzen) ezpaditu, nik ez tut alakoa epaitzen (juzgatzen), ni ezpainaiz etofí mundua epaitzera, mun-

(1) Gizonak Yainkoaren graziari yarkitzen ta buru-egiten dionean, gero ta geiago itsutzen ta gogortzen da: ta azkenean naita ere ezin siñetsi dezakela ta ezin onera biurtu ditekela arkitzen da.

dua gaizkatzera baizik. Ni gutxietsi ta nere itzak ez artu egiten dituenak badu bere epailea; nik esan dudan itzak, oñetxek epaituko du azken-egunean. Ni ezpainaiz nere baitatik mintzatu; ni bidali nauen Aitak agindu dit, zer esan ta zer erakutsi bear dudan. Badakit aren agindua betiko bizia dala. Geroztik, nik diodana nere Aitak agindu didan bezelaxe diot.»

Oñela ari izaten zan Jesus egunez, yauretxean irakasten; gauez beñiz aldegiten zuen ta Olibadi deritzan mendian egoten zan. Goizean goiz gizalde guzia yauretxera biltzen zan ari entzuztera.

168 — Yuduak Yesusen aurka elkar-artzen. Yuda-ren egiunea (tratua)

(Mt. XXVI, 1-16; Mc. XIV, 1-11; Lc. XXII, 1-6)

Orantzagabeko ogien yai, Pazkoa deritzana (1) urbilduz zioan, bi egunen

(1) *Orantzagabeko ogien jaia.* Pazko-bezperatik asi ta ondoko aste guzian Yuduak etzuten ogi asti-

buruan zan. Yesusek itzaldi oiek amaitu zituenean, esan zien bere ikasleai: «Badakizue bi egunen buruan Pazkoa dala, ta Gizasemea *etsaien* eskuetan yañiko dute, gurutzean yosteko.»

Orduan Apaiz nausi ta Lege-irakasle ta efiko Zañenak bildu ziran Kaifa zeritzan Apaiz nausiaren yauregian, ta elkañekin yarduki zuten, Yesus atzipez nola atxitu ta ilko zuten. Eñiaren beldur ziran ordea ta argatik zioten: «Eztezagun yai-egunean egin, eñiaren erdian matxinadaen bat sortu eztedin.»

Orduan Satan sartu zan izengoitiz Iskariote zeritzan Yudaren baitan; ama-bietako bat zan ori. Yoan zan bada Apaiz nausiengana, Yesus aiei saltzera.

Esan zien: «Zer eman nai didazue, nik zuen eskuetan yartzen badut?» Ta itzegin zuen Apaiznausi ta agintariekin, zer bidez yañiko zuen Yesus aien eskuetan.

Aiek poztu ziran beñi ortaz eta dirua

rik (yaikirik) yaten, orantza edo lemami gabekoa bakarrik yaten zuten.

emango ziotela agindu zioten. Ogei ta amar zilar-diru eskañi zizkioten. Arek itzeman zuen, ta orduezkero Yesus zalapartarik gabe aien eskuetan yartzeko eskai (mugon) bila zebilen.





IRUGAREN ZATIA

YESUSEN NEKEAK ETA ERIOTZA

169 Pazko-afaria

(Mt. XXVI, 17-20; Mc. XIV, 12-17; Lc. XXII, 7-18)

Iritxi zan Orantzagabeko ogien yaia, Pazko-bildotsa il bear zan eguna. Egun ortan bada, Yesusek bidali zitu-en bere ikasletako bi, Pedro ta Yoan, esanez: «Zoazte, atondu (prestatu) zaiguzue Pazko-afaria, yan dezagun.»

Ikasleak galdegin zioten: «Non naiduzu, atondu dezaizugun?»

Yesusek erantzun zien: «Zoazte iri-ra. Bertara sartzean, batuko zaitzue txantxil bat ur daraman gizon bat. Zoazte aren ondotik bera sartzen dan etxera, eta ango etxeko-nausiari esaiozue: Auxe diotsu Maisuak: Nere aldia urbil da, zure baitan egin gogo dut Pazko-afaria nere ikaslekin. Non da nik nere ikaslekin Pazko-bildotsa yateko bear dudan gela? Arek erakutsiko dizue gizategi (*saia*) aundi tresnatua; antxe atondu zaiguzue.»

Yoan ziran beraz ikasleak; irira sar-

tzean arkitu zuten Yesusek esan zienez; Yesusek agindutakoa egin zuten ta Pazko-afaria atondu zuten.

Ilunabañean yoan zan bere amabi ikaslekin ta ordua etoñi zanean, eseri zan maiera ta berarekin amabi apostoluak. Yesusek esan zien:

«Nere nekaldia asi baño lenago, Pazko-afari au zuekin yateko irikitzen nengo gogo biziz. Nik esaten dizuet, ez tut au yango, Yainkoaren yaurgoan bete dedin arte.»

Edal-ontzia artu ta eskeñak eman ondoan esan zien: «Ar zazue ta zuen artean uzi (banatu) ezazue. Nik esaten dizuet: Eztut gaurgero matsaren arnari onetatik edango, Yainkoaren yaurgoa etoñi arte.» (1)

(1) Bi aldiz adiarazten du or Yesusek, au dala berak luñean egiten duen azken Pazkoa; baña alaber erakusten du, gero zeruan bere Aitaren yaurgoan yan ta edango duela beste Pazko bat, egiazko Pazkoa, esan-nai-da, betiko zorientasuna.

170—Apostoluen eztabaida.

(Lc. XXII, 24-30)

Eztabaida bat ere sortu zan apostoluen artean, beren arteko aundiena zein ote zan. Yesusek esan zien:

«Atzerien elegeak aien nausi dira, ta beren agintedunai *ongile* izena ematen diete. Zuen artean ez bedi orela izan; aitzitik, zuen artean aundiena dana txikiena bezala egin bedi, ta aitzindaria, mirabea bezala. Alabaña, zein da aundiago: maiera eseria dagoena ala mirabe-egiten (serbitzen) duena? Ez ote maiera yaña dagoena? Ni zuen artean mirabea bezela nago ba.

Zuek nerekin iraun duzue nere be-
ar-orduetan; eta nik gertu daukatzuet
yaurgoa (eheinua), Aitak neri gertutu
didan bezala, nere yaurgoan yan ta e-
dan dezazuen, ta yauralkietan eseri
zaitezten, Israëlgo-amabi gizeliak (lei-
nuak) epaitzeko.»

171—Yesusek Apostoluen oñak ikuzten.

(Io. XIII, 1-20)

Pazko-yaiaren aufeguna zan. Yesusek bazekien, bera mundu onetatik Aitarengana yoateko ordua etoña zala. Eta munduan ziran beretañak maiteizan baitzituen, azkeneraño erakutsi zien bere onginaia.

Afaltzen ari ziran. Orduko, Simon-en seme Yuda Iskarioteri burutara eman zion deabruak Yesusen saltzeko asmoa. Yesusek bazekien, Aitak gauza guziak bere eskuetan utzi zituela, Yainkoagandik atera zala ta Yainkoagana zioala beñiz; alaz ere, yaiki zan afaritik, bere soingañekoa erantzi zuen, oial bat artu ta geñian lotu zuen. Gero azpil batera ura isuri ta, asi zan bere ikaslen oñak ikuzten (garbitzen) ta geñian loturik zeukan oialaz txukatzen.

Yoan zan bada Simon Pedrorengana. Onek esan zion: «Yauna, zuk neri oñak ikuzi?»



Yesusek erantzun zion: «Nik dagidana zuk eztuzu orain ulertzen, geroago ulertuko duzu.»

Pedrok beñiz ere esan zion: «Zuk eztidazu egun-ta-beti oñik ikuziko.»

Yesusek erantzun zion: «Ikuzten ezpazaitut, eztuzu nerekin ikustekorik izango.»

Simon Pedrok atzera esan zion: «Ortara ezkero, Yauna, ez nere oñak bakarrik, baita nere eskuak ta burua ere.»

Yesusek esan zion: «(Gorputz osoa) ikuzi duenak, oñak besterik garbitu bearik eztu, orduan guziz garbi dago. Zuek ere garbi zaudete, baña ez guziak.» Ezagutzen baitzuen bere saltzalea, ofegatik esan zuen: Etzaudete guziak garbi.»

Oñela aien oñak ikuzirik, bere soingañekoa beñiz artu zuen, ta maiera eseri zanean, esan zien; «Ba al dakizue nik egin dizuedana? Zuek Maisu ta Yaun deitzen nauzue; ta zuzen zaudete, alaxe naiz ta. Geroztik, nik Yaun ta Maisu naizen onek zuen oñak ikuzi ba-

ditut, zuek ere elkarí oñak ikuzi bear dizkiozue. Ikasbidea eman dizuet, zuek egin dezazuen, nik egin dizuedan bezela.

Egiaz, egiaz, nik esaten dizuet, moíoa ezta bere nausia baño aundiago, ezta ere Bidalia bere Bidaltzalea bañoago. Au ulertzen baduzue ta oíela egi-ten baduzue, zorionekoak zerate.

Eztiot ori zuek guziotaz. Badakit nik zein autatu ditudan. Baña bete bear da arako Idazki ura: Nerekin batean ogia yaten duenak goratu du nere aurka bere orpoa (Ps. XL, 10). Orain bereon, agitu baño lenago esaten dizuet, gero agitu dedinean siñetsi dezazuen ni naitzela ori.

Egiaz, egiaz, nik diotsuet; nik bidalitakoa ongi-artzen duenak ni ongi-artzen nau; ta ni ongi-artzen nauenak ni bidali nauena ongi-artzen du.»

72—Yesusek Yudaren azpikeria agertzen

(Mt. XXVI, 21-25; Mc. XIV, 18-21; Io. XIII. 21-22)

Itz oiek esandakoan, Yesus naasi zan bere bañenean eta aitoñera auxe egin zuen: «Egiaz, egiaz, nik diotsuet, zuetako batek, nerekin yaten ari dan batek yañiko nau *etsaien* eskuetan.»

Aiek guziz atsekabetu ziran. Elkañi begira yañi ziran ta etzekiten nortaz zion ori. Ta bata bestearen ondotik asi zitzaizkion galdegiten: «Yauna, ni al naiz?» Berak erantzun zien: «Amabietako batek, nerekin batean ogia eñatiñuan bustitzen duen batek yañiko nau etsaien eskuetan.

«Gizasemea badioa emendik, artaz idatzia dagoenez; baña ai Gizasemea etsaien eskuetan yañiko duen gizonari! Obe luke alakoak yaio, ezpalitz.»

Orduan Yuda bere saltzaleak ere galdegin zion: «Maisua, ni al naiz?»—Yesusek erantzun zion: «Bai, eñorek esan duk.»



Ikasletako batek, Yesusek maite zuenak, bere burua Yesusen bular gañean etzanik zeukan. Oñeri keñu egin zion Simon Pedrok eta galdegin zion: «Nortaz dio ori?»

Arek eratzan zuen beñiz bere burua Yesusen bular gañean ta esan zion: «Yauna, nor da?»

Yesusek esan zion: «Nik ogia busti ta emango diodana, orixe da.» Eta ogia *eñatilian* busti zuen ta Simon-en seme Yuda Iskariote-ri eman zion. Otamen oñen ondotik, sartu zan Satan oñen baitara. Yesusek esan zion: «Egin bear duzuna egizu laster.»

Maikideetako batek ere etzuen erdetzi (ulertu), zergatik esan zion ori. Yuda baitzan beren diru-zaia, batzuek us-te zuten, au esan ziola: «Eros zazu yai-egunerako bear duguna,» edo bes-tela beartsuai zerbait emateko.

Yudak, otamen ura artu ondoan, aldegin zuen bereala. Gaua zan.

Ura atera zanean, esan zuen Yesusek: «Oraintxe ospatu da Gizasemea,

ta Yainkoa ospatu da arengan. Yainkoa arengan ospatu bada, Yainkoak ere ospatuko du ura bere baitan, ta laster ospatuko du.»

173—Yesusek Eukaristia sortzen du

(*Mt. XXVI, 26-29; Mc. XIV, 22-25; Lc. XXII, 19-20; I Cor. XI, 24-26*)

Afaltzen ari zirala, Yesusek ogia artu zuen, eskeñak eman, bedeinkatu, autsi ta bere ikasleai eman zien esanez: «Artu ta yan zazue; au da nere gorputza, zuengatik ematen dan nere gorputza. Egizue au nere oroitzapenetan.»

Bereolaxe afalondoan artu zuen edal-ontzia ta eskeñak eman ondoren, eman zien esanez: «Edan zazue guziok onetatik. Auxe da nere odola, ongunde befiaren odol, zuengatik ta guziengatik pekatuen barkapenerako isuriko dana.

Nere oroitzapenetan egizue au, edaten
duzuen guzietan.» (1)

Edan zuten beraz guziak.

174—Elkar maita zazue

(Io. XIII, 33-35)

«Enetxoak, oraindik aldi labuñez zue-
kin nago. Bilatuko nauzue, eta Yuduei
esan niena, esaten dizuet zuei orain: Ni
noan tokira ezin etoñi zaitezketekete zuek.

Agindu beñi bat ematen dizuet: El-
kar maita zazue! Nik maite izan zaituz-
tedan bezelaxe maita zazue elkar. El-
kar maite baduzue, ortan ezagutuko
dute guziak, nere ikasleak zeratela.»

(1) Lenago, Yainkoak egin zuen Israeldarekin on-
gunde, elkartasun edo adiskidetasuna, Moise bitar-
teko zala, eta ongunde ura sendortzeko, Moisek ze-
kor bat Yainkoari opaldu ta aren odolaz ihiztatu zi-
tuen Israeldarek ta beren gauza guziak. Orain Yain-
koak beñitu nai du ongunde ura gizon guziekin, ta
beñitzen du Yesusen bitartez, eta ongunde beñi au
sendortzeko, Yesusek isuri bear du bere odola, gi-
zon guzien onerako.

175—Pedro-ren erorikoa aldeauretik esaten

(Io XIII, 36-38; Lc. XXII, 21-34)

Simon Pedrok esan zion: «Nora zoaz?» Yesusek erantzun zion: «Ni noan tokira ezin yafaiki zakizket orain, geroago yafaikiko zakizkit.»

Pedrok esan zion: «Zergatik ezin yafaiki nakikezu orain? Yauna, zurekin baitegira (kartzelara) ta eriotzara yoa-teko gertu nago. Nere bizia emango dut zuregatik.»

Yesusek erantzun zion: «Zure bizia neregatik emango duzula? Egiaz, egiaz, nik esaten dizut, Pedro: Gaur olañak yo orduko, iru aldiz ukatu izango nauzu. Simon, Simon, zuek garia bezela galbaatzeko eskubidea eskatu du Satanek. Nik ordea zure alde otoitz egin dut, zure siñestea akitu eztedin; ta zuk noizpait itzulirik sendortu itzazu zere anaiak.» (1)

(1) Yesusek otoitz egin du, Pedrok siñestea galdu eztezan ta siñeste ortan sendo egon dedin. Bes-

176—Ona emen bi ezpata...

(Lc. XXII, 34-38)

Gero esan zien: «Nik bide-zoño ta dirutoxa ta oskirik (zapatarik) gabe bidali zinduztedan aldi artan, ezeren beańik izan al zenuten?»

«Ezeren beańik ez» erantzun zioten.

Ta berak beńiz: «Orain ordea bide-zoño bat duenak artu dezala, berdin dirutoxa ere; ta eztuenak, bere soinpekoa saldu ta ezpata bat erosi dezala. (1) Alabaña, nik esaten dizuet: Nigan bete bear da arako idatzirik dagon ura: Gaiz-

te ońenbeste egin bear du gero Pedrok, Elizaren buru gelditzen danean; gańerako Apostoluak ta kristau guziak sińestean sendortu egin bear ditu, ta ori bera egin bear dute gero bere ondorengo Aita-Sanduak munduaren azkeneraño izango diran kristau guziekin. Oregatik Aita-Sanduak eztezake utsegin sińesteko gauzaen bat erakusten duenean.

(1) Apostoluak orain arte ederki, kezkarik gabe bizi izan dira beren eńitańen artean, etzuten diru beańik, nonnai ostatua ematen zieten gogo onez. Emendik auńera ordea ezta ola izango; galbide ta ańisku aundietan arkituko dira, etsai amońatuen artean ibili beańko dute, ta argatik beren neuńiak artu beańko dituzte, ongi ateratzeko.

kigilen lefoan yafi dute. Izan ere, neri dagokidana oraintxe amaitzen da.»

Aiek esan zioten: «Yauna, ona emen bi ezpata.»—Arek erantzun zien: «Aski da.»

177—Yesusen afalondoko itzaldia—Afaldegitik ateratzen da

(Mt. XXVI, 30; Mc. XIV, 26; Lc. XXI, 39; Io. XIV, 1-31)

«Zuen biotza eztedila naasi. Yainkoagan siñetsi zazue, ta nigan ere siñetsi zazue. Nere Aitaren etxean egoitza asko dira. Ola ezpalitz, esango nizuekean, zuei tokia atontzera noa ta. Yoan ta zuei tokia atondu (prestatu) ondoan, etorriko naiz beñiz ta neregana artuko zaituztet, ni nagoen lekuan egon zaitetzen zuek ere. Nora noan badakizue, ta arako bidea ere badakizue.»

Toma-k esan zion: «Nora zoazen ez-takigu, ta nola dakikegu bidea?»

Yesusek erantzun zion: «Ni naiz bi-

dea, egia ta bizia. Inork ezin diteke Aitarenganatu, nere bidez ezpada. Ni ezagutzen baninduzue, nere Aita ere ezagutuko zenukete. (1) Gaurgero ezagutuko duzue, ikusi ere egin duzue ta.»

Filipo-k esan zion: «Yauna, erakutsi zaiguzu Aita, ori aski dugu.»

Yesuske erantzun zion: «Onen luzarozuekin egon naiz, eta oraño ez nauzue ezagutu; Filipino? Ni ikusten nauenak Aita ere ikusten du. Nola diozu bada zuk: Erakutsi zaiguzu Aita? Ez al duzu siñesten ni Aitagan nagola ta Aita nigan dagola? Esan dizkitzuedan itzak eztitut nere baitatik esan; ta nigan dagon Aitak egiten ditu nere lanak ere. Siñetsi zaidazue ni Aitagan nagola ta Aita nigan dagola; ezperen, lanengatik siñetsi zazue.»

Egiaz, egiaz, nik diotsuet: Nigan siñesten duenak egingo ditu nik egiten ditudan lan berak, are aundiagoak ere

(1) Aita eta Semea izatez berdiñak diran ezkerro, Semea ongi ezagutu duenak Aita ere ezagutzen du. Apostoluak etzuten ordea Jesus ongi ezagutzen, etzekiten oraño Aitarekin izate-berdiñekoa zala.

egingo ditu, ni Aitagana bainoa. (1)

Aitari nere izenean eskatzen diozuen guzia egingo dut, Aita Semeagan ospatu dedin.

Maite banauzue, nere aginduak begira itzazue. Ta nik otoitz egingo diot Aitari ta beste Aialdeko bat (2) emango dizuet, egun-ta-beti zuekin egon dedin; munduak, ikusten ta ezagutzen eztuelako artu ezin dezaken Atsa. Zuek ordea ezagutuko duzue, zuekin izan ta zuen baitan egongo baita.

Etzaitzuet umezurtz utziko; etoñiko natzaizue. Oraindik aldi labur bat, eta munduak ez nau geiago ikusiko; zuek beñiz ikusiko nauzue, ni bizi bainaiz eta zuek ere biziko zerate. Egun artan ezagutuko duzue, ni Aitagan nagola, zuek nigan zaudetela ta ni zuengan

(1) Izan ere, Apostoluak Yesusek baño gauza aundiagoak egin zituzten. Yesusek Palestinan bakarrik ibili ta predikatu zuen; Apostoluak beñiz mundu guzian predikatu zuten. Yesusek Yudu-mordoxka bat besterik etzuen bildu bere ingurura; Apostoluak beñiz yentil-erri guziak Elizara ekañi zituzten.

(2) *Aialdekoa*, laguntzalea, gure alde-egilea, mintzaidea (abogado).

nagola. Nere aginduak iduki ta begiratzzen dituenak, oretzek nau ni maite; ni maite nauena beñiz maite du nere Aitak, eta nik ere maite izango dut eta nere burua agertuko diot.»

Yuda-k, Iskariote-k ez, besteak esan zion: «Zer dala ta erakutsiko diguzu guri zere burua, ez ordea munduari?»

Yesusek erantzun zion: «Ni maite nauenak nere itza begiratuko (gordeko) du; Aitak maite izango du ta arengana yoango gera ta arengan egongo gera egotez. Ni maite ez nauenak ordea ez-titu nere itzak begiratzzen; ta entzun duzuen itza ezta nere, ni bidali nauen Aitarena baizik.

Au esan dizuet zuekin nagon bitartean. Aialdekoak, Aitak nere izenean bidaliko dizuen Ats Sanduak irakatsiko dizue guzia ta gogora ekañiko dizue nik esandako guzia.

Pakea uzten dizuet, nere pakea ematen dizuet; eztizuet nik ori ematen munduak ematen duen bezela. Zuen biotza eztedila naasi ez beldur izan.

Entzun duzue auxe esan dizuedala: Banoa ta etoriko natzaizue beñiz. Maite baninduzue, poztuko ziñakete, Aitarengana noalako, Aita ni baño aundiago da ta. Eta orain, agitu (gertatu) baño lenago esan dizuet, agitzen danean siñetsi dezazuen. Gaurgero ez tut itz askorik egingo zuekin; mundu onen buruzagia badator ta; nigan ez tu esku biderik. Baña munduak ez agutu bear du, nik Aita maite dudala, ta Aitak agindu didanez egiten dudala.»

Ots! txuti zaitezte, goazen emendik.»

Eta esker-eresia esan ondoren (1), atera zan, ta oitura zuenez Olibadi mendira yoan zan. Bere ikasleak arekin yoan ziran. (2)

(1) Pazko-afaria amaitu ondoren, otoitz eta eresi (kanta) yakin batzuek esaten ziran, Yainkoari eskerak emateko.

(2) Emendik auferako itzaldi ori, afaldegitik Getsemani-rako bidean esan zuen Yesusek.

178—Yesusen afalondoko itzaldia (II)

(Io. XVI, 1-XV, 1-30)

Ni naiz egiazko matsondoa, ta nere Aita mastizaia da. Nigan arnaririk (fruturik) ekartzen ez tuen matsadaña eba-ki egiten du; arnari ekartzen duena be-ñiz garbitzen du, are arnari geiago eka-ñi dezan. Zuek garbi zerate onezkero, nik esan dizuedan itza dala bide. Zau-
dete nigan, ta ni zuengan egongo naiz. Matsadañak eztezake berez arnaririk eman, matsondoan ezpadago; ezta zuek ere nigan ezpazaudete.

Ni naiz matsondoa, zuek matsada-
ñak. Nigan dagoena eta ni bere baitan nadukanak, oñetxek ematen du arnari asko, nigabe ezer ezin dagikezue ta. Nigan eztagoena kanpora egotziko da matsadaña bezela, ta igartuko da; gero bildu ta sura egotziko dute ta eñeko da. (1)

(1) Ori berdintza edeña! Yesu-Kristo matsondoa, gu matsadañak. Guk zerurako ezer onik egin nai ba-

Nigan bazaudete ta nere itzak zuengan badaude, nai duzuen guzia eskazazue ta emango zaitzue. Ofela ospatzen da nere Aita: zuek arnari asko ekañiz eta nere ikasleak izanez.

Nere Aitak maite izan nauen bezela maite izan zaituztet nik ere. Iraun zazue nere onerizkoan (maitasunean). Nere aginduak begiratzan badituzue, nere onerizkoan zaudete, nik ere nere Aitaren aginduak begiratu ta aren onerizkoan nagoen bezela. Guzi au esan dizuet, nere poza zuengan izan dedin, ta zuen poza bete-betea izan dedin.

Auxe da nere agindua: Elkar maitazazue, nik maite izan zaituztedan bezala. Bere adiskidengatik bere bizia ematen duenak baño maitasun aundia-gorik iñork eztu. Zuek nere adiskide zerate, nere aginduak egin badituzazue. Gaurgero etzaituztet mirabe deituko, mirabeak ezpaitaki, bere nausiak zer

dugu, Yesu-Kristorekin baturik egon bear Yainko-graziaz ta maitasunaz; arekin baturik ezpagaude, adar ustelak gera; eta guziok badakigu zer egiten dan zuaitz-adar ustelekin: moztu ta sutan ere.

egiten duen. Adiskide deitu zaituztet, eta yakiñarazi dizkitzuet nere Aitari entzundako guziak.

Eznauzue zuek ni autatu: nik autatu zaituztet zuek, ta berexi zaituztet, yonan ta arnari eman dezazuen ta zuen arnaria (frutua) iraupenekoa izan dedin; orduan nere Aitak emango dizue nere izenean eskatzen diozuen guzia. Agindu auxe ematen dizuet: Maita zazue elkar!

Munduak iguin bazaituzte, yakizue zuek baño lenago iguindu nauela ni. Munduarenak baziñate, munduak maite izango luke bere gauza. Etzerate ordea munduarenak, nik mundutik berexi zaituztet, ta argatik iguin zaituzte munduak. (1)

Gogora zazue nik esan nizuen itzura: Moñoia ezta bere nausia baño aundiago. Neri yazari bazaizkit, zuei ere yazariko zaizkitzue; nere itza begiratu badute, zuena ere begiratuko dute. Ba-

(1) Gaiztoak gofoto badizuite, ezagun da etzerate-la aietakoak; alakoak baziñate, maite izango zinduzketee.

ña guzi ori egingo dizuete nere izenagatik, ni bidali nauena eztute ezagutzen ta.

Ni etofi ezpanintz eta mintzatu ezpanintzaie, ezlukete pekaturik; orain ordea eztute pekatu oren edergaririk. Ni iguin nauenak nere Aita ere iguin du. Baldin bere aurrean egin ezpanitu egundano inork egin ezdituen bezelako lanak, ezlukete pekaturik; orain ordea nere egintza oiek ikusi dituzte, ta ala ere iguin du gaituzte bai ni ta ta bai nere Aita. Ola bete bear da nonbait arako beren legean idatzirik dagon itz ura: Biderik gabe iguin naute. (Ps. XXXIV, 19; Ps. LXVIII, 5).

Nik Aitagandik bidaliko dizuedan Aialdekoa, Aitagandik datozen egiazko Ats ura etofi dedinean, arek aitor-egin-go du nitaz, ta zuek ere bai aitor-egin-go duzue, asieratik nerekin zaudetelako.

Au esan dizuet, gaizpiderik artu eztezazuen. Sinagogetatik egotziko zai-

tuztee (1); bai, laster datoñen orduren batean zuek iltzen zaituztenak uste izango du Yainkoari atsegin egiten dio-la. Ori egingo dizuete, ez Aita eta ez ni ezagutu ezgaituztelako. Au esan dizuet, ordu ura etoñidediñean, nere itzetaz oroitu zaitezten. Gauza auek eztizkizuet asieran esan, ni zuekin nengoe-lako.

Orain ordea banoa ni bidali nauenagana, ta zuetako iñork ere ezdit galdegiten: Nora zoaz? Atsekabez bete da zuen biotza, ori esan dizuedalako. Baña nik egia esaten dizuet: on da zuentzat ni yoan nadin. Ni yoan ezpanadi, Aialdekoa ezta etoñiko; ni yoan banadi beñiz, bidaliko dizuet. Arek, etoñi dediñean, begien aúfean yañiko dio munduari pekatua, zuzentasuna, ta epaiketa; pekatua, nigan siñetsi eztutelako; zuzenta-

(1) Yuduen artean sinagogatik egozteá (botatzea). kristauen artean eskomekatzea, Elizatik egozteá bezela da: fededunen bileratik berextea, kentzea, adar ustela zuaitezetik mozten dan bezala, edo ardi kutsatua artaldetik berexten dan bezela. Ori egin zuten Yuduak apostoluekin: beren artetik egotzi ta berexi, gaiztoak eta kutsatuak balira bezela.

sunak, ni Aitagana noalako; ta epaiketa, mundu onen buruzagia onezkero epaiturik dagolako. (1)

Gauza asko baditut oraindik zuei esateko; baña zuek ezin yaso ditzakezue orain. Ura, egiazko Atsa etoñi dedinean, irakatsiko dizue guzia, ezpaita bere baitatik mintzatuko; entzun duenaz mintzatuko da ta etortzeko diran gauzak yakiñaraziko dizkitzue. Arek ospatuko nau, neretik artuko baitu ta zuei yakiñaraziko. Aitak dituen gauza guziak nereak dira; oñegatik esan dizuet: Neretik artuko du ta zuei iragafiko. (2)

(1) Ats Sanduak erakutsiko dizkio argi ta garbi munduari iru gauza auk:

a) pekatu aundia egin duela, Yesusen itzak ez siñetsiz.

b) Jesus pekatugabea dala, zerura bere Aitarengana sartu dan ezkeru.

c) Mundu onen buruzagia, deabrua, garaitua dala ta epaitua.

(2) Aitak eta Semeak izate ta yakite bera dute. Ats Sandua bi oiengandik datoñen ezkeru, bi oiengandik, Aitagandik bezela Semeagandik du dakien ta irakasten duen guzia. Oñegatik dio Yesu-Kristok: Neretik artuko du.

Oraindik aldi labur bat eta eznauzue ikusiko; gero beste aldi labur bat, eta ikusiko nauzue beriz, (Aitagana noa ta.)»

Ikaslen arteko batzuek esan zioten elkañi: «Zer esan nai ote digu itz oiekin: Aldi labur bat eta eznauzue ikusiko, gero beste aldi labur bat, eta ikusiko nauzue beriz? eta: Aitagana noa? Zer adiarazi nai digu «aldi labur bat» itz oiekin? Eztakigu zer derasan.»

Yesusek nabaritu zuen galdegin nai ziotela, ta esan zien: «Elkañi galdezka ari zaizkiote, nik esan dizuedalako: Oraindik aldi labur bat eta eznauzue ikusiko, gero beste aldi labur bat eta ikusiko nauzue beriz? Egiaz, egiaz, nik diotsuet: negar ta mañaska egingo duzue zuek, mundua beriz poztu egingo da, zuek atsekabetan egongo zerate, baña zuen atsekabe ori atsegin biurtuko da. Emakumea ere, aur-egitean, atsekabetzen da, bere ordua etofí dalako; baña aur-egin ondoan, ezta lengo estuasunaz oroitzen, gizon bat mundu-

ra yaio dalako pozarekin. Zuek ere orain atsekabetan zaudete, baña nik beñiz ikusiko zaituztet, ta zuen biotza poztuko da ta zuen poz ori eztizue iñork kenduko. Egun artan ezer eztidazue galdegingo.

Egiaz, egiaz, nik diotsuet, Aitari nere izenean ezer eska badezaiozue, emango dizue. Orain arte ezer eztuzue eskatu nere izenean. Eska zazue, ta artuko duzue, ta zuen poza bete-betea izango da.

Gauza auek alegietan (irudietan) esan dizkitzuet. Laster datoñen ordu batean eztizuet geiago alegietan itze-gingo; argi ta garbi emango dizuet Aitaren beñi. Egun artan nere izenean eskatuko duzue, ta eztizuet esaten, nik Aitari zuen alde otoitz egingo diodala; Aitak maite baitzaituzte, zuek ni maite izan nauzuelako ta Aitagandik etoñi naitzela siñetsi duzuelako. Aitagandik atera ta mundura etoñi nintzan; orain mundu au utzi ta banoa beñiz Aitagana.»

Bere ikasleak esan zioten: «Oña,

orain argi mintzo zera ta eztuzu alegirik esaten. Orain ikasi dugu, zuk guzia badakizula, ta inork zuri galdegin dezaizun bearik eztagola. Oregatik siñesten dugu Aitagandik etoria zerala.»

179—Guziok iges-egingo duzue...

(Mt. XXVI, 31-35; Mc. XIV, 27-31; Io. XVI, 31-32.)

Yesusek erantzun zien: «Orain siñesten duzue? Badator ordua, bertan da, guziok zein bere aldera banatuko baitzerate, ta ni bakarik utziko. Baña ala ere eznago bakarik, Aita nerekin dago ta.

Gaur guziok gaizpide artuko duzue nere kariaz, idatzia baitago (Zach. XIII, 7): Yoko dut artzaia, eta artaldeko ardi guziak banatuko dira. Baña beñiz piztu nadinean, auferatuko natzazue Galilea-ra.»

Pedrok ordea esan zion: «Guziok zure kariaz gaizpide artzen badute ere,

nik eztut sekula gaizpiderik artuko.» —
Yesusek erantzun zion: «Egiaz, egiaz,
nik diotsut: Gaurko gau onetan, olañak
bi aldiz yo baño lenago, iru aldiz uka-
tu izango nauzu.»

Pedrok are geiago esan zion: «Zure-
kin il bear badut ere, etzaitut ukatuko.»
Beste ofenbeste zioten ikasle guziak
ere.

180—Yesusen apaiz-otoitza

(*Io. XVI, 23-XVII, 1-26*)

«Gauza auek esan dizkitzuet, nigan
pakea izan dezazuen. Munduan estu-
rak ikusten dituzue, baña biotz on izan!
nik garaitu dut mundua.»

Itz oiek esandakoan, Yesusek begiak
zerurontz goratu zituen ta esan zuen
(1): «Aita, iritxi da ordua; ospa zazu ze-

(1) Ortik auferako otoitz ori Yesu Kristoren
Apaiznausi-otoitza deitu oi da; Yesusek, bere burua
gizonengatik opaldu baño lenago, bere Aitari Apaiz-
nausi-aintzu egiten dion otoitza. Or eskatzen du au-
fena bere buruaren alde, Aitak ospatu ta goretsi de-

re Semea, zure Semeak ere zu ospa zaitzan. Alabaña, gizon guzien gañeko eskubidea eman diozu, berak betiko bizia eman dezaien aren kontura utzi dituzun guziaz. Eta betiko bizia auzua: zu, egiazko Yainko bakar ori, ta zuk bidalitako Yesu-Kristo ezagutzea.

Nik ospatu zaitut lúrean; egiteko eman zenidan lana bururatu dut. Aita, mundu auzua asi baño lenago zure baitan nuen ospe bereartaz ospa nazazu.

Zuk mundutik *berexi ta* eman dizkidatzun gizonai zure izena erazagutu diet. Zureak ziran, zuk eman zenizkidan, ta zure itza begiratu (gorde) dute. Orain ezagutu dute, zuk eman didatzun guzia zugandik datoñela. Nik aiei eman baitizkiet zuk neri eman dizkidatzun itzak, ta aiek artu dituzte, eta egiaz ezagutu dute, ni zugandik atera naizela, ta siñetsi dute zuk bidali nau-

zan bere neke guzien ondotik; gero eskatzen du bere ikaslen alde, beti elkarékin baturik egon ditezen siñeste ta maitasun berean; azkena eskatzen du kristau guzien alde, oiek ere baturik egon ditezen elkar maitatuz, siñeste bera idukiz.

zula. Oien alde otoitz egiten dut. Eztut munduaren alde otoitz egiten, zuk emandako oien alde baizik, zureak dira ta. Nerea dan guzia zurea baita, eta zurea dana nerea da, ta ni ospatu naiz oien baitan. Ni eznaiz geiago munduan egongo, oiek bai munduan daude; ni zugana yoateko nago. Aita Sandua, begira (gorde) itzazu zure izenean zuk eman dizkidatzun oiek, bat izan ditezten, gu geran bezela.

Oiekin nengoen bitartean, nik begiratzen nituen zure izenean zuk emandako oiek; nik zaindu ditut, eta bat, galtzapen-semea besterik ezta galdu oietakorik, Idazkia bete dedin. Orain banoa zuregana, ta munduan nagon arte esan ditut gauza auek, berak izan dezaten nik dudan poz bete-betea.

Zure itza eman diet; ta munduak iguinduditu, munduarenakeztiralako, ni ere munduarena eznaizen bezela. Eztizut eskatzen mundutik idoki (atera) ditzazun; gaitzetik begira ditzazun bai eskatzen dizut. Ezpaitira munduare-

nak, ni ere munduarena eznaizen bezela. Sanduetsi itzazu egietan; zure itza egia da. Zuk ni mundura bidali nauzun bezela, bidali ditut nik oiek mundura. Oiengatik sanduesten dut nik nere burua, egiaz sanduetsiak izan ditezzen.

Baña eztut oien alde bakarik otoitz egiten; oien itzaren bidez nigan siñetsiko duten guzien alde ere eskatzen dut, guziak bat izan ditezzen, zu, Aita, nigan eta ni zugan nagoen bezela; ola-xe bat izan bitez, munduak siñetsi dezan zuk bidali nauzula. Zuk neri eman didazun ospea eman diet nik oiei, bat izan ditezzen, gu bat geran bezela. Ni aiengan egongo naiz, zu nigan zauden bezela, munduak ezagutu dezan zuk bidali nauzula ta oiek maite izan dituzula, ni maite izan nauzun bezela.

Aita, zuk neri eniandakoak nerekin batean ni nagon tokian egotea nai dut, zuk neri eman didazun ospea ikusi dezaten, mundu au asi baño lenagotik maite izan bainauzu.

Aita zuzentsua, munduak etzaitu ezagutu; nik ordea ezagutu zaitut, eta auek ere ezagutu dute zuk bidali nauzula. Zure izena erazagutu diet, ta beñiz ere erazagutuko diet, zuk neri izan didazun onerizkoa oiengan izan dedin ta ni oiengan.»

181—Jesus Get-semani-ko baratzean.

(Mt. XXVI, 36-46; Mc. XIV, 32-42; Lc. XXII, 39-46; Jo. XVIII, 1-2)

Itz oiek esandakoan, igaro zan Jesus bere ikaslekin Kedron latsaren (e-řekaren) beste aldera, ta Get-semani deritzan bazteřera yoan zan. Bazegon an baratze bat eta ara sartu ziran Jesus ta bere ikasleak. Bere saltzale Yudak ere bazekien toki ura, Jesus askotan bildu izan baitzan ara bere ikaslekin.

Tokira iritxi ziranean, esan zien bere ikasleai: «Zaudete emen eseri ta,

nik ara yoan ta otoitz egin bitartean.» Artu zituen berarekin Pedro ta Yako-
bo ta Yoan, eta asi zan gogo-iluntzen
ta atsekabetzen ta ikaratzen. Orduan
esan zien: «Iltzerañoko atsekabetan
dago nere anima; geldi emen ta zau-
dete esna nerekin. Otoitz egizue, ziri-
kaldian sartu etzaitezten.»

Gero lekutu zan aiengandik eta
urundu zan ari-urtiki bat bezelatsu, ta
belaunikaturik auzpez yañi zan luña-
ren gañean ta otoitz au egiten zuen:
«Ene Aita, iñondik al badikete, urun
zazu nigandik edal-ontzi (nekaldi) au.
Ala ere, zure naia egin bedi, ez nereea.»

Aingeru bat agertu zitzaion zerutik
eta alaitzen zuen. Iltzeko zorian yañi
zan ta are gogotsuago eskatzen zuen,
ordu ura bere ondotik igaro zedin, al
baziteken. Esan zuen: «Abba, Aita, zuk
guzia badagikezu; lekutu zazu nigan-
dik edal-ontzi au; ala ere zuk nai duzu-
na egin bedi, ez nik nai dudana.» Eta
aren izerdia, luñera erortzen diran odol-
tantoen idurikoa zan.



Otoitzetik yaiki zanean, bere ikaslengana zan ta atsekabez lokarturik zeudela arkitu zituen; ta esan zion Pedrori: «Simon, lo zaude? Beraz ordu bakar batez ere ezin esna egon izan zera nerekin? Yaiki, erne egon ta otoitz egin, zirikaldian sartu etzaitezten; atsa (gogoa) gertu baitago, aragia ordea makal.»

Bigarren aldiz yoan zan ta otoitz egin zuen itz berak esanez: «Ene Aita, edal-ontzi au nere ondotik ezin igaro baiditeke nik edangabe, zure naia egin bedi.» Gero biurtu zan aiengana ta beriz ere lo zeudela arkitu zituen, aien begiak astundiak baitziran, eta etzekiten zer erantzun.

Aiek bertan utzi ta yoan zan, eta irugarren aldiz otoitz egin zuen, itz berak esanez. Gero etorri zan irugarren aldiz bere ikaslengana ta esan zien: «Lo egizue ta atsedean ar zazue.—Aski da, urbil da ordua, oraintxe pekatarien eskuetan yafiko dute Gizasemea. Yaiki, goazen; nere saltzalea bertan da.»

182—Jesus atxīlotzen dute.

(Mt. XXVI, 47-56; Mc. XIV, 43-52; Lc. XXII, 47-54; Io. XVIII, 3-12)

Jesus oraño mintzo zala, ara non agertzen dan Yuda, amabietako bat. Gudamutil-sail bat eta Farisauen ta Apaiznausien moñoiak arturik, ara yoan zan, ta arekin batean gizalde aundi bat kriselū ta lastargi ta ezpata ta makilekin; Apaiznausi ta Lege-irakasle ta eñiko Zañenak bidalia zan gizalde ura.

Yuda aũrean zioakien. Ezaupide bat ere eman zien saltzale oñek, esanez: «Nik musu emango diodana, uraxe da; atxiki ta eramazue arduraz.» (1) Urbildu zanean, yoan zan bereala arengana ta esan zion: «Agur, Maisua» ta musu eman zion. Yesusek beñiz esan zion: «Adiskide, zertara etoñi zera? Yuda,

(1) Yudarekin zioazen aietako batzuek etzuten ezagutzen Jesus aurpegiz. Oñegatik ematen die Yudak aufetik, ezaupide ori, Jesus atzeman beañean besteen bat lotu etzezaten, ta Yesusek iges egin etzezan.

musu batekin iruzur-egiten diozu Gizasemeari?»

Yesusek beraz bere gañera etofi bear zuen guzia yakiñik, auñeratu ta esan zien: «Nor bilatzen duzue?»

«Yesus Nazaretaña» erantzun zioten.

Yesusek esan zien: «Ni naiz.»

Bere saltzale Yuda ere aiekini zegoen. Arek «ni naiz» esan zien orduko, atzera egin zuten ta luñera erori ziran.

Beñiz ere galdegin zien: «Nor bilatzen duzue?» — «Yesus Nazaretaña» esan zioten. Yesusek erantzun zien: «Esan dizuet ni naizela. Ni bilatzen banauzue, auei utzi zaiezue yoaten.» Oñela egiztatu bear zan berak esandako itz ura: «Zuk eman dizkidazun auetatik bat ere ez tut galdu.» Orduan urbildu zitzaizkion ta eskuak gañera egotzi zizkioten.

Yesusen lagunak, agitzera zioana ikusirik, esan zioten: «Yauna, yoko al dugu ezpataz?» Simon Pedrok eskua luzatu ta bere ezpata atera zuen; Apaiz-nausiaren moñoi bat yo ta eskuiñeko

belafia moztu zion. Moñoi arek Malko zuen izena.

Yesusek ordea esan zien: «Geldi or! Aski da!» Pedrori ere esan zion: «Sar zazu ezpata bere kozkora. Ezpata artzen duten guziak ezpataz ilko dira. Zer bada, uste al duzu, nere Aitak ez-lizkidakela bereala bidaliko amabi Aingeru-saldo baño geiago, nik eskatu ez-kero? Baña nola beteko lirake orduan Idazkiak? Oñela agitu (gertatu) bear da ta. Nere Aitak eman didan edal-ontzia ez al dut bada edango?» Gero ukitu zuen aren belafia eta sendatu zuen.

Orduan esan zien beregana zetoz-en Apaiznausi ta yauretxeko buruzagi ta Zañenai: «Lapur batengana bezela atera zerate makila ta ezpatekin, ni atxitzera. Egunero zuekin nengoen yauretxean irakasten, eta eztidazue eskurik egotzi, ez lotu. Baña guzi au agitu da, Idazkiak bete ditezen: au da zuen ordua ta ilunben eskubidea.»

Gudamutil-saldoak ta buruzagiak ta

Yuduen moñoiak atxitu zuten Jesus eta loturik eramán zuten Apaiznausiaren etxera. Bere ikasleak, bera utzi ta, iges egin zuten.

Mutil bat ordea yañai ki zitzaion yantzigabe, maindire bakar batez estalia; atxitu zuten, baña arek maindirea askatu ta igesi yoan zan bilutsik.

183—Jesus Ana-ren aurrean—Pedrok le-nengo aldiz ukatzen du.

(*Mat. XXVI, 57-58, 69-70; Mc. XIV, 53-54; 66-68; Lc. XXII, 54-57; Io. XVIII, 13-24.*)

Leenik eramán zuten Ana-rengana; urte artako Apaiznausi Kaifa-ren aita-giañeba baitzan ori. Kaifa zan Yuduai arako burubide ura eman ziena: «Obe da gizon bat il dedin eñagatik.» (Io. XI, 49 sq.)

Yesusen ondotik zioazen Simon Pedro ta beste ikasle bat; yañai ki zitzaizkion Apaiznausiaren barlaraño. Beste ikasle ura Apaiznausiaren ezaguna zan, eta Yesusekin batean sartu zan Apaiz-

nausiaren barlaraño, Pedro ordea kanpoan gelditu zan ate ondoan.

Beste ikasle ura, Apaiznausiaren ezaguna zan ura atera zan kanpora, itzezin zion neskame atezaiari sañarazi zuen Pedro. Neskame atezaiak esan zion oneri: «Gizon oñen ikasletako bat al aiz i ere?»

«Ez, eznaun» erantzun zion Pedrok.

Eguraldi otza baitzegon, moñoi ta mirabeak sua egin zuten barlaren erdian, ta suaren inguruan zutik berotzen ari ziran. Pedro ere aiekin zegon barlan, zer aterako zan ikusteko, ta berotzen ari zan. Orduan urbildu zan Apaiznausiaren neskame bat; ikusi zuen Pedro su ondoan eseri ta berotzen ari zala, zoñozki begiratu zion ta esan: «I ere Yesus Nazaretañarekin intzan.»

Arek beñiz ukatu zuen guzien aúfean esanez: «Emakumea, eztiñat ezagutzen. Etzekiñat ta eztiñat asmatzen zer dionan.» Bereala atera zan kanpora barla-aúfera; eta olañak yo zuen.

Apaiznausiak galdegin zion bada Ye-

susi bere ikasletaz eta bere irakaspe-
naz. Yesusek erantzun zion: «Ni agerian
mintzatu natzaio munduari; nik beti ira-
katsi izan dut sinagogan ta yauretxean,
Yudu guziak biltzen diran tokian, eta
eztut ezer ere ixilkian itzegin. Zer da-
la ta galdegiten didazu? Neri entzun di-
datenai galdegiezu, zer esan diedan.
Ora, oiek badakite zer esan diedan.» (1)

Ori esan ondoan, an inguruan zeu-
den mirabetako batek masaleko bat
eman zion Yesusi esanez: «Orela eran-
tzun al diok Apaiznausiari?»

Yesusek erantzun zion: «Gaizki itze-
gin badut, erakutsi zaidazu zertan utse-
gin dedan; zuzen itzegin badut beñiz,
zergatik yotzen nauzu?»

Anak bidali zuen loturik Kaifa Apaiz-
nausiaren etxera; an bilduak ziran or-
duko apaiz guziak eta Lege-irakasleak
eta Zafenak.

(1) Yesusek esan nai dio itz oiekin: «Ekafi ona-
ra yakileak (testiguak). Ni eznaiz ixilkian eta izku-
tuan ibili; yende guzien aurrean, agerian ibili naiz
irakasten. Yende oien arteko edozein dei zazue one-
ra, aitortu ta esan dezala, nik ezer gaiztorik egin
edo irakatsi dudana.»

**184—Jesus Batzañe-aundiaren aurrean—
Pedrok beriz ukatzen**

*(Mt. XXVI, 59-66, 71-75; Mc. XIV, 55-64, 69-72
Lc. XXII, 58-68; Io. XVIII, 25-27.)*

Apaiznausiak eta batzañe guziak Yesusen aurkako (kontrako) aitoñera bat bilatzen zuten, ura ilarazteko; etzuten ordea arkitzen. Lagun askok gezufezko aitoñerak egiten zituzten ari buruz, baña aien aitoñerak etzetozen batera. Azkenean azaldu ziran gezufezko yakile (testigu) bi, eta gezufez esan zuten artaz: «Onek dio: Nik uñatu dezaket Yainkoaren yauretxea, eta iru egunez beñiro eraiki.»

Beste batzuek txutitu ziran ta gezufezko aitoñera au egin zuten artaz: «Guk entzun diogu oni esaten: Nik uñatuko dut eskuz egindako yauretxe au, ta iru egunez eraikiko dut beste, eskuz egiña eztan bat.» Baña aien aitoñerak etzetozen batera.

Orduan Apaiznausia txutitu zan er-

dian ta onela galdegin zion: «Ez al diozu ezer erantzuten auek zure aurka aitortzen dutenari?» Jesus ordea ixildu zan ta etzion itzik erantzun.

Apaiznausiak beriz ere galdegin zion: «Yainko biziaren izenean galdegiten dizut; esaiguzu, ea zu zeran Kristo, Yainko bedeinkatuaren Semea.»

Orduan Yesusek erantzun zion: «Bai, ni naiz. Baña nik esaten dizuet: gaurgero ikusiko duzue Gizasemea, alguzidun Yainkoaren eskui aldean eseria ta zeruko odeietan etortzen.»

Apaiznausiak bere soñekoa uratu zituen, esanez: «Biraoa esan du. Zertako bear ditugu yakile geiago? Zerok aditu duzue oraintxe biraoa. Zer iduri zaitzue?»

Ta guziak batera erantzun zuten: «Itzea zor du.»

Bitartean, Pedro kanpora zioala, ikusi zuen beste neskame batek ta an zeudenai esan zien: «Au ere aietakoa da.» Ta ukatu zuen.—Beste neskame batek ikusi zuen ta esan zien an zeu-



denai: «Au ere Yesus Nazaretañarekin zegoen.» Pedrok ordea beñiz ukatu zuen zin-egiñez: «Eztut gizon ori ezagutzen.»

Andik laster, beste batek ikusi zuen ta esan zion: «I ere aietakoa aiz.» Pedrok erantzun zion: «Gizona, eznauk.» Beñiz ere an zegoen Pedro ta berotzen ari zan. Esan zioten bada: «I ere oñen ikasletakoa al aiz?» Berak ukatu zuen esanez: «Ez, eznaiz.»

Andik ordu baten buruan bezelatsu, beste batek baieztu zuen: «Bai, au ere arekin zegon, izan ere Galileaña da ta.» Pedrok esan zion: «Gizona, etzekiat zer diokan.» An zeudenak urbildu zitzaizkion Pedrori ta esan zioten: «Baiki, aietakoa aiz: ire mintzoak (izkuntzak) berak salatzen au ta.» (1)

Apaiznausiaren mirabetako batek (Pedrok belaña moztu zionaren aidea

(1) Yudu guziak izkuntza bat bera zuten; baña ala ere leku batetik bestera bazegon zerbait berex-tasun itzegiteko eran. Batez ere Galileañak bazuten alako bere-gisako kutsu bat; ortan ezagutu zuten gizon aiek Pedro Apostolua galileaña zala.

zan bera) esan zion: «Ez al aut nik arekin ikusi baratzean?»

Orduan asi zan Pedro biraoka ta zinka: «Ez, eztut ezagutzen, zuek diozuen gizon ori.» Eta bereala, ura oraño mintzo zalarik, oñarak yo zuen. Orduantxe itzuli zuen Yaunak aurpegia ta Pedrori begiratu zion. Pedro oroitu zan Yaunak esandako itz artaz: «Oñarak bi aldiz yo orduko, iru aldiz ukatu izango nauzu.» Kanpora atera zan ta negar egin zuen saminki.

185—Yuduak Yesusi iri ta iseka egiten.

(Mt. XXVI, 67-68; Mc. XIV, 65; Lc. XXII, 63-65).

Orduan batzuek listu-egin zioten, aurpegia estali ta masalekoak yotzen zizkioten esanez: «Ots, Kristo, igarizaiguk, nor dan i yo auena.»

Ta mirabeak (moñoiak) ere ukabilaz yotzen zuten; ta bere zaintzaleak iseka egiten zioten yoka. Aiek ere aurpegia estali ta yo egiten zuten, ta onela

galdegiten zioten: «Igañi zaiguk. Nor duk i yo auena?» Eta olako beste txarkeri ta birao asko ere esaten zizkioten.

186—Yesus beriz batzaíean

(Mt. XXVII, 1-2; Mc. XV, 1; Lc. XXII, 66-71-XXIII, 1; Io. XVIII, 28.)

Goizean goiz, argitu orduko, bildu ziran eñiko Zaíenak eta Apaiznausiak eta Lege-irakasleak eta batzaíe osoa, ta Yesus ílarazteko erabakia artu zuten. Eraman zuten Yesus beren batzaíe artara ta galdegin zioten: «Zu bazera Kristo (Mesia), esaiguzu.»

Berak esan zien: «Esan badezaizuet, eztidazue siñetsiko; galdegiten badizuet, eztidazue erantzungo, ez lokabe (libre) utziko. Baña gaurgero Gizasemea alguzidun Yainkoaren eskui alde-dean eseria egongo da.»

Guziak esan zioten: «Zu al zera beraz Yainkoaren Semea?»

«Zerok diozue; bai ala naiz» erantzun zien.

Orduan aiek oiu egin zuten: «Zertako bear dugu beste aitoferarrik? Gerok aditu dugu bere agotik.»

Txutitu zan batzaré guzia, lotu zuten Yesus ta Kaifa-ren etxetik auzitegira (1) eramán zuten.

187—Yudaren etsipen ta urkatzea

(Mt. XXVII, 3-10)

Orduan Yuda, Yesusi iltzeko epaia eman ziotela ikusirik, urikitu zan; Apaiznausi ta Zarenai atzera biurtu zizkien ogei ta amar zilar-diruak esanez: «Pekatu egin dut, odol obengabea salduz.»

Aiek beñiz esan zioten: «Guri zer zaiguk? Ortxe ikusi erofek.»

Orduan aurtiki (bota) zituen zilar-diruak yauretxera, aldegin zuen ta soka

(1) *Auzitegia*, Eromar yaurlearen (gubernariaren) yauregia, Sion mendi gañean zegoen.

batez bere burua urkatu zuen.

Apaiznausiak yaso zituzten zilar-diruak ta esan zuten: «Ezta zil (libre) auek yauretxeko diru-kutxara egozte, odol-saria dira ta.» (1) Elkarékin yardu ki ondoan, erosi zuten aiekin Eltzegilearen zelaia, arotzen ortzi-tokitzat. Oregatik deitzen da zelai ura gaurko egunerarte Hakeldama, esan nai da, Odol-zelai.

Orela bete zan Yermia Profetak esandako ura (Ier. et Zach.):

Artu dituzte ogei ta amar zilar-diruak,

sarigariaren saritzat

Israelgo semeak eritzi duten saria;

ta eman dituzte Eltzegilearen zelai orde;

orela agindu dit Yaunak.

(1) Bide txaréz bildutako dirurik etziteken eman yauretxerako.

188—Jesus Pilatoren aurrean

(Mt. XXVII, 11-14; Mc. XV, 2-5; Lc. XXIII, 2-7;
Io. XVIII, 28-38)

Eraman zuten beraz Jesus loturik auzitegira eta Ponzio Pilato Yaurlearen eskuetan yañi zuten. (1) Goiza zan; berak etziran auzitegira sartu, ez kutsatzeko ta Pazko-oturuntza yan al izateko. (2)

Pilato atera zitzaien beraz kanpora ta esan zien: «Zer salaketa dakartzue gizon onen aurka?»

Aiek erantzun zioten: «Au gaizkilea ezpalitz, ezgiñukean zure eskuetan yañiko.»

Pilatok esan zien: «Ar zazue zerok eta zuen legearen araura epai zazue.»

Yuduak erantzun zioten: «Guk eztu-

(1) *Yaurlea*, Eñomako Kaiser-en izenean Yudueña yañi edo gobernatu egiten zuena. Ponzio Pilato zan orduan yaurlea.

(2) *Ez kutsatzeko*. Yentil baten etxean sartu ezkerro, beren buruak kutsatzen, itsusten zituztela uste zuten; ta oñela kutsatu ezkerro, etzuten zil (libre) Pazko-oturuntza yatea.

gu zil (libre) iñori bizia kentzea.» (1)
Orela betetzen zan, Yesusek zer erio-
tzez il beaía zan adiarázteko esan zuen
itza.

Asi ziran beraz ari onela ogen-ema-
ten: «Or arkitu dugu gizon au, gure
eía naspilatzen ari dala; Kaiser-i zer-
gak ematea debekatzen du, ta bera
Kristo eíegea dala esaten ari da.» (2)

Sartu zan bada Pilato beíz auzitegi-
ra ta Yesus etoñiarazi zuen. Agertu zan
Yesus yaurlearen aúean, ta onek gal-
degin zion: «Zu al zera Yuduen eíege?»

Yesusek erantzun zion: «Zuk zere
baitatik al diozu ori, ala beste batzuek
esan al dizute nitaz?»

Pilatok erantzun zion: «Yudua al naiz

(1) Eíomafak Yudeaz nausitu ezkerro, Yuduen buruzagi ta batzafeak etzuten iñori bizia kentzeko eskubiderik; eskubide ori Yaurleak bakafik zuen. Oregatik orain ere, Yuduak Yesus iñarazi nai lukete, baña Eíomar yaurleak eman bear artarako epaia.

(2) Gezufa da Yuduak salatzen duten ori: Yesusek etzuen iñoiz debekatu Kaiser-i zergak ematea, agindu bai egin zuen; are gutxiago bere burua eíege egin; bein Yuduak eíege egin nai izan zuten ta bera iges yoan zan.

ni? Zure eritañak eta Apaiznausiak nere eskuetan yañi zaituzte. Zer egin duzu?»

Yesusek erantzun zion: «Nere yaurgoa ezta mundu onetakoa; nere yaurgoa mundu onetakoa balitz, nere mira-beak gudu egingo zuten noski, Yuduen eskuetan erori ez nendin. Bañan ez, nere yaurgoa ezta mundu onetakoa.»

Pilatok esan zion: «Geroztik eñege zera zu?»

Yesusek erantzun zion: «Bai, eñege nauzu. Ontarako yaio naiz ta ontarako etoñi naiz mundura: egiari buruz aitor-egiteko (*egia zer dan erakusteko*). Egiaren aldekoa dan edozeñek entzuten du nere mintzoa.»

Pilatok esan zion: «Zer da egia?» (1) Eta ori esan ondoan, atera zan beñiz Yuduengana ta esan zien Apaiznausi

(1) *Zer da egia?* Aldi artan baziran gizon asko, egia zer dan ezagutu ezin ditekela uste zutenak. Oietako bat zan Pilato. Erukiz ta alako iripañe maltzur batekin esaten dio Yesusi: «Egia zer dan erakustera etoñi zerala? Ba al dakizu gero zuk egia zer dan?»

ta gizaldeai: «Eztut onengan obenik arkitzen.»

Apaiznausi ta Zaíenak asko gauzetaz ogen-ematen zioten, baña berak etzuen ezer erantzuten. Orduan Pilatok galdegin zion beriz: «Ez al duzu ezer erantzuten? Ez al duzu aditzen, zenbat gauzetaz ogen-ematen dizuten?»

Yesusek ordea etzion itzik erantzun aren galde bati ere; yaurlea guziz aítua zegoen.

Aiek orduan ta oiu geiago egiten zuten: «Eria naspilatzen du Yudea guzian irakatsiz, Galilea-tik asi ta oneraño.»

Pilatok Galilea izena aditzean, galdegin zuen, ea gizon ura Galileakoa zan. Eta Herode-ren mendekoa zala ikasi zuenean, Yesus Herodengana bidali zuen, au ere Yerusalem-en baitzan egun aietan. (1)

(1) Herode zan Galileako errege; ta Yesus txikitatik asi ta Galilean bizi izan baitzan, argatik gizon ez Heroderen mendekoa zan. Herode ori Herode bigarrena zan, Yoan Bataiazalearen iltzalea, ta Yesus yaiotzean aur obengabeak ilarazi zituen Herode Aundiaren semea.

189—Herodek Yesusi iseka egiten

(Lc. XXIII, 8-12)

Herode poztu zan biziki, Yesus ikus-tean; aspaldi artan ura ikusi naiez bai-tzegon, artaz gauza asko entzun zitue-lako; ta bere aurrean mirarien bat egin-go zuela uste zuen. Galde asko egin zizkion beraz; Yesusek beñiz etzion ezer ere erantzuten.

Apaiznausi ta Lege-irakasleak an zeuden, ta ogen-ematen zioten egiñal guziaz. Herode ta bere gudamutilak iri ta iseka egin zioten; soñeko zuri bat yantziarazi zion pañagañi yartzeko; ta gero atzera bidali zion Pilatori.

Egun artan adiskidetu ziran Herode ta Pilato, lenago etsai ziran ta.

190—Yesus ala Barabba?

(Mt. XXVII, 15-26; Mc. XV, 6-15, Lc. XXIII, 13-23, 25; Io. XVIII, 39-40-XIX, 1)

Orduan deitu zituen Pilatok Apaiz-nausiak eta batzaire-gizonak eta eñi-xea ta esan zien: Gizon au ekañi didazue, eñia naspilatzen duela ta; zuen aurrean galdegin diot, ta zuek onen aurka salatzen dituzuen gauza guzi oietan ez-tiot obenik arkitu. Herodek ere ez, atzera bidali dit eta. Eztu eriotza merezi duen gauzarik bat ere egin. Zea-tuko dut beraz eta gero askatuko dut.»

Yaiburu-egunean yaurleak askatu oizion eñiari baitegian zegoen bat, berak nai zutena. Bazuen orduan gaizkigile aipatu, Barabba zeritzan bat. Lapur bat zan Barabba ori ta beste bazter-nasle batzuekin baitegian (kartzelan) zegoen, matxinada batean eriotza bat egin zuelako.

Igo zan bada gizaldea (*auzitegi al-dera*) ta asi zan eskatzen urtero egin oi ziena.

Pilatok esan zien: «Oitura da zuen artean, nik zuei atxilo bat askatzea Pazko-egunean; zein nai duzue lokabe utzi dezadan: Barabba ala Yesus, Kristo deritzana?» Auteman baitzuen, apaiznausiak bekaizkeri utsez yañi zutela Yesus bere eskuetan. (1)

Pilato epai-alkian eseria zegoela, bere emazteak mandatu au bidali zion: «Ez gero sartu zuzentsu oñen arazotan, gaur ametsetan gaitzak ikusi ditut oñengatik.»

Apaiznausi ta Zañenak gizaldea berotu zuten ta burutara eman zioten, Barabba lokabe utziarazi ta Yesus galarazi zezan. Yaurleak galdegin zien bada: «Bietatik zein nai duzue askatzea? Nai al duzue Yuduen eñegea lokabe utzi dezadan?»

Eta guziak batera oiu egin zuten:

(1) Pilatok ezagutu du ta aitortu ere bai ainbeste aldiz, Yesusek obenik eztuela; eta ala ere, eztu lokabe uzten, zuzenbideak eskatzen duenez. Orain ere lapur gaizkigile batekin berdin yartzen du, ustez Yuduak Barabba-ri baño lenago Yesusi barkatuko dioten; baño oker dago.

«Ken ori ortik! Aska zaiguzu Barabba!»

Beñiz ere mintzatu zitzaien Pilato, Jesus askatu naiez: «Zer egingo dut bada Yuduen eñegeaz, Kristo deritzan Yesusez?»

Guziak batera oiu egin zuten: «Yosi zazu, yosi gurutzean!»

Pilatok galdegin zien irugañen aldiz: «Zer gaitz egin du bada? Nik ez tut oñengan iltzeko obenik arkitzen. Zea-tuko dut beraz eta gero lokabe utziko dut.»

Aiek beñiz gero ta deadar aundia-goak egiñez eskatzen zuten, gurutzean yosi zezan. Ta aien oiua gero ta in-dar geiago artuz zioazen.

Pilatok auteman (nabaitu) zuen, ezer irabazten etzuela ta zalaparta gero ta aundiago zala. Oregatik ura ekañiarazi ta gizaldearen aúean bere eskuak iku-zi (garbitu) zituen, esanez: «Ni oben-gabea naiz zuzentsu oñen odolean. Or-txe ikusi zuek.»

Orduan gizalde guziak oiu egin zuen:

«Oren odola betor gure gain eta gure umeen gain.»

Pilatok, eñiari atsegin egin naiez, aien eskariari amor-ematea erabaki zuen. Lokabe utzi zuen beraz berek eskatzen zutena, eriotza ta matxinada egin zuelako baitegian zegoen Barabba; Yesus beñiz artu ta azoñiz (azotez) yoarazi zuen.

191—Yesus arantzez buruntzatua.

(Mt. XXVII, 27-30; Mc. XV, 15-20; Io. XIX, 2-3)

Orduan yaurlearen gudamutilak, Yesus azoñiz yo ondoan, eramán zuten auzitegiko barlara, ta gudamutil-sail osoa bildu zuten aren ingurura. Bere soñekoak erantzi ta purpurazko soingañoeko bat yantzi zioten. Gero arantzez buruntza (koroa) bat txortatu ta buru gañean yañi zioten, ta kañabe-
ra bat bere esku eskuian.

Ondoren yoaten ziran arengana, aurrean belaunkaturik gurtzen zitzaizkion



ta iseka egiten zioten. Agur egiten zioten esanez: «Agur, Yuduen érege ori.» Ta listu egiten zioten ta kañabera arturik buruan yotzen zuten ta masalekoak ematen zizkioten.

192—Jesus ériari erakusten—Iltzeko epaia ematen

(Io. XIX, 4-16)

Pilato atera zan beñiz kanpora ta esan zien: «Ona emen, kanpora dakartzuet gizon ori, ofengan obenik arkitzen eztudala yakin dezazuen.»

Atera zan bada Jesus, arantzazko buruntza ta purpurazko soñekoa zituela, ta Pilatok esan zien: «Ona emen nolako gizona!»

Apaiznausi ta moñoiak, ura ikusi orduko, kañaxika esan zioten: «Yosi zazu, yosi gurutzean!»

Pilatok esan zien: «Ar zazue zerok eta yosi gurutzean; eztut ofengan obenik arkitzen.»

Yuduak erantzun zioten: «Guk legea badugu, eta lege oñen araura il bear du, bere burua Yainkoaren seme egin du ta.» (1)

Pilato, itz oiek entzunik, are geiago beldurtu zan. Auzitegira sartu zan bada beñiz ere ta esan zion Yesusi: «Non goa zera zu?» Yesusek etzion ezer erantzun.

Pilatok esan zion: «Neri eztidazu itzik ematen? Zu gurutzean yosteko eskubidea badudala, ta zu lokabe uzteko eskubidea badudala ez aldakizu?»

Yesusek erantzun zion: «Etzenuke nere gain eskubiderik bat ere, goitik eman ezpalitzaitzu. Oregatik, ni zure eskuetan yañi nauenak pekatu aundia goa du.»

Orduezkero bazebiñen Pilato, ura lokabe utzi beañez. Yuduak beñiz kañaxiz ari ziran: «Au lokabe uzten badu-

(1) Ortan egia diote Yuduak; Yesusek bein baño geiagotan esan du bera Yainkoaren Semea dala; baña izan ere ala baitzan, egitez ala erakutsi du, ta Yuduak bere gogoz itsurik egon ezpalira, ezagutu zezaketen egiaz Yainkoaren Semea zala.

zu, etzera Kaiser-en adiskide, bere bu-
rua elege egiten duen edozein Kaiser-
en etsai da ta.»

Pilatok, itz oiek aditurik, ekañi zuen
Jesus kanpora ta eseri zan epai-alkian,
grekeraz Lithostrotos ta hebreeraz Gab-
batha deritzan tokian. Pazkoaren aton-
tze-eguna zan, seigañen ordua bezela-
tsu. Ta esan zien Yuduai: «Ona emen
zuen elegea!»

Aiek beñiz oiu egin zuten: «Ken, ken
ortik, yosi zazu gurutzean!»

Apaiznausiak erantzun zioten: «Kai-
sar bai, beste elegeirik eztugu.» Or-
duan bada Pilatok aien eskuetan utzi
zuen Jesus, gurutzean yosteko. (1)


(1) Pilatok geiegi amor-eman die Yuduai, ta az-
kenean oña zertara beartu duten: obenik etzuen ba-
ti iltzeko epaia ematera. Lenbizitik, Jesus obenga-
bea zala ezagutu zuen unetik askatu balu, Yudue-
kin itz-artu-emanetan ibili gabe, etzan olako bide-
gabe ta makurkeri izugafia egiteko bidean yafiko.

193—Kalbariora bidean

(Mt. XXVII, 31-32; Mc. XV, 20-21; Lc. XXIII, 26-32;
Io. XIX, 16-17)

Gudamutilak artu zuten bada Yesus, soingañekoa erantzi ta bere soñekoak yantzi zizkioten, ta atera zuten gurutzean yosteko. Eta gurutzea soñean zuela, atera zan Burezurtegi (hebreeraz Golgotha) deritzan toki aldera. Beste bi gaizkigile bazeramazkiten arekin batean, ilarazteko.

Ateratzean, atzeman zuten aloretik zetoñen eta orduantxe igarotzen zan gizon bat; Simon Kirenetaña zan, Alejandro ta Ruforen aita. Au beartu zuten aren gurutzea yasotzera. Soñean yañi zioten beraz gurutzea, Yesusen ondotik eramán zezan.



194—Yerusaleme-ko emakumeak

(Lc. XXIII, 27-31)

Gizalde aundia ondotik zioakion, ta emakumeak ere bai, artaz negar ta intziri egiten zutela. Yesus itzuli zan aien-gana ta esan zien:

«Yerusalem-eko alabak, ez neregatik negar egin; zuengatik ta zuen umengatik egizue negar. Begira, etoñiko dira egunak, esango dana: Zorionekoak emakume agoñak, auñik izan eztuten sabelak ta esnerik eman eztuten bulañak! Orduan esango diete mendiai: Eror zaitezte gure gañera! ta muñoai: Estali gaitzazue! Izan ere, egur ezean au egiten bada, igañean zer izango da?»



195—Jesus gurutzean yosten

(Mt. XXVII. 33-34, 38; Mc. XV, 22-23, 25; Lc. XXIII, 33-34; Io. XIX, 18)

Iritxi ziran Golgotha (edo euskeraz Burezurtegi) deritzan tokira. An edatera eman zioten ardo, miñaz ta beazunez naasia. Yesusek murtxatu zuen, baña etzuen edan nai izan. (1) Irugañen ordua bezelatsu zan. (2)

Yosi zuten bada gurutzean, ta arekin batean yosi zituzten bi lapur, bata eskui aldean, bestea ezker aldean, ta erdian Jesus. Oñela bete zan arako Idazki ura: «Gaizkigilen leñoan yañi dute.»

Yesusek beñiz esan zuen: «Aita, bar-ka zaiezu, zer ari diran eztakite ta.»

(1) Gurutzean yosi bear ziranai ematen zitzaion edari bizkorgañi bat, miñak zerbait sortu ta arintzeko. Yesusek ordea eztu edari ori edan nai; oñazeak beren gañaztasun guzian yasan nai ditu aringañirik gabe.

(2) *Irugañen ordua* oraingo goizeko bederatziak edo inguru ori.

196—Gurutze gañeko idazkia—Yesusen soñekoak banatzen

(Mt. XXVII, 35-37; Mc. XV, 24-26; Lc. XXIII, 38;
Io. XIX, 19-24)

Pilatok idazki bat ere idatzi zuen, aren obena adiaraziz, ta gurutzean yafiarazi zuen, Yesusen buru gañean. Iru izkuntzetan, grekeraz, hebreeraz ta latinez idatzia zegon idazki ori ta onelazion: «Jesus Nazaretaña, Yuduen efegea.»

Yudu askok irakuñi zuten idazki ori, iritik urbil baitzegon Jesus gurutzean yosi zuten lekua. Yuduen Apaiznausiak esan zioten Pilatori: «Ez idatzi: Yuduen efegea, onela baizik: Onek esan du: Yuduen efegea naiz.»

Pilatok erantzun zien: «Idatzi dudana, bego idatzia.»

Gudamutilak, Jesus gurutzean yosi ondoan, aren soñekoak artu ta banatu zituzten; zotz-egin zuten, nork zer eramango zuen. Lau alde egin zituzten,

gudamutil bakoitzarentzat bat; eta berex yafi zuten soingañekoa. Soingañeko au yosturagabea zan, goitik beeraño dana eundua. Esan zioten bada elkafi: «Eztezagun uratu; zotz-egin dezagun, norentzat izango dan.»

Orela betetzen zan arako Idazki ura (Ps. XXI, 19): «Banatu dituzte nere yantziak, zotz-egin dute nere soñekoaz.»

Ori egin zuten gudamutilak, eta eseririk zaintzen zuten Yesus.

**197—Yesusi iseka egiten—Azken itzak
—Eriotza.**

(Mt. XXVII, 39-56; Mc. XV, 29-41; Lc. XXIII, 35-37, 39-49; Io. XIX, 25-30)

Gizaldea antxe zegokion begira. Aurretik igarotzen ziranak birao egiten zioten; beren buruak erabili ta esaten zioten: «Eup! Yainkoaren yauretxea uratu ta iru egunez beñiz eraikitzen omen duk; ots! gaizka zak eure burua;

Yainkoaren Seme ba-aiz, yetxi adi gurutzetik.»

Apaiznausi ta Lege-irakasle ta Zare-nak iri egiten zioten orobat, elkañi esanez: «Besteak gaizkatu ditu, bere burua ezin gaizka dezake. Baldin Yainkoaren Gantzutua, Autetsia, Israelgo elegea bada, yetxi bedi oraintxe gurutzetik; ori ikusi ta siñetsiko diogu. Yainkoagan yañi du bere ustekaria; Yainkoak askatu dezala bada orain, maite badu. Berak esan baitu: Yainkoaren semea naiz.»

Alaber gudamutilak ere iseka egiten zioten; urbiltzen zitzaizkion ta ozpiña eskaintzen zioten edateko, esanez: «Yuduen elegea ba-aiz, gaizka zak eure burua.»

Berarekin batean gurutzean yosirik zeuden gaizkigile aietako batek ere birao-egiten zion esanez: «Ez al aiz i Kristo, Mesia? Gaizka zak bada eure burua, ta gaizka gaitzak gu ere.» Besteak ordean eñista (mokoka) egin zion onela: «I ere ez al aiz Yainkoaren bel-



dur, zigoñada bera dukalarik? Guk, ala ere, zuzen onez ikusten diagu *zigoñada au*, gure gaizkiegiñen ordaña artu gaitzik eztiagu egiten; onek beñiz ez-tik besterik bat ere yauki (egin).» Gero esan zuen: «Jesus, oroi zaite nitaz, zure yaurgora iristen zeranean.»

Yesusek erantzun zion: «Egiaz, nik esaten dizut: Gaur izango zera nere-kin paradisuan.»

Yesusen gurutze ondoan zeuden zutik bere Ama, Kleofa-ren emaztea, eta Maria Madalena. Yesusek bere Ama ta berak maite zuen ikaslea an zutik zeudela ikusirik, esan zion bere Ama-ri: «Andrea, oña or zure semea.» Gero esan zion ikasleari: «Oña or zure ama.» Eta orduezkero ikasleak artu zuen ura bere baitara.

Seigañen orduan eguzkia itzali zan ta ilunbeak zabaldu ziran lur guzian be-deratzigañen ordua arte. Eta bederatzi-gañen orduan oiu egin zuen Yesusek: «Eli, Eli, lama sabakthani? esan-nai-da: Ene Yainkoa, ene Yainkoa, zergatik

utzi nauzu?» (1) An zeudenetako batzuek, ori entzunik, esan zuten: «Ora, Eliari ots-egiten dio onek.»

Yesusek bazekien, guzia amaitua zaila, ta Idazkia bete zedin, esan zuen: «Egafi naiz.» Bazan bertan ontzi bat, ozpiñez beterik. Lagun aietako bat bereala yoan zan lasterka, belogi bat artu ta ozpiñez ase zuen, ta isopo-aga batean yafirik, edatera eman zion. Besteak beñiz esaten zioten: «Utzak, ikusagun, ea Elia etortzen zaion askatzerara.»

Yesusek ozpiña artu ta esan zuen: «Amaitu da.»

Gero beñiz oiu aundi bat egiñez esan zuen Yesusek: «Aita, zure eskuetan uzten dut nere atsa.» Eta itz oiek esandakoan, burua kurtu ta azken-atsa eman zuen.

Eta ara! yauretxeko ustal-zapia erdibitu zan goitik beeraño, luña ikaratu, ariak zartatu ta il-obiak zabaldu ziran,

(1) *Seigaren ordua* oraingo eguerdia da, ta *bederatzigaren ordua* afatsaldeko iruak.

eta lo (ilik) zeuden sandu askoren gorputzak beñiz-piztu ziran; eta geroago, Yesusen beñizpizte ondoan il-obietatik atera ta iri sandura etoñi ziran ta lagun askori agertu zitzaizkien.

Aurkaz-aurka zegoen eunburuak, agitu zana ikusirik eta ola oiu egiñez atsa eman zuela aditurik, Yainkoa go-raipatu zuen esanez: «Egiaz, Yainkoaren semea zan gizon ori.» Eta arekin batean Jesus zaintzen zutenak, lurikara ta gertakari guzi aiek ikusirik, beldurtu ziran gogorki ta esaten zuten: «Bai ziñez, Yainkoaren semea zan.»

Eta bereolaxe, ikuskari oñi begira zegon gizalde guzia, gertakari oiek ikusi-ta beren bulafak yoaz itzultzen ziran etxera.

Aren ezagun guziak urutian zeuden; alaber emakume asko, Galilea-tik ari mirabe-antzo yafai ki zitzaizkionak, begira zegozkion; aien artean ziran Maria Madalena, ta Yakobo txikiaren ta Yoserren ama Maria, ta Zebedeoren semeen ama Salome. Jesus Galilean ze-



bilelarik, aren ondotik ibiltzen ziran ta mirabe-egiten zioten; eta arekin batean Yerusalem-era igo izan ziran beste asko ere bai *an zeuden*.

198—Yesusi saietsa zulatzen.

(*Io. XIX, 31-37.*)

Egun ura atontze-eguna zan. (1) Gorputz-ila larunbatez gurutzean gelditu etzitezzen (yai-egun aundia baitzen larunbat ura), Yuduak Pilatori eskatu zioten, aien azpiak (ankak) zanpatu ta gurutzetik ken-arazi zitza.

Yoan ziran beraz gudamutilak, eta gurutzean zeuden aietako batari ta besteari azpiak zanpatu zizkioten. Baña Yesusengana ziranean, orduko ilik zegoa ikusi zuten; argatik etzizkioten azpiak zanpatu, baña gudamutil batek

(1) *Atontze-eguna* deitzen zuten Yuduak ostirala. Larunbata yaia zan aientzat eta egun onetan etziteken lanik bat ere egin. Oregatik bezperatik *atontzen* edo prestatzen zituzten yaierako bear zituzten guziak; ortik bada *atontze-egun* izena.

saietsa zulatu zion bere sistagaz (lantzaz) eta bereala atera ziran odola ta ura.

Ori ikusi duenak aitortzen du, ta egiazkoa da oren aitoñera. Arek badaki egia diola, zuek ere siñetsi dezazuen. Eta ori agitu zan arako Idazki ura bete zedin: «Eztiozue ezurik autsiko.» Ta beste leku batean ere badio Idazkiak: «Berak zulatu dutenari begira dagozkio.»

199—Yesusen gorputza ortzitzen (obiratzen.)

(*Mt. XXVII, 57-61; Mc. XV, 42-47; Lc. XXIII, 50-56; Io. XIX, 38-42.*)

Ilunabañean etoñi zan Yose izeneko gizon aberats, Yudea-ko Arimatea-iriko bat. Batzañe-laguna zan, gizon on ta zuzena: Yainkoaren yaurgoa igurikitzen (itxoiten) zuen arek ere; Yesusen ikaslea zan, baña ixilkian, Yuduen belduñez. Onek etzitzen onetsi beste Yu-

duen erabakia ta egiñak. Orain bada ausartsu agertu zan Pilatoren auñera ta Yesusen gorputza eskatu zion.

Pilato añitu zan, Yesus oñen laster il zalako. (1) Etoñiarazi zuen bada eunburua ta galdegin zion, ea ilik zegoen. Eunburuaren beñia aditu ta, eman zion gorputza Yoseri. Onek erosi zuen maindire bat, yoan zan ta artu zuen Yesusen gorputza.

Arekin etoñi zan Nikodemo ere, lenago gauez Yesusengana ycan izan zan ura; onek bazekañen miña ta alozko naaski bat, eun libra bezelatsu. Artu zuten beraz Yesusen gorputza ta atxongaiekin (usai oneko urekin) batean bildu zuten maindire garbian; oñela ortzi oi dituzte yuduak *beren ilak*.

Yesus gurutzean yosi zuten lekua-
ren ondoan bazan baratze bat, eta baratzean il-obi bat, Yose-k berak añian

(1) Gurutzean yosiak askotan egun osoak irauten zuten bizirik oñaze izugañietan. Baña Yesus gurutzean yosi zuteneko oso auldua ta makaldua zegoen ta iru ordu besterik etzuen iraun. Oñegatik añitzen da Pilato.

ebakitako il-obia; iñor etzan oraño artan ortzi izan.

Beraz atontze-eguna zalako eta obia urbil zegoalako, antxe bere il-obi beñi artan ezañi zuen Yose-k Yesusen gorputza. Gero añi aundi bat irauli zuen il-obi atera ta yoan zan. Larunbata asten zan.

Galilea-tik arekin etoñitako emakumeak aratu ziran, ta begietsi zuten il-obia ta gorputzaren ortzitzea. An ziran Maria Madalena ta beste Maria, Yose-ren ama; il-obiaren aurkez eseririk begira zeuden, non ortzitzen zuten. Gero biurtu ziran ta atondu zituzten atxongaiak (usai oneko ur ta belarñak) ta gantzukariak.

200—Yuduak Yesusen il-obia zaintzen.

(Mt. XXVII, 62-66.)

Biaramonetan, atontze-egunaren ondoan, Apaiznausi ta Farisauak bildu ziran Pilatogana ta esan zioten: Yauna,

oroitu gera, atzipezale arek oraño bizi zanean auxe esan zuela: Irugañen egunean beñiz piztuko naiz. Zainduarazi zazu bada il-obia irugañen egunera arte; bestela bere ikasleak yoan litezke, ta gorputza ebatsi (ostu) ta esan lezaio-kete eñiari: Piztu da ilen artetik. Orduan atzipe au lengoa baño gaiztoagoa litzake.»

Pilatok erantzun zien: «Badituzue zaintzaleak; zoazte, zain zazue, daki-zuen bezela.»

Yoan ziran beraz, aña zigilatu zuten ta zaintzaleak il-obi añaan yañi zituzten.

201—Emakumeak atxongaiak atontzen

(*Mc. XV, 1; Lc. XXIII, 56*)

Larunbatean geldirik egon ziran emakumeak, agindurik dagoenez. Larunbata igaro zanean, Maria Madalenak ta Yakoboren ama Mariak eta Salomek

atxongaiak erosi zituzten, Yesusen gorputza gantzutzero yoateko. (1)



(1) Ostiral-aratsaldean emakumeak etzuten astirik izan Yesusen gorputza nai zuketene bezin ongi gantzutzero, yaieguna gañean zuten ta. Baña yaiegun au igaro ezkeru, beñiz yoan nai zuten, Yesusen gorputza obeki gantzutzero ta atxongaiez inguratzera.

LAUGAÑEN ZATIA

YESU-KRISTOREN BERIZ-PIZTE TA

ZERURATZEA

202—Yesus beriz-pizten da.

(Mt. XXVIII, 2-4; Mc. XVI, 9)

Astearen lenengo egun goizean piztu zan Yesus. Eta ara! lur-ikara gaitza egin zan. Yainkoaren Aingeru bat yetxi baitzan zerutik, eta urbildu zan, aña irauli zuen ta aren gañean eseri zan. Aren arpegiak tximista zirudien ta aren yantziak elufa.

Aren beldufez ikaratu ziran zaintzaleak eta ilak iduri gelditu ziran.

203—Emakumeak il-obira bidean.

(Mt. XXVIII, 1, 5-8; Mc. XVI, 1-8; Lc. XXIV, 1-9; Io. XX, 1-2)

Larunbat biaramonean, astearen lenengo eguna urátzean, goizean goiz, oraño ilun zegoela, Maria Madalena ta Yakoboren ama Maria ta Salome, atondutako atxongaiak artu ta yoan ziran il-obia begiztatzera.

Elkari esaten zioten: «Nork irauliko digu aña il-obi atetik?»

Eguzkia atera ondoan iritxi ziran il-obira. Begiratu zuten, eta aña il-obitik iraulia zegoela oartu ziran, guziz aundia zan ta. Sartu ziran il-obira eta e-zzuten arkitu Yesus Yaunaren gorputza.

Orduan Maria Madalena lasterka yoan zan Pedrogana ta Yesusek maitezuen beste ikaslekgana.

Emakumeak ortaz laboñiak arturik zeudela, bi gizon (*bi Aingeru*) agertu zitzaizkien yantzi ditzitsuan. Aiek laz- turik, luñera begira zeudela, Aingeruak esan zien:

«Ez beldur izan; Yesus Nazaretaña, gurutzean yosi izan zana bilatzen duzuela badakit. Zergatik bilatzen duzue ilen artean bizirik dagona? Ezta emen, beñiz piztu da; atozte, ikusazue Yauna yañi zuten tokia. Gogora zazue nola esan zizuen oraño Galilean zalarik: Gizasemea yañiko dute pekatari- en eskuetan ta gurutzean yosiko dute,



baña irugañen egunean beñiz piztuko da. Zoazte bada bereala, aren ikasleai ta Pedrori esaiezue piztu dala ta Galilea aldera auñeratuko zaitzuela. An ikusiko duzue, berak esan zizuenez. Ona! auñetik esan dizuet.»

Orduan oroitu ziran itz aietaz; bereala il-obitik atera ta igesi yoan ziran lasterka, beldur ta poz aundirekin aren ikasleai beñi-ematera.

204—Pedro ta Yoan il-obira lasterka

(Lc. XXIV, 12; Io. XX, 2-10)

Maria Madalena yoan zan Pedroguna ta Yesusek maite zuen beste ikasleagana ta esan zien: «Eraman dute Yauna il-obitik, eta ezta kigu non yañi duten.»

Bereala abiatu ziran Pedro ta beste ikasle ura ta il-obi aldera yo zuten. Biak lasterka zioazen, baña beste ikasle arek, Pedrok baño ariñago laster egin zuen, ta auñena iritxi zan il-obira. Au-

ferontz kurtu zan ta ikusi zituen miiseak luñean yañiak; etzan ordea sartu. Gero iritxi zan Pedro aren ondotik, sartu zan il-obira, ta ikusi zituen miiseak luñean yañiak, baita aren buru gañean egon zan izerkaria ere; au etzegon beste miisekin, alde batean bildurik baizik. (1)

Orduan, auñena il-obira iritxi izan zan beste ikasle ura ere sartu zan; ikusi zuen ta siñetsi zuen. Ezpaitzuten oraño erdetsi (ulertu) izan, ura ilen arte-tik piztu beaña zala dion Idazkia.

Gero etxera biurtu ziran ikasleak. Pedro agituaz añiturik zioan.

205—Kristo Maria Madalenari agertzen

(Mc. XVI, 9-11; Io XX, 11-18)

Maria ilobi ondoan negañez ari zan. Ola negañez ari zala, kurtu zan ta il-

(1) Yesusen il-oialak oñen txukun bildu ta yañiak zeuden ezkerro, nabari zan Yesusen gorputza etzute-la etsaiak eraman, Madalenak uste zuenez; ezperen, naspilaturik utziko zituzten oial guziak.

obira begiratu zuen. Ikusi zituen bi Aingeru zuriz yantziak; Yesusen gorputza egon zan tokian eseriak zeuden, bata buru aldean ta bestea oin aldean.

Aiek esan zioten: «Emakumea, zergatik ari zera negaitez?»

Erantzun zien: «Nere Yauna eramandu ta eztaikit non yañi duten.»

Ori esandakoan, atzera itzuli zan ta Yesus zutik antxe ikusi zuen; etzekien ordea Yesus zanik.

Yesusek galdegín zion: «Emakumea, zergatik zaude negaitez? noren bila zabiltza?»

Gizon ura ango baratzezaia zalako ustean, Mariak erantzun zion: «Yauna, zuk emendik kendu baduzu, esaidazu non yañi duzun, ta nik eramango dut.»

Yesusek esan zion: «Maria!»—Au itzuli zan ta esan zion hebreeraz: «Rabboni!» esan-nai-da: «Maisua!»

Yesusek esan zion: «Ez ni ukitu, oraño ezpainaiz igo nere Aitagana. (1)

(1) Itz oiekin esan nai dio Yesusek: «Zuk nai zenuke ni beti zurekin egotea, oregatik eusten dida-



Zoaz ordea nere anaiengana ta esaiezu: Ni banoa gora nere Aita ta zuen Aitagana, nere Yainko ta zuen Yainkoagana.»

Ofela, astearen lenengo egunean pizturik, agertu zitzaion leenik Maria Madalenari; zazpi deabru erauzi izan zituena arengandik. Au yōan zan, ta aren ikasle, atsekabe ta negafetan zeudenai befi-eman zien esanez: «Yauna ikusi dut eta au esan dit.»

Aiek ordea, Yesus bizi zala ta Mariari agertu zitzaiola entzunik, etzuten siñetsi.

206—Yesus beste emakumeai agertzen

(Mt. XXVIII, 8-10; Lc. XXIV, 9-11)

Emakumeak il-obitik atera ta bazioazen lasterka, ikasleai befi-ematera. Baña ara! Yesus bidera atera zitzaien ta esan zien: «Agur!»

zu, atxikitzen nauzu; baña ez, ori ezin diteke, zerura yoan arte. Bein ara ezkerro bai, beti zurekin idukiko nauzu; ez eutsi bada neri orain, utzi nazazu.»

Aiek urbildu ta aren oñai eutsi ta gur-egin zioten. Orduan Yesusek esan zien: «Ez beldur izan; zoazte, esaie-zue nere anaiei Galilea-ra yoateko, an ikusiko nautela.»

Itzuli ziran beraz il-obitik eta guzi ori yakinarazi zieten amaikai ta gañerako guziaz. Guzi ori Apostoluai esan zieten emakumeak auetxek ziran: Maria Madalena ta Yoana ta Yakoboren ama Maria ta beste zenbait. Apostoluak orde eukeritzat artu zituzten aien itzak eta etzieten siñetsi.

207—Il-obi-zaintzalen gezurá

(Mt. XXVIII, 11-15)

Emakumeak aldegin ondoan, zaintzaletako batzuek irira yoan ziran ta agitu zan guzia iragañi zieten Apaiz-nausiaz. Auek bilkura egin ta Zarénekin yarduki ondoan, diru ugari eman zieten gudamutilai ta esan zieten: «Esazue: Aren ikasleak gauez etofí ta eba-

tsi (ostu) dute, gu lo geundela.» Yaurleak ori ikasi badeza, guk zurituko dugu ta zuek kez-kagabe egon-araziko zaituztegu.» (1)

Aiek artu zuten dirua ta erakutsi zitzaiena egin zuten. Geroztik gaurko egunera arte banatu da omen ori Yuduen artean.

(1) Oña zer gezuña asmatzen duten Yuduak, Yesusen beriz-piztea gezurtatzeko; kanorerik, itxurarik eztuen gezuña: Apostoluak ebatsi (ostu) zutela Yesusen gorputza. Baña noiz ta nola ostu zuten? Bietatik bat: Zaintzaleak lo zeuden edo esnarik zeuden; lo bazeuden, nola zekiten, gorputz-ila Apostoluak eraman zutela? Gañera nola etziran itzari (esnatu), aña kentzeko ta gorputza eramateko egin bearko zan otsarekin? Esnarik bazeuden beriz, nola utzi zuten gorputza eramatera, gogor egin gabe, buruka egin gabe beren eginbidea zan bezela?—Bestealde, Apostoluak zertako ebatsiko zuten Yesusen gorputza? Yesus beriz-piztuko zala uste bazuten, alpeñik zan gorputza aldatzea, edozein lekutan berdin piztuko zan ta; uste ezpazuten beriz, zertarako zuten gorputz-il ura? Oregatik bada alde guzietatik begiratu ezkerro, ezta kanorerik Yuduen gezur oñek.

**208—Jesus Emmaus-ko bi ikasleai
agertzen**

(Mc. XVI, 12-13; Lc. XXIV, 13-35)

Geroago bi ikasleai agertu zitzaien beste itxura batean, bidez bazter-etxera zioazela. *Ona nola agitu zan ori.*

Egun bereartan bazioazen ikasletako bi Emmaus deritzan ta Yerusalemetik irurogei-ta-amar eztatuko (11 kilometro) bidean dagon efixkara. Agitu zan guziaz itzegiten ari ziran elkarékin.

Oñela elkarékin erasi ta yardukitzen zuten bitartean, urbildu zitzaien Jesus ta aiekin zioan. Aien begiak ordea liluraturik zeuden, ura ezagutu etzezaten.

Galdegin zien: «Zer izketa darabilzue elkarékin bide egiñaz batera?» Aiek atsekabeturik tenk-egin zuten. Bietako batek, Kleopa zeritzanak erantzun zion: «Zu bakañik al zera arotz Yerusalem-en, ezpaitakizu egun auetan an agitu danaren beñi?»

«Zer bada?» galdegin zien berak.

«Nazaret-eko Yesusekikoa» erantzun zioten. «Profeta bat zan ori, itzez ta egitez altsua Yainkoaren ta eñi guziaren aúfean. Gure Apaiz-nausi ta aitzindariak iltzeko epaia eman-arazi zioten ta gurutzean yosi zuten. Guk ordea us-te genuen, bera zala Israel beñerosi bear zuena; baña gaur da guzi ori agitu ezkeroko irugañen eguna. Gañera gure arteko emakume batzuek ere ikaratu gaituzte; goizean, argitu gabe il-obira yoan dira ta eztute gorputza arkitu; etoñi zaizkigu esaten, Aingeruak agertu zaizkiela ta Jesus bizi dala esan dietela. Gure arteko batzuek yoan dira il-obira, ta emakumeak esan bezela arkitu dute; bera ordea etzuten arkitu.»

Orduan arek esan zien: «Oi zentzumotzak, bai motel dirala zuen biotzak, Profetak esandako guzia siñesteko! Kristok ez al zituen neke oiek ikusi bear ta oñela bere ospera sartu?» Eta Moise ta Profeta guzietatik asi ta, adiarazi zien Idazki guzietan artaz idatzirik dagona.



Oñela urbildu ziran zioazen erixkara. Berak añera yoateko itxura egin zuen. Baña aiek beartu zuten esanez: «Geldi zaite gurekin; añastuz dioa ta eguna apaldua da.» Sartu zan beraz aiekin gelditzeko.

Gero aiekin batean maiera eseria zegoela, ogia artu zuen, bedeinkatu, autsi ta eman zien. (1) Orduantxe zabaldu ziran aien begiak eta ezagutu zuten; ura ordean itzali zan aien begien aurretik.

Eta esan zioten elkañi: «Ez al zegon sutan gure biotza, bidean gurekin itze gin ta Idazkiak xeatzen zizkigunean?»

Ordu bereartan yaiki ta Yerusalem-era itzuli ziran. An arkitu zituzten amaiak ta beren lagunak; auek esan zieten: «Yauna piztu da egiaz ta Simon-i agertu zaio.»

Orduan yakinarazi zuten aiek bidean

(1) Batzuek uste dute, Yesusek ogi-bedeinkatze arekin ogi ura bere aragi egin ta yatera eman ziela, Komunioan bezela; beste batzuek beriz uste dute, beste edozein oturuntza bezelakoa izan zala afari ura.

agitu zitzaiena, ta nola ezagutu zuten
ogi-austean. Baña aiei ere etzieten si-
ñetsi.

209—**Yesus Apostoluai ta ikasleai agertzen.**

(*Mc. XVI, 14; Lc. XXIV, 36-43; Io. XX, 19-23;*)

Izketa oietan ari ziran astearen le-
nengo egun artan ta berandu zan. Ika-
leak bildurik zeuden ta ateak itxirik
zeuzkaten Yuduen belduñez.

Beingoan etoñi zan Yesus, aien er-
dian agertu ta esan zien: «Pakea dela
zuekin! Ni nauzue, ez beldur izan!»
Aiek ordea izutu ta lazturik, mamu bat
zekustela uste zuten.

Berak esan zien: «Zergatik zaudete
izuturik, zergatik sortzen dira olako
gogoetak zuen biotzetan? Ikusi nere
esku-oñak! Ni nerau naiz! Azta naza-
zue ta ikusi! Mamu batek eztu aragi-
rik ez ezurik, nik ditudala dakuszue-
nez.» Ori esan ondoan erakutsi zizki-

en bere esku-oin-saietsak. Eríxta egin zien beren siñeskaitzaz ta biotz-gogortasunaz, ura beríz-pizturik ikusi zutenai siñetsi etzietelako.

Aiek, poz eta arimenaren aundiz, ezin siñetsi zezaketen oraindik ere.

Arái ere puska bat eta ezti-oráze bat eskañi zizkioten. Yan zuen aien aurrean, gero ondarak artu ta eman zizkien. Ikasleak poztu ziran bada Yauna ikusirik.

Yesus mintzatu zitzaien beríz ere: «Pakea dela zuekin! Aitak ni bidali nauen bezela bidaltzen zaituztet nik zuek.»

Itz oiek esan ondoan, fu-eman zien ta esan zien: «Ar zazue Ats Sandua! Zuek pekatuak barkatzen dizkiezuenai barkatuko zaizkie, ta zuek atxikitzen dizkizuenai atxikiko zaizkie.» (1)

(1) Itz oiekin ematen die gure Yaunak bere Aposluai eta oien ondorengo apaiz guziaz pekatuak barkatzeko edo ez barkatzeko eskubidea. Baña apaizak yakin bear du zein pekatu barkatu bear diran ta zein ez tiran barkatu bear, ezagutu bear ditu beraz beregana datozenen pekatuak: ortarako nor berak



Gero Yesus agertu zitzaion Yakobori, gero Apostolu guziaz. (I Cor. XV, 7)

210—Yesus agertzen zaie beriz Apostolui ta Toma-ri...

(Io. XX, 24-29)

Amabietako bat, beste izenez Didi-mo (Bikia) deritzan Toma etzan aiekin, Yesus etoñi zitzaienean. Beste ikasleak esan zioten: «Yauna ikusi dugu.»

Arek ordea erantzun zien: «Baldin aren eskuetan iltzeen kuntzea ikusi ezpadezat, eta nere beatza iltze-zuloan sartu ezpadezat, eta nere eskua aren saietsean sartu ezpadezat, eztut siñetsiko.»

Zortzi egunen buruan, ikasleak baturik zeuden beriz etxean eta Toma aiekin zan. Yesus etoñi zan, ateak itxirik zeudela, erdian agertu ta esan zien: «Pakea dala zuekin!»

aitortu bear bere gaizkiegiñak. Ortik ageri da bada Aitortzaren beafa.



Gero Tomari esan zion: «Sar zazu emen zure beatza ta ikusi nere eskuak; ekartzu esku ori ta sartu nere saietsera, ta ez izan siñesgogor, siñespera baizik.»

Tomak erantzun zion: «Ene Yainkoa ta ene Yauna!»

Yesusek beriz esan zion: «Ikusi nauzulako siñesten duzu, Toma? Zorionekoak ikusigabe siñesten dutenak!»

211—Tiberiade itsasoan agertzen da Jesus

(Io. XXI, 1-14)

Geroago Jesus agertu zitzaien beriz ikasleai Tiberiade itsaso ondoan; ona emen nola agertu zitzaien.

Elkarfeekin zeuden Simon Pedro, Toma izengoitiz Bikia deritzana, Galileako Kana eriko Natanael, Zebedeoren semeak eta bere ikasletako beste bi. Simon Pedrok esan zien: «Banoa aňan-

tzara.» (1) Besteak esan zioten: «Bagoaz gu ere zurekin.» Atera ziran beraz eta ontzian sartu ziran; gau artan etzuten ordea ezer atzeman.

Biaramon goizean, Yesus agertu zan txutik itsas-bazterean; ikasleak etzuten ala ere ezagutu Yesus zanik. Esan zien bada Yesusek: «Añak, yatekorik ezer ba al duzue?» — «Ez» erantzun zioten. — Esan zien: «Egotzazue zuen sarea ontziaren eskui aldean, eta arkituko duzue zerbait.»

Egotzi zuten beraz sarea, ta gero ezin yaso zezaketen, alako añainketa bildu zuten ta.

Orduan, Yesusek maite zuen ikasle arek Pedrori esan zion: «Yauna da ori.»

Simon Pedrok, ura Yauna zala entzun bezin laster, artu zuen soingañekoa (yantzigabe zegon ta) eta itsasora yauzi zan. Beste ikasleak yañaiki zitzaizkion ontzian eta ontzia añaiekin

(1) Pazko-aste osoa Yerusalem-en egin ondoren, Apostoluak biurtu ziran beren erialdera, Galilea-ra, eta añantzatik ateratzen zuten beren bizimaña, lenago egiten zuten bezela.

ekari zuten naiaz, ezpaitzeuden urun legoietik, bereunen bat besabe baka-rik zeuden.

Legoiera ziranean, ikatz-su bat ikusi zuten ta aren gañean arai bat eta ondoan ogia. Yesusek esan zien: «Ekarri oraintxe atxitu dituzuen arai oietatik.»

Simon Pedro igo zan ontzira ta ekari zuen sarea, eun ta berogei ta amairu arai aundiz betea; eta orenbeste ziralarik, etzan uratu sarea.

Yesusek esan zien: «Atozte, yan zazue.» Ikasletako bat ere etzan ausartzen, ari «nor zera» galdegitera; Yau-na zala bazekiten ta.

Artu zuen bereala Yesusek ogia ta eman zien; arai orobat.

Irugarren aldia zan au, Jesus ilen artetik piztu ondoren bere ikasleai agertzen zitzaiela.

212—Pedro Kristau guzien artzai egiña

(Io. XXI, 15-24)

Yan ondoren, Yesusek galdegin zion Simon Pedrori: (1) «Simon, Yoan en semea, besteok baño maiteago al nauzu?» Arek erantzun zion: «Bai, Yauna, badakizu maite zaitudala.» Yesusek diotsa: «Bazka itzazu nere axuriak.»

Beñiz ere galdegin zion: «Simon, Yoan-en semea, maite al nauzu?»— «Bai, Yauna, zuk badakizu maite zaitudala» erantzun zion. Ta Yesusek diotsa: «Zaindu itzazu nere bildotsak!»

Irugañen aldiz galdegin zion: «Simon, Yoan-en semea, maite al nauzu?» Pedro gogo-ilundu zan, irugañen aldiz «maite al nauzu» galdegin ziolako ta erantzun zion: «Yauna, zuk guzia ba-

(1) Iru aldiz ukatu zuen Pedrok bere Yauna; iru ukatze aien ordañetan beste ainbeste aldiz aitortzen du orain Jesus maite duela. Maitasun-aitoñera oñen ordez Yesusek kristau guzien artzai egiten du, artalde guzia (axuri-bildots-ardiak) bere kontura uzten du, bere Eliza osoaren Buru ta Aitzindari yartzen du.

dakizu, zuk badakizu nik maite zaitudala.» Yesusek diotsa: «Bazka itzazu nere ardiak!»

«Egiaz, egiaz, nik esaten dizut; gazte zīñanean, zeroŕek lotzen zenuen zere geŕia ta yoaten zīñan nai zenuen tokira. Zartu ondoan ordea, beste batek lotuko dizu geŕia ta nai eztuzun tokira eramango zaitu.»

Itzoietaz adiarazizuen, zer eriotzementaz ospatu bear zuen arek Yainkoa. (1) Gero esan zion: «Atoz nerekin.»

Pedro itzuli zan, ta ikusi zuen ondotik zetorkiola Yesusek maite zuen ikasle ura, afarian aren bular gañean burua etzan ta galde au egin ziona: «Yauna, zein da zu salduko zaituena?» Pedrok bada ori ikusirik, esan zion Yesusi: «Yauna, ta onetaz zer izango da?» (2)

(1) Itz oietaz esan nai zion Pedrori, bera ere noizpait gurutzean yosirik ilko zala, bere Yauna bezela.

(2) *Zer izango da onetaz?* esan nai du: au ere ni bezelako eriotzaz ilko al da? edo zer agituko zaio oni?

Yesusek erantzun zion: «Ni atzera etoñi arte ori egotea nai dut; zuri zer zaitzu? Zu atoz nere ondotik.»

Oregatik zabaldu zan anaien artean ikasle ura ilko etzalako aomena; baña Yesusek etzion esan etzala ilko, auxe baizik: «Ni atzera etoñi arte ori egotea nai badut, zuri zer zaitzu?»

Orixe da gauza auek aitortu ta idatzi dituen ikaslea. Guk badakigu oñen aitoñera egia dala.

213—Ikasle askori agertzen—Apostoluai Galilea-n

(*I Cor. XV, 6; Mt. XXVIII, 16-20*)

Gero agertu zitzaien bosteun ta aibat anaiei batean; oietako asko bizi dira oraño, beste batzuek beñiz lokartuak (ilak) dira.

Amaika ikasleak yoan ziran Galileara, Yesusek izendatu zien mendira. Ura ikusirik, agur-egin zioten, batzuek ordea ezbaian gelditu ziran.

Jesus urbildu zitzaien ta esan zien: «Eskubide osoa eman zait neri zeruan eta lúrean. Zoazte beraz, eta efi guziai irakatsi zaiezue. Bataia itzazue Aitaren eta Semearen eta Ats Sanduaren ize-
nean, ta nik agindu dizuedan guzia begiratzan (gordetzen) irakatsi zaiezue. Ona emen, ni zuekin egongo naiz egu-
nero munduaren amaieraño.»

214—Yesusen azken itzaldiak

(*Mc. XVI, 15-18; Lc. XXIV, 44-49*)

Esan zien oraindik: «Zoazte mundu guzian barna, predika zaiezue Beñi-ona izaki guziai. Siñetsi ta bere burua baitaiarazten duena gaizkatuko da; siñesten eztuena beñiz galduko da. Siñesten dutenai ezaupide (mirari) auek yañai-ko zaizkie: Nere izenean deabruak erauziko dituzte, izkuntza beñiz mintzatuko dira, sugeak *eskuetan* yasoko dituzte, ta gauza ilgañirik edan badeza-

te, ezkie kalterik egingo. Eriei eskuak gañean yañiko dizkiete ta sendatuko dira. (1)

Auxe nai nizuen adiarazi, arako zuekin nengoen bitartean esaten nizkitzuen itz aietaz: Moise-ren legean ta Profetetan ta Salmoetan nitaz idatzirik dagon guzia bete bear da. «Orduan zentzua argitu zien, Idazkiak erdesteko (ulertzeko), ta esan zien: «Oñela dago idatzia: Kristok nekeak ikusi bear ditu ta irugañen egunean ilen artetik piztu bear du. Aren izenean predikatu bear da damutasuna pekatuen barkamenerako eñiguzietan, Yerusalem-etik asi ta. Zuek gauza guzion yakile zerate. Eta ona, nik bidaliko dizuet Aitaren itzemanan. Zuek ordea zaudete irian, arik-eta goitiko indañaz yantzi zaitezten arte.» (2)

(1) Yesusek agindu zien bezela, mirari añigafi oiek agitu izan dira askotan Elizan, ta orain ere agitzen dira, lenbizian bezin usu ta maiz ezpada ere. Mirari oien bidez erakutsi izan du Yaunak beti, Apostoluak erakutsi duten ta Eñomako Eliza Sanduak daukan fedea egia utsa dala, Yainkoak erakutsia dala, ta argatik guziok ori artu ta iduki bear dugula.

(2) *Goitiko indar ori* Ats Sandua da, Yesusek

215—Jesus zeruratzen da

(Mc. XVI, 19; Lc. XXIV, 50-53)

Jesus Yaunak, aiei oñela itzegin ondoan, atera zituen kanpora, Betaniara; bere eskuak goratu ta bedeinkatu zituen. Eta ara! bedeinkatzen ari zala, aldegin zien ta zerura igo zan, ta an dago Yainkoaren eskui aldean eseririk.

Aiek gur-egin zuten; gero pozez beterik Yerusalem-era itzuli ta beti yau-retxean ari ziran Yainkoa gorai patzen ta ospatzen.

216—Apostoluak nonnai predikatzen

(Mc. XVI, 20)

Geroago yoan ziran ta alde guzietan predikatzen zuten; Yainkoak laguntzen zien ta aien itza sendortzen zuen on-

ainbeste aldiz itzeman zien Aialdeko, Laguntzalea. Gure Yaunaren itz oiei yañario, Apostoluak Yerusalem-en bildurik egon ziran Jesus zeruratu ondoan, Ats Sandua zerutik etoñi zitzaien arte. Jesus zerura igo ta amargañen egunean agitu zan ori.

dotik zefaizkion ezaupidez, mirarien bidez.

217—Azkena

(Io. XX. 30; XXI, 25)

Liburu onetan idatzi eztiran beste ezaupide (mirari) asko ere egin zituen Yesusek bere Apostoluen aurrean; auek idatzi dira, Jesus ori Mesia, Yainkoaren Semea dala siñetsi dezazuen, eta siñetsiz bizia izan dezazuen aren izenean.

Beste gauza asko ere egin zituen Yesusek. Baña guzi oiek bat-banaka idatzi nai balira, nik uste dut mundu guzian ezlirakela kokatuko artarako idatzi bearko liraken liburuak.

Utsen zuzenbidea

Liburutxo au irartzekoan, beronen egilea ezpaitzegon irar-lekuan, uts askotxo agertu dira. Geienak eztira oso aundiak, eta irakurleak berak zuzendu ditzake. Uts lañienak elementxe jañiko ditugu:

<u>Oñaldea</u>	<u>Leñoa</u>	<u>Nola dagon</u>	<u>Nola bear dan:</u>
3	6	Pozgañi da	Pozgañi ta
65	14	entzun dio	entzuten dio
125	18	beltzen	belzten
129	8	egia	ogia
135	15	ikaslea	irakaslea
139	6	txa-	txañak
188	1	aria kar	ari akar
218	3	Moisek,	Moisek eman,
223	7	eskuez-garbie-	esku ez-gar-
		kin)	biekin)
310	1	Damutu dut,	Damu dut,
325	14	yaurki	yauki

<u>Orialdea</u>	<u>Leroa</u>	<u>Nola dagon</u>	<u>Nola bear dan:</u>
324	15	eztulako	eztutelako
356	11 ta 12	artean sartu <i>itz auek:</i>	gauzez dabilena beriz beaztopa- tzen da, argirik eztuelako.»
357	azkenean	oto-	eto-
403	24-25	txi-koak	txi-toak
410	azkenean	bidali	bidaldi
449	1	Iñork	Iñor
450	8	dizuet	dizue
474	5	atezaiari sa- rari)	atezaiari ta sa- rari)
477	14	soñekoa	soñekoak
505	4	gaitzik	besterik
505	5	besterik	gaitzik
517	11	ikaslekgana	ikasleagana.

ARKIBIDEA

Lenbiziko zatia.

	<u>Orialdeak</u>
Saíera	V
1—Itzaúrea	1
2—Yoan Bataiazalearen sortzea	1
3—Kristoren sortzea	5
4—Mariaren ikustamena	8
5—Yoan sanduaren yaiotzea	11
6—Yesu-Kristoren etorkia	15
7—Yose-ren kezka ta zalantzak	18
8—Yesu-Kristoren yaiotzea	20
9—Eguzki-aldeko Magoak	24
10—Garbikundea—Simeon eta Ana	26
11—Egipto-rako yoan-etoñia—Aurtxikien ilkaña	30
12—Jesus Auña galdu ta beñiz arkitua	33

Bigaren zatia.

13—Yoan-ek basa-bazteñean bataiatzen	38
14—Yoan-en itzaldia gizaldeai.	40
15—Yoan-en irakatsiak	41
16—Yoan-en aitoñera Yesu-Kristoz	42

	<u>Orialdeak</u>
17—Kristoren bataioa	43
18—Jesus basa-bazterean—Zirikaldiak	45
19—Kristoren sortze betidanikoa—Yoan-en aitofera	48
20—Lenbiziko ikasleak	53
21—Kana-ko ezteiak—Jesus Kaparnaum-en—Pazkoa	55
22—Kristo ta Nikodemo	61
23—Kristo Yudean—Yoan-en aitofera	64
24—Jesus Samarian	67
25—Jesus Galilean	73
26—Yesusek erege-gizonaren semea sendatzen du	74
27—Jesus Galilean barna ibilki	75
28—Jesus Nazaret-eko sinagogan	77
29—Pedro ta Andrea, Yakobo ta Yoan	81
30—Kaparnaum-en—Deabrudun bat sendatzen	82
31—Simon-en amagiareba sendatzen	83
32—Kristoren arat-onatak	85
33—Mirarizko arantza	86
34—Jesus-ek elbarria sendatzen du	89
35—Mateo edo Levi-ren deitzea	92
36—Yesusen ikasleak zergatik ez barutzen	93

- 37—Yairo—Andre odolyarioa 94
- 38—Yairo-ren alaba 98
- 39—Yesusek bi itsu ta deabrudun
bat sendatzen 100
- 40—Yesusek Yerusalem-en elbari
bat sendatzen du. Ondoko min-
tzaldia. 102
- 41—Ikasleak galburuak yaten 110
- 42—Gizon esku-igara sendatzen du 113
- 43—Yesus itsas-aldean 114
- 44—Amabi Apostoluak. 116
- 45—Mendiko itzaldia (I)—. 117
- 46—Mendiko itzaldia (II)—Lege be-
ria. 119
- 47—Mendiko itzaldia (III)—Etsaiak
maite izateaz 124
- 48—Mendiko itzaldia (IV)—Ez izan
itxuratiak! 127
- 49—Mendiko itzaldia (V)—Ez gero
ñor gaitzetsi!.. . . . 134
- 50—Mendiko itzaldia (VI)—Zenbait
irakaspen 136
- 51—Mendiko itzaldia (VII)—Berdin-
tzak 139
- 52—Yesusek legenduna sendatzen. 142
- 53—Eunburuaren mofoia sendatzen 145
- 54—Andre alargunaren semea be-
riz-pizten 147

- 55—Yoan-en mandatariak 150
- 56—Yesusek Yoan goraipatzen 151
- 57—Iri siñesgogofai akar-egiten—
Aitari eskeñak ematen. 154
- 58—Andre pekataria 157
- 59—Deabrudun itsu ta mutua—Fa-
risauen marmariak. 160
- 60—Ats Sanduaren aurkako biraoa 163
- 61—Yona-ren ezaupidea—Niniveta-
rak—Egoaldeko erégiña 165
- 62—Ats loia atera ta beriz itzultzen 167
- 63—Emakume batek Yesus gora-
paitzen 168
- 64—Yesusen Ama ta aideak aren
biñā 169
- 65—Kristok itsasondoan irakasten
—Ereilearen berdintza 170
- 66—Zer esan nai du berdintza oñek? 171
- 67—Argia zertako piztu?—Nolako
neuria... 174
- 68—Loñoaren berdintza 175
- 69—Aziaren berdintza 177
- 70—Usta-alearen berdintza 179
- 71—Orantzaren berdintza—Zerga-
tik oñenbeste berdintza? 180
- 72—Zer esan nai du loñoaren ber-
dintzak? Beste zenbait berdintza 181
- 73—Itsaso-araindira—Yesusi yafai-

	<u>Orialdeak</u>
ki-naiak	184
74—Yesusek itsasoa baretzen du	187
75—Bi deabrudun sendatzen	188
76—Jesus bere sortean	192
77—Apostoluak predikatzera bidal- tzen	193
78—Apostoluai agindu berriak	197
79—Apostoluak predikatzen—He- rode erregea kezketan.	203
80—Herodek nola il izan zuen Yoan	204
81—Apostoluak itzultzen dira Ye- susengana.	207
82—Kristo basa-lekura—Gizaldea	207
83—Itsasoko ekaitza—Kristo ta Pe- dro ur gañean ibiltzen.	212
84—Genesar-erian-Eriak sendatzen	215
85—Kristok zeruko ogiaz itzegiten	215
86—Eskuak ikuzi gabe yatea.—Fa- risauekin eztabaidan	223
87—Zeresan nai du berdintza oñek?	227
88—Andre kananearen alaba sen- datzen	228
89—Gizon gor-mutua sendatzen	230
90—Zazpi ogi ugaltzen ditu Yesu- sek	231
91—Farisauak ezaupide bat eska- tzen—Farisauen orantza	233
92—Itsu bat Betsaidan sendatzen	236

- 93—Pedro-ren aitormena—Pedro-
ren geientasuna 237
- 94—Kristok bere Nekaldia alde-au-
retik esaten 239
- 95—Yesu-Kristo irudi-aldatzen da. 241
- 96—Elia ta Yoan Bataiazalea 244
- 97—Mutiko ilargi-eria sendatzen 246
- 98—Kristok bere Nekaldia beñiro
aldeauréz esaten 249
- 99—Kristok bi-drakmakoa ordain-
tzen du 250
- 100—Apostoluen aundinaikeria—
Apalnaitasuna. 252
- 101—Gaizpiderik ez eman 254
- 102—Txikiak ez gutxietsi—Anaia
zentzarazi—Barkatu 256
- 103—Yesus Yudea-aldean 259
- 104—Samaritan gaizki artzen dute
Yesus 260
- 105—Irurogei ta amabi ikasle pre-
dikatzera bidaltzen 261
- 106—Yainkoa ta urko-laguna mai-
tatzeaz—Yesus Marta-ren e-
txean. 265
- 107—Otoitz-egiteaz 269
- 108—Begia da gorputzaren argi-
zuzia. 271
- 109—Ai zuei Farisau ta lege-irakas-
leoi! 272

110—Ez izan itxuratiak, ez ondason-goseak—Erne egon . . .	276
111—Damutu ta ondu bear—Andre eri bat sendatzen.	287
112—Zenbat dira zerurakoak?	291
113—Ur-eria sendatzen—Irakatsiak	293
114—Ardi galdua, drakma galdua, seme galdua	298
115—Artadun makura	303
116—Farisau zikoitzai...	306
117—Aberats zikoitza	307
118—Gaiztabiderik ez eman—Barkatzeaz	309
119—Etxola-yaia—Yesusen itzaldia	311
120—Yesus-en itzaldia.—Agintariak arapatu nai dute	315
121—Andre lizunkoia.—Beñiz ere Yuduai itzegiten. — Yuduak Yesus'i arika egin nai	318
122—Yaiotzako itsua sendatzen du Kristok	328
123— Artzai Ona.	334
124—Amar legenardun sendatzen.	337
125—Epailaria ta andre alarguna—Farisaua ta zergaria	341
126—Yesus bere Yainkotasunaz mintzo da	343
127—Ezkontza uratu ote diteke?	346

- 128—Yesusek aurak bedeinkatzen. 348
- 129—Zer egin betiko bizia irabazteko? 349
- 130—Aberatsak nekez zeruratzen. 350
- 131—Gogozko beartsutasuna. 351
- 132—Mastiko langileak. 353
- 133—Lazaroren eriotza ta berripiztea. Yuduen Batzafea—Yesusek aldegiten. 355
- 134—Yesusek bere Nekaldia alde auraz esaten. 362
- 135—Zebedeo'ren emaztea ta semeak. 363
- 136—Yeriko'ra sartzean itsu bat sendatzen. 365
- 137—Zakeo—Amar minaen berdintza. 366
- 138—Yeriko-tik ateratzean itsu bat sendatzen. 370
- 139—Mariak Yesus gantzutzen du. 371
- 140—Ereñotz-abarrik (eramuak.) 374
- 141—Yesus negarez...—Yauretxe-ra sartzen da... 378
- 142—Kristok pikondoa madarikatzen. Saltzaleak aurtikitzen. 379
- 143—Siñesteaz eta otoitz-egiteaz. 381
- 144—Yesusek nondik du bere eskubidea? 382
- 145—Bi semeen berdintza. 384

- 146—Mastiko langile gaiztoen berdintza. 385
- 147—Ezteiliañen berdintza. 388
- 148—Farisau ta Herodetañak Yesus zirikatzen. 390
- 149—Sadukeañak Yesus zirikatzen. 392
- 150—Legeko agindurik aundiena zein da? 395
- 151—Kristo David-en semea nola? 396
- 152—Begira Lege-irakaslengandik! 397
- 153—Ai zuei, Lege-irakasle ta Farisauoi! 400
- 154—Andre alargunaren emaitza. 404
- 155—Yauretzea ondatuko da. 405
- 156—Kristo noiz etorriko beñiz?—Munduaren azkena noiz izango? 406
- 157—Yazañiko zaizkizue... 407
- 158—Asperkunde (mendekio)-egunak 409
- 159—Gezuñezko kristo ta gezuñezko profetak. 411
- 160—Gizasemearen azken etoñera. 411
- 161—Eguna ta ordua noiz? 413
- 162—Noe-ren egunetan bezela... 414
- 163—Erne egon bada. 415
- 164—Beñiz ere erne egon—Berdintzak. 416
- 165—Azken-epaiketa (juizioa). 421
- 166—Yesus ta atzeñitañak—Yesu.

sen mintzaldia.	424
167—Yuduen siñesgogortasuna.	427
168—Yuduak Yesusen aurka elkar- artzen. Yuda-ren egiunea (tra- tua).	429
Irugarren zatia.	
169—Pazko-afaria.	434
170—Apostoluen eztabaida.	436
171—Yesusek Apostoluen oñak i- kuzten.	437
172—Yesusek Yuda-ren azpik- ria agertzen.	441
173—Yesusek Eukaristia sortzen du.	444
174—Elkar maita zazue.	445
175—Pedro-ren erorikoa alde aurre- tik esaten.	446
176—Ona emen bi ezpata...	447
177—Yesusen afalondoko itzal- dia—Afaldegitik ateratzen da.	448
178—Yesusen afalondoko itzal- dia.(II)	453
179—Guziok iges-egingo duzue...	461
180—Yesusen apaiz-otoitza.	462
181—Jesus Getsemani-ko baratzean	466
182—Jesus atxilotzen dute.	470
183—Jesus Ana-ren aurrean—Pe- drok lenengo aldiz ukatzen du.	473

184—	Jesus Batzañe-aundiaren au- rean— Pedrok beriz ukatzen.	476
185—	Yuduak Yesusi ifi ta iseka e- giten.	480
186—	Jesus beriz batzañean	481
187—	Yudaren etsipen ta urkatzea.	482
188—	Jesus Pilatoren aurean.	484
189—	Herodek Yesusi iseka egi- ten dio.	488
190—	Jesus ala Barabba?	489
191—	Jesus arantzez buruntzatua.	492
192—	Jesus erriari erakusten—Itze- ko epaia ematen.	494
193—	Kalbariora bidean.	497
194—	Yerusalem-eko emakumeak	498
195—	Jesus gurutzean yosten.	500
196—	Gurutze gañeko idazkia—Ye- susen soñekoak banatzen	501
197—	Yesusi iseka egiten—Azken itzak—Eriotza	502
198—	Yesusi saietsa zulatzen.	509
199—	Yesusen gorputza ortzi- tzen (obiratzen)	510
200—	Yuduak Yesusen il-obia zain- tzen	512
201—	Emakumeak atxongaiak aton- tzen.	513

Laugarren zatia.

Orialdeak

- | | | |
|-----|--|-----|
| 202 | Jesus beriz-pizten da. | 516 |
| 203 | —Emakumeak il-obira bidean. | 516 |
| 204 | —Pedro ta Yoan il-obira lasterka | 519 |
| 205 | —Kristo Maria Madalenari ager-
tzen. | 520 |
| 206 | —Jesus beste emakumeai ager-
tzen. | 523 |
| 207 | —Il-obi-zaintzalen gezufa. | 524 |
| 208 | —Jesus Emaus-ko bi ikasle-
ai agertzen. | 526 |
| 209 | —Jesus Apostoluai ta ikas-
leai agertzen. | 530 |
| 210 | —Jesus agertzen zaie beriz Apos-
toluai ta Toma-ri... | 533 |
| 211 | —Tiberiade itsasoan ager-
tzen da Jesus. | 535 |
| 212 | —Pedro Kristau guzien artzai
egia . | 538 |
| 213 | —Ikasle askori agertzen—Apos-
toluai Galilean . | 540 |
| 214 | —Jesusen azken itzaldia. | 541 |
| 215 | —Jesus zeruratzen da. | 543 |
| 216 | —Apostoluak nonnai predika-
tzen. | 543 |
| 217 | —Azkena. | 544 |



